

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1378

153/2022 DEKRETUA, abenduaren 13koa, Izki Natura Ondarearen Gune Babestuaren, Parke Naturalaren, Kontserbazio Bereziko Eremuaren eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana onartzen duena eta Izki Parke Naturalaren eta haren babes-eremu periferikoaren mugak aldatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 11.1.a) artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da ingurumenaren eta ekologiaren arloan Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta bere lurraldean betearaztea.

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua xedatzen duenez, EAEko administrazio publikoek zainduko dute natura-ondarea babesteko politikak, besteak beste, printzipio hauen arabera gauzatuko direla:

– Natura-ondarearen kontserbazioa gailentzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren eta kultura-ondarearen gaitetik.

– Natura-ondarearen gune babestuen kontserbazio-egoera mantentzea eta hobetzea.

– Politika publiko sektorialetan, bereziki politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko erabakiak hartzean, natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko betekizunak txertatzea.

– Natura-ondareari eragin diezaioketen esku-hartzeetan zuhertasun-printzipioa aplikatzea.

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 21.1 artikulua xedatzen duenez, natura-baliabideak antolatzeko planak espazio-eremu jakin bateko naturagune babestuak osatzen dituzten elementuak planifikatzeko berariazko tresna dira, eta lurraldearen gainerakoarekin duten harremana mugatu, tipifikatu, sarean integratu eta zehaztuko dute.

Izkiko eremua Arabako Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago, eta Parke Natural izendatu zuten martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren bidez (65/1998 Dekretua, Izkiko eremua Parke Natural izendatzekoa). Era berean, martxoaren 31ko 64/1998 Dekretuaren bidez, Izkiko eremuko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana onartu zen.

Bestalde, Izki Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatu zen martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuaren arabera.

Izki Natura 2000 Sarean sartzeak natura-ondarearen gune babestu hori kontserbatzeko irizpideak eta helburuak aldatzea dakar.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 18. artikulua arabera –une horretan indarrean zegoen araudia–, natura-ondarearen gune babestuen hainbat kategoria toki berean gainjartzen direnean, babesaren koherentzia eta kategoria bakoitzari aplikatu dakizkiokeen araubideen arteko koordinazioa bermatzeko, eremu bakoitza arautzen duten arau espezifikoak eta

plangintza-tresnak dokumentu integratu bakar batean bateratu beharko dira. Era berean, lurralde beraren gainean gainjartzen diren kategorien artean eremu horretarako Natura Baliabideen Antolamendurako Plan espezifikoaren bat dagoenean, plangintza-tresna Natura Baliabideen Antolamendurako Planean txertatu beharko da. Aurreikuspen hori mantendu egiten da gaur egun indarrean dagoen Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 38. artikuluan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Izkiko Natura Baliabideak Antolatzeko Plan berri bat lantzeari ekin zitzaion, eta kontutan hartu zen, halaber, lehen plana indarrean jarri zenetik igarotako denbora.

Izkiko Natura Baliabideak Antolatzeko Plan berria Natura Baliabideak Antolatzeko Planak egiteko eta onartzeko prozeduraren arabera izapidetu da, zeina arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 7. artikuluan. Hala, 2017ko maiatzean, Planaren aurreiazko dokumentuarekin entzunaldi-izapidea egin zen interesdun, inguruko interes sozialen titular, udal, toki-erakunde txiki eta hainbat elkarterekin. Era berean, hasieran onetsitako dokumentua jendarean jarri zen hirurogei egunez.

Halaber, Naturzaintza – Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenak eskatu dira, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak eskatzen dituen gainerako txostenak ere bildu dira.

Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana egiteko, landa-lanetik, Organo Kudeatzailearen urteko memoriatik eta Natura Baliabideak Antolatzeko I Planeko arau-xedapenetatik ateratako datuak erabili dira, bai eta gunea Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatzeko arauditik eta kontserbazio-neurrietatik ateratako datuak ere.

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, lege hau indarrean sartzean hasierako onarpena jaso duten plan eta programek Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginean ezarritako prozedura bete beharko dute (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

Hala eta guztiz ere, Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planak Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 47.2 artikuluan adierazitako helburuak lortzen laguntzen du. Hala, aipatutako helburuak betetzeko, natura-ondarearen gunee babestu batzuetarako diseinatutako egitura eta eduki komunak ezarri dira. Espazio horiek natura-parkea dira, eta Natura 2000 Sarean sartuta daude. Horrela, dokumentuen koherentzia hobetuko da: bereziki, espazioen zonifikazioari, erregulazioen ezarpenari eta Administrazioak esku hartzeko araubideari dagokionez (natura-ondarearen gunee babestuen artean antzekoak eta alderagarriak izango dira) eta plangintzaren eta kudeaketaren arteko oreka hobetzeari dagokionez.

Testu arauemailea Europako zuzentarauetara egokitzearen ondorioz, Natura 2000 Sarearen eskakizun hau gehitu da: jarraipen-sistematik ezartzea eta Europar Batasunaren intereseko espezie eta habitaten kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioak eta txostenak egitea aldizka, Europar Batasunean ezarritako metodologia eta parametro zehatzen arabera.

Azkenik, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 24.4 artikulua ezartzen duenez, autonomia-erkidegoek, natura-ondarearen gune babestuak eta Natura 2000 Sareko guneak kudeatzeko plan edo tresnen eguneratze eta berrikuspenean, eremu horiek klima-aldaketara egokitzeari buruzko atal bat sartuko dute, gutxienez, bereziki kalteberak diren espezie eta habitaten zerrenda, helburuak, ekintzak eta aurrerapen- eta betetze-adierazleak jasotzen dituen diagnostiko batekin, bai eta beste gune babestu batzuekiko konektibitate-plan bat ere. Natura Ondarearen Gune Babestuaren eremuari dagokionez, Parke Naturalaren mugak aldatu dira, Izkiko Kontserbazio Bereziko Eremuarekin eta Hegaztiak Babesteko Eremu Berezia-rekin bat etor daitezten.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan dagoen Izki Natura Ondarearen Gune Babestuaren Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana onartzea, Izkiko Parke Naturalari, Kontserbazio Bereziko Eremuari (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuari (HBBE) dagokiona.

Izki Natura Ondarearen Gune Babestuaren Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana dekretu honen eranskinek osatzen dute: I. eranskina – Kartografia, II. eranskina – Memoria eta III. eranskina – Arau-zatia.

2.– Dekretu honen helburua da Izki eremua babesteko, kontserbatzeko, hobetzeko eta zentzuz erabiltzeko neurriak ezartzea, eremu hori Parke Natural eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) den aldetik.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Izki natura-ondarearen gune babestuak I. eranskinean (kartografia) mugatutako eremu geografikoa hartzen du. 9.482,10 ha-ko azalera hartzen du Izki, eta Arabako Lurralde Historikoko Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezuko udal-mugarteetan dago eremu hori.

3. artikulua.– Izki Parke Naturalaren mugak aldatzea.

Izki Parke Naturalaren mugak aldatzen dira, dekretu honen 2. artikuluan definitutako natura-ondarearen gune babestuaren aplikazio-eremuarekin bat etor daitezten.

4. artikulua.– Natura Ondarearen Gune Babestuaren Babes Eremu Periferikoa.

Natura Ondarearen Gune Babestuaren balioak babesten laguntzeko eta kanpotik etor daitezkeen inpaktu ekologikoak eta paisaia-inpaktuak saihesteko, babes-eremu periferiko bat ezarri da. Dekretu honen I. eranskinean (Kartografia) dago grafiatuta babes-eremu periferikoa.

5. artikulua.– Natura Ondarearen Gune Babestuaren eragin sozioekonomikoko eremua.

Arabako Lurralde Historikoko Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezuko udal-mugarteek osatzen dute Izki natura-ondarearen gune babestuaren eta haren babes eremu periferikoaren eragin sozioekonomikoko eremua.

6. artikulua.– Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planaren edukia.

1.– Dekretu honen I., II. eta III. eranskin gisa argitaratzen dira kartografia, memoria eta arau-zatia, zeinek osatzen baitituzte bai Parke Naturalerako zehaztapenak, bai Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (HBBE) kontserbazio-helburuak eta -neurriak, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Arau-izaera dute I. eranskineko (Kartografia) Natura Ondarearen Gune Babestuaren mugaketen kartografiak, zonakatzek eta babes-eremu periferikoak, bai eta III. eranskineko (Araudia) arau-xedapenek ere.

3.– Izaera informatiboa dute I. eranskineko (Kartografia) EUNIS (European Nature Information System) eta Europar Batasunaren intereseko habitaten kartografiek eta II. eranskinak (Memoria). Memoria horrek Natura Ondarearen Gune Babestuaren egungo egoeraren diagnostikoaren sintesia islatzen du.

Izki natura-ondarearen gune babestuari dagokion fitxa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-ondarea kontserbatzeko eskumena duen sailaren webgunean eguneratuko da.

7. artikulua.– Irismena.

1.– Dekretu honen arau-xedapenak nahitaezkoak eta betearazleak izango dira Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean araututa dauden gaietan. Dekretu honen xedapenek muga bat ezartzen dute lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnetarako, bai eta antolamendu fisikoko edo natura-baliabideetako tresnetarako ere, eta aipatutako tresnen zehaztapenak ezin izango dituzte aldatu dekretu honen xedapen arautzaileak.

2.– Dagoeneko indarrean dauden eta Izki eremuko Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planarekin kontraesanean dauden lurraldearen, hirigintzaren, natura-baliabideen edo baliabide fisikoen antolamenduko tresnek dekretu honen zehaztapenetara egokitzeko izapide egokia hasi beharko dute, Dekretua behin betiko onartzen denetik gehienez urtebeteko epean.

Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, Izki eremuko Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planaren zehaztapenak aplikatuko dira, betiere, aurreko paragrafoan aipatutako tresnen gainetik.

Era berean, Izki eremuko Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planaren zehaztapenak erabakigarriak izango dira beste edozein jarduera, plan edo programa sektorialetan. Plan edo programa sektorialek Izki eremuko Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planak jasotakoarekin bat ez etortzeko, interes publikoko premiazko arrazoiak egon beharko dira, eta haiek onartzeko erabakia arrazoitu eta publiko egin beharko da. Erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra hartuko du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen informazio telematikorako tresnan argitaratu beharko da.

8. artikulua.– Indarraldia.

Izki Natura Ondarearen Gune Babestuaren Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana indarrean egongo da hura onartzeko jarraitutako prozeduraren bidez berrikusi, aldatu edo eguneratzen ez den bitartean, haren idazketan nagusitu diren irizpideak eta helburuak aldatzen direnean edo antolatu beharreko lurralde-eremuen baldintza ekologiko, sozial edo naturalen aldaketak beharrezko egiten duenean, bai eta jarraipenaren eta ebaluazioaren emaitzek hala gomendatzen dutenean ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen hauek indargabetuta geratzen dira:

a) 64/1998 Dekretua, martxoaren 31koa, Izki aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena.

b) Izki (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (Hegaztientzako BBE) izendatzen duen eta hari dagozkion kontserbazio neurriak onartzen dituen martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuaren 1. artikuluko 5. zenbakia, azken xedapenetako lehena eta II. eranskineko (Informazio ekologikoa, Kontserbazio helburuak, Kontserbatzeko arauak eta Jarraipen programa) 6. apartatua (Kontserbaziorako helburu eta arauak) eta 8.a (Jarraipen programa).

c) Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

1.– Izki aldea Parke Natural deklaratzeko duen martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren 3. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«3. artikulua.– Lurralde-eremua.

1.– Izki eremuko parke naturalak barne hartzen du eremu geografiko hau: Izki natura-ondarearen gune babestuaren, Parke Naturalaren, Kontserbazio Bereziko Eremuaren eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana onartzen duen eta Izki Parke Naturalaren eta haren babes-eremu periferikoaren mugak aldatzen dituen Dekretuaren I. eranskineko grafikoei jasotzen duten eremu geografikoa.

2.– Izki eremuko parke naturalak 9.482,10 ha-ko azalera hartzen du, Arabako Lurralde Historikoko Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezuko udal-mugarteei dagokiena.»

2.– Izki eremua parke natural deklaratzeko duen martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren 7. eta 8. artikulua aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«7. artikulua.– Parke Naturalaren Patronatua.

1.– Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 56. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aholkularitza-, laguntza- eta partaidetza-organo propio bat eratuko da, Patronatua izenekoa, Izki eremuko parke naturalaren organo kudeatzaileari atxikia.

2.– Patronatuak osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean jardungo du.

3.– Patronatuko lehendakaria Arabako Foru Aldundiak izendatuko du.

4.– Patronatuko kide izango dira, lehendakariak gain, honako hauek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ingurumenaren, natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloko eskumenak esleituta dituen sailaren ordezkari bat, sail horretako sailburuak izendatua.

b) Parke Naturalaren organo kudeatzailearen ordezkari bat, Arabako Foru Aldundikoa.

- c) Izkiko Parke Naturalaren eremu geografikoan dauden udalerrietako ordezkari bana.
- d) Arraia-Maeztuko Administrazio Batzarren bi ordezkari.
- e) Bernedoko Administrazio Batzarren bi ordezkari.
- f) Kanpezuko Administrazio Batzarren ordezkari bat.
- g) Izki Behekoa eta Izki Goikoa Batzar Tradizionalen ordezkari bat.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia-elkarteen ordezkari bat, ibilbide egiaztatua duena natura-ingurunearen azterketan, defentsan, babesean eta kontserbazioan.
- i) Arabako Lurralde Historikoko elkarte ekologista eta kontserbazionisten ordezkari bat.
- j) Arabako Lurralde Historikoko nekazaritzako erakunde profesionalen ordezkari bat.
- k) Euskadiko Basogintza Elkarten Konfederakundearen ordezkari bat.
- l) Euskal Mendizale Federazioaren ordezkari bat.
- m) Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat.
- n) Izkiko Parke Naturalaren eragin-eremuan kokatutako ehiza- eta arrantza-kluben eta -elkar-teen ordezkari bat.
- o) Izkiko Parke Naturalaren zuzendaritzaz eta kontserbazioaz arduratzen den pertsona.
- p) Idazkari-lanak egingo dituen pertsona, Parke Naturalaren Patronatuko lehendakariak izendatua. Hitza izango du, baina botorik ez.

5.– a), b), c), d), e), f), g), i), j), k), l), m) eta o) letretako patronatuko kideak administrazio publikoek edo ordezkaturako erakundeek izendatuko dituzte.

6.– h) eta n) letretako patronatuko kideak Arabako Foru Aldundiak izendatuko ditu.

7.– Patronatuko kideak, Parke Naturalaren zuzendaritzaz eta kontserbazioaz arduratzen den pertsona izan ezik, lau urterako izendatuko dira, eta epe hori igarotakoan utziko dute kargua, baldin eta berriuz ez badira edo izendapena eragin duten baldintzetakoren bat galdu bada.

8. artikulua.– Batzorde Iraunkorra.

Patronatuaren barruan, eta haren mende, Batzorde Iraunkor bat eratu ahal izango da. Batzorde horrek Patronatuaren eskuordetzearen bidez jardungo du, eta, batzordeburuaz gain –patronatuburua izango baita–, kide hauek izango ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ingurumenaren, natura-baliabi-deen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloko eskumenak esleituta dituen sailaren ordezkari bat, sail horretako sailburuak izendatua.
- b) Parke Naturalaren organo kudeatzailearen ordezkari bat, Arabako Foru Aldundikoa.
- c) Izkiko Parke Naturalaren eremu geografikoko udalerrien ordezkari bat.
- d) Pertsona bat, Izkiko Parke Naturalaren eremu geografikoko administrazio-batzarren, batzar tradizionalen eta gainerako toki-erakundeen ordezkari gisa.

- e) Izkiko Parke Naturalaren Patronatuan ordezkaturako gainerako erakundeen bi ordezkari.
- f) Izkiko Parke Naturalaren zuzendaritzaz eta kontserbazioaz arduratzen den pertsona.
- g) Idazkari-lanak egingo dituen pertsona, Parke Naturalaren Patronatuburuak izendatua. Hitzaz hitz, baina botorik ez».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Antoñanako hagina eta Antoñanako ezkia zuhaitz bereziak Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz apartekoaren bigarren deklarazioa egiten duen otsailaren 11ko 23/1997 Dekretuaren bidez izendatu ziren, eta, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, gaur egun natura-monumentutzat hartzen dira. Zuhaitz horiek dekretu honek jasotzen duen Izkiko Natura Baliabideak Antolatze II. Planean xedatutakoaren mende egongo dira, eta, beraz, ez zaie aplikatuko Euskal Autonomia Erkidegoan Zuhaitz Bereziak deklaratzeko dituen maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

KARTOGRAFIA

Arauzko kartografia (EHAA bisorerako estekak):

Mugaketa.

Zonifikazioa.

Babes Eremu periferikoa.

<https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea?webmap=0ae94013e20b4715acb91cb0ec578cef>

Informazio-kartografia (GeoEuskadi bisorerako estekak): Habitaten kartografia, EUNIS sailkapen-sisteman. Batasunaren Intereseko Habitaten kartografia.

II. ERANSKINA

MEMORIA

AURKIBIDEA

- 1.– Aurrekariak eta testuinguru arauemailea.
- 2.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren ezaugarri orokorrak eta esparrua.
- 3.– Ezaugarri fisiko eta biologikoen deskribapena eta interpretazioa.
 - 3.1.– Ingurune fisikoa.
 - 3.2.– Ezaugarri ekologikoak.
 - 3.3.– Ingurune soziala.
 - 3.4.– Natura-baliabideen erabilera.
- 4.– Naturagunean kudeatu beharreko funtsezko elementuak. Kontserbazio-egoera.
 - 4.1.– Basoak.
 - 4.2.– Larreak eta txilardiak.
 - 4.3.– Zohikaztegiak.
 - 4.4.– Harkaitzak eta antzeko inguruneak.
 - 4.5.– Ibai-sistema.
- 5.– Kontserbaziorako intereseko beste zenbait elementu.
 - 5.1.– Geologia interesdun lekuak.
 - 5.2.– Konektagarritasuna.
- 6.– Izki natura-ondarearen gune babestuak eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak.
- 7.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren diagnosi klimatikoa.
- 8.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren memoria ekonomika.

1.– Aurrekariak eta testuinguru arauemailea.

Izki natura-ondarearen gune babestuan, lurralde-esparru berean, lau babes-figura biltzen dira, gaur egun, indarrean den Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 48. eta 51. artikuluek xedatzen duten naturagune babestuen tipologiaren arabera: parke naturala, natura-monumentua, kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (HBBE), azken bi horiek Europako Natura 2000 Sarearen barruan.

Izki parke natural deklaratu zuten martxoaren 31ko 65/1998 Dekretuaren bidez, eta dagokion Natura Baliabideak Antolatzeko Plana (NBAP) dauka, martxoaren 31ko 64/1998 Dekretuaren bidez onartua.

Otsailaren 11ko 23/1997 Dekretuaren bidez zuhaitz aparteko izendatu zituzten parke naturalaren esparruan Antoñanako hagina eta Antoñanako ezkia, biak ere Kanpezuko udalerrian kokatuak. Hala ere, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarria aplikatuz, zuhaitz aparteko horiek natura-monumentu bihurtu dira juridikoki.

Parke naturalaren esparru gehiena Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) gisa proposatu zuten, Habitat naturalak eta basa-landaredia eta fauna zaintzeari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua (Habitaten Zuzentaraua) aplikatuta, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduko Erabakiaren bidez, eta halakotzat agertu zen Eskualde Biogeografiko Atlantikoko Batasunaren garrantzizko lekuen zerrenda onartu zuen Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko Batzordearen 2004/813/EE Erabakiaren eranskinean. Gainera, 2000ko azaroan Izki HBBE deklaratu zuten, Basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko 2009ko azaroaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Zuzentaraua (Hegaztien Zuzentaraua) aplikatuta.

Gero, martxoaren 1eko 33/2016 Dekretuaren bidez, natura-ondarearen gune babestua KBE izendatu zuten eta KBEa zein HBBEa kontserbatzeko neurriak onartu zituzten.

Izki Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz, natura-ondarearen espazio babestu hori kontserbatzeko irizpideak eta helburuak aldatu egin behar dira, horregatik, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 23.2 artikulua xedatutakoarekin bat, Izki eremuko natura-baliabideak antolatzeko plan berria landu behar da, Valderejoko lehenengo NBAP onartu zenetik pasatu den denbora ere kontuan hartuta.

Zenbait babes-figura biltzen dituzten naturagune babestuei dagokienez, artean indarrean zegoen Euskal Herriko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko Legegintza Dekretuaren 18. artikulua honako hau ezarri zuen: «Naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin».

Aurrekoa betetzeko, arestian aipatutako 33/2016 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak honako hau ezartzen du: «Dekretu hau onartzen denean, Parke Naturalaren eta KBE/Hegaztientzako BBEaren mugak bat etortzeko eta Parke Naturalaren Natura Baliabideak Antolatzeko Plana dokumentu bakarrean jasotzeko prozedurari ekingo zaio, hain zuzen, naturagune babestuen tipologia bi horiek arautuko dituen dokumentu bakarrean, 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera».

Beraz, azaldutakoaren arabera eta aipatutako Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko Legegintza Dekretuaren 18. artikulua eta azaroaren 25eko, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko 9/2021 Legearen 38. artikulua aplikatuta, Izki natura-ondarearen gune babestua dokumentu bakarraz hornitzea izango litzateke kontua. Dokumentu bakar horrek, natura-ondarearen gune babestuan biltzen diren figuren mugaketak bateratzeaz gain, gune

horretan aplikatzekoak diren plangintza-tresnen edukiak integratuko ditu, hots: Parke Naturalaren Natura Baliabideak Antolatzeko Plana eta Izki KBEa eta HBBEa kontserbatzeko tresna; eduki horiek azaroaren 25eko, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko 9/2021 Legearen 22. eta 58. artikuluetan araututa daude, hurrenez hurren.


Izki eremuko Natura Baliabideak Antolatzeko I. Planak, VI. tituluan, NBAParen helburuak zenbateraino betetzen ziren ebaluatzeko eta NBAPa bera betetzen zen egiaztatzeko jarraipen-plana aurreikusi zuen. Kudeaketa Organoak Patronatuari onartzeko aurkezten dion urteko memorian jaso dira jarraipen horren emaitzak.

Natura Baliabideak Antolatzeko Plan berria egiteko, landa-lanaz gain, bildu ahal izan den informazio eskuragarri guztia erabili da, bai azken urteetan natura-ondarearen gune babestuaren esparruan egin diren azterketetatik datorrena, bai espazio horren plangintzan eta kudeaketan eskumena duten administrazioetan eskuragarri dagoena: basogintza antolatzeko planak, plan hidrologikoak, ehiza-jarduerari buruzko informazioa, flora eta faunari buruzko azterketak, geologia interesdun lekuen inbentarioa, eta abar.

Bestalde, dokumentua Europako zuzentarauetara egokitzearekin bat, Natura 2000 Sarearen eskakizuna gehitzen da, jarraipen-sistemak ezartzekoa, eta Batasunaren intereseko habitat eta espezieen kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioa egin eta informazioa aldi berean ematekoa (Habitaten Zuzentzarauaren 11. eta 17. artikulua). Jarraipen eta ebaluazio horiek Batasunaren mailan ezarritako metodologia eta parametro zehatzen arabera egin behar dira eta horiek lehen NBAPari nekez aplikatu dakizkioke, ez baitauka gaur egungo ebaluazio-irizpideak aplikatzeko natura-baliabideen deskribapenari eta diagnostikoari buruzko atal espezifikorik.

2.– Izki natura ondarearen gune babestuaren ezaugarri orokorrak eta esparrua.

Izki natura-ondarearen gune babestua Euskal Autonomia Erkidegoko hego-ekialdeko sektorean kokatzen da, Arabako Mendialdeko eskualdean. Muga hauek ditu: ipar-mendebaldean, Gasteizko mendiak; ekialdean, Azazetako Ega (Berron) ibaia; hegoaldean, Toloño mendilerroaren behealdeko haranak; eta, mendebaldean, Trebiñu Konderria (Burgos, Gaztela eta Leon). Naturagunea hurrenez hurren Zadorra-Trebiñu eta Ega unitate hidrografikoei dagozkien Ihuda eta Ega ibaien isuri-arroetan integratuta dago, biak ere Ebroren demarkazioan.



1. irudia. Izki natura-ondarearen gune babestuaren kokapena EAEn.

Izki natura-ondarearen gune babestuak baso zabal baten presentzia du bereizgarri. Izki ibaian isurtzen diren erreka askok hondeatutako sakan txikiek zeharkatzen duten lautada hareatsu handi baten gainean kokatzen da basoa. Izki ibaiak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du naturagunea, eta erreka ugari eta putzu txikiek drainatzen dituzte urak.

Lautada horrek zenbait goragune eta kareharrizko mendi ditu inguruan, Kapildui - San Kristobal kareharrizko goi-lautada deritzona nabarmentzen dela, naturagunearen iparraldean kokatua, Kapildui (1.180 m), San Justi (1.021 m) eta San Kristobal (1.055 m) mendiak osatua. Ekialdean Mantxibio (939 m), Soila (989 m) eta La Muela (1.059 m) kareharrizko mendiak altxatzen dira. Izkiren ezaugarri geologikoak eta geomorfologikoak zenbait geologia interesdun lekutan nabarmentzen dira, hala nola «Kanpezuko mueletako aldapa-erliebean» edo «Maeztuko asfaltoetan».

Eremuan dauden litologia, topografia eta orientazio desberdinek era askotako landare-formazio ugari sortzen dute, ametz-basoa (*Quercus pyrenaica*) nabarmentzen dela, Europako zabalenetakoa. Horrekin batera, pagadi garrantzitsuak aurki daitezke, eta, kareharrizko gune harritsu jakin batzuetan, pagadi eta erkamezti ezpeldunak.

Nabarmentzekoak dira, halaber, naturagunearen ertzeko harkaitzak, hagin-basoak, zohikaztegiak edo ur karbonatatuaren iturbegiak.

Habitat-dibertsitate horrek intereseko flora- eta fauna-espezie ugari ematen die babesa. Lehenengoan artean *Rhynchospira fusca* nabarmentzen da, hor baitauka Iberiar penintsulako populaziorik handiena, baita Olandinako urmaeleko nenufar zuriaren (*Nymphaea alba*) populazioa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bakarra eta Iberiar penintsulako handiena.

Fauna-espezieen artean okil ertaina (*Dendrocopos medius*) nabarmentzen da. Espazio horretan 750 banakotik gorako errolda dago eta horrek garrantzi adierazgarria ematen dio Izkiri Iberiar testuinguruan mokodun horrentzat.

Izkiko basoei lotutako beste fauna-espezie batzuen artean basoko kiropteroen komunitatea dago, nagusiki Bechstein saguzarra (*Myotis bechsteinii*), umatze-kolonien presentzia egiaztatua duena, eta baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*), Izkin EAE osoko populaziorik ugariena duena.

Bestalde, naturagunearen ertzeko harkaitzetan hegazti errupikola ugari egiten dute habia; arrano beltza (*Aquila chrysaetos*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*) nabarmentzen dira.

Naturaguneko hezeguneei eta erreken sareak intereseko espezie ugari hartzen du; odonatuaren komunitatea gailentzen da, baita ibai-karramarroa (*Austropotamobius italicus*) eta apo pintatu iberiarra (*Discoglossus jeanneae*) bezalako hainbat anfibio-espezie ere.

Bestalde, Izki natura-ondarearen gune babestua Pirinioen mendebaldeko eta Bizkaiko Golkoaren ekialdeko migrazio-bidearen parte da. Horrek, hezeguneei sarearekin batera, garrantzi nabarmena ematen dio naturaguneari urtero bertan gelditzen diren hegazti urtar negutarren eta pasekoen komunitateari dagokionez.

Izki, bestalde, Arabako Mendialdeko eskualdean dago, EAEko biztanle gutxieneko zonetako batean.

Nagusi dira baso-erabilerak, abeltzaintza estentsiboa eta, neurri txikiagoan, nekazaritza-laboreak. Baso-aprobetxamenduak egurrak lortzea, egur-sortak eskuratzea eta basoak garbitzea nahiz zura erauztea dira. Koniferoen baso-sail landatu batzuk ere badaude.

Abeltzaintza estentsiboa nagusiki behor-aziendan eta haragitarako behi-aziendan oinarritzen da —urtearen gehienean mendian bazkatzen dira—, eta artaldeak askoz ere urriagoak dira.

Jolas-erabilerek hazkunde handia izan dute Izki natura-ondarearen gune babestu deklaratu zutenetik. Izan ere, oraindik garapen betean dagoen baliabide sozioekonomiko berria da.

Ehiza eta arrantza, bestalde, naturagunearen ohiko erabilerak izan dira, bereziki lehenengoa.

3.– Ezaugarri fisiko eta biologikoen deskribapena eta interpretazioa.

3.1.– Ingurune fisikoa.

3.1.1.– Klima orokorra.

Izki gune babestua Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizioko mendietan kokatzen da, klima atlantikoaren eta mediterraneoaren artean.

Urteko batez besteko tenperatura 8,57 °C ingurukoa da, izozterik gabeko aldia urria da, neguak hotzak izaten dira eta udak epelak. Natura-ondarearen gune babestu osoa termotipo menditarrean kokatzen da.

Topografiaren ondorioz, Izkik hodeitza handia eta prezipitazio sarriak ditu, bai euri moduan bai elur moduan.

Ipar-mendebaldetik datozen haizeak, Kantauriko fronte hotzei lotuak, ia urte osoan nagusitzen dira naturagunean. Udaberrian eta udazkenean, aldiz, sarriagoak dira haize epelagoak, baina baita mendebaldeko eta hego-mendebaldeko haize hezeak ere.

Haizeen denboraren araberako banaketa horrek 869,74 mm-ko batez besteko prezipitazioa sorrarazten du Kapilduiko estazioan. Horrek naturagunea onbroklima azpihezean kokatzen du, hezetik hurbil; dena den, zona trantsiziokoa izatea prezipitazioak urritzeak eta udako nolabaiteko lehorraldia agertzeak erakusten dute, batez ere.

3.1.2.– Geologia, geomorfologia eta geologia interesdun lekuak.

Izki Eusko-Kantauriar arroaren hegoaldean kokatutako eremu zabal batean dago, Arabako Ildoan hain zuzen ere. Goi Kretazeoan metatutako jalkinen lodiera handia du bereizgarri formazio horrek.

Zonaren tektonika eta egituraketa orokorra xumeak dira; antiklinal eta sinklinal leunak ditu, eta desplazamendu txikiko faila arruntak. Maeztuko diapiro triasikoa nabarmentzen da, 1.400 ha inguruko azalera hartzen duena.

Erliebea ondulatua da, gorabehera handirik gabekoa. Natura-ondarearen gune babestuaren zatirik handiena Izki ibaiaren arroan kokatzen da. Osatzen duen unitate geomorfologikoa material litologikoen uniformetasunak (harea eta hareharri karetsuak, tuparri hareatsuekin batera) eta erliebeak definitzen dute. Erliebeak ibarbide eta bizkar txikien segida du bereizgarri, elipse formako kubeta zabala osatzen duena, kareharrizko mendietan artekatua.

Kapildui mendiaren hegoaldeko mazelek eta San Justi (hegoaldean) eta San Kristobal (hegoaldean) mendietarainoko jarraipenak Kapildui - San Kristobal kareharrizko goi-lautada deritzona osatzen dute; hor daude Izki eremuko kotarik handienak. Unitate hori, laburki esanda, 900 eta 1.100 m arteko garaieran kokatutako irregulartasun urriko kareharrizko lautada batek definitzen du. Bertan sortzen dira ingurua drainatzen duten zenbait erreka: Berrozi, Los Ríos, San Justi, El Molino, eta abar.

Soila eta Durrumako La Muela kareharrizko mendiek, Izki ibaiak bereizten dituela, aurrekoaren antzeko unitate geomorfologikoa osatzen dute, baina azalera txikiagokoa. Haien tontorretako lautadak ez dira oso zabalak, eta mazelek desnibel handiak dituzte. La Muelan ezaugarri karstikoak begien bistakoak dira; lapiaz garrantzitsu bat agertzen dela ere ikus daiteke.

Testuinguru horretan, «Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia, 2020» dokumentuan jasotako Geologia Interesdun Lekuen (GIL) Inbentarioak honako hauek identifikatzen ditu natura-ondarearen gune babestuaren barruan:

GIL 113 – Kanpezuko mueletako aldapa-erliebea:

Kanpezuko muelak, balio geomorfologiko handikoak, aldapa itxurako erliebe estrukturalen adibide garbiak dira, La Muela eta Peña del Santo mendiek irudikatzen dituztenak. Paleozenoko kareharriz osatuta daude, Goi Kretazeoko tuparrien gainean kokatuta. Bi unitateen higadura desberdina denez, horren ondorio dira gaur egungo itxura eta aldapa-erliebea.

Hala, sinklinal oso irekia osatzen da, ardatza pixka bat iparralderantz okertua duena, eta bi paketeek okerdura leunak dituzte ipar-mendebalderantz eta ipar-ekialderantz.

Bi alpe banatu eta bi erliebe independenteak sortzen dituen iparraldetik hegoalderantzko faila batek eragiten dio tolesturaren ardatzari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia 2020 dokumentuan GIL bakoitza zaugarritasunaren eta degradazio-arriskuaren arabera baloratu da, erabileragatik zein hirigintza-garapenagatik edo espoliazio-arriskuagatik. «Kanpezuko mueletako aldapa-erliebea» GILaren kasuan, analisiak berezko zaugarritasun oso txikia eta arrisku oso txikia adierazten ditu.

GIL 150 – Maeztuko asfaltoak:

Euskal Autonomia Erkidegoko asfalto naturalaren kontzentrazioarik handiena da. Horrek oso balio handia ematen dio meatokiei dagokienez.

Maeztuko diapiroaren material ostalariek asfalto-bolumen handia daukate arrokaaren poro eta hausturetan infiltratuta. Horrek ustiapen garrantzitsua ahalbidetu du, 1950eko hamarkadan hasia.

Asfaltoaren banaketa irregularra da diapiroaren ertzetan, hegoaldeko eta ekialdeko ertzetan kontzentratzen baita. Aldiz, iparraldeko eta mendebaldeko mugetan ez dago material horren metaketarik, nahiz eta materialak behar bezain porotsuak izan asfalto-inpregnazio on bat hartzeko.

Zaugarritasunari dagokionez, kasu honetan ere oso txikia da, baina espoliazio-arriskua handia da.

Natura-ondarearen gune babestuaren Babes Zona Periferikoan (BZP), bestalde, GIL hau sartzen da:

GIL 110 – Markinezeko pinakuluak:

GIL hau Paleozenoko kareharri eta dolomien gainean garatutako pinakulu multzo batek osatzen du. Lodiera txikiko pakete bat osatzen du, 20 m inguru, gehienez ere. Bi tarteren artean kokatuta dago: azpian, Maastrichtiarreko hareharri karedunak, eta, gainean, Thanetiarreko kalkarenita tupatsuak.

Higadura diferentzialari erantzunez, Paleozenoko kareharrietan, disolbagarriagoak direnez, karstifikazio bizia gertatu da, zeinak, azkenik, tamaina handiko prisma errektangularrak bakartu baititu (20 × 20 × 20 m).

Pinakuluak bi lerrokadura ikusgarritan kontzentratzen dira funtsean (ipar-mendebalderantz eta hego-ekialderantz). Pinakulu batzuetan haitzulo artifizial eremitikoak daude, Erdi Aroan zulatuak.

GIL horren zaugarritasunari eta degradazio-arriskuari dagokienez, aintzat hartzeko modukoak ez direla irizten zaio.

3.1.3.– Edafologia eta erabilera-ahalmena.

Zonako lurzoru sarrienak eta, aldi berean, eboluzionatuenak kanbisolak dira. Malda txiki edo apaleko eremuetan osatzen dira, hala kareharrizkoak (kareharrizko kanbisolak) nola silizeoak (kanbisol eutrikoak). Kategoria horretakoak dira gaur egun Izkin lantzen diren lurzoru gehienak, baita ameztiaren kubeta ere.

Malda apal edo handien gainean, kaltzio karbonato ugari duten arroketatik abiatuta, rendzinak sortzen dira; kasu horretan, bertan sustraitzen den landaredia garapen txikikoa izaten da, hala nola dentsitate txikiko larrediak, sastrakadiak, artadiak edo erkameztiak.

Regosolak, sakonera eta emankortasun txikiari dagokionez, aurrekoen antzekoak dira, tuparriak edo hareharriak bezalako material bigun eta finkatugabeen gainean eratuak. Izkin ez dute azalera handirik okupatzen eta kanbisolekin lotuta agertu ohi dira.

Azkenik, litosolak garapen txikieneko lurzoruak dira, 10 cm baino gutxiagoko sakoneran kokatutako arroka ama oso gogor batekin lotuak; larratze estentsiboa da egin daitekeen aprobetxamendu bakarra. Lurzoru horiek altitude handieneko zonetan barreiatuta agertzen dira, San Kristobal mendiaren mazeletan nagusiki.

3.1.4.– Hidrologia eta hidrogeologia.

3.1.4.1.– Hidrologia.

Izki natura-ondarearen gune babestua hurrenez hurren Zadorra-Trebiñu eta Ega unitate hidrografikoei dagozkien Ihuda eta Ega ibaien isuri-arroetan kokatuta dago, biak ere Ebroren demarkazioan.

El Molino ibaia, Ihuda ibaiaren arroan sartua, Kapilduin sortzen da eta sakan-zona batean zehar igarotzen da Arluzezaraino; hor atzean uzten du gune babestua.

Berrozi erreka eta Izki ibaia Ega ibaiaren arroan sartzen dira. Lehena naturagunearen ipar-ekialdeko mugatik igarotzen da Azazetako Ega (Berron) ibaiarekin bat egin arte, natura-ondarearen gune babestutik kanpo. Bestalde, Izki ibaia naturaguneko ardatz hidrologiko nagusia da: San Justi (989 m) mendiaren hegoaldeko mazeletan sortzen denetik Azazetako Ega (Berron) ibaian isurtzen den arte, hareek, hareharriek eta tuparri hareatsuek okupatutako zuhaitzi zabala zeharkatu ondoren, ibilbide laburreko ibai-ibilgu ugari izatea (Arizulo, Errekagatxa eta Bardiluz errekek nabarmentzen dira) bereizgarri duen harana konfiguratzeko du.

Izkin nabarmentzekoa da, halaber, putzu eta hezeguneen sare oparoa; gehienak higroturbosoak dira, baina bi urtegi eta zenbait ureztatze-putzu ere aipatzen dira.

3.1.4.2.– Hidrogeologia.

Hidrogeologiari dagokionez, Urbasa - Gasteizko Mendiak unitate hidrogeologikoaren barruan kokatzen da Izki. Unitate hori, era berean, hainbat azpiunitatek osatzen dituzten bi sektore hidrogeologikotan zatitzen da: ekialdekoa eta mendebaldekoa. Izkin azpiunitate hauek daude: Korres (ekialdeko sektorea), Kapildui eta Izki (mendebaldeko sektorea).

Korres azpiunitateak Izki ibairako drainatzearen gehiena hartzen du, akuifero nagusiak Maastrichtiarreko, Paleozenoko eta Eozenoko kareharriek eta dolomiek eratzen dituzte, berezko entitatea eta izaera librea duen azpiunitatea osatuta. Kapildui eta Izki azpiunitateak, bestalde, bertikalean elkarrekin konektatuta dauden hiru akuiferok osatzen dituzte.

3.2.– Ezaugarri ekologikoak.

3.2.1.– Habitat naturalak eta erdi naturalak.

Atal honek Izki natura-ondarearen gune babestuan kartografiatutako Batasunaren Intereseko Habitategi (BIH) buruzko informazioa laburbildu eta sintetizatzen du. Halaber, NBAP honen aplikazio-esparruan garrantzizkoak diren Eskualdearen Intereseko Habitatak (EIH) eta beste EUNIS habitat batzuk ere sartu dira.

Zenbakiak bat datoz Habitategi Zuzentzarauaren beraren I. eranskineko kodeekin eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legekoekin (aurrerantzean NOBL). (*) ikurrak adierazten du lehentasunezko habitata dela. Batasunaren Intereseko Habitat bat ez denean, EUNIS kodea eta izendapena erabiltzen da.

Identifikatutako 28 BIHei 7.160,81 ha-ko azalera hartzen dute, hau da, babesturiko azaleraren % 75,52. Horiei 1.277,34 ha (% 13,47) okupatzen duten lau EIH gehitu behar zaizkie. Hortaz, intereseko habitategi estalitako azalera osoa 8.438,15 ha-koa da (natura-ondarearen gune babestuaren % 88,99).

Habitategi azalera-banaketa oso desberdina da. Hala, Batasunaren Intereseko Habitategi artean, azalera dagokionez, hauek nabarmentzen dira: 9230 habitata (ameztia), izkin 3.683,42 ha okupatzen dituen (gutzizkoaren % 38,84), eta 9240 habitata (*Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* espezieetako harizti iberiarrak), 767,34 ha okupatzen dituen (% 8,09).

Ordezkaritza handia duten beste habitat batzuk dira 4090 habitata (txilardi oromediterraneo endemiko elorri-triskadunak) eta 9120 habitata (Pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex oihanpedunak*, eta batzuetan *Taxus*dunak); izkiren azalera osoaren % 7,42 eta % 5,96 hartzen dute, hurrenez hurren.

Gainera, nabarmendu beharra dago pagadi basofilo edo neutroen azalera handia. Ez dute Batasunaren Intereseko Habitategi osatzen, baina berebiziko garrantzia dute izkin, eta, hortaz, eskualdearen interesekotzat jotzen dira.

2023ko martxoaren 20a, astelehena

1. taula. Izki natura-ondarearen gune babestuko (NOGB) Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko Habitaten azalera.										
HZ/EUNIS kodea	Habitataren izena	EIH	NOGBko habitataren azalera (ha)	NOGBko esparruaren %	EAEko Natura 2000 Sareko %	EAE osoko %	Ord.	Balorazio globala	NOGBko kontserbazio-egoera	EAEko kontserbazio-egoera
3150	Aintzira eutrofikoa naturalak, <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landaredia dutenak.	-	0,6314	0,0067	0,2806	0,2723	A	C	I	I
3170*	Denboraldiko urmael mediterraneokoak.	-	5,4089	0,0570	12,1411	10,3382	B	B	M	F
4020*	<i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i> espezieetako zona epeletako txilardi heze atlantikoak.	-	0,1381	0,0015	0,1651	0,1637	C	C	M	I
4030	Europako txilardi lehorrak.	-	368,9172	3,8907	5,6731	1,9380	A	B	I	F
4090	Txilardi oromediterraneo endemiko elorri-triskadunak.	-	703,8441	7,4230	8,8320	3,7932	B	B	I	F
5110	Malda arrokatsuetako <i>Buxus sempervirens</i> aren formazio egonkor xerotermofiloak (<i>Berberidion</i> p.p.).	-	107,4841	1,1336	8,1541	6,5115	C	B	F	I
6170	Larre alpetar eta subalpetar karedunak.	-	0,8809	0,0093	0,0225	0,0164	A	B	F	F
6210	Belardi lehor erdi naturalak eta kare-substratuetako sasiraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>).	-	180,2321	1,9008			C	C	I	I
6210(*)	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sasiraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>) (* orkidea ugari lekuak).	-	188,4512	1,9875	9,4038	2,1173	B	B	I	I
6220*	Gramineoen eta urteroko <i>Thero-Brachypodietearen</i> zona azpiestepikoak.	-	17,2119	0,1815	3,6316	0,2867	B	B	F	I
6230*	<i>Nardus</i> aren formazio belarkarak, espezie ugariekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentalako zona azpi menditarreko) silize-substratuetan.	-	63,9904	0,6749	1,0429	0,7984	C	C	I	F
7140	Trantsizio-zohikaztegiak.	-	9,1411	0,0964	7,4488	6,1821	A	A	I	I
7150	Zohikatz-substratuko sakonuneetako <i>Rhynchosporion</i> taldeko landaredia.	-	0,7225	0,0076	26,9734	26,9738	A	A	I	M
7210*	<i>Gladium mariscus</i> aren kare-zohikaztegiak, <i>Caricion davallianae</i> espezieekin.	-	1,1290	0,0119	63,5511	63,0317	B	B	F	I
7220*	Iturburu petrifikante tofikoletako formazioak (<i>Cratoneurion</i>).	-	0,0141	0,0001	2,2082	1,8546	A	B	I	I
7230	Zohikaztegi baxu alkalinoak.	-	49,9297	0,5266	53,9083	47,1826	A	B	I	I

2023ko martxoaren 20a, astelehena

1. taula. Izki natura-ondarearen gune babestuko (NOGB) Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko Habitaten azalera.										
HZ/EUNIS kodea	Habitataren izena	EIH	NOGBko habitataren azalera (ha)	NOGBko esparruaren %	EAEko Natura 2000 Sareko %	EAE osoko %	Ord.	Balorazio globala	NOGBko kontserbazio-egoera	EAEko kontserbazio-egoera
8130	Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak.	-	4,9368	0,0521	2,3450	2,1552	D		F	F
8210	Landaredi kasmoifitikodun malda arrokatsu kaltzikolak.	-	24,0578	0,2537	0,7708	0,6476	C	B	F	F
8310	Turismoak ustiatu gabeko haizuloak.	-	5	-			C	C	F	I
9120	Pagadi azidoifilo atlantikoak, <i>Ilex</i> oihanpedunak, eta, batzuetan, <i>Taxus</i> unenak (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Illici-Fagenion</i>).	-	565,0992	5,9597	3,9211	2,3828	B	B	I	M
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>).	-	168,4047	1,7761	8,1526	6,6351	B	B	I	M
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> aren ibarbasoak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>).	-	121,4047	1,2804	10,1130	2,7281	B	C	F	M
9230	<i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaicaren</i> harizti galaiportugesak.	-	3.683,4214	38,8467	100	39,9996	A	A	I	M
9240	Harizti iberiarrak <i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> arenak.	-	767,2806	8,0920	10,7130	3,4206	B	B	I	M
9260	<i>Castanea sativaren</i> basoak.	-	5,2695	0,0556	6,0199	1,2054	C	C	M	M
92A0	<i>Salix alba</i> eta <i>Populus alba</i> ren galeria-basoak.	-	5,1128	0,0539	1,2173	0,8966	D		I	M
9340	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifoliar</i> aren basoak.	-	99,3007	1,0473	0,9982	0,4128	C	C	I	M
9580*	<i>Taxus baccatar</i> en baso mediterraneoak.	-	18,3975	0,1940	27,2883	0,0765	B	B	I	M
C3.2	Helofito handien formazioak.	IR	0,6812	0,0072	-	-	C	D	I	-
F3.15(X)	<i>Ulex europaeus</i> aren otadi subatlantikoa.	IR	164,0373	1,7300	-	-	B	B	F	-
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa.	IR	1.082,3620	11,4148	-	-	A	B	F	-
G1.91	Urkidiak.	IR	30,2610	0,3191	-	-	B	B	I	-
Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko Habitatak guztira			8.438,2208	88,9911						

Ordezkaritasuna (A: Bikaina; B: Ona; C: Adierazgarria; D: Presentzia ez adierazgarria); Balorazio globala (A: Bikaina; B: Ona; C: Adierazgarria); Kontserbazio-egoera (M: Txarra; I: Desegokia; F: Egokia; D: Ezezaguna).

3.2.2.– Flora.

Izkin dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko flora-espezieak nabarmentzen dira atal honetan.

Ondorengo taulan islatzen da Habitaten Zuzentarauaren zein eranskinetan jasota dauden, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan (CEEa) eta Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan (EMEK) zer sailkapen dagokien, eta, azkenik, kontserbazio-egoeraren balorazioa jasotzen da.

Izki hartzen duen kontserbaziorako interes handieneko flora inguru higiturbosoei eta soilgune hareatsuei lotutako landare-espezieek ordezkatzeko dute, baita harkaiztegi eta kare-amilburuen oinei lotutako ere.

2. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko flora-espezieak.							
HZ kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	HZ eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa Plana	NOGBko kontserbazio-egoera
-	-	<i>Arenaria vitoriana</i>	-	-	R		F
-	-	<i>Armeria arenaria</i> subsp. <i>burgalensis</i>	-	-	R		I
-	Ezpel arrunta	<i>Buxus sempervirens</i>	-	-	IE		F
-	-	<i>Carex davalliana</i>	-	-	PE		M
-	-	<i>Coeloglossum viride</i>	-	-	VU		I
-	Eguzki-ihintza	<i>Drosera intermedia</i>	-	-	PE		I
-	Eguzki-ihintza	<i>Drosera longifolia</i>	-	-	PE		M
-	-	<i>Dryopteris carthusiana</i>	-	-	VU		I
-	-	<i>Epipactis palustris</i>	-	-	VU		I
-	-	<i>Genista eliassemenii</i>	-	-	R		F
-	Estrepa	<i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i>	-	-	PE		M
-	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>	-	-	IE		F
-	-	<i>Isoetes durieui</i>	-	-	VU		F
-	-	<i>Littorella uniflora</i>	-	-	R		I
1865	Lilipa txikia	<i>Narcissus asturiensis</i>	II eta IV	*	IE		F
1864	Lilipa kanpaniformea	<i>Narcissus bulbocodium</i> subsp. <i>citrinus</i>	V	-	IE		F
1857	Lilipa arrunta	<i>Narcissus gr. pseudonarcissus</i>	II eta IV	*	R		F
1996	-	<i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i>	IV	*	VU		I
-	Nenufar zuria	<i>Nymphaea alba</i>	-	-	PE		I
-	Suge-mihia	<i>Ophioglossum vulgatum</i>	-	-	R		I
-	-	<i>Ophrys aveyronensis</i>	-	-	VU		I
-	San Joan iratze	<i>Osmunda regalis</i>	-	-	IE		F
-	-	<i>Potentilla fruticosa</i>	-	-	VU		I
-	Udaberri-lore gorritzta	<i>Primula farinosa</i>	-	-	PE		I
-	Haritza	<i>Quercus robur</i>	-	-	IE		F
-	-	<i>Radiola linoides</i>	-	-	R		I
-	-	<i>Rhynchospora fusca</i>	-	-	PE		I
1849	Erratza	<i>Ruscus aculeatus</i>	V	-	IE		F
-	-	<i>Scorzonera aristata</i>	-	-	IE		D
-	-	<i>Senecio carpetanus</i>	-	-	PE		M
-	-	<i>Senecio doronicum</i> subsp. <i>doronicum</i>	-	-	VU		M
-	-	<i>Sorbus latifolia</i>	-	-	VU		I

2. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko flora-espezieak.							
HZ kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	HZ eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa Plana	NOGBko kontserbazio-egoera
1900	-	<i>Spiranthes aestivalis</i>	IV	*	VU		M
-	Hagina	<i>Taxus baccata</i>	-	-	IE		I
-	-	<i>Triglochin palustris</i>	-	-	VU		M
-	-	<i>Utricularia australis</i>	-	-	PE		I

HZ (Habitaten Zuzentzarauaren eranskina); LESRPE eta CEEA (Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa) (PE: Galzoriko espeziea; VU: Kaltebera; *: Zerrendan dago); EMEK (Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa) (PE: Galzoriko espeziea, VU: Kaltebera; R: Bakana; IE: Interes berezikoa); PG (Badago espeziea kudeatzeko plana); Kontserbazio-egoera (M: Txarra; I: Desegokia; F: Egokia; D: Ezezaguna).

Izki natura-ondarearen gune babestuan Habitaten Zuzentzarauaren II. eranskinean jasotako flora espezieetako bi daude: *Narcissus asturiensis* eta *Narcissus gr. pseudonarcissus*. Biak IV. eranskinean ere jasotzen dira, *Narcissus triandrus* subsp. *triandrus* eta *Spiranthes aestivalis* espezieekin batera. Lau espezieak estatu-mailako Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrendan agertzen dira.

Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoari dagokionez, Galzoriko espezieen kategorian sartutako bederatzi espezie daude Izkin: *Carex davalliana*, *Drosera intermedia*, *Drosera longifolia*, *Halimium lasianthum* subsp. *alyssoides*, *Nymphaea alba*, *Primula farinosa*, *Rhynchospora fusca*, *Senecio carpetanus* eta *Utricularia australis*.

Kalteberen kategorian hamaika espezie aipatzen dira: *Coeloglossum viride*, *Dryopteris carthusiana*, *Epipactis palustris*, *Isoetes durieui*, *Narcissus triandrus* subsp. *triandrus*, *Ophrys aveyronensis*, *Potentilla fruticosa*, *Senecio doronicum* subsp. *doronicum*, *Sorbus latifolia*, *Spiranthes aestivalis* eta *Triglochin palustris*.

3.2.3.– Fauna.

Izkin dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko fauna-espezieak jasotzen dira atal honetan.

Ondorengo taulan adierazten da espezie horiek Habitaten Zuzentzarauaren zein eranskinetan jasota dauden eta zenbait zerrenda eta katalogoren arabera zein sailkapen dagokien.

Hegazti-espezieei dagokienez, Hegaztien Zuzentzarauaren I. eranskinean sartuta daudenak eta Izkin presentzia erregularra duten eta Hegaztien Zuzentzarauaren I. eranskinean sartuta ez dauden espezie migratzaileak jasotzen dira.

2023ko martxoaren 20a, astelehena

3. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko fauna-espezieak.								
Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	Zuzentarauaren eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa plana	NOGBko kontserbazio-egoera
ORNOGABEAK								
1044	Txixi-burruntzia	<i>Coenagrion mercuriale</i>	P	II	*	-		I
-	-	<i>Sympetrum meridionale</i>	P	-	-	R		I
-	-	<i>Coenagrion scitulum</i>	P	-	-	-		I
-	-	<i>Aeshna affinis</i>	P	-	-	R		I
1065	Zingira-dontzella	<i>Euphydryas aurinia</i>	P	II	*	-		D
1083	Arkanbelea	<i>Lucanus cervus</i>	P	II	*	IE		D
1088	Kaprikornio handia	<i>Cerambyx cerdo</i>	P	II eta IV	*	IE		D
1087	Kakalardo adarluze alpetarra*	<i>Rosalia alpina</i>	P	II eta IV	*	IE		D
1092	Ibai-karramarroa	<i>Austropotamobius italicus</i>	P	II eta V	VU	PE		M
ARRAINAK								
5283	Mendi-barboa	<i>Luciobarbus graellsii</i>	P	IV eta V	-	-		F
5565	Mazkar arantzagabea	<i>Barbatula barbatula</i>	P	-	-	-		F
5830	Amuarrain arrunta	<i>Salmo trutta</i>	P	-	-	-		F
6150	Hegoaldeko loina txikia	<i>Parachondrostoma toxostoma</i>	P	II eta IV	-	-		D
6155	Errutilo hegatsgorria	<i>Achondrostoma arcasii</i>	P	II eta IV	*	-		F
ANFIBIOAK								
1195	Hegoaldeko apo pintatua	<i>Discoglossus jeanneae</i>	P	II eta IV	*	R		I
1209	Baso-igel jauzkaria	<i>Rana dalmatina</i>	P	IV	VU	VU		D
1191	Txantxiku arrunta	<i>Alytes obstetricans</i>	P	IV	*	-		F
6284	Apo lasterkaria	<i>Epidalea calamita</i> (= <i>Bufo calamita</i>)	P	IV	*	VU		F
1203	Zuhaiz-igel arrunta	<i>Hyla arborea</i> (= <i>Hyla molleri</i>)	P	IV	*	-		F
2351	Arrubioa	<i>Salamandra salamandra</i>	P	-	-	-		F
NARRASTIAK								
5883	Gardaxoa	<i>Timon lepidus</i>	P	-	*	IE		D
2466	Montpeillereko sugea	<i>Malpolon monspessulanus</i>	P	-	-	IE		D
2430	Txaradi-sugandila	<i>Psammotromus alpinus</i>	P	-	*	IE		D
HEGAZTIAK (*)								
A004	Txilinporta txikia	<i>Tachybaptus ruficollis</i>	P	-	*	R		F
A005	Murgil handia	<i>Podiceps cristatus</i>	P/W	-	*	IE		F
A017	Ubarroi handia	<i>Phalacrocorax carbo</i>	C/W	-	-	-		F
A022	Amiltxori txikia	<i>Ixobrychus minutus</i>	V	I	*	R		F
A023	Amiltxori arrunta	<i>Nycticorax nycticorax</i>	V	I	*	R		F

2023ko martxoaren 20a, astelehena

3. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko fauna-espezieak.									
Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	Zuzentarauaren eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa plana	NOGBko kontserbazio-egoera	
A028	Koartza hauskara	<i>Ardea cinerea</i>	C/W	-	*	-		F	
A029	Koartza gorria	<i>Ardea purpurea</i>	C	I	*	R		F	
A031	Zikoina zuria	<i>Ciconia ciconia</i>	C	I	*	R		F	
A043	Antzara hankagorritza	<i>Anser anser</i>	C	II A	-	-		F	
A050	Ahate txistularia	<i>Anas penelope</i>	C	II A	-	-		F	
A051	Ipar-ahatea	<i>Anas strepera</i>	C/W	II A	-	-		F	
A052	Zertzeta arrunta	<i>Anas crecca</i>	W	II A	-	-		F	
A053	Basahatea	<i>Anas platyrhynchos</i>	C/W	II A	-	-		F	
A054	Ahate buztanluzea	<i>Anas acuta</i>	C/W	II A	-	-		F	
A055	Udako zertzeta	<i>Anas querquedula</i>	C	II A	-	-		F	
A056	Ahate mokozabala	<i>Anas clypeata</i>	W	II A	-	-		F	
A059	Murgilari arrunta	<i>Aythya ferina</i>	W	II A	-	-		F	
A060	Murgilari arrea	<i>Aythya nyroca</i>	W	I	PE	-		F	
A061	Murgilari motiduna	<i>Aythya fuligula</i>	W	II A	-	-		F	
A072	Zapelatz liztorjalea	<i>Fernis apivorus</i>	R/C	I	*	R		F	
A073	Miru beltza	<i>Milvus migrans</i>	R/C	I	*	-		F	
A074	Miru gorria	<i>Milvus milvus</i>	P/C/W	I	PE	PE		D	
A076	Ugatza	<i>Gypaetus barbatus</i>	C/W	I	PE	PE	A, B eta G	D	
A077	Sai zuria	<i>Neophron percnopterus</i>	R	I	VU	VU	A, B eta G	F	
A078	Sai arrea	<i>Gyps fulvus</i>	P	I	*	IE	A, B eta G	F	
A080	Arrano sugezalea	<i>Circus gallicus</i>	R/C	I	*	R		F	
A081	Zingira-miroitza	<i>Circus aeruginosus</i>	C	I	*	R		F	
A082	Miroitz zuria	<i>Circus cyaneus</i>	P/C/W	I	*	IE		F	
A084	Miroitz urdina	<i>Circus pygargus</i>	R/C	I	VU	VU		F	
A085	Azore arrunta	<i>Accipiter gentilis</i>	P	-	*	R		F	
A086	Gabirai arrunta	<i>Accipiter nisus</i>	P	-	*	IE		F	
A091	Arrano beltza	<i>Aquila chrysaetos</i>	P	I	*	VU		I	
A092	Arrano txikia	<i>Hieraaetus pennatus</i>	R/C	I	*	R		F	
A098	Belatz txikia	<i>Falco columbarius</i>	C/W	I	*	R		F	
A099	Zuhaitz-belatza	<i>Falco subbuteo</i>	R/C	-	*	R		F	
A103	Belatz handia	<i>Falco peregrinus</i>	P	I	*	R		F	
A113	Galeperra	<i>Coturnix coturnix</i>	R	II B	-	-		F	
A188	Uroilanda handia	<i>Rallus aquaticus</i>	P/C	II B	-	R		F	
A125	Kopetazuri arrunta	<i>Fulica atra</i>	P/C/W	II A	-	-		F	

2023ko martxoaren 20a, astelehena

3. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko fauna-espezieak.									
Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	Zuzentarauaren eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa plana	NOGBko kontserbazio-egoera	
A127	Kurrilo arrunta	<i>Grus grus</i>	C	I	*	IE		F	
A152	Istingor txikia	<i>Lymnocyrtes minimus</i>	C/W	II A	-	-		D	
A153	Istingor arrunta	<i>Gallinago gallinago</i>	C/W	II A	-	-		F	
A155	Oilagorri	<i>Scolopax rusticola</i>	P/C/W	II A	-	-		F	
A165	Kuliska iluna	<i>Tringa ochropus</i>	C/W	-	*	-		F	
A168	Kuliska txikia	<i>Actitis hypoleucos</i>	C	-	*	R		F	
A208	Pagausoa	<i>Columba palumbus</i>	P/C	II A	-	-		F	
A210	Usapal europarra	<i>Streptopelia turtur</i>	C	II B	-	-		F	
A212	Kukua	<i>Cuculus canorus</i>	R	-	*	-		F	
A214	Apo-hontza	<i>Otus scops</i>	R	-	*	-		F	
A215	Hontz handia	<i>Bubo bubo</i>	P	I	*	R		F	
A224	Zata arrunta	<i>Caprimulgus europaeus</i>	R	I	*	IE		F	
A226	Sorbeltz arrunta	<i>Apus apus</i>	R/C	-	*	-		F	
A228	Maikar-sorbeltza	<i>Tachymartus melba</i>	R/C	-	*	IE		F	
A229	Martin arrantzalea	<i>Alcedo atthis</i>	P	I	*	IE		F	
A230	Erle-txorria	<i>Merops apiaster</i>	C	-	*	IE		F	
A232	Argi-oilarra	<i>Upupa epops</i>	C	-	*	VU		F	
A233	Lepitzulia	<i>Jynx torquilla</i>	R/C	-	*	IE		F	
A236	Okil beltza	<i>Dryocopus martius</i>	P	I	*	R		F	
A238	Okil ertaina	<i>Dendrocopos medius (= Leippicus medius)</i>	P	I	*	VU		F	
A240	Okil txikia	<i>Dendrocopos minor (= Dryobates minor)</i>	P	-	*	IE		F	
A246	Pirripioa	<i>Lullula arborea</i>	P	I	*	-		F	
A247	Hegatxabal arrunta	<i>Alauda arvensis</i>	P/C/W	II B	-	-		F	
A249	Uhaide-enara	<i>Riparia riparia</i>	C	-	*	VU	A	F	
A250	Haitz-enara	<i>Ptyonoprogne rupestris (= Hirundo rupestris)</i>	R/C	-	*	-		F	
A251	Enara arrunta	<i>Hirundo rustica</i>	R/C	-	*	-		F	
A253	Enara ipurzuria	<i>Delichon urbica (= Delichon urbicum)</i>	R/C	-	*	-		F	
A255	Landa-txirta	<i>Anthus campestris</i>	R	I	*	IE		F	
A256	Uda-txirta	<i>Anthus trivialis</i>	R/C	-	*	-		F	
A257	Negu-txirta	<i>Anthus pratensis</i>	C/W	-	*	-		F	
A259	Mendi-txirta	<i>Anthus spinoletta</i>	P/W	-	*	-		F	
A260	Larre-buztanikara	<i>Motacilla flava</i>	R/C	-	*	-		F	

2023ko martxoaren 20a, astelehena

3. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko fauna-espezieak.

Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	Zuzentaruaren eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa plana	NOGBko kontserbazio-egoera
A264	Ur-zozoa	<i>Cinclus cinclus</i>	P	-	*	IE		F
A271	Urretxindorra	<i>Luscinia megarhynchos</i>	R	-	*	-		F
A272	Papurdina	<i>Luscinia svecica</i>	C	I	*	-		F
A274	Buztangorri argia	<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	R/C	-	VU	VU		F
A275	Pitxartxar nabarra	<i>Saxicola rubetra</i>	C	-	*	IE		F
A277	Buztanzuri arrunta	<i>Oenanthe oenanthe</i>	R/C	-	*	-		F
A280	Harkaitz-zozo gorria	<i>Monticola saxatilis</i>	R	-	*	IE		F
A284	Durdula	<i>Turdus pilaris</i>	C/W	II B	-	-		F
A286	Birgarro txikia	<i>Turdus iliacus</i>	C/W	II B	-	-		F
A290	Benarritz nabarra	<i>Locustella naevia</i>	C	-	*	-		F
A292	Benarritz gorizta	<i>Locustella luscinioides</i>	C	-	*	PE		F
A295	Benarritz arrunta	<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>	C	-	*	PE		F
A297	Lezkari arrunta	<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	C	-	*	R		F
A298	Lezkari karraxina	<i>Acrocephalus arundinaceus</i>	C	-	*	R		F
A300	Sasi-txori arrunta	<i>Hippolais polyglotta</i>	R/C	-	*	-		F
A302	Etze-txinboa	<i>Sylvia undata</i>	P/W	I	*	-		F
A309	Sasi-txinboa	<i>Sylvia communis</i>	R/C	-	*	-		F
A310	Baso-txinboa	<i>Sylvia borin</i>	R/C	-	*	-		F
A313	Txio lepazuria	<i>Phylloscopus bonelli</i>	R	-	*	-		F
A315	Txio arrunta	<i>Phylloscopus collybita</i>	C/W	-	*	-		F
A316	Txio horia	<i>Phylloscopus trochilus</i>	C	-	*	R		F
A618	Txio iberiarra	<i>Phylloscopus ibericus</i>	R/C	-	*	-		F
A317	Mendi-erretgoa	<i>Regulus regulus</i>	P/W	-	*	IE		F
A319	Euli-txori grisa	<i>Muscicapa striata</i>	R/C	-	*	-		F
A322	Euli-txori beltza	<i>Ficedula hypoleuca</i>	R/C	-	*	R		F
A337	Urretxoria	<i>Oriolus oriolus</i>	R/C	-	*	-		F
A338	Antzandobi arrunta	<i>Lanius collurio</i>	R	I	*	-		F
A341	Antzandobi kaskagorria	<i>Lanius senator</i>	C	-	*	VU		F
A346	Belatxinga mokogorria	<i>Pyrrhonorax pyrrhonorax</i>	P	I	*	IE		F
A350	Erroia	<i>Corvus corax</i>	P	-	-	IE		F
A351	Araba zozo pikarta	<i>Sturnus vulgaris</i>	C/W	II B	-	-		F
A360	Negu-txonta	<i>Fringilla montifringilla</i>	C/W	-	*	-		F
A365	Tarina	<i>Carduelis spinus</i>	C/W	-	*	IE		F
A373	Mokolodia	<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	C/W	-	*	IE		F

2023ko martxoaren 20a, astelehena

3. taula. Izki NOGBan dauden Batasunaren eta/edo Eskualdearen Intereseko fauna-espezieak.									
Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	Zuzentaruaren eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	Kudeaketa plana	NOGBko kontserbazio-egoera	
UGAZTUNAK									
1304	Ferra-saguzar handia	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	P	II eta IV	VU	VU		D	
1303	Ferra-saguzar txikia	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	P	II eta IV	*	IE		D	
1324	Arratoi-belarri handia	<i>Myotis myotis</i>	P	II eta IV	VU	PE		D	
1321	Geoffroy saguzarra	<i>Myotis emarginatus</i>	P	II eta IV	VU	VU		D	
1323	Bechstein saguzarra	<i>Myotis bechsteini</i>	P	II eta IV	VU	PE		D	
1330	Saguzar biboteduna	<i>Myotis mystacinus</i>	P	IV	VU	PE		D	
5003	Saguzar bibotedun txikia	<i>Myotis alcathoe</i>	P	IV	*	PE		D	
1322	Natterer saguzarra	<i>Myotis nattereri</i>	P	IV	*	IE		D	
1314	Daubenton saguzarra	<i>Myotis daubentonii</i>	P	IV	*	IE		D	
1309	Saguzar arrunt	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	P	IV	*	IE		D	
5365	Savi saguzarra	<i>Hypsugo savii</i>	P	IV	*	IE		D	
2016	Kuhl pipistrela	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	P	IV	*	IE		D	
1331	Gau-saguzar txikia	<i>Nyctalus leisleri</i>	P	IV	*	IE		D	
1312	Gau-saguzar ertain	<i>Nyctalus noctula</i>	P	IV	VU	VU		D	
1327	Baratze-saguzarra	<i>Eptesicus serotinus</i>	P	IV	*	IE		D	
1308	Baso-saguzarra	<i>Barbastella barbastellus</i>	P	II eta IV	*	PE		D	
1326	Iparaldeko belarrihandi arrea	<i>Plecotus auritus</i>	P	IV	*	IE		D	
1329	Hegoaldeko belarrihandi grisa	<i>Plecotus austriacus</i>	P	IV	*	IE		D	
1310	Schreibers saguzarra	<i>Miniopterus schreibersii</i>	P	II eta IV	VU	VU		D	
1333	Saguzar buztanluzea	<i>Tadarida teniotis</i>	P	IV	*	IE		D	
1356	Bisoi europarra*	<i>Mustela lutreola</i>	P	II eta IV	PE	PE	A, B eta G	M	
1357	Lepahoria	<i>Martes martes</i>	P	V	-	R		D	
1358	Ipurfatsa	<i>Mustela putorius</i>	P	V	-	IE		D	
1355	Igaraba arrunta	<i>Lutra lutra</i>	P	II eta IV	*	PE	A	F	
1363	Basakatua	<i>Felis silvestris</i>	P	IV	*	IE		F	
2616	Muxar grisa	<i>Glis glis</i>	P	-	-	VU		D	
5560	Mendealdeko ur-arratoia	<i>Anvicola sapidus</i>	P	-	-	-		D	

Mota (P: iraunkorra); Zuzentaruaren eranskina (Habitatzen Zuzentaruaren edo, hala badagokio, Hegaztien Zuzentaruaren eranskina); LESRPE eta CEEA (Babes Bereziko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa; PE: Galzoriako espeziea; VU: Kaltebera; *: Zerrendan dago); EMEK (Espezia Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa; PE: Galzoriako espeziea, VU: Kaltebera; R: Bakana; IE: Interes bereziko); Kudeaketa Plana EAEh (A: Araban; B: Bizkaian; G: Gipuzkoan), Kontserbazio-egoera (M: Txarra; I: Desegokia; F: Egokia; D: Ezezaguna).

Izki natura-ondarearen gunee babestuan dauden ornogabeen artean, intsektu saproxilikoek komunitatea eta odonatuena nabarmentzen dira, baita ibai-karramarroaren (*Austropotamobius italicus*) presentzia ere, Habitaten Zuzentarauaren II. eta V. eranskinean jasoak.

Iktiofaunari dagokionez, Izki esparruan *Parachondrostoma toxostoma* eta *Achondrostoma arcasii* nabarmentzen dira, Habitaten Zuzentarauaren II. eranskinean jasoak.

Anfibioen taldeak ere garrantzi berezia du naturagunean, eta nabarmentzekoa da baso-igel jauzkariaren populazioa (*Rana dalmatina*).

Hegaztien artean, errupikolek garrantzi berezia dute Izkin, hainbat espezieren populazioa edo ugaltze-bikoteak hartzen ditu eta: sai arrea (*Gyps fulvus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) eta hontz handia (*Bubo bubo*); gainera, ugatza (*Gypaetus barbatus*) ere agertzen da noizean behin, pasean.

Eta zalantzarik gabe, okil ertaina (*Dendrocopos medius*) Izkiko espezie enblematiko bat da; okil bitxi horrek 750 banakotik gorako errolda du naturagunean, eta horrek garrantzi adierazgarria ematen dio lekuari testuinguru iberiarraren barruan.

Izki Pirinioen mendebaldeko eta Bizkaiko Golkoaren ekialdeko migrazio-bidearen parte da. Bestalde, hezegune eta putzuen sare oparoak nabarmentzeko moduko garrantzia ematen dio naturaguneari urtero bertan gelditzen diren hegazti urtar negutarren eta pasekoen komunitateari dagokionez.

Ugaztunen artean basoko kiropteroen komunitatea nabarmentzen da, nagusiki Bechstein saguzarraren (*Myotis bechsteinii*) populazioa. Bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba (*Lutra lutra*) ere aipatzen dira.

3.2.4.– Sistema urtarrak.

3.2.4.1.– Sistema urtarren deskribapena.

Izkiko ibai-sistema naturagunea eratzen duen paisaia egituratzen eta dibertsifikatzen duen garrantzizko elementua da. «Ibai-lurralde» gisa ulertua, ibai-sistemarekin lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko inguruneen dibertsifikazioa bermatzen duten prozesu hidrogeomorfologiko guztiak biltzen ditu, eta sistemaren elementuetariko bakoitza eta horien interrelazioak kontserbatzea eta babestea ahalbidetzen du, funtsezko elementuen kasuan bereziki.

Arestian adierazi den moduan, Izki natura-ondarearen gunee babestuko sistema urtarrak garrantzi handikoak dira habitat eta espezie ugariaren kontserbaziorako. Nabarmentzekoak dira 7150, 7210* eta 7230 Batasunaren Intereseko Habitatak, Izkin duten ordezkaritza EAEko Natura 2000 Sareko espazioen osotasunean dutenaren % 25 baino gehiago baita.

Izkin garrantzizkoak dira, halaber, ingurune urtarrei lotutako flora-espezieak, hala nola nenufar zuria edo *Rhynchospora fusca*.

Faunari dagokionez, hezegune eta putzuen sare oparoak garrantzi handia ematen dio naturaguneari hegazti negutarren eta pasekoen presentziari dagokionez, baina beste espezie batzuen presentzia ere garrantzizkoa da. Horien artean daude, esaterako, bisoi europarra, Habitaten Zuzentarauaren II. eranskinean jasotako lehentasunezko espeziea, edo odonatuen eta anfibioen komunitatea.

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez onartutako EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak, bestalde, 118 zohikaztegi, diapiroekin lotutako urmael bat, bi urtegi, zortzi ureztatze-putzu eta mendiko aziendarentzako 11 uraska/putzu jasotzen ditu Izki esparru babestuan. Horietako gehienak inbentario horren I. multzoan daude (108 hezegune), bederatzi III. multzoan, eta bat II. multzoan: Olandinako urmaela (B6A1), erabilerak eta jarduerak araututa dituen, bere zonifikazioaren arabera.

Ebroko Plan Hidrologikoaren Zona Babestuen Erregistroak, bestalde, Batasunaren araudia (Uraren Esparru Zuzentaraua) eta beste araudi batzuk aplikatuta babestekoak diren ingurune urtarrarekin erlacionatutako zonak jasotzen ditu. Izkin Izki-Zudaire masa (021) aipatzen da hornidurako lurpeko ur-bilguneen artean, baita natura-ondarearen gune babestua bera osotasunean aipatu ere.

3.2.4.2.– Sistema urtarren kalitatea.

Izki ibaiaren uren egoera ekologikoari dagokionez, 2017. urtean «ona» zen, kalitate ona eta oso ona zuen adierazle biologikoei zegokionez (makroornogabe-komunitateari eta fitobentos- eta arrain-komunitateari, hurrenez hurren), eta ona baldintza fisiko-kimiko orokorreki zegokionez.

4. taula. Izki ibaiaren egoera ekologikoaren diagnostikoaren laburpena.		
Adierazle multzoa	Adierazlea	EGI-102 estazioa
Biologikoak	Makroornogabeak (MBi)	Ona
	Fitobentosak (IPS)	Oso ona
	Arrain-fauna (ECP)	Oso ona
	Egoera biologikoa	Ona
Fisiko-kimikoak	IFQ-R	Oso ona
	OMA parametroak	Betetzen du
	Lehentasunezko substantziak	Oso ona
Egoera ekologikoa		Ona

Ur-masen egoera kimikoari dagokionez, ingurumen-helburuak betetzen dira, egoera fisiko-kimikoa «ona» baita.

Egoera kimikoen beste adierazle batzuek —ICG, Prati eta Bizitza Zuzentaraua, besteak beste— laginketa-estazioan uren egoera ona dela berresten dute, ez baitago lehentasunezko substantzien ondoriozko arazorik.

Bestalde, 2015/2016 ziklo hidrologikoan Olandinako urmaelaren egoera ekologikoa «eskasa» zela zehaztu zen.

Lurpeko urei dagokionez, Izki gune babestu osoan egoera kimikoa eta orokorra ona da. Bestalde, Izkiko lurralde gehienak lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasun oso handia edo handia erakusten du. Izan ere, Bardiluz errearen ezker aldean eta Lakobaltza-Basalau eta Korresbidea-Sumo parajeetan besterik ez du erakusten kalteberatasun ertaina.

Kalteberatasun txikiko zonak natura-ondarearen gune babestuaren ipar-mendebaldeko sektoreari (Arbitea, Gabalata, Gurtupea eta La Rasa parajeak) eta hego-ekialdeko sektoreari (Parra, El Encinar eta Los Pomares) dagozkie.

3.2.5.– Paisaia.


Izkiko paisaiak mendi malkartsuek inguratzen duten erliebe ondulatuak dituen haran zabala eratzea du bereizgarri. Hedadura handi samarreko zuhaitz-masa baten presentzia da azpimarragarriena, aparteko izaera ematen baitio naturaguneari.

Hiru eremu edo paisaia-unitate handi identifikatzen dira erliebea eta lurzorua estalkia oinarri hartuta: Izkiko mendien eremua, Kapildui eta Arluzeako ordokiaren eremua, eta Korreseko eremua. Lehenak nagusiki ameztiak taxutzen duen zuhaitz-masa zabala du bereizgarri. Kapildui eta Arluzeako ordokiaren eremuan, berriz, larredi eta sastrakadien, mazelako basoen eta pareta bertikaleko harkaiztegien arteko kontrasteak dira nagusi. Korreseko eremuan, azkenik, harkaiztegien, haran-zonen eta Azazetako Ega (Berron) eta Izki ibaien arteko testura-kontrasteak eta kontraste kromatikoak dira nagusi.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoak aparteko


lau paisaia jasotzen ditu: Mendiluzea-Jaunden-Luzaran; Hornillo-Orbiso; Ihuda, Aiago eta Azazetako Ega (Berron) ibaien goi-ibarrak; eta Izkiko mendiak. Lehenengok oso ehuneko txikia okupatzen dute natura-ondarearen gune babestuan; azkenekoak, aldiz, azaleraren % 99 baino gehiago hartzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoak, bestalde, 17 ikus-arro deskribatzen ditu, ondorengo irudian ikus daitekeen moduan.



2. irudia. Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan Izki NOGBan sartutako ikus-arroak.

Izkiko ikus-arroetako bakoitza analizatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan 5 espazio sartu dira: gune babestuaren multzoa oro har (Izki); Arluzeako zona bakartua; Urturiko zona bakartua; Gasteizko Mendi Garaiak (Markinez); eta Gasteizko Mendi Garaiak (hegoaldeko mazelak).




3. irudia. Euskal Autonomia Erkidegoko Aparteko Paisaiak Izki NOGBan.

Identifikatutako ikus-arro gehienek paisaia-balio handia edo oso handia dute. Izan ere, balio txikia duen bakarra Maezturi dagokiona da, bertan bide-azpiegituren eta telekomunikazio-azpiegituren kontzentrazio handia dago eta.

3.2.6.– Konektagarritasun ekologikoa eta beste naturagune babestu batzuekiko erlazioa.

Izki natura-ondarearen gune babestua Izkiren ipar-mendebaldean kokatutako Gasteizko Mendi Garaiak KBEarekin konektatzen da iparraldean kokatutako Azazeta, Berrozi eta Okinako mendietan zehar. Naturagune hori, Izkirekin batera, EAEko korridore ekologiko nagusietako baten parte da.

Azazeta, Berrozi eta Okinako mendietan eta Gasteizko Mendietan zehar konektatutako beste naturagune batzuk Arabako lautadako irla-hariztiak KBEa eta Salburua KBEa dira.



4. irudia. Izkirekin erlazionaturiko beste zenbait naturagune babestu.

Bestalde, Entzia KBEa Izkiren ekialdean dago, eta Iturrietako mendiek eta Entzia mendilerroak eta haren inguruko mendiek osatzen dute. Naturagune hori Arabako erdialdeko mendilerroen korridore ekologikoaren barruan dago, Gasteizko Mendi Garaietatik Urbasa eta Andia mendilerroaraino (Nafarroan) hedatzen den mendikateari jarraipena emanez, eta Izki mendikatearen erdian dago.

Izkiren ekialdean dago, halaber, Hornillo mendiaren inguruetan kokatutako konexio-espazioa. Mendi horrek lotzen ditu espazio hori eta Lokiz mendilerroa, Arabako hegoaldeko mendilerroak Natura 2000 espazioaren parte dena, zeina Cabrera mendiak eta Portilla, Toloño, Kodes eta Lokiz mendilerroek osatzen baitute, hegoaldean, hego-ekialdean eta ipar-ekialdean kokatutakoek, hurrenez hurren. Naturagune hori Arabako hegoaldeko mendien korridore ekologikoan integratuta dago, ekialderantz jarraikiz, Nafarroako Kodes eta Lokiz mendilerroekin konektatuta, eta Izkirekin konektatzen da Azazetako Ega (Berron) ibaiaren (Lokiz eta Kodes mendilerroekin) eta Ega ibaiaren (Toloño mendilerroarekin) bitartez.

Izkiko hegoaldeko muturrean beste lau konexio-eremu kokatzen dira: bat Kodes mendilerroa KBEarekin (Nafarroa) eta hiru Toloño mendilerroarekin (Arabako hegoaldeko mendilerroak KBEan/HBBEan sartua). Kodes mendilerroari dagokionez, Nafarroako Foru Erkidegoan kokatzen da, Izki natura-ondarearen gune babestuaren hego-ekialdean, eta Arabako erdialdeko eta hegoaldeko

mendilerroetako mendikateen arteko korridore ekologiko garrantzitsu baten parte da, baita Nafarroako beste mendikate batzuekiko lotura ere.

Halaber, naturagunearen mendebaldeko muturrean eta Trebiñuko konderriko mugan daude lhuda ibaia KBEa eta Riberas del Ayuda KBEa, naturagunearekin Markinez errearen bitartez konektatzen direnak.

Galgitu errekek, Izki gune babestuaren ekialdean, naturagune babestua Ega-Berron ibaia KBEarekin lotzen du. KBE horrek barnean hartzen ditu Azazetako Ega (Berron) ibaia, Izki eta Entzia naturagune babestuen artean kokatua, Izki ibaiaren parte bat, izen bereko natura-ondarearen gune babestuaren hego-ekialdeko sektorean, eta Ega ibaiaren parte bat, naturagunearen hegoaldean.

Azkenik, Izkiaren hego-ekialdeko muturrean, Los Agünes izeneko parajea, bi natura-monumentu jasotzen dira: Antoñanako hagina eta Antoñanako ezki hostozabala. Lehenengoa 13 m-tik gorako altuerako eta 5,3 m-ko enbor-perimetroko hagina (*Taxus baccata*) da, eta bigarrena 23 m-tik gorako altuerako eta 5 m-ko enbor-perimetroko ezki hostozabala (*Tilia platyphyllos*); biak zuhaitz aparteko izendatu zituzten 1997an.

Lehorreko korridorean aipatzen den eragin nagusia A-132 errepidea da, natura-ondarearen gune babestutik kanpo, baina haren ekialdeko muturrean. Izan ere, errepide horrek istripu-tasa handia du, eta lehentasunezko arreta behar duten harrapatze-kontzentrazio handiko hiru tarte, Izkiaren inguruetan definituak.

Korridore urtarrari dagokionez, Izki ibaiaren gaineko Aranbaltza presa nabarmentzen da, Korres herriaren hegoaldean. Presak ez dauka ibaian gora eta ibaian behera kokatutako populazioak konektatzeko gailurik, eta zentral hidroelektrikoa hornitzen duen kanala hesiz inguratuta dago, faunari bertan sartzen ez uzteko, baina noizean behin akatsak izaten ditu mantentze-lanetan. Gainera, kanal horrek ez du bertan eror daitezkeen animaliak irteteko sistemarik.

Izki natura-ondarearen gune babestuaren aireko korridorean goi-tentsioko aireko linearen lau tarte daude. Horietako batek gailuak dauzka hegazti-faunak talka egiteko eta elektrokutatze arriskua murrizteko (Korreserako deribazioa). Gainerakoek ez daukate gisa horretako gailurik, edo, dauden lekuetatik, ez dute arriskurik hegazti-faunarentzat.

3.3.– Ingurune soziala.

3.3.1.– Udalerriak, kontzejuak eta natura-ondarearen gune babestuko titulartasuna.

Izki natura-ondarearen gune babestua hiru udalerriren lursailetan kokatzen da, eta, horien barruan, hamahiru kontzejutan.

5. taula. Izki NOGBa osatzen duten udalerrri eta kontzejuen azalera-banaketa						
Kod.	Udalerrria	NOGBko azalera*		Kontzejua	NOGBko azalera*	
		(ha)	%		(ha)	%
01037	Arraia-Maeztu	3.611,31	38,12	Apinaiz	1.254,78	13,256
				Atauri	94,74	1,000
				Korres	1.332,55	14,070
				Maeztu	602,93	6,360
				Birgara Goien	320,06	3,383
01016	Bernedo	5.348,26	56,46	Arluzea	1.422,18	15,018
				Markinez	1.160,78	12,258
				Kintana	828,37	8,740
				Durruma Kanpezu	745,62	7,875
				Urarte	647,34	6,830
01017	Kanpezu	513,65	5,42	Antoñana	291,72	3,086
				Bujanda	215,08	2,273
				Udalerrriak guztira	9.473,05	100,00

*Azaleretan dauden bat ez etortze txikiak erreferentziako oinarri kartografikoen artean dauden desberdintasunen ondorio dira.

Bernedo da azalerarik handiena ematen dion udalerria, eta Arraia-Maeztu hurrengoa. Kanpezuk gune babestuaren guztizko azaleraren % 5 baino gehixeago besterik ez du ematen.

6. taula. Izki NOGBaren ordezkartza udalerrri eta kontzejuetan				
Kod.	Udalerria	Udalerriak NOGBan duen %	Kontzejua	Kontzejuak NOGBan duen azalera (%)
01037	Arraia-Maeztu	29,39	Apinaiz	78,00
			Atauri	20,14
			Korres	100,00
			Maeztu	53,92
			Birgara Goien	31,37
01016	Bernedo	40,90	Arluzea	87,58
			Markinez	47,09
			Kintana	68,73
			Durruma Kanpezu	58,00
			Urarte	52,41
01017	Kanpezu	6,00	Urturi	58,80
			Antoñana	19,05
			Bujanda	55,98

Korres kontzeju osoa natura-ondarearen gune babestuaren barruan dago, baita ondoko kontzeju hauen erdia baino gehiago ere: Apinaiz, Maeztu, Arluzea, Kintana, Durruma Kanpezu, Urarte eta Urturi.


Biztanleriari dagokionez, Izkiaren esparruan Kanpezuko Kuadrillako toki-erakundeak kokatzen dira; Arabako biztanle gutxien duen kuadrilla da.

Jabetza-erregimenari dagokionez, ondorengo taulan adierazi da banaketa, partzelak zein naturagunean dauden bideen sarea kontuan hartuta. Ikus daitekeen moduan, azken azalera ez dator bat, erabilgarri dagoen kartografian dauden zehaztugabetasun jakin batzuen ondorioz.

7. taula. Izki NOGBaren esparruko udalerrien arabeko jabetza.					
Kod. (EUSTAT)	Udalerria	Udalerriak NOGBan duen azalera (ha)	Landa-partzelak		Hiri-partzelak
			Azalera publikoa (%)	Azalera pribatua (%)	Azalera pribatua (%)
01037	Arraia-Maeztu	3.611,31	92,21	7,75	0,04
01016	Bernedo	5.348,26	81,49	19,73	0,00
01017	Kanpezu	513,65	98,54	0,27	0,00

Izkiko titulartasun publikoko lursail gehienak onura publikoko mendiei (OPM) dagozkie; arestian adierazitako kontzejuak eta beste erakunde batzuk dira horien titularrak. Guztira, 9.104,73 ha okupatzen dituzten 33 OPM daude, hots, natura-ondarearen gune babestuaren azaleraren % 96,02 hartzen dute.

OPMen eta ondare-mendien erregimen juridikoa martxoaren 26ko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauak erregulatzen du Arabako lurralde historikoan.



5. irudia. Izki NOGBaren esparruko onura publikoko mendiak.

3.3.2.– Deskribapen demografikoa eta sozioekonomikoa

Izki gune babestuaren esparruan erregistratutako 13 kontzejuetan 922 biztanle daude guztira. Biztanle horien % 55,0 Arraia-Maeztuko udalerrian daude, % 26,9 Bernedon eta % 18,1 Kanpezun.

8. taula. Izki NOGBaren esparruko kontzejuetako biztanleria.

Udalerria	Kontzejua	Bizt.	Kontzejuen guztizkoaren gaineko biztanleen %	NOGB an
Arraia-Maeztu	Apinaiz	87	9,5	Ez
	Atauri	33	3,6	Ez
	Korres	26	2,8	Bai
	Maeztu	328	35,7	Ez
	Birgara Goien	46	5,0	Ez
Bernedo	Arluzea	26	2,8	Ez
	Markinez	69	7,5	Ez
	Kintana	20	2,2	Ez
	Durruma Kanpezu	22	2,4	Ez
	Urate	34	3,7	Ez
Kanpezu	Urturi	61	6,6	Ez
	Antoñana	146	15,9	Ez
	Bujanda	21	2,3	Ez
Guztira		919	100,0	-

Arabako Mendialdea da Araban biztanleriaren beherakadarik handienetakoa izan duen eskualdea. Oro har, azken 20 urteetan biztanleria % 3,6 handitu da Izki natura-ondarearen gune babestuaren esparruaren kontzeju guztietan, baina datuak kontzejuz kontzeju analizatuz gero alde nabarmenak daudela ikus daiteke: alde batetik, Maeztu, Markinez eta Antoñana bezalako herrietan biztanleria % 15 baino gehiago handitu da, baina Durruma Kanpezu, Bujanda, Kintana eta Korres bezalako beste

batzuetan, berriz, biztanleriaren beherakada % 30 baino handiagoa izan da, lehenengoan batez ere, % 87 jaitsi da eta.

Biztanleriaren egiturari dagokionez, adin-tarteei erreparatuz gero, Izkiren esparruak zahartze progresiboa du bereizgarri. Izan ere, nabarmentzekoa da Kintana edo Durruma Kanpezu bezalako herrietan ez dagoela 0 eta 19 urte arteko biztanlerik.

Sexuaren arabera biztanleriaren egitura 1,4 da, emakumeenganantz desorekatua, biztanleriaren % 41,9 ordezkaten dute eta. Kontzejuz kontzeju, alabaina, Durruma Kanpezu eta Bujanda nabarmentzen dira, 2,3 eta 3,5 indizeekin, hurrenez hurren. Horiek horrela, emakume kopurua gizon kopurua baino askoz ere txikiagoa da.

Biztanleriaren analisi sozioekonomikoari dagokionez, adierazi beharra dago, lehenik, adiera hertsian biztanleria horren parte bat besterik ez dagoela zuzenean erlazionatuta Izkiko lurraldearen erabilerarekin loturiko jarduerekin. Izki hartzen duten udalerrietan jarduera-adar bakoitzean lanean ari den biztanleriari buruz erabilgarri dauden datu berriek adierazten dutenez, biztanleria aktiboak, funtsean, zerbitzu-sektorean (Bernedoko % 43,68 eta Arraia-Maeztuko % 58,47 artean mugitzen da) eta industrian (Arraia-Maeztuko % 25,42 eta Bernedoko % 34,48 artean) lan egiten du.

9. taula. Izkiko udalerrietako ekonomia-jardueraren ehunekoen banaketa.				
Udalerrria	Nekazaritza eta arrantza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Arraia-Maeztu	8,19	25,42	7,91	58,47
Bernedo	17,24	34,48	4,6	43,68
Kanpezu	4,96	31,47	10,34	53,23

Lehen sektoreak, Izkiren idiosinkrasiarekin lotura handiena duenak, Bernedoko biztanleria aktiboaren % 17,24, Arraia-Maeztukoaren % 8,19 eta Kanpezukoaren % 4,96 besterik ez du hartzen. Sektore horrek oso beherakada handia izan du azken 15 urteetan, batez ere Arraia-Maeztuko udalerrian, biztanleria aktiboaren % 26,71 ordezkatzetik % 8,19 besterik ez izatera igaro baita.

Izki natura-ondarearen gune babestua osatzen duten udalerrietan erregistratutako langabezia-tasari dagokionez, EAEko egoera globalarekin bat, nabarmen egin du gora 2004. urteaz geroztik, batez ere Kanpezun, azken 10 urteetan langabezia-tasa % 3,9tik % 12,6ra igo baita.

3.3.3.– Kultura-ondarea.

Natura- eta paisaia-balioez gain, Izki garrantzi handiko kultura-baliabideak ditu. Kultura-ondarearen erakusgarriak ugari dira, gutxienez Neolitoaz edo Brontze Aroaz geroztik, horietako batzuk garrantzi berezikoak.

Haitzulo artifizialak nabarmentzen dira, denbora luzean erabili diren Erdi Aroko adierazpenak. Zenbait kasutan Antzinate Berantiarrekoak dira, kristautasunaren jatorri den garaikoak, eta Aro Modernoa hasi ondoren ere erabiltzen zituzten artean.

Nabarmentzekoa da, halaber, Korreseko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa, Erdi Aroko egitura tipikoa duen herria, 1996ko martxoaren 21eko Aginduaren bidez kultura-ondasun deklaratu, monumentu-multzoaren kategoriarekin. Zona berean Korreseko Gaztelua hartzen duen eremu arkeologikoa nabarmentzen da, Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartutako kultura-ondasun deklaratu, monumento-multzoaren kategoriarekin, martxoaren 8ko 39/2016 Dekretuaren arabera.

Nabarmentzeko beste elementu batzuk:

– San Kristobal baselizako ondare arkeologikoa (Apinaiz).

- Arluzeako errota (Arluzea).
- San Roman basiliza (Durruma Kanpezu).
- Arluzeako Done Martie eliza.
- Ikaztegiak.
- Karobiak.
- Artzain-etxolak.

Elementu horietarako proposatutako egungo babes-mailarako lege-esparrua honako hau da: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

3.4.– Natura baliabideen erabilera.

3.4.1.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera.

Mendiaren abeltzaintza-erabilerak Izkiko paisaia moldatu du, eta hori garrantzi handikoa da habitaten egungo egoera zein zonako egoera sozioekonomikoa ebaluatzeko garaian.

Izki natura-ondarearen gune babestuari lurraldea ematen dioten hiru udalerrien multzoan 125 abeltzaintza-ustiategi erregistratu ziren 2009. urtean, 10.348 abelburu biltzen zituztenak —erabilgarri dagoen azken zentsu ofiziala—. Horien artean, ugariena ardi-azienda da (4.459 abelburu), hau da, zentsuan jasotako animalia guztien % 30,4; behi-azienda da garrantziz hurrengoa (3.698 abelburu) eta horren atzetik behor-azienda (565 abelburu).

Alabaina, natura-ondarearen gune babestuaren esparruan azienda askoz ere txikiagoa da eta ganadu motaren proportzioak bestelakoak dira. Ganadua maneiatzeko modu nagusia ustiapen estentsiboa da. Izkiko Ameztian Basogintza eta Larratzea Kudeatzeko Planaren (Agresta S. Coop. (2014) «Izkiko Ameztian Basogintza Kudeatzeko Plana». Arabako Foru Aldundia) 2014ko datuen arabera, behi-azienda da nagusi (936 abelburu), ardi-aziendak 579 abelburu ditu eta behor-aziendak 193 abelburu Izkiren barruko OPMetan.

Izkiko Ameztian Basogintza Kudeatzeko Planak gehiegizko abere-zama duten sei zona identifikatzen ditu baso-masa horren barruan, ameztiaren lautadan (Birgara Goien – Apinaiz – Arluzea) eta ameztiaren kubetan (Apinaiz, Korres, Maeztu eta Markinez) banatuak.

Dokumentu horrek berak, halaber, Izkin eta inguru hurbilenean dauden abeltzaintzako azpiegituren edo azpiegitura multzoen inbentario bat jasotzen du. Guztira 19 erregistratzen ditu, horietatik 14 jabetza pribatukoak; azkeneko horien artean, bi 266 onura publikoko mendian kokatzen dira, «Izki Behekoa» izenekoan, Dorronda eta Larraneta parajeetan, lursail publikoak nabarmen okupatuta. Halaber, inbentariatutako azpiegitura horietako bederatzik zuzeneko eragina dute ameztiaren masan.

Gaur egun, abereek urte osoa ematen dute Izki atura-ondarearen gune babestuaren zenbait mendiren barruan. Hori dela eta, neguan, bazka naturalaren eskaintzarik ez dagoenean, ekarpen gehigarrien bidez elikatzen dituzte abereak. Horrek gehiegizko zanpaketa eragiten du alde batzuetan noizbehinka, abereen zein makineriaren aldetik, baita hondakin organikoen metaketa ekarri ere. Horren ondorioz, lurzorua degradatu eta trinkotu egiten da, partikulak ibai-sarerantz arrastatzen dira eta ibaiak jalkinez betetzen dira, eraginak sorraraziz ameztiaren berezko landaredian ez ezik, espazio urtarrei lotutako faunaren gainean ere. Halaber, larreen hazkunde begetatiboa hasten den unean abereak bertan egoteak hein batean baldintzatzen du larreen geroztiko garapena, indarra eta produktibitatea.

Erlezaintza-ustiategiei dagokienez, Izki gune babestuaren esparruko OPMen barruan ia hogeita hamar kokatzen dira.

Nekazaritza-jarduerari dagokionez, Izkin nagusiki naturagunearen zona periferikoetan burutzen da. Natura-ondarearen gune babestua osatzen duten udalerrien multzoan 11.247,65 ha-ko nekazaritzako azalera globala aipatzen da. Azalera horren ia % 50 belarki-laboreei dagokie eta % 23,21 larre iraunkorrek dituzten lurri. Gaur egun dauden labore gehienak zerealak eta bazka dira, ekilore-, patata- eta erremolatxa-alorrekin tartekatuta.

Izki natura-ondarearen gune babestuaren barruan 17 luberri daude (OPMen barruko lurrak, nekazaritza-aprobetxamendurako mendiari irabaziak), zereal-laborantzarako batik bat; 232,35 ha-ko azalera hartzen dute, hots, naturagune babestuaren azaleraren % 2,6.

3.4.2.– Basogintza-erabilera.

Ia naturagune osoa (9.104,73 ha - % 96,02) Onura Publikoko Mendiei (OPM) dagokie. Bertan, azaleraren % 78,28 Batasunaren intereseko habitatek okupatzen dute; horiek horrela, hostozabalek Izkiren azalera osoaren % 70,08 hartzen dute eta koniferoek % 3,09.

Orain arte basogintza-erabilerak oso mugatuak izan dira gune babestuan. Izan ere, aprobetxamendu nagusia sutarako egur sorta edo egurketa deritzenak izan dira. 2012 eta 2014 artean, LIFE PRO-Izki proiektuaren emaitza, Izkiko Ameztiaren Basogintza Kudeatzeko Plana idatzi da, 15 urteko indarraldirako (2012tik 2026ra arte). Plan horrek zuhaitz-masa horretarako baso-plan bat hartzen du barnean, naturagunean bosturtekoetan banatutako mozketak selektiboen plangintza jasotzen duena. Bertan sortak definitzen dira, kontzejuz kontzeju segmentatuak, eta horien barruan mozketak-unadak, natura-ondarearen gune babestuaren Erreserba Integraleko Zona horietatik kanpo utzita.

Mozketa selektiboen plana oihanartea maneiatzean —adarrak eta kimu epikormikorik gabeko enbor zuzenak lortzeko— eta arbolaren altueraren arabera adaburuak garatzean oinarritzen da. Helburua da etorkizuneko zuhaitzak lortzea, birsorkuntza sexuala ziurtatuko duten zuhaitz aita gehiago lortzeko eta masa indartsuagoak garatzeko, eta, hortaz, kalitateko zur-produkzioa erdiesteko. Bestalde, plan horren helburua da, halaber, funtsezko espezieentzat, hala nola okil ertainarentzat edo Bechstein saguzarrarentzat habitat potentzialak sortzea (zuhaitz menderatuak: adarrak hautsita edo gaixorik dituzten zuhaitzak, edo zuhaitz hilak).

Aurreikuspenen arabera 130.013 m³-ko mozketak egingo da 15 urtetan, 2.313 ha-ko azaleraren gainean, eta 761.235 euro-ko diru-sarrera lortuko da OPMen jabe diren kontzejuentzat.

2012 eta 2014 artean 5.410,56 m³ zur erauzi dira eta, gainera, birsorkuntza-entseguak garatu dira Korresen, adierazitako Izkiko Ameztiaren Basogintza Kudeatzeko Planaren babesean.

3.4.3.– Ehiza- eta arrantza-baliabideen eta beste produktu batzuen aprobetxamendua.

3.4.3.1.– Ehiza.

Dokumentu hau onartu den unean, Izki gune babestuaren esparruan lau ehiza-barruti daude, Okongo Andre Maria, San Migel, Beolar eta El Jabali, naturagune osoa okupatzen dutenak. Dena den, martxoaren 17ko Ehizaren 2/2011 Legean ezarritakoaren arabera, natura-ondarearen gune babestuak ehiza-araubide bereziko lurrak dira.

Ehizan jarduteko berriazko xedapenak arautuko dituzten Arabako Foru Aldundiaren urteko foru-aginduek zuzentzen dute gaur egun ehiza. Agindu horietan zehazten dira ehiza-denboraldiak, ehiza daitezkeen espezieak eta ehizaren inguruko gainerako esparru arauemailea.

Ehiza larriko espezie nagusiak basurdea eta orkatza dira. Lehena uxaldian ehizatzen da, eta bigarrena uxaldian zein zelatan; oilagorra eta pagausoa dira ehiza xehean nabarmen daitezkeen espezieak.

Izki Pirinioen mendebaldeko migrazio-bidean kokatzen da, Arabako Lurralde Historikoko paseko zona nagusietako bat da, eta oso sustraituta dago pagausoa «pausatuta» deritzon modalitatean txabolatik ehizatzea, dagozkion abatak edo apeuak erabilia. Gune babestuan 110 txabola (Arabako lurralde historikoko guztien % 30) eta postu finko bat daude.

3.4.3.2.– Arrantza.

Izkiko ibai-ibilgu guztiak arrantza-debekuguneak dira, Izki ibaia izan ezik, A-4124 errepideko zubiaren, Korres herritik ibaian gora, eta Azazetako Ega (Berron) ibaian isurtzen den gunearen artean, «salmonidorik gabeko tarte» deklaraturata baitago; hots, «hil gabeko» arrantza besterik ez da zilegi.

3.4.3.3.– Basaproduktuen bilketa.

Izki natura-ondarearen gune babestuan neurrizko onddo-aprobetxamendua izaten da udazkenean eta udaberrian. Horren ondorioz, 2017. urtean Arraia-Maeztuko Udalak onddo-barruti bat abian jarri zuen, baina barruti horretarako zein natura-ondarearen gune babestuaren gainerakorako bilketa-araudia urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretua da, onddo, landare, lore eta basa-fruituen aprobetxamendua arautzen duena.

3.4.4.– Turismo- eta jolas-erabilerak.

1998an parke natural deklaratzearen ondorioz, erabilera publikoa nabarmen handitu da naturagune babestuan bertan zein Arabako Mendialdeko eskualde osoan. Izan ere, 2000n 5.834 bisitari izan zituen, eta 2015ean, berriz, 58.500.

Izki bisitari-zentro edo Parketxea dauka Korres herrian, ingurumen-hezkuntzara eta naturagunearen balio natural eta sozialen inguruan sentsibilizatzeraz bideratua, eta baita eskualdearen sustapen sozioekonomikora ere. Zentro horrek 6.000 bisitari inguru hartzen ditu urtero.

Herri horretan bertan dago Korreseko aisiarako eremua, Natura-ondarearen gune babestuko erabilera publikoko ekipamendu nagusietako bat, Parketxearekin batera, aparkalekuz eta intereseko beste zenbait azpiegiturez hornitua.

Natura-ondarearen gune babestuari zuzenean lotutako erabilera publikoko jolas-jarduerei dagokionez, mendi-ibiliak nabarmentzen dira, zenbait zailtasun-mailatako hogei bat ibilbide baitaude, horietako batzuk didaktikoak.

Zona horretan fauna-behaketak ere garrantzi handia hartu du. Izan ere, 2010az geroztik Izki Birding Euskadi ekimenean sartuta dago.

Eskalada da Izkiri lotutako beste turismo-jarduera bat. Naturagunean goraka egiten ari da eta horretarako baimendutako zona bat dauka Apinaizen, 64 eskalada-bide ekipatu baino gehiago dituena.

Izki eta inguruko udalerrietako turismo-eskaintzari dagokionez, askok naturagune babestua bisitatu beharreko baliabide gisa sartzan dute beren eskaintzetan, bidexka, bisitatu beharreko intereseko elementu eta abarren bitartez.

Nabarmentzekoa da, halaber, Izki Golf Urturi zelaia, gune babestuaz kanpo kokatua, baina haren Babes Zona Periferikoan, hego-mendebaldeko muturrean. Izki Arabako Mendialdea BTT zentroa ere hartzen du, ibilbide-eskaintza zabala duena, bai Natura-ondarearen gune babestuaren barruan, bai haren inguruetan.

3.4.5.– Meataritzako baliabideen aprobetxamendua.

Izkin ustia daitezkeen material nagusiak silize-harea, kareharria eta buztina azpiproduktu gisa, eta asfaltoak dira. Gaur egun, ez dira ustiatzen, baina harrobietan eta aire zabalean ustiatzen ziren, leherketa eta guzti. Horrek lurreko landare-estaldura soiltzea eta erauztea dakar, eta, hortaz, erabat desagerrarazten ditu bertan dauden habitatak eta basa-espezieak ere desagerrarazi edo eraginpean hartzen ditu.

Izkin meataritzako baliabideak ustiatzeko bi emakida daude. Alde batetik, «Mina Esther» emakida, 2007an iraungia, II. frakzioa (303 ha-ko azalera) eta III. frakzioa (93,45 ha-ko azalera) osorik edo partzialki Natura-ondarearen gune babestuaren barruan zituena, nahiz eta 2010az geroztik kontrako Ingurumen-inpaktuaren Adierazpenak izan, horren gainean izan litzaketen ondorio kaltegarriak eta lehen NBAParekiko bateraezintasuna zirela eta. Izan ere, NBAP horrek ezartzen zuenez, erauzketa-jarduerak «lehengoratzeko zonan» bakarrik baimentzen ziren, hots, Atauriko meataritza-ustiategian.

Ingurumen-inpaktuaren bi adierazpenek, 2010eko maiatzaren 24ko BOEn Klima Aldaketaren Estatu Idazkaritzaren Ebazpen banaren bidez argitaratu zirenek, oso zorrotz aztertu zituzten planteatutako ustiapenen inpaktuak eta horiek eraginpean hartzen zituzten balioak, eta, bi kasuetan, Ingurumen-inpaktu Adierazpen negatiboak eman zituzten ondorio gisa.

Bestalde, beste ustiapen-emakida asfaltoei dagokiena da, Ataurin, eta gaur egun ez da ustiatzen ari. Emakida hori bera hasi zen, XX. mende hasieran, San Ildefonso edo Gustaldapa meategiko asfalto-hobiak ustiatzen, Korresen. Gaur egun eraikin batzuk besterik ez dira geratzen.

Orain arte indarrean egon den Parke Naturalaren NBAPak (64/1998 Dekretua, martxoaren 31koa) barnean hartzen dituen balio natural garrantzitsuen kontserbazioari lehentasuna eman behar dien esparrutzat hartzen du naturagune babestua, eta erabilera hauek besterik ez ditu onartzen: nekazaritza; abeltzaintza; basogintza; ehiza eta arrantza; erabilera publikoa; jarduera zientifikoak, heziketa eta ikerketa; uraren eta energiaren aprobetxamendua; aipatutako erabileretarako eta Korres herriguneari zerbitzu egiteko behar diren eraikuntzak eta azpiegiturak eraikitzea eta zaharberitzea; eta bizitegi-erabilerak, baldin eta kontserbazioarekin bateragarriak badira.

Bestalde, lekuko ingurumen- eta paisaia-ondarearen balio handiak, parke natural eta Natura 2000 Sareko KBE eta HBBE deklaratzeko eragin zutenak, eta gisa horretako aprobetxamenduekiko hauskortasun handia kontuan izanik, ez da komeni etorkizunean gune babestuaren esparruan mota horretako jarduerarik garatzea, bereziki kontsiderazio hauek gogoan hartuta:

a) Lehen batean, ustiatzeko moduko baliabideak egon litezkeen esparruak bat datoz interes bereziko eta nahitaez kontserbatzeko habitaten eta basafloa eta basafaunako espezieen presentziarekin. Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatei dagokienez, azalera babestuaren ia % 90 okupatzen dute Izkin. Baso-masa jarraitua nabarmentzen da, eta, horren barruan, Izkiko ameztia, okil ertainaren populazio garrantzitsua hartzen duena, Iberiar penintsulako banakoen % 20. Izkik garrantzizko eginkizuna betetzen du espezie horren kontserbazioan, bai termino kuantitatiboetan, bai Kantauriar mendilerroko eta Pirinioetako populazioen arteko lotura egiten duelako.

Okil ertainaren populazio garrantzitsuaz gain, nahitaez kontserbatzekoak diren habitat horiek loturik, balio ekologiko handiko flora- eta fauna-espezieak ere bizi dira, eta horiek ere eraginpean hartuko lituzke erauzketa-jarduerak, bai okupatzen duen azalera dakarren habitat-galeraren eta bai jarduerak berak eragindako eragozpenen ondorioz.

b) Izkin nabarmentzekoa da, halaber, Batasunaren intereseko habitat higroturbosoak hartzen dituzten enklabeen presentzia. Izan ere, horietako zenbaiten kontserbaziorako funtsezko gunea da, bereziki habitat hauen kasuan: «oso sakonune hezeak, *Drosera intermedia* eta *Rhyncospora fuscadunak*» (EB kodea: 7150) eta «*Claudium mariscuseko* padurak» (EB kodea: 7210*). Jarduera horien eraginak ustiategi baten esparru zehatza baino esparru zabalagoetan ager daitezke eta habitat

horietan narriadura larriak eragin, edo areago, habitatak desagerrarazi ere. Ildo berean, ez litzateke baztertzekoa izango iturburuak, akuiferoak, sare hidrografikoak, uren kalitatearen eta horien komunitate biologikoen gaineko eragina, Izki gune babestuaren lurralde-esparruaren parte handi batek akuiferoak kutsadurarekiko kalteberatasun handia edo oso handia duela kontuan izanda.

Interes bereziko beste habitat, espezie eta elementu batzuek, txilardien eta mendi-larreen inguruneekin lotutakoak, interes eta/edo bakantasun handia erakusten dute eta Izkin babes eta kontserbazio berezia eman behar zaien funtsezko elementuak dira; erauzketa-jarduerek modu nabarmenean har litzakete eraginpean.

Izkin nabarmentzekoak dira, halaber, erauzketa-jarduerek eraginpean har litzaketen harkaitz-tegi eta hartxingadien inguruneak. Landare-estalki txikia izan arren, ingurune horietan oso flora espezializatua garatzen da, gisa horretako inguruneetan bizitzera egokitua. Gune babestuko harkaitz-habitatetan Euskal Autonomia Erkidegoan oso banaketa mugatua duten flora-espezieak aipatu dira: *Arenaria vitoriana*, *Armeria arenaria subsp. Burgalensis*, *Coeloglossum viride*, *Genista eliasseanenii*, *Potentilla fruticosa*, eta abar. Gehienak espezie benetan bakanak dira, oso mehatxatuak eta bat edo beste galzorian daudenak.

Ingurune horiekin lotutako faunari dagokionez, Izkiko harkaitz-tegi eta amilburuetan EAEn hobekien kontserbatzen den hegazti errupikolen komunitate adierazgarrietako bat garatzen da. Aurrerago adieraziko den moduan, hegazti multzo hori Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatzeko funtsezko elementua da eta oso garrantzi handikoa da kontserbazioari begira, gaur egun Europako harrapari errupikolen populazio gehienak kontserbazio-egoera negatiboan baitaude eta kasu askotan iberiar penintsulak baititu populaziorik handienak kontinentean.

Izki sai arrearen (*Gyps fulvus*) populazio egonkorra du, 36 bat bikotek osatua, baita belatz handiaren (*Falco peregrinus*) 2 bikote eta sai zuriaren (*Neophron percnopterus*) bikote 1 ere. Arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) ere badago Izkin, nahiz eta haren populazio-mailek behera egin duten: 1990ean 2 bikote zeuden eta 2013an 0-1. Nabarmentzen diren beste espezie batzuen artean, hontz handiak bi ugaltze-lurralde ditu eta belatxinga mokogorriaren 49 bikote daude. Ugatzak (*Gypaetus barbatus*) zona bisitatzen du hegazti erratiko gisa edo Izki erregularitasunez hartzen du bere bizi-eremuaren barruan, baina ez dago eremuan ugaltzearen lekukotasunik.

Espezie horiek guztiak Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan jasota daude: ugatza «Galzoriko espezie» gisa agertzen da; sai zuria eta arrano beltza «Espezie kaltebera» gisa jasotzen dira katalogoan; belatz handia eta hontz handia «Bakana» kategoriaren barruan sartzen dira; eta sai arrea eta belatxinga mokogorria «interes bereziko espezie» gisa agertzen dira katalogoan. Espezie horientzako mehatxu-faktore nagusien artean habitataren eraldaketa eta suntsipena eta gizakiek ugaltze-zonetan sortzen dituzten eragozpenak daude. Espezie horietako batzuk, sai zuria esaterako, giza presentziarekiko ikaragarri sentikorrek dira.

Oso ugariak dira Natura-ondarearen gune babestuko kareharrizko irekigune eta harkaitz-tegiaren barreiatutako haitzulo eta kobazulo txikiak, «turismoak ustiatu gabeko haitzuloak» deritzenak (EB kodea: 8310). Garrantzi berezikoak dira esparru honetan dagoen kiropteroen komunitatearentzat; gune horiei lotutako fauna hori, gainera, oso kaltebera da berez.

Talde horretako 10 espezieren presentzia berretsi da Izkin, harkaitz-inguruneei loturik. Horien artean, espezieren bat guztiz haitzulotarra da (*Miniopterus schreibersii*) eta beste batzuek zenbait babesleku erabiltzen dituzte (*Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*, *Myotis myotis*, *M. emarginatus*, *Pipistrellus pipistrellus*, *Pipistrellus kuhlii*, *Eptesicus serotinus*, *Plecotus austriacus*, *Tadarida teniotis*). Izkin egiaztatu diren 10 espezieetatik 1 «Galzoriko espezie» gisa katalogatuta dago Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan eta beste 3 «Espezie kaltebera» gisa; espezie guztiak Habitaten Zuzentarauaren IV. eranskinean jasota daude eta 5 zuzentarau horren II. eranskinean ere bai; beraz, Batasunaren intereseko espezieak dira guztiak, babesleketan zein bizi-zonetan babes zorrotza behar dutenak.

Eskualdeko zein Europako eskalan biodibertsitatearen kontserbaziorako garrantzi handiko esparrua da beraz. Izkiko harkaitz-inguruneei loturiko flora- eta fauna-komunitatea inguruneak ezartzen dituen baldintza zailtara egokitutako espezieek osatzen dute; ingurune horietako espezie eskusiboak dira, habitataren edozein galera edo eraldaketarekiko oso sentikorrek eta, zenbaitetan, giza jardueren ondorio den edonolako eragozpenekiko sentikorrek. Hots, zuzeneko edo zeharkako edozein aldaketa edo eraldaketarekiko sentikortasun handiko esparrua da.

c) Jarduerak Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoaren gainean izan litzaketen eraginak. Izan ere, erauzketa-jarduerak dakartzaten jarduketek ingurunearen artifizializazioa ekar dezakete, eta horrek nabarmen murrizten du iragazkortasuna lurraldeko faunarentzat, hainbat faktoreen ondorioz: ustiatzean bertan eta haren pilaketa-zonetan izaten diren morfologia aldaketak, makineria astuna igarotzeak eta leherketek sortzen duten disuasio-efektua, faunarentzat oztopo izan litezkeen elementuen instalazioa, landaredirik gabeko zonen sorrera, eta abar.

d) Basoak, harkaiztegiak eta hartxingadiak lehen mailako paisaia-baliabideak dira EAEn testuinguruan. Izkiko ameztia, Mantxibio, Soila eta La Muela kareharrizko mendiak eta Arluzeako gailurrak, bereziki, garrantziko paisaia-elementuak dira Araban eta ikus-erreferentzia nabarmena Arabako Mendialdean.

Hain zuzen ere, ezaugarri horiek eragiten dute Izki natura-ondarearen gune babestua Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan (Eusko Jaurlaritza, 2005) sartuta egotea, eta Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan (Arabako Foru Aldundia, 2005) jasotako paisaia apartekoetako bat izatea, Izki kontserbatzeko eremutzat jotzen baitu, bere ekologia- eta paisaia-interesa dela eta. Izki, halaber, EAEn Garrantzizko Naturaguneen Katalogo Irekiaren barruan jasota dago (Eusko Jaurlaritza, 1996).

e) Geologia-interesdun lekuak izatea, EAEn geodibertsitatearen parte baten adierazgarri gisa identifikatuak eta/edo eskualde-mailan bakarrak direnak; horien narriadura edo suntsipena itzulezina izango litzateke.

Dagokion atalean azaldu den moduan, Izkin geologia-interesdun eremu eta elementu kopuru handi samarra identifikatu da. Espazio horietako bi «Euskal Autonomia Erkidegoko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan» jaso dira: GIL 113 - «Kanpezuko muelako aldapa-erliebea» eta GIL 150 - «Maeztuko asfaltoak», eta Babes Zona Periferikoan kokatutako GIL 110 - «Markinezeko pinakuluak» ere nabarmentzekoa da.

f) «A priori» ustiatzeko moduko baliabideen kokaleku izan litezkeen esparruak cultura-ondareko elementuekin bat etortzea.

Ondare arkitektonikoko elementuen artean, kopuruari dagokionez, errotak eta zubiak nabarmentzen dira. Halaber, interes arkeologikoko elementu ugari identifikatu dira. Horien artean, hainbat garaitan garatutako kokaguneak eta jarduerak izan dituzten eremuak daude. Izkin nabarmentzekoak dira, halaber, lurraldearen erabilera tradizionaleri lotutako elementu etnografiko ugari, txabolak esate baterako.

g) Erauzketa-erabilerarekin lotutako arrisku eta inpaktu potentzialak. Zona sentikorretan eta eremu babestuetan zuhertasun-printzipioa aplikatzea aholkatzen dute, arrazoi hauek direla eta:

– Gisa horretako jardueren ondorioz paisaia-kalitate bikaineko zona baten gainean izan litekeen paisaia-inpaktu handia, kontuan izanik balio hori, neurri handi batean, giza jardueraren ondorio den inpaktu adierazgarri ez izatean oinarritzen dela.

– Landare-estalkirik gabe uzten den lur-azalera handia, Izkin erabilgarri dauden baliabideak ustiatzeko eta horretarako instalazioak eta lotutako azpiegiturak ezartzeko behar baita (plataformak, prozesaketa-instalazioak, kamioientzako bideak, konexio-hodiak, fluidoak biltegitratzeko putzuak eta tangak, ekipamendu osagarriak, eta abar).

– Sortutako trafikoak eta zaratak eragin negatiboa izan dezakete naturagunean kontserbatzen diren espezieen gainean. Gainera, espezie horietako batzuk giza jardueraren ondorio diren nahasmendu eta eragozpenekiko oso sentikorrek dira.

– Lur gaineko eta lurpeko urak kutsatzeko arriskua, bai fase operatiboan bai istripuen edo isuriaren ondorioz. Efektu kaltegarriak eragin ditzakete ekosistemetan, kontuan izanik, gainera, Natura-ondarearen gune babestuaren parte garrantzitsu batek lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasun handia edo oso handia duela.

– Jarduera utzi ondoren praktikan inpaktu horietako batzuk itzulezinak izatea, batez ere habitatak eta horiekin lotutako espezieak eraldatzeari eta desagerrarazteari dagokionez.

Azken batean, Izki parke natural deklaratzeko eta, biodibertsitatea kontserbatzeko Batasunaren araudiaren babesean (Hegaztien Zuzentaraua eta Habitaten Zuzentaraua), KBE eta HBBE izendatzeko eragin zuten natura- eta paisaia-baliabide garrantzitsuak mantentzearekin bateraezintzat jo daitezke erauzketa-jarduera.

3.4.6.– Erabilera hidroelektrikoa eta urez hornitzekoa.

Izkin Aranbaltza urtegia nabarmentzen da, Izki ibaian, Korres herriaren hegoaldean. 1920. urtean eraiki zuten eta gaur egun segundoko 200 eta 300 litro arteko emaria eramaten du kanal baten bitartez Bujandan kokatutako urmael txiki bateraino. Hor Aaurin Azazetako Ega (Berron) ibaitik bildutako urak batzen dira eta urez hornitzen dute Antoñanako zentrala, 2015ean berriz abian jarria. 2017an Karrantaneko presa eta Apinaizko zentral elektrikoa ere errekuperatu ziren, aipatutako herri hori energiarekin hornitzeko asmoaz.

Gainera, hiri-hornidurarako sei ur-bilgune eta nekazaritzan erabiltzeko bost ureztatze-putzu aipatzen dira Natura-ondarearen gune babestuan.

10. taula. Izki NOGBko hiri-hornidurarako ur-bilguneak.			
Kodea	Izena	Kategoria	Mota
2308-5-0004	Karrantan iturria, La Cruz	Lurpekoa	Iturburua
2308-6-0075	Guru Guro iturria	Lurpekoa	Iturburua
2308-6-0011	El Cerro iturria	Lurpekoa	Iturburua
2308-6-0010	La Carretera iturria	Lurpekoa	Iturburua
2309-1-0071	La Laguna	Lurpekoa	Zundaketa
2309-1-0070	Libaya	Lurpekoa	Zundaketa

11. taula. Izki NOGBko ureztatze-putzuak.			
Kod.	Izena	Azalera (ha)	Perimetroa (m)
FA35_01	Kintanako ureztatze-putzuak	1,51	506,88
FA35_02	Kintanako ureztatze-putzuak	0,48	324,30
FA35_03	Kintanako ureztatze-putzuak	0,53	353,21
FA36_01	Urturiko ureztatze-putzuak	0,49	293,88
FA36_02	Urturiko ureztatze-putzuak	0,19	174,84

3.4.7.– Azpiegiturak.

Arabako Foru Aldundiak emandako informazio ofiziala oinarri hartuta egin den Izki natura-ondarearen gunee babestuko baso-pisten sarearen alde aurreko analisisian zonen araberako emaitza hauek ondorioztatu dira:

12. taula. Izkiko baso-pisten sarea.			
Zonifikazioa	Lehen mailako baso-pisten sarea	Bigarren mailako baso-pisten sarea	Hirugarren mailako baso-pisten sarea
Erreserba integraleko zona	0,0000 m/ha	0,0000 m/ha	0,0000 m/ha
Babes bereziko zonak	0,4215 m/ha	7,9613 m/ha	0,0000 m/ha
Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio zonak	2,3412 m/ha	20,0746 m/ha	0,3893 m/ha
Leheneratze ekologikoko zonak	2,8383 m/ha	4,9972 m/ha	13,1949 m/ha
Basogintza-produkzioko zonak	0,0309 m/ha	21,3559 m/ha	10,7725 m/ha
Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioko eta landazabaleko zonak	1,5695 m/ha	7,2761 m/ha	0,0000 m/ha
Ibai-sistema	1,0228 m/ha	11,9019 m/ha	0,0000 m/ha
Hiri-, ekipamendu- eta azpiegitura-zonak	0,0000 m/ha	4,4660 m/ha	0,0000 m/ha

Lehen mailako baso-pistak mendiaren zerbitzurako oinarrikotzat edo funtsezkotzat jotzen diren bideak edo pistak dira, errepide-saretik edo landa-bideen sareko bideetatik sarbidea dutenak. Gutxieneko plataforma-zabalera 3 m-koa da, bide-zorua dute eta egonkortuta daude, edo behar adinako saneamendu- eta drainatze-azpiegiturak dauzkate behintzat.

Bigarren mailako baso-pistak, bestalde, lehen mailakoetatik abiatu ohi diren eta mendi bateko eremuetarako sarbidea eta zerbitzua osatzen duten bideak edo pistak dira. Ez dute bide-zorurik eta plataforma-zabalera 3 m-tik beherakoa izan ohi da.

Azkenik, hirugarren mailako baso-pistak bide berdeak eta baso-bidexkak dira, hots, oinez edo bizikletaz ibiltzeko jolas-erabilerako bideak, trazadura eta erabilera tradizionalakoak, zenbaitetan mendi-ibili laburreko edo luzeko bide gisa inbentariatu edo balizatu direnak.

4.– Naturagunean kudeatu beharreko funtsezko elementuak. kontserbazio-egoera.

Izki natura-ondarearen naturagune babesturako, zeinak barne hartzen baitu Parke Naturala, KBEa, HBBEa eta natura-monumentua, dokumentu honen 3.2 apartatuan naturagunean kontserbatu beharreko biodibertsitatearen elementuak inbentariatu dira.

Kontserbatu beharreko horien multzoa abiapuntu hartuta, funtsezko elementuak edo kudeatu beharrekoak hautatzen dira, hots, lekuaren integritate ekologikoa mantentzeko edo berrezartzeko funtzio bereziki garrantzizkoa betetzen duten espezie basatiak, habitatak, prozesu naturalak, elementu abiotikoak, naturalak edo kulturalak, zuzeneko edo zeharkako eragina baitute beste osagai biologiko batzuen gainean edo zerbitzu ekosistemikoen gainean. Hortaz, horien gainean jardun beharra dago, lekuan kontserbazio-egoera egokia lortzeko, bai osagai biologiko horiei, bai lekuari oro har dagokienez.

Funtsezko elementuen edo kudeatu beharrekoen araberako hurbilketak lekuan dauden elementu adierazgarriak kontserbatzeko behar diren neurriak hartzea ahalbidetzen du eta kudeaketa errazten du, ekosistemen integritatea edo osasuna baino errazago ebalua daitezkeen helburuak oinarri hartuta, baina azken xedea hura dela ahaztu gabe.

Habitaten, flora- eta fauna-espezieen eta prozesu ekologikoen kasuan, naturagunean funtsezkotzat jotzen direnak hautatzen dira, irizpide hauei jarraikiz:

– Lekuan presentzia oso adierazgarria eta garrantzizkoa duten eta Natura 2000 Sarearen osotasunean eskualdearen, estatuaren edo Batasunaren eskalan kontserbatzeko garrantzizkoak diren habitatak edo espezieak, baldin eta kontserbazio-egoera desegokiaren ondorioz kudeaketa-neurri aktiboak hartu behar badira.

– Erabilgarri dagoen informazio tekniko edo zientifikoaren arabera, behar diren neurriak hartu ezean egoera desegokian egon daitezkeen edo gotera irits daitezkeen habitatak edo espezieak.

– Giza erabileren mende dauden habitatak edo espezieak, kontserbazio-egoera egokia erdietsi edo mantenduko dutela bermatzeko arautu edo bultzatu behar direnak.

– Talde taxonomikoen eta ekosistemen osasunaren adierazle diren habitatak edo espezieak eta/edo biodibertsitatearen gaineko presioak detektatzeko baliagarriak direnak, eta, hortaz, monitorizazio-ahalegin berezia eskatzen dutenak.

– Maneiatuz gero beste habitat edo espezie basati batzuen gainean edo leku osoaren integritate ekologikoen gainean ondorio positiboak izango dituzten habitatak edo espezieak.

– Naturagunean dauden Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatak eta espezieak hartzen dituzten prozesu ekologikoak eta dinamika interesgarriak.

Adierazitako irizpideen arabera, ondoren zerrendatzen diren funtsezko elementuak definitu dira Izkin. Naturaguneko funtsezko elementu gisa identifikatu diren habitaten eta/edo lotutako espezieen taldeen arabera egituratu da kapitulua; horietako bakoitzerako alderdi hauek deskribatzen dira:

- Deskribapena eta justifikazioa.
- Presioak eta mehatxuak.
- Kudeaketa baldintzatzen duten beste faktore batzuk.
- Kontserbazio-egoera.
- Eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak.

4.1.– Basoak.

4.1.1.– Deskribapena eta justifikazioa.

«Basoak» funtsezko elementuaren barruan habitat eta lotutako espezie hauek sartzen dira:

13. taula. «Basoak» funtsezko elementuarekin lotutako habitat eta espezieen hautua.			
Funtsezko elementua	Kod.	Kontserbatu beharrekoak	Justifikazioa
Basoak	9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, <i>Ilex</i> oihanpedunak, eta batzuetan <i>Taxus</i> dunak (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>)	Habitaten Zuzentarauan jasotako hainbat baso mota, lehentasunezkoak eta eskualdearen interesekoak.
	9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>)	9230 habitataren kasuan, Izki NOGBko landare-formazio adierazgarriena da eta, aldi berean, habitat horren % 40 ordezkatzen du EAEko Natura 2000 Sareko espazioetan.
	9230	<i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> dunen harizti galaikoportugesak	
	9240	Harizti iberiarrak, <i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> dunenak.	Bestalde, 9580* BIHak azalera txikiak okupatzen ditu oso ingurune berezietan eta 9120, 9150 eta 9240

13. taula. «Basoak» funtsezko elementuarekin lotutako habitat eta espezieen hautua.			
Funtsezko elementua	Kod.	Kontserbatu beharrekoak	Justifikazioa
	9580*	<i>Taxus baccatadunen</i> baso mediterraneoak	BIHek kontserbazio-gabeziak dituzte egiturari eta funtzionamenduari dagokienez.
	1996	<i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i>	Funtsezko elementu horrekin lotutako flora- eta fauna-espezieak Batasunaren zein eskualdearen interesekoak dira, eta haien kontserbazioa baso-habitaten kudeaketarekin erlazionatuta dago. <i>Dryopteris carthusiana</i> espezieak oso lokalizazio murrizta dauka; Araban Entzia eta Toloño mendilerroetan eta Izkin besterik ez dago. Egoera bertsua da <i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i> espeziearena, Araban Kodes mendilerroan, Hornillo mendian eta Izkin besterik ez baita aipatzen. Faunari dagokionez, basoko harrapariak sartzen dira. Horien artean miru gorria (<i>Milvus milvus</i>) nabarmentzen da, Espezie Mehatxatuen Euskadiko eta Espainiako Katalogoetan galzoriko espezie gisa jasoa. Mokodunen hiru espezieak ere jasotzen dira, eta horien artean bereziki nabarmentzekoa da okil ertainaren (<i>Dendrocopos medius</i>) populazioa. Espazio horretan 750 banakotik gorako errola dago eta horrek garrantzi adierazgarria ematen dio Izkiri Iberiar testuinguruan mokodun horrentzat. Izkiko basoei lotutako beste fauna-espezie batzuen artean basoko kiropteroen komunitatea dago, nagusiki Bechstein saguzarra (<i>Myotis bechsteini</i>), umatze-kolonien presentzia egiaztatua duena.
	10677	<i>Dryopteris carthusiana</i>	
	12556	<i>Narcissus gr. pseudonarcissus</i>	
	12223	<i>Sorbus latifolia</i>	
	1088	<i>Cerambyx cerdo</i>	
	1083	<i>Lucanus cervus</i>	
	1087	<i>Rosalia alpina</i>	
	1065	<i>Euphydryas aurinia</i>	
	A072	<i>Pernis apivorus</i>	
	A074	<i>Milvus milvus</i>	
	A080	<i>Circaetus gallicus</i>	
	A085	<i>Accipiter gentilis</i>	
	A092	<i>Hieraaetus pennatus</i>	
	A236	<i>Dryocopus martius</i>	
	A238	<i>Dendrocopos medius</i>	
	A240	<i>Dendrocopos minor</i>	
	1323	<i>Myotis bechsteini</i>	
	1330	<i>Myotis mystacinus</i>	
	5004	<i>Myotis alcaethoe</i>	
	1322	<i>Myotis nattereri</i>	
	1314	<i>Myotis daubentonii</i>	
	1331	<i>Nyctalus leisleri</i>	
	5766	<i>Nyctalus noctula</i>	
	1308	<i>Barbastella barbastellus</i>	
	1326	<i>Plecotus auritus</i>	

4.1.2.– Presioak eta mehatxuak.

Kodea	Presioa eta mehatxua
A04	Larratzea (desorekak)
A04.01	Unean uneko larratze intentsiboa
A04.02	Larratze ez-intentsiboa zona sentikorretan
A04.03	Larratze-sistemak bertan behera uztea, larratzerik eza
A07	Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera
B01	Eremu irekia basoak hartzea
B02	Baso eta plantazioen kudeaketa
B02.03	Oihanpea kentzea
B02.04	Zuhaitz hilak edo narriatuak kentzea
B02.06	Baso-garbigeta
B04	Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera (basogintza)
D02.01	Linea elektrikoak eta telefono-lineak
F03.02.03	Tranpaz harrapatzea, pozoiak, ezkutuko ehiza
F04	Lehorreko landareak biltzea eta ezabatzea, oro har
J03	Ekosistemen beste eraldaketa batzuk
J03.02	Kausa antropogenikoen ondorioz habitataren konektagarritasuna murriztea

Oro har, basoetako funtsezko elementuetarako aipatutako eragin nagusia Natura-ondarearen gune babestuko zona jakin batzuetako larratze iraunkorra da (nagusiki Dorrondan, eta Korres eta Kintako inguruetan). Izan ere, gaur egun ez da betetzen ganaduaren presentziaren erregulazioa, ez denborari, ez zonari dagokionez. Abereak urte osoan zehar bazkatzen dira eta horrek hainbat eragin sortzen ditu: lurren higadura, birsortutakoa desagerraraztea, eta abar.

Izkiko eremu jakin batzuetan arautu gabeko larratze jarraitua Basoak Funtsezko Elementuak jasaten duen eragin nagusizat har daiteke; izan ere, unean-unean eragiten dio lurren higadurari, birsortutakoa ezabatzen du, baso-pistetan kalteak eragiten ditu eta gaur egun aztertzen eta baloratzen ari diren beste afekzio batzuk eragiten ditu, mehatxu-kategoria hori minimizatzen.

Halaber, «Basoak» funtsezko elementuaren habitat gehienek egitura desegokia dute. Hala, ameztiaren kasuan, zuhaitzen adinak, tamainak eta dentsitateak askotarikoak dira multzo osoan. Hala ere, oin-dentsitate handia duten diametro ertaineko/txikiko zuhaitzak dira nagusi, eta horrek lehia sortzen du haien artean, zurtoinen garapena eta birsortze naturala oztopatuta. Tamaina handiko zuhaitz kopurua urria da eta zur hil gutxi dago bai zoruan bai zutik.

4.1.3.– Kudeaketa baldintzatzen duten beste faktore batzuk.

2010ean naturagunean hasi zen LIFE Natura programa, «LIFE+PRO-Izki: Izkiko ameztiaren eta hari lotuta dauden Europar Batasunaren intereseko habitat eta espezieen kudeaketa ekosistemikoa (LIFE10NAT/ES/000572)» izenekoa, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saila onuradun eta koordinatzaile izan zuena. Proiektu horrek 48 hilabeteko iraupena izan zuen (2010eko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era arte).

LIFE proiektu horrek ameztia eta bertan murgildutako habitat azonalak hobetzea ekarri du, lekuaren barne-konektagarritasuna ahalbidetzera bideratutako ekintzen bitartez, fauna eta flora enblematikoenaren populazioak garatzeko txoko ekologiko egokiak sortzeari begira, okil ertainari, Bechstein saguzarrari eta baso-igel jauzkariari bereziki eragingo dietenak. Garatu beharreko ekintzen artean, «Basoak» funtsezko elementuarekin erlazionatutako hauek nabarmentzen dira (www.izkilife.com):

– Izkiko Ameztiaren Basogintza Kudeatzeko Plana egitea, habitat horietan basogintza eta larratzea kudeatzeko gidalerroak barne hartzen dituen, baita haietan jarduteko estrategia ere, 2012-2026 aldirako.

– Izkin dauden okil ertainaren populazioen (eta barrunbeen) inbentario xehatua eta ezaugarritze ekologikoa egitea eta espezieak Izkin duen populazio-dinamikaren jarraipena egiteko jarduketa-protokoloa garatzea. Halaber, ekintza horrek aintzat hartzen du banakoak markatzeko eta irrati-igorgailuz hornitzeko harrapaketak egitea, horrek aukera emango baitu banakoen habitata hautatzeko irizpideak zehazteko.

– Ur-iturriak eta Bechstein saguzarraren kokalekuak kartografian gainjartzea, eta ameztian zenbait putzu edo ur-puntu sortzea.

– Okil ertainaren elikadurarako eta habiagintzarako oihaneko elementu egokiekin baso-egiturak birsortzea, 50 ha amezti hautatuta espeziearen behar ekologikoetara egokitzeko. Horretarako, oin jakin batzuk eraztunduko dira, zutikako zur hila eta gainbeherako zuhaitzak sortzeko, habia egiteko oin egokien inguruan bakanketak egingo dira, espezie laguntzaileak landatu eta itxiturak ezarriko dira ganaduak hariztiaren birsorkuntzan eraginik izan ez dezan.

• Bechstein saguzarrarentzako babes-kutxak ezartzea eta, gero, kutxa horiek eta mokodunen zuloak berrikustea.

• Izkiko abeltzaintza-ustategien titularrei zuzendutako parte hartzeko lantegia.

4.1.4.– Kontserbazio-egoera.

Habitata	Deskribapena	Banaketa- eremua edo tartea	Egitura eta funtzio espezifikoak	Etorkizunera- ko aukerak	Ebaluazio globala
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, <i>Ilex</i> oihanpedunak, eta batzuetan <i>Taxus</i> dunak (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>).	F	I	F	I
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>).	F	I	F	I
9230	<i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> dunen harizti galaikoportugesak.	F	I	F	I
9240	Harizti iberiarrak, <i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> dunak.	F	I	F	I
9580*	<i>Taxus baccata</i> dunen baso mediterraneokoak.	F	I	F	I

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

Mota	Kod.	Espezia	Banaketa- eremua edo tartea	Populazioa	Espezia- habitata	Etorkizunera- ko aukerak	Ebaluazio globala
P	10677	<i>Dryopteris carthusiana</i>	F	I	F	F	I
P	1857	<i>Narcissus</i> gr. <i>pseudonarcissus</i>	F	F	F	F	F
P	12558	<i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i>	I	I	F	I	I
P	12223	<i>Sorbus latifolia</i>	I	I	F	I	I
I	1088	<i>Cerambyx cerdo</i>	D	D	F	F	D
I	1083	<i>Lucanus cervus</i>	D	D	F	F	D
I	1087	<i>Rosalia alpina</i>	D	D	F	F	D
I	1065	<i>Euphydryas aurinia</i>	D	D	F	D	D
B	A072	<i>Pernis apivorus</i>	F	F	F	F	F
B	A074	<i>Milvus milvus</i>	F	D	F	D	D
B	A080	<i>Circaetus gallicus</i>	F	F	F	F	F
B	A085	<i>Accipiter gentilis</i>	F	F	F	F	F
B	A092	<i>Hieraaetus pennatus</i>	F	F	F	F	F
B	A236	<i>Dryocopus martius</i>	F	D	F	F	F
B	A238	<i>Dendrocopos medius</i>	F	F	F	F	F
B	A240	<i>Dendrocopos minor</i>	F	F	F	F	F
M	1323	<i>Myotis bechsteinii</i>	F	D	F	D	D
M	5004	<i>Myotis alcathoe</i>	F	D	F	D	D
M	1330	<i>Myotis mystacinus</i>	F	D	F	D	D
M	1322	<i>Myotis nattereri</i>	F	D	F	D	D
M	1314	<i>Myotis daubentonii</i>	F	D	F	D	D
M	1331	<i>Nyctalus leisleri</i>	F	D	F	D	D
M	5765	<i>Nyctalus noctula</i>	F	D	F	D	D
M	1308	<i>Barbastella barbastellus</i>	F	D	F	D	D
M	1326	<i>Plecotus auritus</i>	F	D	F	D	D

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

4.2.– Larreak eta txilardiak.

4.2.1.– Deskribapena eta justifikazioa.

«Larreak eta txilardiak» funtsezko elementuak habitat eta lotutako espezie hauek hartzen ditu barnean:

14. taula. «Larreak eta txilardiak» funtsezko elementuarekin lotutako habitat eta espezieen hautua.			
Funtsezko elementua	Kod.	Kontserbatu beharrekoak	Justifikazioa
Larreak eta txilardiak	4030	Europako txilardi lehorrak.	Funtsezko elementu honetan orkidea ugari dituzten lehentasunezko habitatak sartzen dira, bat edo beste naturagunean ordezkari gisa urrikoa eta giza jardueraren baldintzapekoa.
	4090	Txilardi oromediterraneo endemiko elorri-triskadunak	
	5110	Malda arrokatsuetako <i>Buxus sempervirens</i> eko formazio egonkor xerotermofiloak	Naturagunean ordezkari bikaina edo ona duten beste habitat batzuk ere sartzen dira, txilardiak esaterako.
	6210(*)	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-lurretako sastraka-faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>) (* orkidea ugariko lekuak)	Espezieei dagokienez, funtsezko elementu honek eskualdearen intereseko espezieak ere jasotzen ditu, hartzen dituzten espazioen kudeaketa egokia behar dutenak.
	6220*	Gramineoen eta urteroko <i>Thero-Brachypodietaren</i> zona azpiestepikoak, <i>Brachypodium retusum</i> en larre xerofiloekin nahasiak	Flora-espezieen barruan nabarmentzekoak dira <i>Senecio doronicum</i> subsp. <i>doronicum</i> —espeziea galdutzat jo zen, eta gaur egun ezagutzen diren populazioek oso ale kopuru txikia dute— eta <i>Ophrys aveyronensis</i> —EAEko banaketa hiru kokaleku ezagunetara mugatzen da, horietako bat lzkina—. <i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i> eskualdeko intereseko espeziea da, joera erregresibokoa eta naturagunean gutxi ordezkari gisa inguruneen lotua.
	6230*	<i>Nardusen</i> formazio belarkarak, espezie ugariarekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpi menditarreko) silize-substratuetan	
	16670	<i>Ophrys aveyronensis</i>	
	1865	<i>Narcissus asturiensis</i>	
	1864	<i>Narcissus bulbocodium</i> subsp. <i>citrinus</i>	
	11024	<i>Senecio doronicum</i> subsp. <i>doronicum</i>	
	11056	<i>Scorzonera aristata</i>	
	16644	<i>Halimium lasianthum</i> subsp. <i>alyssoides</i>	
	A082	<i>Circus cyaneus</i>	
A081	<i>Circus pygargus</i>		
			Faunari dagokionez, mirotz zuriaren (<i>Circus cyaneus</i>) eta mirotz urdinaren (<i>Circus pygargus</i>) populazioak sartzen dira, Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskinean jasoak biak ere.

4.2.2.– Presioak eta mehatxuak.

Kodea	Presioa eta mehatxua
A04	Larratzea
A04.03	Larratze-sistemak bertan behera uztea, larratzerik eza
A07	Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera
A08	Ongarrien erabilera
E03	Hondakinak
F05.04	Ezkutuko ehiza
J03.02	Kausa antropogenikoen ondorioz habitataren konektagarritasuna murriztea
K01.01	Higadura
M	Klima-aldaketa

Mota horretako habitat eta espezieetarako identifikatutako presio nagusia Natura-ondarearen gune babestuaren parte garaienetan kokatu ohi diren larre-zonetan larratze-sistema tradizionalak egoki ez

erabiltzea da, batez ere azienda murriztu izanaren ondorioz. Horren ondorioz, habitat horiek basoak bezalako beste habitat batzuek kolonizatzen dituzte. Halaber, gaur egun ez da ezagutzen belarjale basatien komunitateek zer-nolako presioa eragiten dieten habitat horiei.

4.2.3.– Kudeaketa baldintzatzen duten beste faktore batzuk.

Naturaguneak Izkiko Ameztiaren Basogintza Kudeatzeko Plana dauka, LIFE PRO-IZKI proiektuaren ondorio dena, basoak eta larreak kudeatzeari buruzko atal espezifikoak jasotzen duena.

4.2.4.– Kontserbazio-egoera.

Habitata	Deskribapena	Banaketa- eremua edo tartea	Egitura eta funtzio espezifikoak	Etorbizunera ko aukerak	Ebaluazio globala
4030	Europako txilardi lehorrak.	I	F	F	I
4090	Txilardi oromediterraneo endemiko elorri-triskadunak.	I	F	F	I
5110	Malda arrokatsuetako <i>Buxus sempervirens</i> formazio egonkor xerothermofiloak	F	F	F	F
6210(*)	Soropil lehor erdinaturalak eta kare-lurretako sastrakafaziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>).	D	F	I	I
6220*	Gramineoen eta urteroko <i>Thero-Brachypodietea</i> ren larre azpiestepikoak, <i>Brachypodium retusum</i> en larre xerofiloekin nahasiak.	F	F	F	F
6230*	<i>Nardusen</i> formazio belarkarak, espezie ugariarekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpi menditarreko) silize-substratuetan.	I	F	I	I

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

Mota	Kod.	Espezia	Banaketa- eremua edo tartea	Populazioa	Espezia- habitata	Etorbizunera aukerak	Ebaluazio globala
	1865	<i>Narcissus asturiensis</i>	F	F	F	F	F
	1864	<i>Narcissus bulbocodium subsp. citrinus</i>	F	F	F	F	F
	16670-	<i>Ophrys aveyronensis</i>	I	D	I	D	I
	11056	<i>Scorzonera aristata</i>	D	D	F	F	D
	11024	<i>Senecio doronicum subsp. doronicum</i>	I	I	M	M	M
	16644	<i>Halimium lasianthum subsp. alyssoides</i>	M	M	M	I	M
B	A082	<i>Circus cyaneus</i>	F	F	F	F	F
B	A084	<i>Circus pygargus</i>	F	F	F	D	F

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

4.3.– Zohikaztegiak.

4.3.1.– Deskribapena eta justifikazioa.

«Zohikaztegiak» funtsezko elementuaren barruan habitat eta lotutako espezie hauek sartzen dira:

15. taula. «Zohikaztegiak» funtsezko elementuarekin lotutako habitat eta espezieen hautua.			
Funtsezko elementua	Kod.	Kontserbatu beharrekoak	Justifikazioa
Zohikaztegiak	4020*	<i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i> espezieetako zona epeletako txilardi heze atlantikoak	Lehentasunezko komunitateak, lurralde-ordezkaritza urrikoak eta lurzoruan hezetasun-presentzia konstantearen hertsiki mendekoak, flora-aniztasun handikoak eta eskualdearen intereseko espezie ugari dituztenak.
	7140	Trantsizio-zohikaztegiak.	
	7150	Zohikatz-substratuko sakonuneetako <i>Rhynchosporion</i> taldeko landaredia.	
	7210*	<i>Cladium mariscus</i> en kare-zohikaztegiak, <i>Caricion davallianae</i> espezieekin	Nabarmendutako habitaten artean 4020* eta 7210* lehentasunezkoak dira. Izan ere, azken horrek EAE osoko erakusgarri onenetakoa erregistratzen du Izkin.
	7230	Zohikaztegi baxu alkalinoak	
	-	<i>Carex davalliana</i>	
	-	<i>Drosera intermedia</i>	
	-	<i>Drosera longifolia</i>	
	-	<i>Epipactis palustris</i>	
	-	<i>Primula farinosa</i>	
	-	<i>Rhynchospora fusca</i>	
	-	<i>Senecio carpetanus</i>	
	1900	<i>Spiranthes aestivalis</i>	
-	<i>Triglochin palustris</i>	Espezieen artean <i>Rhynchospora fusca</i> nabarmentzen da, Iberiar penintsulako espezie oso bakana, EAEn Izkin bakarrik aipatzen dena.	
			<i>Epipactis palustris</i> edo <i>Primula farinosa</i> espezieak, berriz, NOGBan dute EAEn ezagutzen zaien kokaleku bakarra.

4.3.2.– Presioak eta mehatxuak.

Kodea	Presioa eta mehatxua
A04	Larratzea
J02.03	Kanalizazioak eta ur-desbideratzeak
J03.02	Kausa antropogenikoen ondorioz habitaten konektagarritasuna murriztea

Abeltzaintza egoki ez erabiltzea «Zohikaztegiak» deituriko gunean kontserbatu beharreko elementuen kontserbazio-egoeraren baldintzatzaile garrantzitsua da. Alde batetik, gune batzuetan ganaduaren presentzia intentsibotik ondorioztatzen diren zampaketatik eta nitrifikazioagatik. Beste aldetik, larratze faltak lohiz betetzeko prozesua areagotzen du. Larratzeak, beraz, interakzio konplexua du, haien bilakaeran eta kontserbazioan eragina sortuz. Horrenbestez, ezinbestekoa da habitat horien eta ingurune hurbilaren gaineko abere-zamaren banaketa orekatzea.

4.3.3.– Kudeaketa baldintzatzen duten beste faktore batzuk.

Izki natura-ondarearen gune babestuak komunitate turfifilo eta edafohigrofilo asko eta askotarikoak ditu, eta hori da bere balio handienetakoa. Habitat antzeko baina desberdinez osaturiko mosaiko gisa agertzen dira. Horrek aukera ematen du mosaiko horren barruan ingurumen-aldakuntzen gradiente osoa egoteko eta, hartara, era askotako inguruneak eratzeko, non espezie bakan edo mehatxatu horiek guztiek beren txokoa aurki baitezakete.

Bestalde, LIFE+PRO-Izki proiektuak eta Post-LIFE proiektuak habitat horiek kontserbatzeko eta kudeatzeko ekintza zehatzak aintzat hartzen dituzte: ganaduak haien gainean duen eragina ezagutzera bideratutako esperimentazioak –horretarako, ganadua kanpoan uzteko aldi baterako hesiak jarri dira–, zohikaztegiako espezieen «ex situ» ugalketa, gero naturagunean landatzeko, eta abar. Gaur egun ekintza horiek gauzatzen ari dira.

4.3.4.– Kontserbazio-egoera.

Habitata	Deskribapena	Banaketa- eremua edo tartea	Egitura eta funtzio espezifikokoak	Etorkizunerako aukerak	Ebaluazio globala
4020*	<i>Erica ciliaris</i> eta <i>Erica tetralix</i> espezieetako zona epeletako txilardi heze atlantikoak.	F	M	I	M
7140	Trantsizio-zohikaztegiak.	I	F	I	I
7150	Zohikatz-substratuko sakonuneetako <i>Rhynchosporion</i> taldeko landaredia.	I	F	F	I
7210*	<i>Cladium mariscus</i> en kare-zohikaztegiak, <i>Caricion davalliana</i> espezieekin.	F	F	F	F
7230	Zohikaztegi baxu alkalinoak	I	F	F	I

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

Mota	Kod.	Espeziea	Banaketa- eremua edo tartea	Populazioa	Espeziearen habitata	Etorkizunerako aukerak	Ebaluazio globala
P	-	<i>Carex davalliana</i>	M	I	M	I	M
P	-	<i>Drosera intermedia</i>	F	I	I	I	I
P	-	<i>Drosera longifolia</i>	I	I	M	I	M
P	-	<i>Epipactis palustris</i>	I	F	I	F	I
P	-	<i>Primula farinosa</i>	I	I	I	I	I
P	-	<i>Rhynchospora fusca</i>	F	I	F	I	I
P	-	<i>Senecio carpetanus</i>	M	M	M	M	M
P	1900	<i>Spiranthes aestivalis</i>	I	I	M	I	M
P	-	<i>Triglochin palustris</i>	F	I	M	I	M

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

4.4.– Harkaiztegiak eta antzeko inguruneak.

4.4.1.– Deskribapena eta justifikazioa.

«Harkaiztegiak eta antzeko inguruneak» funtsezko elementuaren barruan habitat eta lotutako espezie hauek sartzen dira:

16. taula. «Harkaiztegiak eta antzeko inguruneak» funtsezko elementuarekin lotutako habitat eta espezieen hautua.			
Funtsezko elementua	Kod.	Kontserbatu beharrekoak	Justifikazioa
Harkaiztegiak eta antzeko inguruneak	-	<i>Arenaria vitoriana</i>	Batasunaren eta eskualdearen intereseko espezieak. Flora-espezieen kasuan, asko beren banaketa-eremuaren mugan daude, eta, <i>Coeloglossum viride</i> espeziearen kasuan, Izki da, Valderejorekin batera, Araban aipatzen den leku bakarra.
	-	<i>Armeria arenaria</i> subsp. <i>burgalensis</i>	
	-	<i>Coeloglossum viride</i>	
	-	<i>Genista eliasennenii</i>	
	-	<i>Potentilla fruticosa</i>	
	A077	<i>Neophron percnopterus</i>	Fauna-espezieei dagokienez, hegazti errupikolen komunitatea nabarmentzen da, guztiak baitaude Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskinean jasota.
	A078	<i>Gyps fulvus</i>	
	A091	<i>Aquila chrysaetos</i>	
	A103	<i>Falco peregrinus</i>	
	A215	<i>Bubo bubo</i>	Kiroptero haitzulotarren eta antropofiloen 10 espezie ere jasotzen dira. Horien artean arratoi-belarri handia (<i>Myotis myotis</i>) nabarmentzen da, Fauna eta Flora Basatiko Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan <i>Galzoriko espezieen</i> kategorian sartua.
	A346	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	
	1304	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	
	1303	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	
	1324	<i>Myotis myotis</i>	
	1321	<i>Myotis emarginatus</i>	
	1309	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	
	2016	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	
	1327	<i>Eptesicus serotinus</i>	
	1329	<i>Plecotus austriacus</i>	
1310	<i>Miniopterus schreibersii</i>		
1333	<i>Tadarida teniotis</i>		
5365	<i>Hypsugo savii</i>		

4.4.2.– Presioak eta mehatxuak

Kodea	Presioa eta mehatxua
A07	Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera
C01.01	Harea eta legarra erauzteak
D02.01	Linea elektrikoak eta telefono-lineak
F03.02.03	Tranpaz harrapatzea, pozoiak, ezkutuko ehiza
G01	Aire zabaleko kirolak eta aisialdiko jarduerak, jolas-jarduera antolatutak
G01.04	Alpinismoa, eskalada, espeleologia
J03.01.01	Harrapakin eskuragarriak murriztea (sarraskia barne)
J03.02	Kausa antropogenikoen ondorioz habitaten konektagarritasuna murriztea
M	Klima-aldaketa

Funtsezko elementu honen mehatxuen artean harea eta legarra erauztearen arriskua nabarmentzen da. Izkiko esparruan meatzaritzako baliabideak ustiatzeko bi emakida eman dira. Alde batetik, Esther ustiapen-emakida, 2007. urtean amaitua, eta, bestetik, Maeztuko asfaltoen ustiategia, Atauri inguruetan; azken hori, gaur egun, ez dago ustiapen-fasean baina emakida mantentzen jarraitzen

du. Esther ustiapen-emakida 100 meatze-lauki baino gutxiagoko hiru frakziotan zatitu zen; horietako bi (Esther II eta III) KBEaren/HBBEaren barruan kokatzen ziren. 2010ean Ingurumen-inpaktuaren Adierazpen negatiboak jaso zituzten, parke naturalaren gainean ondorio kaltegarriak izan zitzaizketelako eta naturagune horren NBAParekin bateraezinak zirelako. Halaber, ebazpen horiek adierazten zuten proiektu horiek ziur aski ondorio negatibo adierazgarriak sortuko zituztela ingurumenaren gainean eta parke naturalaren eta Natura 2000 Sareko espazioen integritatearen gainean (2010eko maiatzaren 5eko Ebazpena).

Kontserbatu beharreko elementu hori osatzen duten habitat eta espezieentzat aipatutako presioei dagokienez, aire zabaleko kirolak edo alpinismoa ere aipatzen dira, eraginpean hartzen baitituzte fauna eta flora errupikolaren populazioak.

4.4.3.– Kudeaketa baldintzatzen duten beste faktore batzuk.

Izkiko Parke Naturalari atxikitako langileek urtero egiten dute *Potentilla fruticosa* espeziearen jarraipena, baita hegazti errupikola gehienena ere. Horiek horrela, sai arrearen, arrano beltzaren, sai zuriaren eta belatz handiaren informazioa jasotzen ari dira 2001az geroztik.

4.4.4.– Kontserbazio-egoera.

Mota	Kod.	Espeziea	Banaketa- eremua edo tartea	Populazioa	Espeziearen habitata	Etorbizunerako aukerak	Ebaluazio globala
P	-	<i>Arenaria vitoriana</i>	F	F	F	F	F
P	-	<i>Armeria arenaria subsp. burgalensis</i>	F	I	F	I	I
P	-	<i>Coeloglossum viride</i>	I	I	I	I	I
P	-	<i>Genista eliasennenii</i>	F	F	F	F	F
P	-	<i>Potentilla fruticosa</i>	F	I	I	F	I
B	A077	<i>Neophron percnopterus</i>	F	F	F	D	F
B	A078	<i>Gyps fulvus</i>	F	F	F	F	F
B	A091	<i>Aquila chrysaetos</i>	D	I	D	D	I
B	A103	<i>Falco peregrinus</i>	F	F	F	F	F
B	A215	<i>Bubo bubo</i>	F	F	F	F	F
B	A346	<i>Pyrhocorax pyrrhocorax</i>	F	F	F	F	F
M	1304	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	F	D	F	D	D
M	1303	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	F	D	F	D	D
M	1324	<i>Myotis myotis</i>	F	D	F	D	D
M	1321	<i>Myotis emarginatus</i>	F	D	F	D	D
M	1309	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	F	D	F	D	D
M	2016	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	F	D	F	D	D
M	1327	<i>Eptesicus serotinus</i>	F	D	F	D	D
M	1329	<i>Plecotus austriacus</i>	F	D	F	D	D
M	1310	<i>Miniopterus schreibersii</i>	F	D	F	D	D
M	1333	<i>Tadarida teniotis</i>	F	D	F	D	D
M	5365	<i>Hypsugo savii</i>	F	D	F	D	D

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

4.5.– Ibai-sistema.

4.5.1.– Deskribapena eta justifikazioa.

Izkiko ibai-sistemak habitat eta lotutako espezie hauek hartzen ditu barnean:

17. taula. «Ibai-sistema» funtsezko elementuarekin lotutako habitat eta espezieen hautaketa.			
Funtsezko elementua	Kod.	Kontserbatu beharrekoak	Justifikazioa
Ibaiak eta ingurune urtarrak	3150	Aintzira eutrofiko naturalak, <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharition</i> landaredia dutenak	3150 habitata garrantzizkoa da <i>Nymphaea alba</i> bezalako espezie mehatxatuen presentziagatik, baina, gainera, komunitate horien interes biologikoagatik, bertan bizi den flora eta fauna espezializatuagatik eta ur-puntu iraunkor batekin lotutako funtzio ekologikoen garrantziagatik, baita jasaten dituzten mehatxuengatik ere: kutsadura, jalkinez betetzea, lehorteza, eta abar.
	3170*	Denboraldiko urmael mediterraneokoak	3170* habitata lehentasunezkoa da eta oso ordezkaritza urria du naturagunean eta, oro har, intereseko zenbait flora-espezieren presentzia duen esparru atlantiko/subatlantiko osoan.
	7220*	Iturburu petrifikante tofikoletako formazioak (<i>Cratoneurion</i>)	Eta 7220* eta 91E0* habitatak ere lehentasunezkoak dira, eta oso urriak naturagunean.
	91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsioren</i> ibarbakoak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	Flora-espezie oso hauskorrek biltzen ditu, sistema urtarrei lotuak. Olandinako urmaeleko nenufar zuriaren (<i>Nymphaea alba</i>) populazioa nabarmentzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko bakarra eta Iberiar penintsulako handiena.
	92A0	<i>Salix alba</i> eta <i>Populus albaren</i> galeria-basoak	Faunaren barruan Batasunaren eta eskualdearen intereseko espezieak sartzen dira, baita bisoi europarra (<i>Mustela lutreola</i>) bezalako lehentasunezko espezieen bat ere.
	-	<i>Isoetes durieui</i>	Ibai-karramarroaren (<i>Austropotamobius italicus</i>) populazioa ere nabarmentzekoa da. Espezie Mehatxatuen Euskadiko eta Espainiako Katalogoetan <i>Galzoriko espezieen</i> kategorian sartuta dago.
	-	<i>Littorella uniflora</i>	Izkiko baso-igel jauzkariaren (<i>Rana dalmatina</i>) populazioa Iberiar penintsulako dentsitate handiena duenetako bat da.
	-	<i>Nymphaea alba</i>	
	-	<i>Utricularia australis</i>	
	-	<i>Aeshna affinis</i>	
	1044	<i>Coenagrion mercuriale</i>	
	-	<i>Coenagrion scitulum</i>	
	-	<i>Sympetrum meridionale</i>	
	1092	<i>Austropotamobius italicus</i>	
	1191	<i>Alytes obstetricans</i>	
	1195	<i>Discoglossus jeanneae</i>	
	6284	<i>Epidalea calamita</i>	
	1203	<i>Hyla arborea</i>	
1209	<i>Rana dalmatina</i>		
1356	<i>Mustela lutreola</i>		
1355	<i>Lutra lutra</i>		

4.5.2.– Presioak eta mehatxuak.

Kodea	Presioa eta mehatxua
A01	Laboreak
A04	Larratzea
F03.02.03	Tranpaz harrapatzea, pozoiak, ezkutuko ehiza
G01	Aire zabaleko kirolak eta aisialdiko jarduerak, jolas-jarduera antolatutak
H01.05	Nekazaritzako eta basogintzako jarduerak eragindako lur gaineko uren kutsadura lausoa
I01	Espezie inbaditzaileak eta espezie aloktonoak
J02	Baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak
J02.01	Zaborteziak, lurra berreskuratzea eta lehorteza, oro har
J02.03	Kanalizazioak eta ur-desbideratzeak
J03.02	Kausa antropogenikoen ondorioz habitataren konektagarritasuna murriztea

Kodea	Presioa eta mehatxua
K01	Prozesu abiotiko naturalak (motelak)
K03.01	Lehia
K04.03	Gaixotasunen sarrera

Espezie inbaditzaileak eta aloktonoak sartzea da funtsezko elementu honen mehatxu nagusia, eta, beraz, funtsezkoa da ingurumen-dibulgazioa eta -heziketa mehatxu hori prebenitzeko. Bestalde, putzuetan eta urmaeletan, batez ere uda garaian, azienda ugari egoteak erliebea aldatzea eta ura eta hondoa nitrifikatzea eragin dezake.

4.5.3.– Kudeaketa baldintzatzen duten beste faktore batzuk.

«LIFE+PRO-Izki» proiektuak kontserbazioaren helburu ziren espezieen barruan sartu zuen baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*), eta espezie horren Izkiko habitata kontserbatzeko jarduketa-neurriak ezarri zituen, hala nola putzuak eta ur-puntuak sortzea eta egokitzea.

Bestalde, bisoi europarrak eta igarabak kudeaketa-planak dituzte Araban. Kudeaketa-plan horiek espezie horien gainean dauden mehatxuak desagerrarazten ahalegintzeko behar diren neurriak eta gidalerroak ezartzen dituzte, haien berreskurapena eta kontserbazioa sustatzeko.

4.5.4.– Kontserbazio-egoera.

Habitata	Deskribapena	Banaketa-eremua edo tartea	Egitura eta funtzio espezifikokoak	Etorkizunerako aukerak	Ebaluazio globala
3150	Aintzira eutrofiko naturalak, <i>Magnopotamion</i> edo <i>Hydrocharitton</i> landaredia dutenak.	F	I	I	I
3170*	Denboraldiko urmael mediterraneoak.	I	M	I	M
7220*	Iturburu petrifikante tofikoletako formazioak (<i>Cratoneurion</i>).	F	I	D	I
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> en ibarbasoak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>).	F	F	F	F
92A0	<i>Salix alba</i> eta <i>Populus albaren</i> galeria-basoak.	I	I	I	I

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

Mota	Kod.	Espezia	Banaketa-eremua edo tartea	Populazioa	Espeziearen habitata	Etorkizunerako aukerak	Ebaluazio globala
P	-	<i>Isoetes durieui</i>	F	F	F	F	F
P	-	<i>Littorella uniflora</i>	I	I	I	I	I
P	-	<i>Nymphaea alba</i>	I	F	I	I	I
P	-	<i>Utricularia australis</i>	I	I	I	I	I
I	-	<i>Aeshna affinis</i>	I	D	F	D	I
I	1044	<i>Coenagrion mercuriale</i>	I	D	F	D	I
I	-	<i>Coenagrion scitulum</i>	I	F	F	D	I
I	-	<i>Sympetrum meridionale</i>	F	I	F	D	I
I	1092	<i>Austropotamobius italicus</i>	M	I	I	M	M

Mota	Kod.	Espezia	Banaketa- eremua edo tartea	Populazioa	Espeziearen habitata	Etorkizunerako aukerak	Ebaluazio globala
A	1191	<i>Alytes obstetricans</i>	F	F	F	F	F
A	1195	<i>Discoglossus jeanneae</i>	I	D	D	D	I
A	6284	<i>Epidalea calamita</i>	F	F	F	F	F
A	1203	<i>Hyla arborea</i>	F	F	F	F	F
A	1209	<i>Rana dalmatina</i>	F	D	F	D	D
M	1356	<i>Mustela lutreola</i>	I	I	I	M	M
M	1355	<i>Lutra lutra</i>	F	D	F	F	F

F: Egokia; I: Desegokia; M: Txarra; D: Ezezaguna

5.– Kontserbaziorako intereseko beste zenbait elementu.

5.1.– Geologia-interesdun lekuak.

5.1.1.– Deskribapena eta justifikazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan jasotako geologia-interesdun lekuak dira.

«Kanpezuko muelatoko aldapa-erliebea» GILaren kasuan, balio geomorfologiko handia du, higadura diferentzialaren ondorioz sinklinal oso irekia osatzen duen maldan dagoen erliebe estrukturalaren adibidea baita, La Muela eta Peña del Santo edo Arregi mendiek osatzen dutena.

Bestalde, «Maeztuko asfaltoak» GIL bereziak, oso balio handiko meatokiak, EAEko diapiroekin lotutako asfalto naturalaren kontzentrazio handiena hartzen du, 150 urte baino gehiagotan ustiatu ahal izan zena.

5.1.2.– Presioak eta mehatxuak.

«Maeztuko asfaltoak» GILerako deskribatutako mehatxu nagusia asfaltoz inpregnatutako harri-laginen espoliazio-arriskua da; bestalde, GIL hau leku berezi bihurtzen duten azaleratzeak ezkutatzera iritsi liteke landaredia. Gainera, abandonatuta dagoenez, hormak kolapsatzeko edo lerradurak izateko arriskua dago. «Kanpezuko muelatoko aldapa-erliebea» GILean ez da arriskurik edo mehatxurik aipatzen.

5.1.3.– Kontserbazio-egoera.

«Maeztuko asfaltoak» GILa kontserbazio-egoera txarrean dago, harrobia abandonatuta baitago eta sarbidea arriskutsua baita, baina ez dago oso eraldatuta eta ez du intereseko ezaugarrien galera adierazgarriak.

«Kanpezuko muelatoko aldapa-erliebea» GILa, bestalde, oso kontserbazio-egoera onean dago.

5.2.– Konektagarritasuna.

Erdialdeko mendikateek (Valderejo, Arkamo – Gibijo – Arrastaria, Gasteizko Mendi Garaiak eta Entzia) osatzen duten korridore ekologikoaren eta hegoaldeko mendien (Araba hegoaldeko mendilerroak, Kodes mendilerroa (Nafarroa), Obarenes-Kantauriar mendilerroa (Errioxa) eta Miranda Ebroko eta Ameyugoko mendiak (Burgos)) arteko lotura nagusietako bat da Izki.

Izki natura-ondarearen gune babestuan apenas dago fauna naturagune horretatik inguruko beste batzuetara igarotzea eragozten duen hesi edo oztopo artifizialik, baina aipatzekoak dira A-132 eta A-126 errepideak. Lehenengoa naturagunearen ekialdeko muturrean dago, Izkiren eta Entziaren artean, eta kilometroko 5,82 istripu izan ditu 2003 eta 2011 artean. Izan ere, lehenengoko arretako harrapatzeen kontzentrazio handiko tarte da, 16 istripu biltzen dituena —15 istriputan basurdea izan zen eraginpeko espeziea—.

Aipatu beharra dago, halaber, ez dagoela informaziorik anfibioak edo kiropteroak bezalako tamaina txikiagoko beste espezie batzuen heriotza-tasari buruz.

6.– Izki natura ondarearen gune babestuak eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak.

Izki natura-ondarearen gune babestuak zerbitzu ekosistemiko hauek eskaintzen ditu:

18. taula. Izki NOGBko zerbitzu ekosistemikoak.		
Zerbitzu mota	Zerbitzua	Deskribapena
Hornidura	Elikagaiak	Ganadu- eta ehiza-haragia.
		Basafruituak.
		Onddoak eta perretxikoak.
		Eztia.
	Ur geza	Hainbat erabileratarako ur-hornidura (kontsumoa, nekazaritza, eta abar).
	Lehengai biotikoak	Etxean erabiltzeko eta eskulangintzarako zura eta egurra.
		Aziendarentzako bazka.
	Lehengai geotikoak	Harritzak.
	Energia berriztagarriak	Nekazaritzako eta basogintzako hondakinen biomasa.
		Energia hidraulikoa.
Gordailu genetikoak	Basaflorako eta basafaunako espezie ugariaren presentziak dakarren dibertsitate genetikoak (endemismoak barne). Ganadu-arraza autoktonoen presentzia.	
Sendagai naturalak	Pago-ekurrak, ezki-lorea, kamamila, elorria, <i>Calluna vulgaris</i> , sahatsak, iratzeak, eta abar.	
Erregulazioa	Klima-erregulazioa	Zuhaitzen azpian tenperatura freskoagoak kontserbatzea.
		Airearen hezetasuna ebapotranspirazioaren bidez kontserbatzea.
		Haizearen abiadura erregulatzea eta indargetzea.
		Prezipitazio-erregimena erregulatzea.
		Karbono-hustulekia.
	Airearen kalitatearen erregulazioa	Atmosferako kutsatzaileak gas-trukearen bidez erregulatzea.
		Zuhaitzen azpian tenperatura freskoagoak erregulatzea eta erregulazio termikoa oro har.
	Ziklo hidrologikoaren erregulazioa	Ura lurzoruan infiltratu eta bana dadin indartzea. Ura harrien bitartez araztea, kutsatzaileak eta partikula organikoak iragazita.
		Ekosistema urtarretan ur-korrontearen abiadura erregulatzea.
		Partikulen sedimentazioa eta, hortaz, uren kalitatea hobetzea.
Akuiferoak kargatzea.		
Higaduraren kontrola	Sustraiekin lurzorua egonkortzea, euri-jasen garaian galtzea saihesteko.	
	Materia organikoak uraren lurzoruan zeharreko zirkulazioa mantsotzea.	
	Ekosistema urtarretan ur-korrontearen abiadura erregulatzea.	

18. taula. Izki NOGBko zerbitzu ekosistemikoak.		
Zerbitzu mota	Zerbitzua	Deskribapena
	Lurzoruaren emankortasuna mantentzea	Mantenugai-ekarpena.
		Lurzoruaren hezetasuna eta ahalmen kationikoa mantentzea.
	Perturbazio naturalen erregulazioa	Euri-jasen garaian ur-fluxua mantsotzea uholdeak saihesteko.
		Haize gogorren aurkako babesak.
		Baso-suteen arriskua arintzea.
	Kontrol biologikoa	Izurriteen prebentzio eta kontrolean garrantzizkoak diren hegazti eta kiroptero ugairaren presentzia.
Polinizazioa	Polinizatzaileentzako elikagai-hornitzaileak.	
Kulturalak	Aisia	Mendi-ibiliak, espeleologia, eskalada kontrolatua, bainua, aisialdiko ehiza, perretxikoak eta onddoak biltzea, eta abar.
	Jakintza zientifikoa	Zenbait ikerketa-azterketaren xede (erreserba integrala, okil ertaina, larreen hazkundera, geodibertsitatea, eta abar).
	Ingurumen-hezkuntza	Prozesu ekologikoen funtzionamenduari buruzko prestakuntza.
		Ingurumen-dibulgazioa eta funtzio soziala Korresko parketxetik.
	Paisaiaren gozamen estetiko eta espiritual	Oso paisaia preziatuak, haien dibertsitatea eta naturaltasuna dela eta.
		Arte-adierazpenerako inspirazio gisa (literatura, pintura, musika eta abar).
		Bere baitan biltzeko espazio espiritualak: baselizak, santutegiak...
	Jakintza tradizionala	Usategiko txabolak, ehiza.
		Ikazkintza, lepaketa, asfalto-ustiapena, hargintza.
		Artzaintza, erlezaintza.
		Ur-errotak, ikuztegiak.
	Identitate kulturala eta kide sentitzea	Larratze-sistema tradizionalak, asfalto naturalen ustiapena, ikazkintza edo lepaketak gure historiaren aztarna bizia dira eta euskal identitate kulturalaren parte dira.
		Hariztiak garrantzi handikoak dira euskal identitate kulturean.
		Ekosistemei oso loturik dagoen euskal mitologia: basoak, harkaiztegiak, leizeak, haitzuloak, ibaiak, eta abar.
		Naturako elementuei lotutako toponimia eta onomastika (euskaraz batez ere, eta gaztelaniaz).
Historia: geodibertsitateak haitzulo prehistorikoak eta eremitikoak eskaintzen ditu.		
Trikuharri, harrespil eta menhirretarako materiala eta zona bakoitzari loturiko arkitektura (baserriak, elizak, jauregiak, eta abar).		
Herri-kirolak: aizkolariak, harri-jasotzaileak, idi-probak, barrenatzaileak...		

7.– Izki natura ondarearen gune babestuaren diagnosi klimatikoa.

7.1.– Klima aldaketaren eraginen aurreikuspena.

Maila globalean gertatzen den bezala, Izkiko baldintza klimatikoak modu esanguratsuan alda daitezke klima-aldaketaren ondorioz; beraz, ezagutza mota horretan aurrera egiteko, eta IPCCren (Intergovernmental Panel on Climate Change) azken txosteneko kontzentrazio-ibilbide adierazgarriak (RCP) deituriko klima-aldaketaren lau agertokiak erabiliz, Euskadin ere erregularatasunez egiten dira klima-joeren proiektzioak zirkulazio-eredu globalen bidez.

Osagarri gisa, EAEn klima-atlas bat egin da (1971-2015 aldiko eguneroko datuak), bereizmen espazial handikoa (1km x 1km) eta XXI. menderako proiektzio klimatikoak (2011-2040, 2041-2070, 2071-2100), RCP4.5 eta RCP8.5 agertokietarako sortuak, Euro-CORDEX proiektuaren esparruan egindako simulazioetan oinarrituta.


Izkirako informazio-iturri horiek erabili dira datu klimatiko historikoak eta etorkizuneko bilakaera aztertzeko. Kasu honetan, kasurik txarrena aplikatu da (RCP 8.5 agertokia), zuhurtasun-printzipio gisa. Eta kontuan hartu da beste trantsizio-ingurune batzuetan gertatzen den bezala, Izkin dauden basa-flora eta -faunako habitatek eta espezieek tolerantzia desberdinak erakusten dituztela mota horretako aldaketekiko. Aldaketa horiek, bestalde, aldakorak izan daitezke, eta horrek zaildu egiten du klima-aldaketak kontserbazio-egoeran izango dituen ondorioei buruzko aurreikuspen zehatzetara iristea.

7.1.1.– Temperatura eta prezipitazioa aldagai klimatikoetan espero eta erregistratu diren aldaketak

Izki Arabako hego-ekialdean kokatzeak murriztu egiten du itsasoaren eragina bere klima-baldintzetan, nahiz eta bere mutur termikoak leuntzen eta prezipitazio-tasak aberasten jarraitzen duen; beraz, lehen esan bezala, trantsizio atlantiko-mediterraneoko eremu gisa deskribatu ohi da.

Ezaugarri horiek, gainera, osagai orografikoak modulatzeko dituzten, mendiko espazioen aldagarritasun altitudinala eta orientazio bereizgarria ematen baititu. Bere litologia bereziak, azalera diren materialen iragazkortasunean ezberdintasun nabarmenak dituenak, dibertsitatea ere gehitzen du ur erabilgarritasunean. Ildo horretan, prezipitazioak berehala drainatzen eta lurpeko fluxuen bidez beste deskarga-eremu batzuetara eramaten diren eremuak ditu.

Klima-nitxoaren aniztasun horrek eragina jasan lezake Izkin temperaturetan eta prezipitazioetan espero daitezkeen aldaketen mehatxuagatik, bai eta horien banaketak urteko zikloan izan dezakeen aldaketagatik ere.




6. irudia. 1970 eta 2016 artean erregistratutako batez besteko tenperatura eta 2100era arte zenbatetsitako balioak (RCP 8.5 agertokia, erregionalizatua alborapen-zuzenketarekin). Eredu guztien balio maximoen eta minimoen arteko azalera itzaltsu ageri da, eta lerro eten gisa seriearen joera-lerroa (erregresio lineala).

Aurreko irudia ikusita, erregistratutako datuekin erabilitako aldian (1970-2016), batez besteko tenperatura 11,2 °C-koa izan da. Hala ere, epe luzerako aldaketa-itxaropenek, egoera ezkorrena aplikatuta (RCP 8.5), adierazten dute 15,8 °C-ra irits daitezkeela, eta horrek % 41eko igoera ekarriko luke.

Urtaroen arabera eraginari dagokionez, eskura ditugun datuen arabera, tenperaturaren igoera handiagoa izango da neguan, 5,2 °C-ko batez bestekotik 10 °C-ko epe luzerako aurreikuspena igaroko baita, hau da, % 92ko igoera.

Prezipitazioei dagokionez, 7. irudian ikus daitekeen bezala, badirudi aurreikus daitekeen aldaketa ez dela hain nabarmena izango; hain zuzen, haien konplexutasuna dela-eta klima-aldagai horri ekitean ziurgabetasun gehiago pilatzen duten prezipitazio-ereduetan egon daitekeen aldaketa.



7. irudia. 1970 eta 2016 bitartean erregistratutako eguneko batez besteko prezipitazioa eta 2100era arte zenbatetsitako balioak (RCP 8.5 agertokia, erregionalizatua, alborapen-zuzenketarekin). Eredu guztien balio maximoen eta minimoen arteko azalera itzaltsu ageri da, eta lerro eten gisa seriearen joera-lerroa (erregresio lineala).

7. irudiaren modelizazio horretan, erregistratutako aldiko eguneko batez besteko prezipitazioaren (2,1 mm) eta 2100eko prezipitazioaren (1,9 mm) arteko aldea % 10 txikiagoa da.

Prezipitazioaren urtaroen analisiak erakusten du alderik nabarmenenak udan izango direla — % 50eko jaitsierarekin—, eta, ondoren, udazkenean, % 32ko murrizketarekin. Neguan eta udaberrian kontrako joerak ikusten dira: prezipitazioak % 26 murriztuko dira udaberrian, eta neguak hezeagoak izango dira ehuneko berean.


Laburbilduz, egindako azterketa horren arabera, tenperaturen igoera orokorra, prezipitazioen murrizketa eta, bereziki, urtaroz urtaroko banaketa aldatzea espero da, uda lehorragoekin eta negu hezeagoekin.

Hurrengo ataletan, baldintza klimatikoetan aurreikusitako aldaketak gaur egun Izkin dauden habitaten eta basafloorako eta basafaunako espezieen iraunkortasunerako presio edota mehatxu bihur daitezkeela deskribatzen da.

7.1.2.– Analisi bioklimatikoak Izkin.

Analisi bioklimatikoak aukera ematen du klima eta habitaten eta espezieen egungo eta etorkizuneko banaketa potentziala erlazionatzeko. Planteamendu horrekin, pisu bioklimatikoaren bilakaera aztertu da, altitudetako edo latitudetako cliserie batean gertatzen diren bizi-giroetako bakoitza, tenperaturarekin (termotipoak) eta prezipitazioekin eta horien kokapen eraginkorrarekin (ombrotipoak) lotutako faktoreek batera mugatuta. Tenperaturak eta prezipitazioak aldatzeko jarraibidea espazio honetako pisu

bioklimatikoan azterketa egitean ere islatzen da, egungo ombrotipoen eta termotipoen arteko konparazioa ezarriz eta epe luzerako modelizazio batean, 2100erainoko aldia hartzen duena:



8. irudia. Egungo termotipoen (ezkerrekoa) eta epe luzerako aurreikusitako (2071-2100) (eskuinekoa) arteko alderaketa klima-aldaketaren egoera baterako (RCP 8.5, Izki natura-ondarearen gune babestuan).

– Hezetasuna: Gaur egun, Izkin, mendebaldean dagoen mota hezearen eta gainerako espazioan dagoen subhezearen arteko trantsizioa gertatzen da. Modelizazioaren arabera, epe luzera pisu horiek ordeztu egingo dira; horrela, mendebaldean zona subhezeak egongo dira, eta gainerako eremuak pisu bioklimatiko lehorrarekin bat etorriko dira.

– Temperatura: gaur egungo eta etorkizuneko termotipoak alderatzean, ikus dezakegu gaur egun pisu supramediterranea dela nagusi, mendebaldean eremu mesoepel zabalak dituela eta Antoñana eta Bujanda aldera mesomediterranea duela lekuko gisa. Epe luzera, aldakortasun hori desagertu egiten da: espazio osoa pisu mesomediterraneoan sartuko da. Izan ere, homogeneousotasun hori Arabako Mendialdeko gainerako lekuetara zabaltzen da, baita Trebiñura eta Lautadara ere.

Aldaketa-prozesuari dagokionez, termotipoen aldakuntza nahiko azkar antzematen da, nabarmena da modelizatutako lehen aldirian (2040. urtera arte) eta pixkanaka jarraitzen du 2100. urtean deskribatutako azken etapara iritsi arte. Ombrotipoen aldaketak apurkakoagoak dira, nahiz eta modelizatutako lehen aldiria hezeguneak —subheze izatera igarotzen direnak— galtzen ari direla antzematen den.

Aldaketa horiek, ziurrenik, Izkiko habitat eta espezieei eragingo diete. Zuzenean, haien presentzia ahalbidetzen duten baldintza klimatikoak aldatzean, eta zeharka, beste faktore negatibo batzuk eragin baititzakete. Azken horien artean daude espezie aloktono inbaditzaileak, maila globalean biodibertsitatea galtzeko faktore garrantzitsuenetako bat. Gaur egungo adostasunaren arabera, klima-aldaketak mesede egingo die, alde batetik, bertako komunitateen nahasmenduagatik eta, bestetik, espezie aloktono inbaditzaile zehatzen ezaugarri biologiko indibidualei mesede egiten dielako.

7.1.3.– Izkiko emisioen arintzearen analisisa.


Atmosferan dauden berotegi-efektuko gasen (BEG) mailak dira klima-aldaketaren erantzuleak, eta maila horiek atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen eta karbono-hustulekuen bidez murriztutako gasen arteko balantzeari erantzuten diote.

Izkiko ekosistemek berotegi-efektuko gasak murriztzakete atmosferatik eta klima-aldaketaren prozesuak arintzen lagun dezakete. Horretarako, garrantzitsua da karbono-hustulekuen garrantzia jakitea. Horretarako, Izkiko landare-formazioek karbonoa finkatzeko duten ahalmena dimentsionatu da, 2006ko IPCC Taldearen Gidalerroetan jasotako metodologiaren arabera eta 2018ko Baso Inbentarioko datuak erabiliz. Lortutako emaitzak adierazten du espazio horretako biomasa biziak 635.050 t C biltegitratzen dituela guztira, eta, beraz, Izki EAEko Natura 2000 sareko bosgarren espazioa da, termino absolutuetan, biltegitratutako karbono-kantitatearen arabera.

Zati horri egur hilaren forma duen karbonoa eta zorua gehitu behar zaizkio, aurreko kalkulan kontuan hartu ez ziren aldeak. 1997-2007ko Baso Inbentarioko datuak erabiliz, hildako egurrari buruzko datuak biltzen dituen berriena, zati horretako karbono-erreserbak 20.487 t C dira. Kopuru hori frakzio horren maximo teorikoaren % 43 da, eta maximo teoriko hori honela kalkulatzen da: biltegitratutako kantitatea, baldin eta Izkiko baso-masa osoak bere eraketaren zur hilaren dentsitatea dentsitate handiagoarekin izango balu: Haritz baso puruak eta mistoak).

Lurzoru-frakzioari dagokionez, interes bereziko da azal-azaleko horizontearena (0 eta 30 cm arteko sakonera), aktiboena baita, eta errazago aska baitaiteke atmosferara, baldin eta erabilerak aldatzen badira esposizio handiagoa duelako.

Dauden datuen arabera, Izkik karbono-dentsitate handia metatzen du (59 t C/ha batez besteko balio gisa), eta, beraz, 555.183 t C pilatzen da lurzoruaren lehen 30 cm-etan. Biltegitratze-ahalmen hori ez da homogenea, 30 eta 190 t C/ha bitarteko balio-tartea baitute, eta irudi honetan ikus daitekeen bezala banatzen da lurraldean:



9. irudia. Izkik lurzoruko lehen 30 cm-etan biltegitratutako karbono-dentsitatea.

Beste mendigune batzuetan gertatzen den bezala, lurzoruetan karbonoa biltegitratzeagatik gehien nabarmentzen diren eremuak larreak dira, San Cristobal eta San Justi mendien inguruko multzorik handienak, eta Belabiaren magalak Markinez herrira begira daudenak. Lurzoruan karbono-dentsitate txikiena duten eremuak, bestalde, baso- eta labore-eremuak dira.

Laburpen gisa, biomasa bizia, egur hila eta lurzoria zatikietan biltegitratutako karbonoa batuta, Izkik 1.210.720 t C biltegitratzen ditu guztira. Aitzitik, 2008ko eta 2012ko LIDAR hegaldiak alderatuz lortutako baso-hazkunderari buruzko datuak erreferentziatzat hartuta, kalkulatzen da aldi horretan atmosferatik 14.589 t C-ko erretiratze garbia gertatu zela urtean, soilik haren baso-biomasa bizia kontuan hartuta.

Beraz, Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honetan planteatzen dena da lurzoruaren erabileran aldaketarik ez egitea horietan biltegitratutako karbonoaren galera garbia ez eragiteko. Aldi berean, ahal den neurrian, karbono-hustuleku gisa duen eragina indartzen saiatzen da, eta hori konplexua da, batzuetan gaur egun dauden landare-formazioak aldatzea edo arriskuan jartzea ekar dezakeelako, eta horrek arazoak sor ditzake kontserbazio-helburuekin, saihestu nahi dena, hain zuzen ere.

7.2.– Klima-arriskuaren azterketa.

Klima-arriskuak klima-aldaketek basa-habitat edo -espezie bati eragiteko duten gaitasuna ebaluatzen du, haren esposizioa eta kalteberatasuna kontuan hartuta. Esposizioak klima-baldintzen etorkizuneko aldaketen ondorioz banaketa potentziala aldatzeko aukera ebaluatzen du, eta kalteberatasuna, berriz, propietate intrintsekoa da, kalte negatiboa jasateko aurretiko joera aintzat hartzen duena.

Klima-arriskuari buruzko azterlan xehatuak oraindik hasiberriak direnez, eta habitatei eta basa-espezieei buruzko informazioa eta kontserbazio-egoerari buruzko ebaluzioa ez daudenez diseinatuta klima-arriskuari buruzko azterketa mota horretarako, jarraian eskaintzen diren emaitzak etorkizunean doitu beharreko lehen hurbilketa gisa hartu behar dira.

7.2.1.– Habitatetarako klima-arriskuaren azterketa.

Habitaten kasuan, Euskadiko lehorreko habitatetarako klima-arriskua kalkulatzeko metodologia lana kontsultatu da. Haren ustez, Izki EAEn klima-arrisku handieneko eremu babestuetako bat da. Lan horretan zehaztutako Izkiko habitaten epe luzerako kalkulaturako klima-arriskua (2071-2100, RCP 8.5 emisioen agertokia) taula honetan ikus daiteke, eta emaitzek erakusten duten balorazioaren arabera, klima-arrisku handiena duten habitatak honako hauek dira (beheranzko hurrenkeran): 9150 Pagadi xerofiloak, 9230 Ameztiak, 9120 Pagadi azidofiloak eta 9260 Gaztainondo-sail zaharrak.

Kodea	Habitata	Azalera modelizatua (ha)	Esposizioa	Sentikortasuna	Egokitzeko gaitasuna	Kalteberatasuna	Klima-arriskua
4030	Txilar lehor azidofiloak	368,64	% 100	1,05	1,17	1,05	1,02
4090	Txilar kaltzikola genistadunak	700,59	% 100	1,01	1,3	1,01	0,97
5110	Ezpeldiak	106,72	% 100	1,03	1,42	1,11	1,09
6170	Larre harritar kaltzikolak	180,68	% 80	1,01	1,31	1,02	0,82
9120	Pagadi azidofiloak	556,48	% 100	1,81	1,78	1,79	1,78
9150	Pagadi xerofiloak	168,45	% 100	1,92	2,9	2,21	2,2
9230	Ameztiak	674,18	% 98	1,89	1,84	1,86	1,79
9240	Erkameztiak	764,51	% 100	1,02	1,31	1,02	0,99
9260	Gaztainadi zaharrak	6,34	% 100	1,37	1,72	1,42	1,34
9340	Artadiak eta karraskadiak	98,7	% 89	1,01	1,22	1,01	0,9
6210*	Larre mesofiloak <i>Brachypodium pinnatum</i> dunak (* orkidea ugariko lekuak)	191,05	% 90	1,01	1,31	1,01	0,87
6220*	<i>Brachypodium retusum</i> en larre xerofiloak	17,24	% 90	1	1,28	1	0,89
6230*	Mendialdeko larreak	64,26	% 100	1,02	1,31	1,02	0,93
91E0*	Haltzadiak eta lizardiak	117,32	% 100	1,06	1,38	1,1	0,93
92A0	Sahasti eta makaldi mediterraneok	5,24	% 100	1,02	1,39	1,09	0,88
9580*	Hagin-basoak	17,1	% 100	1,2	1,4	1,2	1,15
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa	1035,41	% 94	1,01	1,31	1,01	0,94
G1.7B1	Amezti eurosiberiarra	2992,38	% 95	1	1,31	1	0,95
G1.86	<i>Quercus robur</i> nagusitzen deneko baso azidofiloa	46,86	% 100	1,01	1,22	1,01	1
G1.A1	Hostozabalen baso misto mesotrofoa, atlantikoa	1,98	% 100	1,11	1,48	1,15	1,13
G5.61	Zuhaitz hostozabalen baso gazteak	10,66	% 100	1,01	1,16	1,03	0,95

19. taula. Antolatutako eremuan modelizatu diren Batasunaren eta Eskualdearen Intereseko Habitatetarako klima-arriskuaren emaitzak eta horiek kalkulatzeko erabilitako adierazleak (sentikortasuna, egokitzeko gaitasuna eta kalteberatasuna), modelizatutako azalera (hektareak) eta esposizio-ehunekoa (Ihobe).

7.2.2.– Basa-flora eta -faunako espezieen klima-arriskuaren azterketa.

Espezieen kasuan, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioaren lana kontsultatu da (2011) Natura-ondarearen gune babestuko intereseko espezie guztientzat. Aipatzekoa da lan horretan ez direla sartzen gutxitan agertzen diren flora-espezieak, ez eta zenbait taldetako fauna-espezierik (kiropteroak, ornogabeak eta arrainak) edo ingurune urtarreko ekologiarekin lotura estua dutenak ere.

Habitategi buruzko aurreko atalean aplikatutako analisisian ez bezala, eskuragarri dauden informazio-iturriek baldintzatzen dute balorazio kualitatiboa aplikatu behar izatea. Horretarako, espezie bakoitzaren kalteberatasuna kalkulatu da, KBEan eta EAEn duen kontserbazio-egoera, joera eta klima-aldaketetara egokitzeko duen berezko gaitasuna kontuan hartuta.

Esposizioa, berriz, aipatutako lana kontsultatuz zehazten da, baliokidetasun hauek aplikatuz fauna-espezieen kasuan: Handia = Galera handia (etorkizunean eremu potentzialaren % 70 baino gehiago galtzea aurreikusita dagoenean), Ertaina = Galera (etorkizunean eremu potentzialaren % 30etik % 70era bitarteko murrizketa etorkizunean), Txikia = Egonkorra (eremu potentzialaren murrizketarik gertatzen ez denean edo hori % 30etik beherakoa denean) eta Nulua = Handitzea (eremu potentziala handitzea espero denean).

Azkenik, bi osagaiak konbinatu dira, klima-arriskuaren kalifikazioa lortu arte, hurrengo taulan erakusten den bezala. Balorazio horren arabera, espezie hauek dute arrisku klimatiko handiena: serbalak, hegoaldeko apo pintatuak, arrano beltzak, ugatzak, miru gorriak, muxar grisak eta bisoi europarrak.

Taldea	Izen arrunta	Espeziea	Esposizioa	Kalteberatasuna	Klima-arriskua
Flora	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	-	<i>Sorbus latifolia</i>	Oso handia	Ertaina	Handia
	Ezpela	<i>Buxus sempervirens</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Haritza	<i>Quercus robur</i>	Ez du	Txikia	Neutroa
	Hagina	<i>Taxus baccata</i>	Ertaina	Ertaina	Ertaina
Anfibio eta narrastiak	Hegoaldeko apo pintatua	<i>Discoglossus jeanneae</i>	Handia	Handia	Handia
	Baso-igel jauzkaria	<i>Rana dalmatina</i>	Txikia	Ertaina	Txikia
	Txantxikua	<i>Alytes obstetricans</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Apo lasterkaria	<i>Epidalea calamita</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Zuhaitz-igel arrunta	<i>Hyla molleri</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Arrubioa	<i>Salamandra salamandra</i>	Handia	Txikia	Ertaina
Hegaztiak	Aztore arrunta	<i>Accipiter gentilis</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Gabirai arrunta	<i>Accipiter nisus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Hegatxabal arrunta	<i>Alauda arvensis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Martin arrantzalea	<i>Alcedo atthis</i>	Ertaina	Txikia	Txikia

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Taldea	Izen arrunta	Espeziea	Esposizioa	Kalteberatasuna	Klima-arriskua
	Landa-txirta	<i>Anthus campestris</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Mendi-txirta	<i>Anthus spinoletta</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Uda-txirta	<i>Anthus trivialis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Sorbeltz arrunta	<i>Apus apus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Arrano beltza	<i>Aquila chrysaetos</i>	Handia	Handia	Handia
	Hontza handia	<i>Bubo bubo</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Mokolodia	<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Zata arrunta	<i>Caprimulgus europaeus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Tarina	<i>Carduelis spinus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Zikoina zuria	<i>Ciconia ciconia</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Arrano sugezalea	<i>Circaetus gallicus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Mirotz zuria	<i>Circus cyaneus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Mirotz urdina	<i>Circus pygargus</i>	Txikia	Txikia	Txikia
	Pagausoa	<i>Columba palumbus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Erroia	<i>Corvus corax</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Galeperra	<i>Coturnix coturnix</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Kukua	<i>Cuculus canorus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Enara ipurzuria	<i>Delichon urbicum</i>	Nulua	Txikia	Nulua
	Okil ertaina	<i>Leiopicus medius</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Okil txikia	<i>Dryobates minor</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Okil beltza	<i>Dryocopus martius</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Belatz handia	<i>Falco peregrinus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Zuhaitz belatza	<i>Falco subbuteo</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Euli-txori beltza	<i>Ficedula hypoleuca</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Ugatza	<i>Gypaetus barbatus</i>	Handia	Handia	Handia
	Sai arrea	<i>Gyps fulvus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Arrano txikia	<i>Hieraaetus pennatus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Sasi-txori arrunta	<i>Hippolais polyglotta</i>	Ertaina	Txikia	Txikia

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Taldea	Izen arrunta	Espeziea	Esposizioa	Kalteberatasuna	Klima-arriskua
	Enara arrunta	<i>Hirundo rustica</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Lepitzulia	<i>Jynx torquilla</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Antzandobi arrunta	<i>Lanius collurio</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Antzandobi kaskagorria	<i>Lanius senator</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Pirripioa	<i>Lullula arborea</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Urretxindorra	<i>Luscinia megarhynchos</i>	Txikia	Txikia	Txikia
	Papourdina	<i>Luscinia svecica</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Erle-txoria	<i>Merops apiaster</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Miru beltza	<i>Milvus migrans</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Miru gorria	<i>Milvus milvus</i>	Handia	Handia	Handia
	Harkaitz-zozo gorria	<i>Monticola saxatilis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Larre-buztanikara	<i>Motacilla flava</i>	Txikia	Txikia	Txikia
	Euli-txori grisa	<i>Muscicapa striata</i>	Nulua	Txikia	Netroa
	Sai zuria	<i>Neophron percnopterus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Buztanzuri arrunta	<i>Oenanthe oenanthe</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Urretxoria	<i>Oriolus oriolus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Apo-hontza	<i>Otus scops</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Zapelatz liztorjalea	<i>Pernis apivorus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Buztangorri argia	<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Txio lepazuria	<i>Phylloscopus bonelli</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Txio arrunta	<i>Phylloscopus collybita</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Txio iberiarra	<i>Phylloscopus ibericus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Haitz-enara	<i>Ptyonoprogne rupestris</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Belatxinga mokogorria	<i>Pyrhacorax pyrrhacorax</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Mendi-erregetxo	<i>Regulus regulus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Uhalde-enara	<i>Riparia riparia</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Pitxartxar nabarra	<i>Saxicola rubetra</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Oilagorra	<i>Scolopax rusticola</i>	Handia	Txikia	Ertaina

Taldea	Izen arrunta	Espeziea	Espozizioa	Kalteberatasuna	Klima-arriskua
	Usapal europarra	<i>Streptopelia turtur</i>	Nulua	Txikia	Nulua
	Araba zozo pikarta	<i>Sturnus vulgaris</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Baso-txinboa	<i>Sylvia borin</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Sasi-txinboa	<i>Sylvia communis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Etze-txinboa	<i>Sylvia undata</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Malkar-sorbeltza	<i>Tachymarptis melba</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Argi-oilarra	<i>Upupa epops</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
Ugaztunak	Igaraba eurasiarra	<i>Lutra lutra</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Basakatua	<i>Felis silvestris</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Muxar grisa	<i>Glis glis</i>	Handia	Ertaina	Handia
	Lepahoria	<i>Martes martes</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Bisoi europarra	<i>Mustela lutreola</i>	Handia	Handia	Handia
	Mendebaldeko ur arratoia	<i>Arvicola sapidus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Ipurtatsa	<i>Mustela putorius</i>	Handia	Txikia	Ertaina

20. taula. Izki natura-ondarearen gune babestuko kontserbazio-intereseko espezieen klima-arriskua, kualitatiboki zehaztuta.

7.3.– Klima arrisku handiko kontserbazio-lehentasanak.

4. atalean, Izkiko kontserbazio-lehentasanak identifikatu dira, funtsezko elementuetan edo kudeatu beharrekoetan multzokatuta. Hurrengo taulak lehentasan horien eta espazioan klima-arrisku handiena duten habitat eta espezieen arteko erlazioa erakusten du, aurreko ataletan egindako analisiaren arabera.

Funtsezko elementua	Kontserbaziolehentasanak	Klima-arrisku handiko beste elementu batzuk
Ibai-sistema	<i>Mustela lutreola</i> <i>Discoglossus jeanneae</i>	
Basoak	9120 Pagadi azidofiloak 9150 Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>) <i>Sorbus latifolia</i> <i>Milvus milvus</i>	9260 Gaztainadi zaharrak <i>Glis glis</i>
Harkaitzak eta antzeko inguruneak	<i>Aquila chrysaetos</i>	<i>Gypaetus barbatus</i>

21. taula. Klima-arrisku handiko habitat eta espezieen eta Izki natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazio-lehentasanen arteko lotura.

Klima-ekintzaren ikuspegitik ere lehentasanak zehaztu dira, horretarako «Herramienta para el análisis multicriterio de Elementos Clave de la Red Natura 2000 de Euskadi desde la perspectiva del cambio climático» izeneko argitalpena erabiliz. Funtsezko elementu bakoitzak biltzen dituen habitat eta espezieentzako 5 irizpide-multzoren balorazioan oinarritzen da, hauek balioesteko: 1) klima-aldaketaren aurrean sentikorrek diren, 2) naturagune babestuko karbono-hustulekuak handitzen diren, 3) egokitzeko

gaitasuna duten eta/edo beren inguruko espezie edo habitaten egokitzeko gaitasuna handitzen duten, 4) onura ekosistemiko gehigarriak dituzten edo 5) onura sozialak dituzten.

Funtsezko elementua	Lehentasuna ikuspegi klimatikoa erabilia
Ibai-sistema	2,72
Zohikaztegiak	2,66
Basoak	1,95
Larreak	1,69
Hareatzak	1,65
Harkaitzak eta antzeko inguruneak	1,55
Konektagarritasuna	0,15

22. taula. Funtsezko elementuen eta lehentasunen arteko lotura klimaren ikuspegitik.

Ikus daitekeenez, klima-ikuspegitik lehenetsitako inguruneak «Ibai-sistema» eta «Zohikaztegiak» dira. Biak ingurune hidrikoari lotuta daude, eta azalera erlatibo txikia dute Izkiren barruan. Klima-aldaketekiko bereziki kalteberak diren inguruneak dira, ur-erabilgarritasunarekin duten loturagatik. Ikuspegi horrekin lehenetsitako hurrengoak «Basoak» dira, oso zabalduta dagoena eta espazio hori izendatzea eragin zuten natura-balio nagusiak biltzen dituena.

Horrez gain, «Babesleku klimatikoak EAEn dauden Europar Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatentzat» izeneko lanean, Izki identifikatu da «6220* *Brachypodium retusum* espezedun larre xerofiloak» habitata kontserbatzeko garrantzitsua izan daitekeen eremu gisa.

7.4.– Klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak.

Izki natura-ondarearen gune babestuaren Natura Baliabideak Antolatze Plan honek klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko zenbait neurri ditu, ondoren azalduko direnak, hain zuzen ere.

7.4.1.– Arintzea.

Natura-ondarearen gune babestuko zonetan ezarritako erabilera-erregimenak espazioan dauden karbono-hustulekuen kudeaketa egokia bermatzen du, arrazoi hauengatik:

Aurreikusitako eremukako banaketaren barruan, erreserba integraleko eremua, babes bereziko eremuak, baso- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio eremuak eta leheneratze ekologikoko eremuak.

Eremukako banaketa bereziki bermatzaile horrek saihestu egiten du zati desberdinetan (lurzorua, egur hila eta landare-biomasa) biltegitratutako karbonoa askatzea. Horrela, Izkin biltegitratutako karbonoaren % 91 babesten da, taula honetan zehazten den bezala:

Zonaldea	Ha	Biomasako Ct	Egur hileko Ct	Lurzoruko Ct	GUZTIZKO Ct
Erreserba integrala	122	11.276	239	5.214	16.729
Babes berezia	369	18.350	798	26.920	46.068
Baso- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazioa	8.062	543.631	17.235	473.568	1.034.434
Leheneratze ekologikoa	43	1.259	85	1.969	3.313
Guztira	9.482	635.050	20.487	555.183	1.210.720

7.4.2.– Egokitzapena.

Egindako diagnostikoaren arabera, honako hauek dira klima-arrisku handieneko habitatak eta espezieak: 9120 pagadi azidofiloak, 9150 Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (*Cephalanthero-Fagioneko*), 9260 Gaztainadi zaharrak, *Mustela lutreola*, *Discoglossus jeanneae*, *Sorbus latifolia*, *Milvus milvus*, *Glis glis*, *Aquila chrysaetos* eta *Gypaetus barbatus*.

Horiek guztiak Izkin kudeatzeko funtsezkoak diren ingurune edo elementuen parte dira, hala nola Baso naturalak, Ibai-sistema eta Harkaitzak eta antzeko inguruneak, eta gehienak Izkiren kontserbazio-lehentasunen barruan aipatu dira (*Glis glis*, *Gypaetus barbatus* eta «9260 Gaztainadi zaharrak» izan ezik).

8.– Izki natura ondarearen gune babesturako azterketa ekonomikoa.

Gaur egun, atal honen edukiari dagokionez, bi dira Izki natura-ondarearen gune babestuari aplikatu beharreko arauak: alde batetik, estatu-mailan, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen (oinarrizkoa) 17. artikulua, zeinak 4. atalean ezartzen baitu Natura Baliabideak Antolatze Planak proposatutako neurrien memoria ekonomikoa jasoko dutela, eta, bestetik, autonomia-mailan, Euskadiko Ondare Naturala Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 22. artikulua, zeinak 1.j) atalean ezartzen baitu Natura Baliabideak Antolatze Plan horiek aplikatzeko aurreikusitako kostuei eta finantza-tresnei buruzko memoria ekonomikoa jaso behar dutela.

Espedientearen izapidetzearen esparruan, memoria ekonomikoa egin zen, eta, horrekin eta espedienteko gainerako dokumentuekin, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eskatu zitzaion ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena, zeina aldekoa izan baitzen (2019ko abenduan eman zen aldeko txosten hori), Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egindako legezketasun-txostenaren ildo beretik.

Izkiko NBAParen edukiak honako hauek dira: lurralde-eremuaren mugaketa; baliabide naturalen, ekosistemen eta paisaien kontserbazio-egoera zehaztea; erabilerei eta jardueri dagozkien muga orokorrak eta espezifikoak zehaztea; babes-araubideen aplikazioa; politika sektorialak orientatzeko erreferentzia-irizpideak; ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-araubideari lotutako jarduera, obra edo instalazio publiko edo pribatuen zerrenda; eta horien aplikazioaren emaitzaren jarraipen-plana; beraz, berez ez dakar kostu gehigarririk. Hala ere, kostu ekonomikoak ekar ditzakete foru-organo eskudunak Natura-ondarearen gune babestua kudeatzeak eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean (EKZP) ezartzen diren neurriek. Halaber, plan hori egitea eta Natura Baliabideak Antolatze Planetik independentea den dekretu baten bidez onartzea foru-erakundeen eskumena da.

Aurrekoa gorabehera, gaur egun hainbat datu-iturritatik datorren informazio eguneratua dago, eta informazio hori erabiltzen da atal honen azterketa ekonomikoa egiteko:

1.– 2021. urteko balantze ekonomikoa, ES2110019 KBE/HBBEaren eta Izki Parke Naturalaren urteko kudeaketa-txostenean jasoa, Patronatuak 2022ko ekainaren 13an egindako bilkuran aurkeztua.

2.– 2021-2027 Lehentasunezko Ekintza Esparrua Euskadin eta Natura 2000 Sarearen finantzaketa 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparrurako, Eusko Jaurlaritzak 2020ko apirillean egina eta sailaren https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/map/es_def/adjuntos/map_completo.pdf webgunean argitaratua.

3.– Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak abian jarritako habitatan jarraipenen kontratuak.

8.1.– Izki natura ondarearen gune babestua kudeatzeak arabako foru aldundiari eragin dion gastua.

ES2110019 KBE/HBBEaren eta Izki Parke Naturalaren urteko kudeaketa-txostenean jasotako 2021. urteko balantze ekonomikoa ikusita, urte horretan exekutututako aurrekontua 600.000 eurokoa izan zen, gutxi gorabehera. Aurrekontu hori, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak

(gaur egungo kudeaketa-organoa dena), Nekazaritza Sailak eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapen eta Toki Administrazio Sailak (biak ere Arabako Foru Aldundiarenak) burutzen dute eta kopuru horretako aurrekontu partida garrantzitsuenak arreta eta zaintza/kudeaketa integraleko zerbitzuak (250.000 euro inguru) eta tokiko abere-arrazak kontserbatzeak (105.000 euro) erabiltzen dituzte.

Horrez gain, balantze ekonomiko honetako bi gai garrantzitsu nabarmendu behar dira:

– 2021ean 8.160,62 euro erabili ziren erreserba integraleko zonaren konpentsazioetarako, hots, 67,14 euro hektareako.

– Ez dira sartzen organo kudeatzailearen langile-gastuak (1. kapitulua): zuzendari-kontserbatzailea, natura-ondarearen beste bi gune babesturekin partekatua; administrazioan diharduen pertsona; teknikari bat; eta hiru basozain, eta horien funtzioak lurralde historikoko gainerako parke naturaletan ere egiten dira.

8.2.– Izki natura ondarearen gune babestura estrapolatzea leee-an jasotako informazioa.

Lehentasunezko ekintza-esparruak (LEE) urte anitzeko tresna estrategikoak dira, eta Natura 2000 sare paneuroparra eta horri lotutako azpiegitura berdeak ezartzeko beharrezkoak diren neurrien ikuspegi orokorra ematea dute helburu, neurri horietarako finantza-beharrak zehaztuz eta EBko programa eta funtsekin lotuz.

Habitategi buruzko Zuzentarauaren helburuekin (Natura 2000 Sarea oinarria dena) eta zuzentarau horren 8. artikularekin bat etorritik, LEEetan identifikatu beharreko neurriek, nagusiki, helburu hauek eduki behar dituzte: habitat naturalak eta garrantzi komunitarioko espezieak mantentzea eta kontserbatzeko aldeko estatus bateraino lehengoratzea, eskualdeko eta tokiko ekonomia-, gizarte- eta kultura-berezitasunak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Europako Batzordeak berak diseinatutako LEEaren egungo formatuak informazio fidagarria eman nahi du Natura 2000ekin lotutako lehentasunezko finantzaketa-premiei buruz. Gaur egungo LEEaren formatuaren funtsezko osagaietako bat da Natura 2000ren eta azpiegitura berdearekin lotutako kontserbazio- eta lehengoratze-neurriak banakatzea ekosistemen kategoria orokorren arabera, 8 klasetan banakatuta eta Europako Ingurumen Agentziaren MAES tipologian oinarrituta. Gainera, LEEaren formatuak bi kostu bereizten ditu: batetik, funtzionamendu-kostuak, epe luzera jarraitu behar duten neurri errepikakorrek lotuta egon ohi direnak, eta, bestetik, errepikakorrek ez diren ekintzekin zerikusia duten kostu puntualak.

Gainera, LEEean jasotako lehentasunezko neurriek, EBko naturarekin lotutako zuzentarauen arazko betebeharrak eta helburu espezifikoak betetzen laguntzeaz gain, onura sozioekonomiko eta zerbitzu ekosistemiko garrantzitsuak emango dizkiote gizarteari. Onuren adibideetan sar daitezke klima-aldaketa arintzea eta egokitzea edo ekosistemetak beste zerbitzu batzuk, hala nola turismoarekin eta kulturarekin lotutakoak.

Jarraian, euskal Natura 2000 Sare osorako 2027 lehentasunezko finantzaketa-beharren zenbatespen-taula ageri da, haren osagai nagusietarako. Taula horren gainean, Izkirako estrapolazioa egingo da, erreferentzia gisa 9.482,1 hektareako azalera hartuta.

Nahiz eta urteko 974.160 euroko zifra organo kudeatzaileak gaur egun bideratzen duena baino handiagoa izan, 8.1 epigrafean deskribatutakoaren arabera, kontuan hartu behar da LEEaren zifrak globalak direla euskal Natura 2000 Sareko 55 espazioetarako, eta LEEean kostu oso handiak sartzen direla, Izkiren beharrei aplikatzen ez zaizkienak, hala nola kostaldeko urei lotutakoak (LEEaren % 15) edo ibaien eta lakuen uretako habitat kontinentalei lotutakoak (LEEaren % 53), Izkin oso garrantzi txikia dutenak.

Horrez gain, 8.1 epigrafean jasotako zifretan ez dira sartzen Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen dituen neurri horizontalen kostuak eta administrazio kostuak, eta taulako datuetatik abiatuta, urteko 47.750 euro inguru balioesten dira Izki natura-ondarearen gune babesturako.

Lehentasunezko finantzaketa-beharrak 2021-2027			
1.	1. Natura 2000rekin lotutako neurri horizontalak eta administrazio-kostuak	Urteko funtzionamendu-kostuak (€/urte)	Proiektuaren kostu bakarrak (€/urte)
1.1.	Gunearen izendapena eta kudeaketaren plangintza	6.647 €	148.007 €
1.2.	Gunea administrazioa eta interesa duten eragileekin komunikatzea	3.092.402 €	32.213 €
1.3.	Jarraipena eta informazioa	193.733 €	112.769 €
1.4.	Ezagutza-hutsuneak eta ikerketa-beharrak	82.564 €	291.823 €
1.5.	Natura 2000ri, hezkuntzari eta bisitariarentzako sarbideari buruzko komunikazio- eta kontzientziazio-neurriak	1.134.301 €	346.866 €
	Gutzizko partzial	4.509.647 €	931.677 €
2	Natura 2000 guneekin lotutako espezie eta habitata mantentzeko eta lehengoratzeko neurriak	Urteko funtzionamendu-kostuak (€/urte)	Proiektuaren kostu bakarrak (€/urte)
2.1.a	Itsasoko eta kostaldeko urak	1.377.081 €	327.648 €
2.2.a	Txilarriak eta sastrakak	37.038 €	25.535 €
2.3.a	Zohikaztegiak, eremu zingiratsuak eta beste hezegune batzuk	179.154 €	127.675 €
2.4.a	Belar-formazioak	307.418 €	137.497 €
2.5.a	Beste nekazaritza-ekosistema batzuk (laboreak barne)	56.875 €	16.140 €
2.6.a	Basoak eta bestelako zuhaitz-eraketak	1.848.871 €	357.861 €
2.7.a	Habitat harritsuak, dunak eta landaretzaz urri estalitako lurak	372.807 €	158.947 €
2.8.a	Uretako habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)	4.514.579 €	1.662.806 €
2.9.a	Beste batzuk (leizeak, etab.)	41.803 €	54.757 €
	Gutzizko partzial	8.735.625 €	2.868.864 €
	Urteko guztizkoa	13.245.272 €	3.800.541 €
	Urteko guztizkoa (funtzionamendua+bakarrak)	17.045.813 €	
	Urteko guztizkoa Izki natura-ondarearen gune babestuan	974.160 €	

Kosten datu horien parean, Natura 2000 Sareak ematen dituen onura ekonomikoei buruzko datu orokorrak ere badaude, hala nola Europako Batzordeak eta Europako Ingurumen Agentziak («Estimating the economic value of the benefits provided by the tourism/recreation and Employment supported by Natura 2000» https://ec.europa.eu/environment/nature/natura2000/financing/docs/Estimating_economic_value.pdf (europa.eu)) egindako lanetan, non Natura 2000 Sareak gizarteari eta ekonomiari zerbitzu ekosistemikoak deiturikoen bidez ematen dizkien onurak azaltzen diren. Besteak beste, biodibertsitatea gordetzearen onura gehigarriak etorkizuneko belaunaldientzat, edo ekonomian existentzia-balioa deiturikoak. Labor-labor, honako hauek aipa daitezke:

– Karbonoa biltegitzea. Eremu askok (basoak, hezeguneak, zohikaztegiak, larreak, itsas eremuak) karbono-biltegi naturalak osatzen dituzte.

– Hondamendi naturalak. Ondo kontserbatutako ekosistemek hondamendiak arintzeko zerbitzuak (uholdeak, lur-jausiak, elur-jausiak) ematen dituzte, sarri askotan gizakiak ezartzen dituen neurriak baino askoz merkeagoak.

- Elikagaien segurtasuna. Adibidez, polinizazio-zerbitzuak, arraza autoktonoak mantentzea, kontserbazio genetikoa edo nekazaritza-sektorearen erresilientzia handitzea.
- Jolas- eta turismo-zerbitzuak. Natura 2000 Sarea baliabide iturri garrantzitsua da tokiko komunitateentzat, turismo- eta aisialdi-zerbitzuen bidez, diru-sarrerak, jarduera eta enplegua sortzen baititu.
- Uraren ekarpena eta kudeaketa. Natura 2000 Sareak ura ematen zein arazketa-zerbitzu naturalak ematen laguntzen du.
- Osasun publikoa. Bizi-kalitatea hobetzen eta komunitateko osasun-arazoak gutxitzen laguntzen du.
- Hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza. Bai ingurumen-hezkuntza, bai oinarritzko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren oinarri gisa (farmazia-industriarako, adibidez).

Natura 2000 Sareak EBn duen eragin ekonomikoa 200.000 eta 300.000 milioi euro artekoa da urtean, eta 12 milioi enplegu inguru sortzen ditu. Zifra horiek Euskadira estrapolatuz gero, Natura 2000 Sarearen eragin ekonomikoa urtean 260 eta 390 milioi euro artekoa izango litzateke, eta 15.650 enplegu lanaldi osoan mantentzen lagunduko luke.

Europako Natura 2000 Sare osorako zifrak Izkira eramanda, emaitzak adierazten du Izki natura-ondarearen gune babestuaren onura ekonomikoak, gutxi gorabehera, 14 eta 22 milioi euro artekoak direla urtean, eta 890 enplegu inguru mantentzen lagunduko lukeela.

Natura 2000 Sarearen kostuak ordaintzeko finantza-tresnei dagokienez, LEEak datu hauek ematen ditu 2014-2020 aldirako:

A) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF): EAEko Natura 2000 Sarea kontserbatu, babestu eta kudeatzeko 7.253.110 euro esleitu zirela kalkulatu da.

B) Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF). Biodibertsitatearen kudeaketa eta kontserbazioa finantzatzeko bi neurri posibleetatik, Programa Operatiboak bakarra aurreikusten du (85a), guztira 10.251.300 euroko zuzkidurarekin 2014-2020 aldirako.

C) LIFE finantza-programa. EAEn garatutako 17 proiektu aurkitu dira 2014-2017 aldiko gastuarekin, 6.614.535 euro guztira, eta horietatik 3.718.578 euro LIFEaren ekarpenak dira. Programazio-aldi honetan oraindik laguntza-deialdiak egiten direnez (eta EBko beste funts batzuetan ez bezala, baterako finantzaketaren zenbatekoa ez dago aurrez esleituta), ezin da jakin 2014-2020 aldian zenbat funts mobilizatuko diren programa honen bidez.

D) Europako lurralde-lankidetzeta (INTERREG). EAEko erakundeak onuradun izan daitezkeen 4 programetatik, bitan baino ez dira aurkitu Natura 2000 Sarean eragina duten proiektuak. Aipagarriena Interreg V-A, Espainia-Frantzia-Andorra, izan ere, 8 proiektu garatu dira 2014-2017 aldian, 2.713.773 euroko guztizko zenbatekoarekin. Proiektu horiek 2007-2013 programazio-aldikoak dira (horietako batzuk programazioaren amaieratik haratago hedatzen dira), baita gaur egungorenak ere (2014-2020).

Laburbilduz, EAE osorako kalkulatu da 2014-2017 aldian 5.246.283 euroko ekarpena egin zaiela erkidegoko funtsei EAEko Natura 2000 Sarearekin lotutako proiektuei, eta kopuru horrek euskal funts publikoen beste 4.224.072 euro mobilizatzen lagundu duela (Europako Batzordeak, oro har, kofinantzaketan du, ez du % 100ean finantzatzen). 2014-2020 programazio-aldi osora estrapolatuz gero, EBren ekarpena 15.900.649 eurokoa izango litzateke, eta eskualde-mailako kontrapartida ia beste horrenbeste (15.822.668 euro); beraz, EAEko Natura 2000 Sareari erantzuteko ia 32 milioi euro mobilizatuko lirateke.

8.3.– Euskadiko habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa.

Kontuan hartuta Natura Baliabideak Antolatzeko Planak Eusko Jaurlaritzak definitutako jarraipen-planak dituztela, eta Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategiak bere lehenengo jarduketetako bat EAEko Natura 2000 Sarea barne hartuko duen Natura Ondarearen ebaluazio- eta jarraipen-sistema bat garatzea dela, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, 2018tik 2025era arte, Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanak inplementatu ditu, MITECOren eta autonomia-erkidegoen artean horretarako sortutako lantaldean onartutako metodologiei jarraituz. Metodologia horiek hainbat enpresari esleitu zaizkie, lehiaketa publiko irekiaren bidez.

Dagoeneko egiten ari diren lanek 245.000 euroko kostua dute urtean, eta horietatik % 40 2021-2027 aldirako EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren kontura finantzatzea aurreikusten da.

8.4.– Autonomia Erkidegoaren beste finantzaketa-iturri batzuk.

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak dirulaguntzen programak ditu, Izki natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazioa finantzatzeko lagungarri izan daitezkeenak, eta EAEko 2022ko aurrekontu orokorrak erreferentziatzat hartuta, honako hauek dira nagusiki:

– Natura-ondarearen kontserbazioari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak. Programak 180.000 euro/ urteko zuzkidura du.

– Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalentsako dirulaguntzak. Programa horrek 750.000 euroko zenbatekoa izango du natura-ondarearen lerrorako 2022an.

– Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, ingurumen-boluntariotzako lanak egiteko. Programak 200.000 euroko zuzkidura du urtean.

Ezinezkoa da «a priori» zehaztea funts horiek nola edo zenbaterainoko eragina izango duten Izki natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazioan; izan ere, Izkiaren lurralde-eremuan laguntzak jaso ditzaketen erakunde potentzialek eskatzen badituzte erabiliko dira, nahiz eta lehen bi programen kasuan Natura 2000 guneak kontserbatzearekin lotutako proiektuak lehenesten diren, eta horietako bat da Izki.

III. ERANSKINA

ARAUDIA

AURKIBIDEA

- I. kapitulua.– Xedapen orokorrak.
2. kapitulua.– Natura-ondarearen gune babestuan oro har aplikatzekoak diren arauak.
 1. sekzioa.– Natura-ondarea babesteko erregulazioak.
 2. sekzioa.– Lurraldearen erabilerei eta aprobetxamenduei buruzko erregulazioak.
3. kapitulua.– Natura-ondarearen gune babestuaren zonifikazioaren eta dagokion babes zona periferikoaren araberako erregulazioak.
 1. sekzioa.– Natura-ondarearen gune babestuaren zonifikazioa eta babes zona periferikoa.
 2. sekzioa.– Erreserba integraleko zona.
 3. sekzioa.– Babes bereziko zonak.
 4. sekzioa.– Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio-zonak.
 5. sekzioa.– Leheneratze ekologikoko zonak.
 6. sekzioa.– Basogintza-produkzioko zonak.
 7. sekzioa.– Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioko eta landazabaleko zonak.
 8. sekzioa.– Ibai-sistema.
 9. sekzioa.– Hiri-, ekipamendu- eta azpiegitura-zonak.
 10. sekzioa.– Babes zona periferikoa.
4. kapitulua.– Politika sektorialetarako erreferentzia-irizpide orientatzaileak.
5. kapitulua.– Ebaluazio egokia.
6. kapitulua.– Jarraipen-plana.

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Antolamendu-esparrua.

Natura Baliabideak Antolatzeko Plan (NBAP) honen aplikazio-esparruaren baitan hartzen dira Izki ES2110019 Natura-ondarearen gune babestuaren eremua eta haren Babes zona periferikoa. Oinarritzko parametroak honako hauek dira:

Izki natura-ondarearen gune babestuaren identifikazioa eta kokapena	
Izena	Izki
Natura 2000 kodea	ES2110019
Parke Naturalaren kodea	ES211013
Parke Natural deklaratzeko data	1998/03
Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) gisa izendatzeko data	2004/12
KBE gisa izendatzeko data	2016/03
HBBE gisa izendatzeko data	1997/12
Azalera (ha)	9.482,10
Altitude maximoa (m)	1.173,73
Altitude minimoa (m)	572,51
Batez besteko altitudea (m)	805,29
Lurralde historikoa	Araba
Eskualde biogeografikoa	Atlantikoa

Natura-ondarearen gune babestuaren eta haren Babes zona periferikoaren kokapena eta mugaketa, hurrenez hurren, «Mugaketa eta Babes zona periferikoa» izeneko kartografiatan agertzen dira, Natura Baliabideak Antolatzeko Plana onartzeko Dekretu honen I. eranskinaren (Kartografia) barruan. Aukera dago hori EHAAREN bisorean kontsultatzeko eta fitxategi digitala Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura – GeoEuskadiren atarian bistartzeko edo bertatik deskargatzeko.

2. artikulua.– Espazioa babesteko eta antolatzeko arauen egitura eta edukia.

1.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honek – jatorrizko bertsioa gaztelaniaz idatzi zen– integrazio harmonikorako proposamen bat egiten du, eta bildu egiten ditu, indarrean dagoen araudi sektorialetik datozen zehaztapenak ez ezik, proposamen integral bat artikulatzeko arau eta irizpide berriak. Proposamen horrek bermatu egin behar du natura-baliabideak kontserbatzea, Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitat eta espezieen kontserbazio-egoera egokiari eustea eta, horrekin batera, espazioari lotutako sektore ekonomikoen jarduera eta haren erabilera publiko egokia mantentzea.

2.– Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honek zati batean eutsi egiten die Izki natura-ondarearen gune babestuaren jatorrizko NBAParen helburuei eta irizpideei, eta espazio hau Natura 2000 Sarean sartzearen ondoriozko zehaztapenak barne hartzen ditu. Horrekin batera, aurreko NBAPa onartu zutenetik ateratzen joan diren legegintzaren arloko berrikuntzak gehitzen ditu (natura-baliabideen kontserbazioan aplikatzekoak).

3.– Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren zehaztapenak honako hauetan banatzen dira:

3.1.– Helburuak eta printzipioak. Horien xedea da Natura-ondarearen gune babestuaren natura-baliabideak antolatzeko estrategia bideratzea, natura-ondarea kontserbatzeko eta babesteko

jarduketak egiten dituzten administrazio publikoek eta eragileek esku hartzeko lehentasunak ezarrita; organo eskudunek helburu eta printzipio horiek kontuan hartu beharko dituzte plan eta proiektu publikoak lantzean, txostenak ematean eta espazio honen gainean eragina izan dezaketen erabilerak eta jarduerak baimentzean.

3.2.– Erregulazio orokorrak. Kontserbazio-helburuak lortzeko beharrezkoak diren betebeharrak, debekuak, baldintzatzaile eta irizpideen multzoa dira. Horien helburua da arau eta/edo mugaketa orokorrak ezartzea erabilerak eta jarduerak garatzean, xede honekin: kontserbatzea Natura-ondarearen gune babestuaren natura-baliabideak, habitatak, flora eta fauna basatiko espezieak eta bertan dauden natura-ondarearen bestelako elementuak. Oro har, administrazio publikoei eta lekuaren erabiliztaileei daude zuzenduta.

3.3.– Zonen arabera erregulazioak. Xedapen horien helburua da Natura-ondarearen gune babestuaren zonifikazioaren arabera arauak eta/edo murriztapenak ezartzea. Erregulazio horiek integratu nahi dituzte, alde batetik, Natura-ondarearen gune babestuaren esparrua sektorizatu deneko zona bakoitzean dauden kontserbatu beharreko elementuak babesteari buruzko xedapenak eta, bestetik, zona horietan izan daitezkeen erabilera jarduerari buruzko xedapenak, baita elementu haien kontserbazioa azpimarratu ere.

3.4.– Politika sektorialetarako erreferentzia-irizpide orientatzaileak. Atal honetan biltzen dira Natura-ondarearen gune babestuan gara daitezkeen jarduera-sektoreen plangintzan aplikatu beharreko jarraibideak eta irizpideak, a) ataleko helburu eta irizpide orokorrekin bat eginez.

3.5.– Natura-ondarearen gune babestuan eragin nabarmena izan dezaketen plan, proiektu, programa eta jarduketan ebaluazio egokiari buruzko erregulazioak.

3.6.– Planaren aplikazioari eta kontserbatu beharreko habitat eta espezieen egoerari jarraipena egiteko plana.

3. artikulua.– Helburuak.

1.– Natura-baliabideen antolamendua eta kudeaketa gidatu behar dituzten helburuak honako arau hauetan ezarritakoak dira: 42/2007 Legea, 2007ko abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa; eta 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura-ondarea Kontserbatzekoa (1. eta 2. artikulua). Era berean, kontuan hartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia, 2020an eta 2030erako Euskadiko Biodibertsitate-Estrategian edo horiei dagozkien eguneratzeetan adierazitako helburuak.

2.– Izki natura-ondarearen gune babestuan, helburu horiek honela zehazten dira:

2.1.– Biodibertsitatearen babesa bermatzea, eta, horretarako: Natura-ondarearen gune babestuaren esparruan fauna eta flora basatiaren habitat naturalak kontserbatzea, horien kontserbazio-egoera egokia mantenduz edo leheneratuz; arreta berezia jarrita balio ekologiko handiena edo kalteberatasun eta berezitasun handia duten Batasunaren intereseko habitatetan eta, baita ere, eskualdearen interesekoetan. Helburu horrek berekin dakar, halaber:

2.1.1.– Izkiko baso naturalen kontserbazio-egoera hobetzea; honela, hain zuzen: haien okupatutako azalera handiagotuz; baso-masa autoktonoen egitura, osaera eta funtzionaltasuna hobetuz; hobekien kontserbatutako enklabeak oraingo egoeran zainduz; eta bermatuz ekosistema horiei lotutako flora eta faunako espezieen banaketa, kontserbazioa, populazio-bilakaera eta bideragarritasuna.

2.1.2.– Honako hauen kontserbazioa eta mantentze-lanak bermatzea: Batasunaren intereseko larre eta txilardien eremuak (batez ere lehentasunezkoak); eta horiei lotutako Batasunaren nahiz eskualdearen intereseko flora eta fauna basatiko espezieen banaketa-eremua eta populazioak.

2.1.3.– Mendiko txilardi eta larreen egungo eremuaren kontserbazioa eta duen mosaiko-antolara bermatzea, haien atzeratzea saihestuz eta haiekin lotutako habitat eta espezie basatien kontserbazio-egoera egokiarekin bateragarria izango den abeltzaintza-kudeaketarako jarraibideak ezarri.

2.1.4.– Izkiko hezeguneei lotutako Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitaten kontserbazio-egoera ona zaintzea edo lortzea, baita haiei lotutako floraren eta faunaren populazioena ere.

2.1.5.– Natura-ondarearen gune babestuaren ibai-sistema mantentzea, kontserbatzea eta leheneratzea, intereseko espezie ugari barne hartzen dituzten habitaten berezko esparrua eta dibertsitateari eta prozesu ekologikoei eusten laguntzen duen korridore ekologikoa den heinean. Era berean horrek berekin dakar:

- Natura-ondarearen gune babestuko ur-masen egoera ekologiko egokia bermatzea.
- Urari lotutako habitatak eta fauna eta floraren populazioak aktiboki kontserbatzea eta hobekien ordezkatutakoak babestea. Horien heldutasuna, egitura-komplexutasuna eta biodibertsitatea sustatzea.
- Ur-bazterreko korridore jarraitu bat lortzea, ibai-sistemaren dibertsitate ekologikoa eta funtzio bioklimatikoa bermatzeko.
- Iturburu petrifikanteetako ohiko habitataren ezaugarriari eta dinamikari eustea (uraren erregimen hidrologikoa eta ezaugarri fisiko-kimikoak).

2.2.– Haitzuloei, barrunbe karstikoei eta harkaitzei lotuta dauden Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitat eta espezieen kontserbazio-egoera egokia babestea edo lortzea; ingurune horietan berezkoak diren kiropteroen, hegazti errupikolen eta flora mehatxatuaren populazioen kontserbazioa, leheneratzea eta bideragarritasuna ziurtatuz, eta espezie horientzako Izkiren harrera-ahalmena hobetuz.

2.3.– Natura-ondarearen gune babestuan dauden interes geologikoko elementuen dibertsitatea eta kontserbazioa bermatzea, haien narriadurari edo suntsipenari aurrea hartuta.

2.4.– Natura-ondarearen gune babestuan garatzen diren prozesu ekologikoen ezagutzan sakontzea. Behar adina zehaztasunez ezagutzea gune babestuko natura-ondarearen kontserbazio-egoera eta berori galtzea edo narriatzea ekar dezaketen arrazoiak; horrela, epe luzera hari eustea bermatuko duten beharrezko jarduketak berriro diseinatu ahal izateko.

2.5.– Natura-baliabideak modu ordenatu eta jasangarrian kudeatzea, tokiko biztanleriarentzat eta egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloetako ahalik eta onura handiena modu orekatuan, ordenatuan eta jasangarrian sortu ahal izateko.

2.6.– Lurzoruaren erabilera jasangarria bermatzea, haren babesa eta kontserbazioa zainduz, kontuan izanik baliabide berriztaezintzat, ezinbesteko ingurumen-zerbitzutzat, giza jardueren funtsezko euskarritzat, paisaiaren elementutzat eta kultura-ondarearen artxibotzat hartzen dela.

2.7.– Paisaiaren narriadurari edo suntsipenari aurrea hartzea –garrantzi goreneko alderdia Izkin–, haren edertasuna eta nortasuna babestea, eta zona degradatuak leheneratzea.

2.8.– Izkin dagoen ondare kulturala, arkeologikoa eta arkitektonikoa babestea, eta hura iker dadin bultzatzea, Euskal Herriko kultura-ondarerako ekarpen gisa.

2.9.– Abenduaren 13ko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen 47. artikuluari jarraituz, beharrezko ahaleginak egitea Natura 2000 Sarearen kanpoko eta barruko koherentzia ekologikoa hobetzeko. Horrek eskatzen du kontserbatzea eta, hala badagokio, babestea fauna eta flora basatiko espezie-populazioen migraziorako, banaketa geografikorako eta truke

genetikorako funtsezkoak diren edo berebiziko garrantzia duten paisaiaren elementuak eta lurralde-eremuak.

2.10.– Ekosistemen, bertako habitaten eta flora eta fauna basatiko espezieen kontserbazio-egoera egokia ziurtatzea, klima-aldaketara egokitzeko gai izango den eta horren ondorioak arintzen lagunduko duen ingurune erresilientea eduki ahal izateko.

2.11.– Tradiziozko nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jarduerak sustatzea, NOGBan kontserbazioaren xede diren habitat naturalak eta espezie basatiak kontserbatzearekin bateragarriak izateko lagunduz.

2.12.– Izkiko biztanleen bizi-estandarrek hobetzea, hartara ongizate-maila handiago hori natura-ingurunea babesteko helburu nagusian mesedegarri izan dadin.

2.13.– Izki natura-ondarearen gune babestuari eragiten dioten edo eragin diezaioketen erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen partaidetza sustatzea, eta baita herritarrak kontserbazioan inplikatzeko ere; nagusiki, gune babestuan lursailak dituzten udalerrietako herritarrena.

2.14.– Eskumena duten organo publiko guztien koordinazio instituzionala hobetzea eta dagoen ingurumen-araudia eta araudi sektoriala egokitzea, babes-trena berriak emanda halakorik ez duten natura-ondarearen elementuei.

4. artikulua.– Bermeak.

1.– Natura Baliabideak Antolatzeke Plan honek ezarritako babes-araubideak honako hauek bermatuko ditu:

– Administrazio Autonomikoaren, Estatuko Administrazioaren, Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eta toki-korporazioen eskumenak gauzatzea, sektoreen arabera eskudunak diren gaietan.

– Dauden eskubide pribatuak baliatzea, aplikatu beharreko legeetan ezarritako mugekin.

– Landa-jarduerak gauzatzea eta haien baliabideen aprobetxamendu ordenatua egitea, bai araubide pribatuan, bai beste edozein erregimenetan, Natura-ondarearen gune babestuan aplikagarria den legeria orokorrean xedatutakoa beste mugarik gabe, eta Natura Baliabideak Antolatzeke Plan honetan ezarritako babes-helburuen arabera ezartzen diren mugei kalterik egin gabe.

– Auzo-araubideko baso-aprobetxamenduak (loteak, egur-sortak, etab.), aplikatzekoa den araudi sektorialean ezarritako mugekin.

– Abeltzaintza-jarduerak egiten diren lursailtako toki-erakundearen eskumenak erabiltzea. Erakunde horiek, abeltzainen laguntzarekin, jarduera hori arautzeko beharrezkotzat jotzen dituzten ordenantza guztiak emango dituzte, eta Natura-ondarearen gune babestuko Organo kudeatzaileari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan, Izkiko eremua babesteko araubidera egokitzen direla bermatzeko.

– Izki Goikoa eta Izki Behekoa Batzarren existentzia eta funtzionamendua, Natura-ondarearen gune babestuaren ondarekoak diren aldetik.

– Administrazio eskudunen ahalmenak, desjabetze-ondorioetarako, bai eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiltzea ere, Natura-ondarearen gune babestuaren barruan dauden lursailen bizien arteko kostu bidezko eskualdatzeetan. Hala ere, desjabetzeen kasuan, jabetza nahitaez kendu beharreko ondasunen gainean gauzatu beharko da. Jabetza kentzeko ahalmenak egikaritu ahal izateko, beharrezkoa izango da erasandako ondasun eta eskubideen jabeek edo beste titular batzuek herri-administrazioekin ez adostea aplikatu beharreko araudi bereziaren ondoriozko kalte-galeren kalte-ordaina edo konpentsazioa emateko beste modurik.

– Zonan lehentasunezko hobekuntza-neurriak aplikatzea.

2.– Lursail publikoan edo pribatuan egiten den jardun orok eskubidearen jabearen edo titularraren berriazko adostasuna beharko du, Legeria Orokorrean jasotako zuzenbidearen arabeko salbuespenak kontuan hartuta.

2. KAPITULUA

NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAN ORO HAR APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK

Kapitulu honetako erregulazioak, oro har, Natura-ondarearen gune babestu osoari aplikatuko zaizkio. Ondoren, erregulazioen bitartez garatu eta zehaztuko dira, espazioaren zonifikazioaren arabera.

1. SEKZIOA

NATURA-ONDAREA BABESTEKO ERREGULAZIOAK

5. artikulua.– Natura 2000 Sarearekiko koherentzia ekologikoa

1.– Natura 2000 Sarearen barruko eta kanpoko koherentzia hobetzeko asmoz, bai Izkiko gune babestuaren esparruan, baita espazio horren eta Euskadiko gainerako natura-gune babestuen arteko konexio ekologikoko eremuetan ere, neurri espezifikoak hartuko dira konektagarritasun ekologikoan laguntzen duten lurraldearen elementuak babesteko edo leheneratzeko (ibaiertzetako landaredia, baso-espezie autoktonoen zuhaiztiak, palaxu naturalak finken mugetan eta landa-bideen ertzetan, etab.). Era berean, fauna basatiarentzako egokitze- eta iragazkortze-neurriak hartuko dira halakorik behar duten azpiegituretan.

2.– Ebaluazio egokiaren ondorio negatiboak gorabehera, abenduaren 13ko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legean aurreikusitako salbuespen-baldintzak betez egin behar den edozein jarduketaren aurrean, beharrezkoak diren konpentsazio-neurriak hartu beharko dira Natura 2000 Sarearen koherentzia globala ziurtatzeko eta jarduera horren eraginpean geratu diren kontserbatu beharreko elementu guztien kontserbazio-egoera egokia bermatzeko.

3.– Debekatuta dago lurzorua babesten duen landare-estalkia birsortzearekin bateraezina den erabilera-aldaketa edo jarduera oro –batez ere sute baten ondoren–, kudeaketa organoaren aldeko txostena baldin badago salbu.

4.– Izkin kontserbatu beharreko habitatetan zatitze- eta funtzio ekologikoen galtze-prozesu berriak dakarten jarduketek kudeaketa organoaren aldeko txostena behar izango dute.

6. artikulua.– Fauna eta flora basatiko espezieak eta ondare geologikoa eta lurzorua babestea

1.– Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honetan zehar kontserbatu beharreko flora eta faunako ekosistemak, habitatak eta populazioak babesteko aipatzen diren esparruak zabalera jakin bateko zerrenda perimetraltzat ulertu behar dira. Zerrenda hori neurtu behar da natura-ondarearen aipatutako elementuek –ekosistema, habitat, flora-populazio, habia, babesleku, zulo eta abarrek– okupatzen duten eremuaren kanpoko ertzetik. Kudeaketa organoak ezarri beharreko babes-esparruak bazter utzi gabe, honako hauek finkatzen dira:

a) Ur-ibilguen babes-zerrenda: 10 m-ko zerrenda, lekuan bertan neurtuta eta ibilguaren kanpoko ertzetik zenbatuta.

b) Zona hezeak babesteko esparrua: 20 m-ko zabalera zerrenda perimetraltzat hartzen da, lekuan bertan neurtuta eta dagokion hezegunearen kanpoko ertzetik zenbatuta.

c) Istingak, flora-populazioak eta kokagune mehatxatuak (habiak, zuloak, babeslekuak, etab.) babesteko esparrua: 10 m-ko zabalerako zerrenda perimetraltzat hartzen da, lekuan bertan neurtuta eta elementu horiek okupatutako eremuaren kanpoko ertzetik zenbatuta.

2.– Oro har, debekatuta dago babestutako flora eta fauna basatiko espezieen aleak biltzea edo harrapatzea, arreta berezia jarrita ondokoetan zerrendatuta agertzen diren Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieei: Natura Baliabideak Antolatzeke Plan honen II. eranskinean – Memoriam (2. eta 3. taulak), Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan, Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan eta Babes Berezikiko Erregimeneko Espezie Basatien Zerrendan sartutako espeziak–; Hegaztien Zuzentarauaren (2009/147/EE) I. eranskinean ; eta Habitaten Zuzentarauaren (92/43/EEE) II., IV. eta V. eranskinetan. Era berean, debekatuta dago ondare geologikoko elementuak biltzea. Gainera:

2.1.– Landareen kasuan, debekatuta dago haiek suntsitzeko, mutilatzeko, ebakitzeko edo errotik ateratzeko eta euren habitata hondatzeko asmoa dakarren baimendu gabeko edozein jarduketa.

2.2.– Fauna-espezieei –eta horien larba, kume eta arrautzei– dagokienez, debekatuta dago horiek akabatzeko, jazartzeko edo gogaitzeko asmoz egindako baimendu gabeko edozein jarduketa eta haien habitatak suntsitzea eta, bereziki, habiak, gordelekuak eta ugaltzeko, negua emateko, atsedean hartzeko edo elikatzeke eremuak suntsitzea.

2.3.– Animalia zein landareei dagokienez, «Galtzeko arriskuan» edo «Kaltebera» kategorian katalogatuta badaude, debekatuta dago bizirik edo hilda eduki, naturalizatu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea, baita propagulu edo landare atal eta haziak, polena eta esporak biltzea ere, erregelamenduz xedatutako kasuetan salbu.

2.4.– Natura-ondarearen beste elementu batzuei dagokienez –hala nola fosilak, espeleotemak edo mineralak–, debekatuta dago elementu horiek nahiz bestelako formazio edo egitura bereziak hondatzea eta/edo suntsitzea.

3.– Kudeatzeko tresnak onartuta dituzten espezie katalogatuen kasuan, haiek onartzeko arauetan jasotako xedapenak izango dira aplikatzekoak. Era berean, aplikatzekoak izango dira Natura Baliabideak Antolatzeke Plan honen indarraldian onartzen diren flora- eta fauna-espezieak kudeatzeko eta/edo leheneratzeko planen xedapenak.

4.– Habiak egiteko garaian hegazti errupikolak babesteko, urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean, debekatuta dago lurzoruaren azaletik neurtuta 1.000 m baino gutxiagoko altuerara hegan egitea hegazkin txikiek, ultrarinek, helikopteroek, parapenteek, delta hegalek, dronek eta antzekoek – larrialdi kasuetan, pertsonak erreskatatzeko eta interes publikoko jarduketetarako izan ezik–.

5.– Faunan pozoidurarik gertatuz gero, Natura Babesteko Batzorde Nazionalak onartutako Pozoidura Kasuetan Jarduteko Protokoloa aplikatuko da. Gainera, indarrean dagoen legeriaren ondoriozko jarraibideak eta oinarriko ildoak abiaraziko dira, baita ekintza-planak ere, natura-ingurunean pozoien legez kanpoko erabilerari aurre egiteko.

6.– Oro har, espezie mehatxatuentzat sentikorak diren garaietan, kudeaketa organoaren baimenik gabe, debekatuta daude haien eremu kritikoetara hurbiltzea eskatzen duten antolatutako jolas-jarduerak edo merkataritza-jarduerak. Baimen horretan finkatuko da jarduera zein baldintzatan egin daitekeen (pertsonen kupoak, distantziak, laguntzen duen pertsonalaren kualifikazioa, eta abar).

7.– Kudeaketa organoak Fauna eta flora basatiarentzat baliotsuak diren elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua sortu, landu eta argitara dadin aurreikusi ahal izango du. Inbentario horretan sartzen diren elementuek babesa izango dutenez, horien gainean eraginik izan dezakeen edozein jardueraren aurrean, aipatutako elementuen kontserbazioa arriskuan jarriko ez dela ziurtatu beharko da. Horretarako, kudeaketa organoak aukera izango du, hala badagokio,

beharrezkotzat jotzen dituen babes-esparruak ezartzeko kontserbazio-neurri espezifikoak behar dituzten Inbentarioko elementuentzat.

8.– Oro har, debekatuta daude aireari, lurzoruari eta lurrazaleko nahiz lurpeko uren kalitateari modu negatiboan, zuzenean edo zeharka, eragiten dioten jarduerak eta emisio eta isurketa solidoak, likidoak eta gaseosoak.

9.– Malda handia edo/eta lurzoru urriak direla-eta higadura-arriskuak hautematen diren eremuetan, zuhaitz-estalkia leheneratuko da eta ordezte-serialen etaparantz bilakatzea eta zuhaitziak eratzea sustatuko da.

7. artikulua.– Haitzuloak eta horiei lotutako espezie basatiak babesteari buruzko erregulazioak

1.– EKZPak, Barrunbeak Kudeatzeko Plan espezifiko bat ezarrita, zehaztu egingo du haitzuloetarako sarbidea eta esplorazio espeleologikoa bateragarria izatea barrunbeen kontserbazioarekin, horren elementu geologiko interesgarriekin eta bertako flora eta faunarekin, arreta berezia jarrita kiroptero harpetarren komunitateei, eta Natura Baliabideak Antolatzeke Plan honetan jasotako helburu, jarraibide eta jarduketetan oinarrituta.

2.– Barrunbeak Kudeatzeko Plan hori ez dagoen bitartean, debekatuta dago kiroptero-koloniak dituzten haitzuloetara sartzea. Barrunbe horietan jarduera zientifikoak edo ikerketa-jarduerak bakarrik baimenduko dira, eta jarduera horiek kudeaketa organoak zehaztutako baldintzen arabera egin beharko dira. Sartzeko salbuespenezko baimenak emanez gero, emandako baimenen eta horien inguruabar aipagarrienen erregistro bat izan beharko da. Gainerako barrunbeetan, jendeari aukera emango zaio seguruenetan eta sarbide errazekoetan sartzeko, hondatzetik babestuz, betiere.

3.– Debekatuta dago postu finkoak ezartzea kiroptero harpetar babestuak behatzeko eta horien irudia edo soinua erregistratzeko, espezie mehatxatuak aterpean hartzen dituzten barrunbeetatik 250 m baino gutxiagora badaude; kudeaketa organoak berariaz baimendutako pertsona eta jarduerentzat izan ezik.

4.– Beharrezkoa denean, itxiturak ipini edo ordezkatu dira, bai saguzarren pasabidea, baita aire-korronteen erregimena ere bermatzeko moduan.

8. artikulua.– Harkaitzetako hegazti-faunari buruzko erregulazioak

1.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren esparrua hegazti nekrofagoentzako Interes Berezikoko Eremua da, Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren arabera (aurrerantzean, Nekrofagoak Kudeatzeko Plana). Ondorioz, bazter utzi gabe NBAP honetan jasotako gainerako erregulazioak bete behar izatea, aplikatzekoak izango dira plan horretako zehaztapenak.

2.– Kudeaketa organoak aldizka zehaztuko ditu sai zuriarentzat eta, hala badagokio, sai arrearentzat kritikoak diren eremuak. Kautela-moduan, sai zuriarentzat eta sai arrearentzat kritikoak diren eremuak Izkin zehazten ez diren bitartean, espezie horiek babesteko eremutzat hartuko dira honako hauek: sai zuriak habiak egiteko lekuen inguruko 1.000 m-ko erradioaren eta sai arreak habiak egiteko lekuen 500 m-ko erradioaren baitan hartutako eremua, baita ugaltzeko saiok daudela egiaztatzen den lekuen eta lotoki komunalen inguruan ere. Zona horietan, orobat, Nekrofagoak Kudeatzeko Planean ezarritako prebentzio-erregimena aplikatuko da.

3.– Debekatuta dago postu finkoak ezartzea behatzeko eta irudia edo soinua erregistratzeko, baldin eta postuak hegazti errupikolen aleetatik 250 m baino gutxiagora eta ohiko pausalekueetatik, hezurrak apurtzeko tokietatik, janlekuetatik eta litezkeen umatze-tokietatik 500 m baino gutxiagora badaude, salbu eta kudeaketa organoak baimena ematen badu. Horrek, hain zuzen, eraginpean jarri beharreko lurralde-esparrua ezarriko du adierazitako babes-perimetroaren arabera.

4.– Sai zuriaren eremu kritikoen 1.000 m-ko erradioan edo sai arrearen umatze-kolonien eta Izkin jasota dauden gainerako hegazti errupikola mehatxatuen 500 m-ko erradioan egin beharreko lan eta jarduerak espezie bakoitzaren aldi kritikotik kanpo egingo dira, ezinbestean izan ezik. Ezinbestea, nolana ere, behar bezala arrazoitu behar da, eta kudeaketa organoak baimena eman behar du.

5.– Kudeaketa organoak, justifikatuta, eskalada eta horretarako aldi egokiak arautu ahal izango ditu, baita eremu kritikoetan edo putreen kolonietan distantziak murriztu ere, lurraldeen lasaitasuna ziurtatuta dagoela uste badute.

9. artikulua.– Zona hezei eta horiei lotutako espezieei buruzko erregulazioak.

Izki natura-ondarearen gune babestuko zona hezei eta 6.1 artikuluan zehaztutako horien babes-esparruei ez ezik, jarraian adierazten diren erregulazioak aplikatzekoak zaizkie eskala-arrazoiengatik kartografiatu ezin diren trantsizio-zohikaztegi (7140) eta zohikaztegi baxu alkalinoei (7230).

1.– Zona hezeen ingurunean hartu beharreko prebentzio-neurriak.

1.1.– Hezeguneen gainean, kudeaketa organoak berariaz baimendu beharko du edozein jarduketa.

1.2.– Debekatuta dago habitat hezeen azalera murriztea, ezabatzea edota kontserbazio-egoera aldatzea edo narriatzea ekarriko duen edozein jarduketa edo jarduera.

1.3.– Izkin inbentariatutako hezeguneak aldatzea edo eliminatzea ekar dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduerak eragin nabarmena izan dezake, eta, beraz, ebaluazio egokia egin behar zaio.

2.– Zona hezeen inguruneko baso-lanak.

2.1.– Zona hezeekin muga egiten duten baso-aprobetxamenduetan, 13. artikuluko 14. apartatuan ezarritako baldintzak errespetatuko dira.

2.2.– Dauden istingetan debekatuta dago makinak igarotzea eta plantazioetarako zuloak egitea. Enklabe hauen inguruko lurzoruak hidromorfikoak direnez –horregatik, bereziki sentikorak dira zapaltzeko eta lehertzeko arriskuekiko–, hezeguneen ingurunean, makina astunak behar-beharrezkoak direnean baino ez dira erabiliko, eta ezinbestekoa denean soilik egingo dira pistak eta ateratze-bideak eta igaroko dira ibilgailuak bertan.

2.3.– Zona hauen inguruan pistak zabaldu edo mantendu ahal izateko, higadura-arriskuak minimizatzeko neurri espezifikoa aurreikusi beharko dira.

3.– Zona hezeen inguruko abeltzaintza-erabilerak.

3.1.– Ingurune honetan, kudeaketa organoak baimendutako baldintzetan besterik ez da onartzen abelburuen presentzia, eta abelburu-kargak egokitu beharko dira, zona hezeen inguruan gehiegizko larratzea saihesteko. Hala ere, nahitaezkoa izango da abeltzaintza-sektorearekin komunikazioa ezartzea aipaturiko baimenen izapidetzean, hala eskatzen denean.

3.2.– Belardi menditarreko habitatetara abelburuak sartzea ahalik eta gehien murriztuko da, batez ere zohikaztegi-habitaten ingurura (7140, 7150, 7210*, 7230). Habitataren jarraipenak abelburuak sartzearen ondoriozko narriadura egiaztatuz gero, kudeaketa organoak abelburuak sartzea debekatuko du, eta, hala badagokio, zona hori hesitzeari ekingo dio.

3.3.– Debekatuta dago hezegune eta istinga hesituetan abelburuak sartzea kudeaketa organoaren baimenik gabe.

3.4.– Bestalde, 6.1 artikuluan definitzen den zona hezeak babesteko esparruan, debekatuta dago simaurra, gorotzak, mindak, araztegi-tako lohiak, kareztadurak, ongarri kimikoak, produktu fitosanitarioak edo herbizidak eta sua erabiltzea, ezinbesteko eta justifikatutako arrazoiengatik eta kudeaketa organoak baimenduta ez bada. Babestu beharreko elementuari ez zaiola kalterik eragiten ziurtatu beharko du Kudeaketa Organoak.

3.5.– Hezeguneen ingurunean, fauna eta flora basatiarentzat toxikotasun gutxi edo batere ez duten plagizidak baino ezin izango dira erabili, baldin eta ezinbestekoa dela frogatzen bada eta kudeaketa organoak baimena eman ondoren. Aplikazioak gomendatutako gutxieneko dosietara egokituko dira, eta ez dira modu prebentiboan edo arriskutsuan aplikatuko.

3.6.– Debekatuta dago Izki natura-ondarearen gunee babesteko zona hezeen inbentarioan sartutako habitatetan drainatzeak eraikitzea.

4.– Habitat eta espezieen babeserako zona hezeetan.

4.1.– EKZPak Natura-ondarearen gunee babesteko anfibioen komunitatearen habitata hobetzeko jarduketak aurreikusiko ditu. Jarduketa horien artean, honako hauek daude: babesteko itxiturak edo hesiak; populazioen egoeraren jarraipen sistematizatuak; espezie mehatxatueneren *ex situ* ugalketa; urmaelak eta enklabe hezeak leheneratzea eta sortzea –horretarako, kokaleku egokienak hautatuko dira, hainbat alderdi kontuan izanda, hala nola espezieen banaketa, ugalketa-eremu ezagunak, desplazamendu-ibilbideak, lursailen jabetza, egokitasun-irizpideak, eta abar– jarduketa horiek mehatxu maila altueneko espezieetara bideratuta: *Discoglossus jeanneae* eta *Rana dalmatina*.

4.2.– Fauna mehatxatuaren jarraipena egiteko lanetan –bereziki ibai-ibilguzeri edo zona hezei lotutakoetan–, laginak behar besteko desinfekzio-baldintzetan egingo dira, zona batzuetatik besteetara agente patogenoak transmititu ez daitezzen.

10. artikulua.– Ondare geologikoaren elementuei buruzko erregulazioak.

1.– Inbentarioan jasota dauden ondare geologikoaren elementuek –edo etorkizunean inbentarioan jaso daitezkeenek– dagokien babes-erregimena izango dute, Natura Baliabideak Antolatze Plan hau aplikatuta. Gainera, NBAP honen indarraldian onartzen diren arauen ondoriozko erregimena aplikatuko da.

2.– Oro har, Geologia Interesdun Lekuen (GIL) Inbentarioan debekatuta daude honako erabilera eta jarduketa hauek:

a) GILaren suntsipena edo aldaketa morfologikoa zuzenean edo zeharka eragin dezaketen jarduerak.

b) Bide-, energia- eta telekomunikazio-azpiegitura berriak.

c) Kanpoko publizitatea eta elementu geologikoa hautematea nabarmen galarazi edo aldatuko duten kartelak nahiz bestelako elementuak ipintzea, GILaren edo Natura-ondarearen gunee babestuaren interpretazioarekin lotutako seinaleak salbuetsita.

11. artikulua.– Espezie exotiko inbaditzaileak

1.– Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, edozein prozeduraren bidez harrapatzen, atxikitzen edo naturatik ateratzen diren Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartutako animalia- eta landare-espezieen aleak ezin izango dira natura-ingurunera itzuli ikerketa-arrazoiengatik ez bada. Partikular batek haiek harrapatu edo atxikiz gero, eskumena duen foru-organoari entregatu beharko dio/dizkio alea(k), edota ezabatu edo natura-ingurunetik atera beharko du indarrean dagoen araudiaren arabera.

2.– Debekatuta dago Izkiko gune babestu osoan basoberritzeak egitea Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartutako espezieekin edota etorkizunean espezie exotiko inbaditzaileen euskal katalogoan sartzen diren espezieekin.

3.– Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartutako espezie exotikoen presentziari lotutako biodibertsitate-galera saihesteko asmoz, EKZPak zenbait jarduketa txertatuko ditu haiek deuseztatu eta/edo kontrolatzeko; bereziki, lekuaren kontserbazioa neurri handi batean arriskuan jar dezaketen espeziak (*Mustela vison*, *Procambarus clarkii*, *Pacifastacus leniusculus*, eta abar).

12. artikulua.– Paisaiaren babesa.

1.– Izkiren esparruan, nekazaritzako eta basogintzako erabileren paisaia-antolamendurako jarraibide batzuk hartuko dira. Horiek jasota daude EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren paisaiari buruzko eranskinean, D dokumentua (Eranskinak), –aipatutako plan sektoriala irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko–. Orobat, bete egingo da 90/2014 Dekretuan, ekainaren 3koan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoan eta horren garapenean ezarritakoa, paisaia babesteko planen eta, hala badagokio, lurralde-plan partzialen aldaketan bitartez, dagoeneko onartu diren edo onartzen doazen paisaiari buruzko zehaztapenak gehitzeko.

2.– Izkin ekin beharreko jarduketa guztietan, paisaiaren gainean duten eragina behatu beharko da, sortzen duten inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin. Era berean, mugatu egingo da edozein motatako jarduera eragin-sortzaile oro paisaia-hauskortasun handieneko zonetan. Horiek, hain zuzen, Izki NOGBaren EKZPea edo NBAP hau garatzeko beste dokumentu batzuetan zehaztu beharko dira. Nolanahi ere, interes publikokotzat jotzen diren instalazio eta/edo jardueren berezitasunak kontuan hartu beharko dira.

3.– Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak edo, hala badagokio, NBAP hau garatzeko bestelako tresnek Izkiko paisaiaren azterketa bat idaztea aurreikusi beharko dute. Azterketa horretan zehaztuko da non den beharrezkoa paisaia leheneratzeko jarduketak egitea, lehentasunak, gauzatze-egutegia eta aurrekontuak gehituta.

13. artikulua.– Kultura-ondarearen babesa.

Babes bereziko, ertaineko edo oinarrizko deklaratu diren kultura-ondasunek edo etorkizunean deklaratu direnek dagokien babes-erregimena izango dute, Natura-ondarearen gune babestu bakoitzean dagoen kultura-ondasuna babesteari buruzko araudia aplikatuta.

2. SEKZIOA

LURRALDEAREN ERABILEREI ETA APROBETXAMENDUEI BURUZKO ERREGULAZIOAK

14. artikulua.– Basogintza-erabilerak.

1.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren esparruan, basogintza-jarduerak bateragarria izan behar du habitat naturalen eta fauna eta flora basatiaren kontserbazioarekin, eta horretan lagundu behar du; bereziki, espazio babestuaren kudeaketan funtsezkotzat hartzen diren elementuei dagokienez, baita babestu beharreko espezieentzat habiak egiteko eta babesteko paisaiako elementuei eta populazioak sakabanatzen eta beren arteko harremanak jartzen laguntzen duten lokailu-elementuei dagokienez ere. Jarduera horiek bermatu egingo dute, halaber, baliabide edafikoak eta hidrikoak kontserbatzea.

2.– Basogintza-lanek aprobetxamenduek eta basoberritzeek kudeaketa organoaren eta gaien eskumena duen organoaren aldeko txostena izan beharko dute. Horiek, hain zuzen, ezarriko dituzte makinaren erabilerarekin lotutako baldintzak eta irizpideak; lan horiek egiteko garaia eta baldintza meteorologikoak; aprobetxamenduaren eraginpean egon daitekeen natura-ondarea kontserbatzeko babes-neurriak; babestu beharreko zuhaitzen markaketa; pistak eta ateratze-bideak erabili eta mantentzeko baldintzak; hondakinen kudeaketa, eta abar.

3.– Oro har, ez da baimenduko habitataren azalera murriztea ekarriko duen edo haren egitura-komplexutasuna edo kompleksutasun funtzionala arriskuan jarriko duen basogintza-aprobetxamendurik, ezta gaur egun espezie autoktonoak dituen zona baten erabilera aldatzera bideratuta dagoen eta/edo berekin baso-soiltzea dakarren bestelako jarduerarik ere. Hala ere, salbuetsita daude honako jarduerak hauek: zuhaitz-masak birsortzera edo hobetzera zuzendutako neurriak, hala nola basobera hobetzeko lanak, ebaketa selektiboak, ebaketa sanitarioak edo birsortzeko ebaketak birsortze naturalik ez duten unaden kasuan. Era berean, salbuetsita daude espezie exotikoak ezabatzeko lanak, egur-sorten edo tokian erabiltzeko biomasaren eskaerak, erabilera horiek baimenduta dauden Natura-ondarearen gune babestuko zonetan edo beste batzuetan, eta abar. Dena dela, zuhaitz-masen heldutasun eta egitura-komplexutasun egokia bermatu behar da, eta jarduerak horiek kudeaketa organoak eta gaian eskumena duen organoak baimendu behar dituzte.

4.– Aurreko puntuan birsortzeko ebaketen inguruan ezarritakoa ez da aplikatzekoa izango hariztien eta pagadi lepatuen unadetan. Halakoetan, kudeaketa organoak baimendu ahal izango du oin lehorrak eta hilak inautzeko eta ordezkatzeko lanak, baldin eta lan horiek bateragarriak badira masa horien ezaugarriekin eustearekin. Hortaz, masa horiek arriskuan jartzen dituzten birsortzeko ebaketak saihestuko dira.

5.– Izkiko zuhaitz lepatuen baso eta unadetan, kudeaketa bideratuta egongo da masa horien ezaugarriak kontserbatzera eta duten kontserbazio-egoera hobetzera. EKZPak, edo berori garatzeko tresnak, ezarriko ditu baso horiek kudeatzeko irizpideak, eta epe luzerako kontserbazio- eta mantentze-neurri espezifikoak gehituko ditu. Debekatuta dago zuhaitz horiek markatzea ebakitzeko, Kudeaketa Organoaren baimenarekin ez bada. Hain zuzen, kudeaketa organoak esku hartuko du aipatutako esparruak, unadak eta aleak hautatzen, kontserbatu beharreko habitatak eta espezieak barne hartzen dituzten eremuei lehentasuna emateko.

6.– Debekatuta dago zuhaitz autoktonoak ebakitzea kudeaketa organoaren aldeko txostenik gabe. Ebaketa-debeku hori zabaldu egiten da, era berean, espezie autoktonoen zuhaitzien, ur-bazterreko zuhaitzen eta palaxuen kasuan.

7.– Higadura-prozesuei aurre egiteko lurzorua babeserako funtsezko eginkizuna betetzen duten mendietan, higadura-arrisku handiko eremuetan eta/edo % 30etik gorako malda duten eremuetan, ez da baimenduko mendiaren babes-funtzioa arriskuan jar dezakeen baso-aprobetxamendurik, eta babes-funtzio horri lehentasuna emango zaio beste edozein eginkizunen aurretik. Basogintza antolatzekeo planetan zehaztuko dira arrazoi hori dela-eta baso-ustiapenetik babestu behar diren eremuak.

8.– Oro har, debekatuta daude baso-soilketak Natura-ondarearen gune babestu osoan, Basogintza-produkzioko zonetan izan ezik. Nolanahi ere, baso-soilketak % 50etik beherako maldetan egingo dira, kudeaketa organoaren baimenarekin. 5 ha-tik beherako gainazalari eragingo zaio, eta alboz-alboko partzeletan egindako bi mozketen artean gutxienez 4 urte igaro beharko dira. Salbuespen gisa, mota horretako mozketak baimendu ahal izango dira Leheneratze ekologikoko zonetan, adierazitako baldintzetan.

9.– Baso-partzelaren jabeak baso-soilketaren mende dauden lursailak basoberritu beharko ditu 2 urteko epean gehienez ere, baldin eta erabilera-aldaketa baimendu ez bada eta leheneratze ekologikorako beharrezkoa bada.

10.– Oro har, debekatuta dago sua erabiltzea basogintza-jarduerak kudeatzeko tresnatzat. Hala ere, kudeaketa organoak baimendu ahal izango du, eskaera egin eta baimena jaso ondoren, pilatan metatutako basogintza-hondakinak erretzea, horretarako adierazitako lekuetan eta organo horrek ezartzen dituen baldintzetan, baita baso-suteak prebenitzeko beharrezkoak izan daitezkeen erreketa ere, betiere Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera arriskuan jartzen ez bada. Erabilera hori ez da inola ere baimenduko Erreserba integraleko zonan, Babes bereziko zonetan eta Ibai-sisteman.

11.– Basogintza antolatzeko planak, mendiak antolatzeko proiektuak edo basogintza kudeatzeko plan tekniko jasangarriak, nahiz antzekoak diren bestelako planak eta proiektuak, ingurumena ebaluatzeko dagokion prozeduraren mende jarri beharko dira; eta, nolana ere, kudeaketa organoaren aldeko txostena izan beharko dute onartu aurretik.

12.– Mendien aprobetxamenduari buruzko urteko planek eta espedienteek –baita basotzeko, basoberritzeko, pista eta ateratze-bide berriak irekitzeko nahiz bestelako basogintza-jarduketek ere– beharrezkoa izango dute kudeaketa organoaren aldeko txostena, haiek baimendu aurretik.

13.– Titulartasun publikoko basoei dagozkien lursailetan, NBAPa onartzeko unean baso-espezie aloktonoen plantazioez bestelako erabilera bat baldin badute, ez da baimenduko espezie horien plantazio berriak; bereziki, naturalizatzeko eta ugaltzeko ahalmena duten espezie inbaditzaileei dagokienez. Arau horretatik salbuetsi ahal izango dira espezie aloktono ez-inbaditzaileekin egiten diren basoberritzeak, Leheneratze ekologikoko zonetan eta Basogintza-produkzioko zonetan, baldin eta helburu honekin erabiltzen badira: birsortzea finkatzea edo zuhaitz-espezie autoktonoekin basoberritzeak errazteko, zona horietan baso-erabilerarako ezarritako baldintzetan.

14.– Ibai-sistemarekin eta zona hezeekin muga egiten duten baso-aprobetxamenduetan, baldintza hauek errespetatuko dira:

14.1.– Haiei lotuta dauden Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatak eta espezieak eta uraren kalitatea kontserbatuko direla bermatu beharko da. Ondorio horietarako, ebaketak egiteko baimenetan, kudeaketa organoak ezarriko du zein irizpide eta baldintzen pean baimendu behar diren jarduketak horiek.

14.2.– Basogintza-lanetatik babestuko da, behinik behin, Jabari Publiko Hidraulikoari dagokion lur-zerrenda, eta, orobat, 10 m-ko zabalerako zerrenda gehigarri bat –lekuan bertan neurtutakoa–, helburua ur-bazterreko basoa leheneratzea edo hobetzea denean izan ezik.

14.3.– Jabari Publiko Hidraulikoari dagokion lur-zerrendan eta dagokion babes-zorgunean dauden espezie aloktonoekin egiten diren plantazioetan, ur-bazterreko baso autoktonoa leheneratu beharko da.

14.4.– Debekatuta dago ibilguak zeharkatzea basogintza-lanetarako makinekin. Gainera, basogintza-lan horietan, neurriak hartuko dira solidoen ekarpena murrizteko eta hurbileko ibilguak uhertzea saihesteko.

14.5.– Ateratze-bideak ezin izango dira sare hidrografikoaren zortasun-eremuan eta 6.1 artikuluan zehaztutako babes-esparruetan kokatu edo bertatik igaro.

14.6.– Zona horietan, ezin izango dira ebaketa-hondakinak pilatu.

15.– Kudeaketa organoak mugak ezarri ahal izango ditu ebaketa- eta erauzketa-metodoetan nahiz basogintza-lanak egiteko garaian, Natura-ondarearen gune babestuko zonak kontserbatzeko helburuen arabera. Ingurunerako bereziki inpaktu-eragilea den aprobetxamenduren bat aurkituz gero, kudeaketa organoak jarduerak geldiarazi egingo ditu, aprobetxamendu hori aipatutako kontserbazio-helburuekin bateragarria izango den moduan egiten den arte.

16.– Debekatuta dago baso-fauna babestuko espezieen habiak edo koloniek ugaltzeko nahiz negua pasatzeko plataformak dituzten edo babesturiko faunaren presentziaren ebidentziak dituzten zuhaitz-aleak ebakitzea edo ipurditik moztea; eta arreta berezia jarriko da Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezietan. Kudeaketa organoak aldi baterako geldiaraziko ditu basogintza-jarduerak, jarduketaren xede den zonan fauna- eta flora-espezie katalogatuak daudela ikusiz gero, eta beharrezko neurriak hartuko ditu haiek babestea bermatzeko.

17.– Kontserbazio-intereseko faunak erabiltzen dituen zuhaitzak edo barrunbeak identifikatuz gero (haragijaleen zuloak, azkonarren babeslekuak, basoko hegaztien habiak, eta abar), basoaren egiturari ertsiko zaio barrunbearen edo zuhaitzaren inguruan. Kudeaketa organoak zehaztuko ditu baldintzak eta, hala badagokio, bazterte-erradioak, identifikatutako espezieen arabera.

18.– Basogintza-lanen egutegia moldatu egingo da hegazti-espezie babestuen eta zuhaitz-kiropteroen aldi kritikoetan eraginik ez izateko, kudeaketa organoaren baimena dagoenean izan ezik – baimena eman aurretik ziurtatuko du ez dela eraginik izango kontserbatu beharreko elementuetan–:

- a) Sai zuria: martxoaren 1etik irailaren 1era.
- b) Saia: urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era.
- c) Okil ertaina: apirilaren 1etik uztailaren 31ra.
- d) Bestelako baso-hegaztiak: kudeaketa-organoak erabakiko du, espeziearen arabera.
- e) Zuhaitz-kiropteroak: ekainetik abuztura.

Kudeaketa organoak aldi horiek aldatu ahal izango ditu, lehen adierazitako espezieengandik lortzen den jarraipen-emaitzaren arabera.

19.– Kudeaketa-organoak ezarriko ditu Izkin dauden basoko hegaztiak eta kiroptero mehatxatuek habiak egiteko dituzten puntuak babesteko esparruak, espezie bakoitzaren eskakizunen arabera. Eremu kritiko horietan, ez da baimenduko hazkuntzan eraginik izan dezakeen inolako basogintza-jarduerarik, ugaltze-garaitik hasita txitek zona uzten duten arte.

20.– Debekatuta dago poliporoak dituzten zuhaitzak erauztea, kudeaketa organoaren berariazko baimenarekin ez bada.

21.– Ebaketa egitean, errespetatu eta kontserbatu egingo dira, behar adinako kopuruan, zuhaitz handi zaharrak eta urtetsuak, gainbehera-egoera aurreratuan nahiz hilik badaude ere; zuhaitz horiek beharrezkoak baitira beroriek erabiltzen dituzten espeziak garatzeko (*Cerambyx cerdo* eta bestelako espezie saproxilikoak, pizidoak, saguzarrak, ugaztunak, eta abar). EKZPak ezarriko ditu basogintza kudeatzeko irizpide espezifikoko ale horientzat.

22.– Natura-ondarearen gune babestuko baso-masen gainean produktu fitosanitarioak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da kudeaketa organoaren aldeko txostena. Hain zuzen, kudeaketa organoak ziurtatu egingo du kontserbatu beharreko habitat eta espezieen gainean eraginik ez dagoela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 2019/128 Zuzentarauan (plagiziden erabilera jasangarriari buruzko Erkidegoko ekintza-esparrua) eta garapen-araudian ezarritakoa bete beharko delarik. Nolanahi ere, guztiz debekatuta dago produktu horiek dokumentu honen 6.1 artikuluan ezarritako babes-esparruetan eta akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia edo oso handia duten zonetan erabiltzea –zona horiek GeoEuskadi Datu Espazialen Azpiegituran argitaratutako kartografian agertzen dira–.

23.– Baso-bideen kopurua eta haiek eraikitze modua egokitu beharko dira zainketa eta basogintza-lanen benetako beharretara. Izkiko bide-sarea egoera egokian mantenduko da, kontuan izanik horrek duen garrantzi handia suterik izanez gero eta mendian bilaketa- eta erreskate-lanik egin behar izanez gero.

24.– Egurra ateratzeko bide eta pisten trazadura diseinatzean, saihestu egingo dira % 10etik gorako maldak. Dena den, salbuespen gisa, muga hori gainditu ahal izango da paisaia-inpaktu negatiboak saihesteko bada. Bide horiek ur-igarobideak izango dituzte lursaileko hustubide naturaletan, bai iraunkorretan, bai urtaroaren araberekin. Gainera, mendiko udal-bideekiko edo bide nagusiekiko lotuneak egin ahal izateko, aurretiaz kudeaketa organoari kontsultatu beharko zaio, haiek eraikitze

modu egokiena finkatzeko. Pistak eraikitzearen eta konpontzearen ondorioz sortutako soberako materialen metaketa zorrotz kontrolatu beharko da.

25.– Edozein motatako basogintza-aprobetxamendua dela-eta, lekuan bertan, ur-ibilguetan, azpiegiturretan edo bideetan sortutako kalteak lehenbailehen zuzendu beharko ditu exekutatzaileak, jarduera amaitu ondorengo sei hilabeteetan luzeen jota.

26.– Debekatuta dago espezie autoktonoen basoetako egur hila erauztea, eta zuhaitz lepatuak, urtetsuak eta barrunbeak dituztenak moztea –horiek gainbehera-egoera aurreratuan badaude ere–, baita hilzorian edo okituak dauden 36 cm-tik gorako diametroko zuhaitzak ere, kudeaketa organoaren aurretiazko baimenarekin ez bada, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitaten eta horiei lotutako flora- eta fauna-espezieen kontserbazioa arriskuan jartzen ez bada.

27.– Debekatuta daude lurzorua iraultzea dakarten lanak, zuloak egitekoak salbuetsita.

28.– Baso masen heldutasuna eta basoko fauna basatiko espezieentzako baso-habitaten harrera-ahalmena bultzatzeko helburuarekin, seneszentziako unadek edo mikroerreserbek eta habitat-zuhaitzek osatutako sarea diseinatuko da. Horiek egoki banatuta egongo dira mendi publikoen eremuan, Izkiren barruan lotura-elementu modura jarduteko.

28.1.– Seneszentziako unadak edo mikroerreserbak. Baso-manieutik baztertuko dira baso-azaleraren % 5 eta % 10 bitartean, haren eboluzio naturala bultzatzeko. Esku-hartzeetatik salbuetsitako azalera 1 eta 4 ha bitarteko unadetan banatuko da. Mikroerreserben sarea Izkiko mota orotako baso naturalen erakusgarri izango da.

28.2.– Habitat-zuhaitzak. Sakabanaturik kontserbatuko dira basoko hegazti eta kiropteroentzako harrera-ahalmen handiena duten zuhaitzak. Horien artean daude ale handiak –1,3 m-ko altueran neurtuta > 40 cm-ko diametro normala–, oso helduak, lehen 10-12 metrotan adarrik ez dutenak edota pizidoek zulatutako barrunbeak eta hutsuneak dituztenak, baita gainbehera-egoera aurreratuan dauden eta hilzorian edo okituak dauden zuhaitzak ere. Balio kuantitatibo orokortzat, gomendatzen da ha-ko 8-10 zuhaitz oso heldu mendian uztea, gutxienik. Zuhaitz horiek 35-40 cm-tik gorako diametroa izango dute, eta ha-ko 20-40 m³ baso manieiatuetan.

28.3.– Kontserbatu egingo dira, halaber, zona irekietako edo larre-unadetako zuhaitz bakanak. Salbuetsi egingo dira pertsonentzat edo ondasunentzat arriskurik ekar dezaketen aleak edo ibilguen ahalmen hidraulikoa arriskuan jar dezaketenak, buxatu daitezkeen eta uhaldien eragina areagotu dezaketen zubien nahiz bestelako elementuen presentziatik.

28.4.– Zuhaitz lepatuen partzelak kontserbatu eta mantentzeko neurri espezifikoak gehituko dira, eta zuhaitz horiek ebakitzeko markaketa debekatu egingo da, kudeaketa organoaren baimenarekin ez bada. Hain zuzen, kudeaketa organoak esku hartuko du aipatutako esparruak, unadak eta aleak hautatzen, kontserbatu beharreko habitatak eta espezieak dituzten eremuei lehentasuna emateko.

28.5.– Zoruan nahiz zutik dauden egur hilentzako helburu-balioak ezarriko dira, espeziearen eta masa edo unada motaren arabera.

28.6.– Egitura-dibertsitatea eta heterogeneotasun espaziala areagotzeko neurriak:

I.– Mantendu eta sustatu egingo dira masa mistoak unadetan, baldin eta hori bateragarria bada gainerako helburuekin, baita ekotonoen presentzia ere.

II.– Masen barne-egitura dibertsifikatuko da honako hauen aldagarritasuna areagotuz: adar- eta adaburu-geruzen, diametroen, agregazio-maila desberdinetako oinen eta abarren aldagarritasuna, eta adinak asko izatea sustatuz.

III.– Neurriak gehituko dira zuhaitz-, zuhaixka- belar-geruzek eta habitat mota bakoitza osatzen duten segidako fase eta ingurumen-gradiente desberdinetako berezko landarediak sortutako heterogeneotasun bertikala sustatzeko.

IV.– Espazio irekiak modu aktiboan kudeatzeko neurriak hartuko dira: askotariko forma eta tamainetako unada irekiak mantentzea eta sortzea, larreen plangintzan eta baso-suteen prebentzioan txertatuta.

28.7.– Basoa antolatzeko plan teknikoen jarraipena eta azterketa egiteko fasean, basoen «naturaltasun-indize» bat gehituko da. Indize konposatu horrek, gutxienez, alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

I.– Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoan oinarrituta).

II.– Basoko hegaztien egoera eta joera.

III.– Koleoptero saproxilikoaren ugaritasuna eta dibertsitatea.

IV.– Basoko kiropteroen ugaritasuna eta dibertsitatea.

29.– Eskumena duen administrazio sektorialaren baimenaren mende jarriko dira Izkiko ibai eta erreken zortasun- eta polizia-eremuan eta ibilgu publikoetan egin beharreko jarduketak, aplikatzekoa den araudi sektorialaren arabera. Kudeaketa organoaren aldeko txostena lortu beharko da.

15. artikulua.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak.

1.– Izkian, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak bateragarriak izan behar dute Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko habitat naturalak eta espezieak kontserbatzearekin, eta/edo horretan lagundu beharko dute. Hala ere, nahitaezkoa izango da kudeaketa organoak komunikazioa ezartzea abeltzaintza-sektorearekin, bateragarritasun hori lortzeko baldintzak analizatzeko.

2.– NOGBko lursail publikoetan ez da baimenduko ardi, behor, behi, ahuntz eta erleez bestelako azientarrik, kudeaketa organoaren berariazko baimenarekin ez bada. Horrek, hain zuzen, aztertu egin beharko du bestelako azienta horien presentzia bateragarria ote den espazioa kontserbatzeko helburuekin.

3.– Ahuntz-azienta larratzea honako hauetan ezarritakoaren mende dago: EKZPa, idatziko den Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala, Izkiko Amezian Basogintza Kudeatzeko Plana eta aplikatzekoa den foru-araua. Nolanahi ere, ahuntz-azienta larratzea baimenduko da, soilik, kontrolatuta dagoenean, dela pertsona batek lagunduta, dela haren kontrola bermatzen duen beste edozein irtenbide edo sistemaren bidez., eta jarduera hori debekatuta egongo da Erreserba integraleko zonan, Babes berezikoan, Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbaziokoan, Ibai-sisteman, mendietan eta baso-eremuetan –publikoak nahiz pribatuak–, baldin eta horrek kalterik badakar zuhaitz-masa naturalen eta basoberritzearen eta basoa birsortzearen garapenean; baita hartxingadietan, harkaiztegietan, lapiazetan eta megaforbioen zonetan, haltzadietan eta hezeguneetan ere, horien kontserbazio-egoerak erabilera hori murriztea gomendatzen badu.

4.– Natura-ondarearen gune babestu osoan, abeltzaintza-antolamendu integrala egingo da. Horretarako, Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala garatuko da, kontuan izanik abeltzaintza-jardueraren inguruko irizpide orientatzaileak. Plan horrek honako hau zehaztuko du:

4.1.– Larre tipologia bakoitzaren kalitatea eta produktibitatea. Bazka-baliabideen eta -ahalmenaren kalkulua. Horiek bateragarriak izan behar dute Izkiko larre eta txilardien kontserbazio-egoera egokiarekin.

4.2.– Larre-aprobetxamenduetako zona zehatz bakoitzerako onargarria den abeltzaintza-karga. Horrek bateragarria izan behar du Izkiko larre- eta txilardi-habitaten kontserbazioarekin, baita abeltzaintza-jarduera garatzeko baldintzekin ere.

4.3.– Larratze-unitateak mugatzea eta, beharrezkoa balitz, haien arteko txandaketa egitea, zuhaixka- eta belar-habitaten mosaiko-banaketari eusteko helburuarekin.

4.4.– Larratzeko egutegia eta gutxieneko eta gehieneko egun kopurua, espezieen eta zonaren arabera. Horren helburua da abeltzaintza-presioa egokitzea natura-ingurunearen karga-ahalmenera, gehiegizkoak edo gutxiegi diren larratze-egoerak saihestuta.

4.5.– Gaur egun dauden abeltzaintza-azpiegiturei eta horiek hobetzeko beharrei buruzko analisia egitea (txabolak, uraskak, gazitegiak, parasitoen kontrako bainuontziak, hondakinen bilketa), eta, era berean, azpiegitura horiek egiteko baldintzak zehaztea (kontserbazio-helburuekiko errespetua bermatzeko).

4.6.– Bazkalekuak sortu eta hobetzeko irizpideak. Horietan, honako hau aurreikusiko da:

4.6.1.– Eralda daitezkeen eremuak zehaztea.

4.6.2.– Eraldatzeko metodoak zehaztea.

4.6.3.– Dauden larreetan zein zaintza eta hobekuntza egin behar diren zehaztea.

4.6.4.– Ongarrien eta kareztaduren dosi gomendatuak, zonen arabera, baldin eta horiek baimenduta baleude.

4.7.– Azienda mantentzeko beharrezkoak diren bazka-baliabideak bermatzeko prozesuak.

4.8.– Ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrenak diren guneak (zona hezeak, flora eta fauna mehatxatuko espezieetarako intereseko guneak...) babesteko neurriak, gehiegizko larratzea saihesteko.

4.9.– Abereak baztertzeke itxiturak ezartzea, dela kontserbatu beharreko flora-gune zehatzak babesteko, dela gutxiegi erabiltzen diren eremu jakin batzuen erabilera zuzentzeko –gehiegizko larratzea dakarten beste zona batzuen kalterako–.

4.10.– Abeltzaintza-azpiegiturak konpontzea eta eraikitzea.

4.11.– Larre-habitat eta -espezieen kontserbazio-egoeraren jarraipena egiteko protokoloak eta adierazleak.

4.12.– Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko beharrekoak diren inbertsioak, gaur egun dagoen azienda mantentzeko eta Natura-ondarearen gune babestuko natura-baliabideen gainean inpaktuak saihesteko.

4.13.– Baimendutako jardunbideak.

4.14.– Prebentzio-arauak.

5.– Plan honetan jasotako zehaztapenek, nolana ere, bateragarriak izan beharko dute Natura-ondarearen gune babestuaren bestelako elementuetarako –bereziki, ibai eta errekek, zona hezeak, basoak eta mehatxupeko flora eta fauna– ezarritako kontserbazio-helburuekin.

6.– Mendi publikoen titular diren erakundeek larreak erregulatzeko ordenantzak idatzi beharko dituzte, Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralaren zehaztapenak kontuan izanda. Ordenantza horiek kudeaketa organoaren eta gaian eskumena duen organoaren nahitaezko aldeko txostena izan beharko dute.

7.– Bermatu egingo da kalitatezko habitaten presentzia Izkiko saguzarren espezieentzat, horretarako landaredi autoktonoko palaxuen eta larreen presentzia sustatuz, eskuragarri dauden nitxoak handitzeko moduan.

8.– Txilardi lehorren baitan (EB kodea: 4030) landaredi moten aldagarritasun zabala dagoenez, ziurtatu egingo da biodibertsitate horri eustea, mota horien artean azalera-proporzioak aldatuko balira ere. Formazio horiek okupatutako eremuetan, saihestu egingo dira zuhaitz-espezie berriekin basoberritzeak edo hedadura handiko larreak sortzeko belar-sastrakak kentzeko lanak.

9.– Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala landu bitartean, belar-sastrakak kentzeko lanetan –larre berriak ezartzeko–, abeltzaintza-jarduera orientatzeko irizpideak kontuan hartuko dira eta baldintza hauek beteko dira:

9.1.– Sastrakadiak dituzten larreetan jardungo da Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio zonetan eta Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioko eta landazabaleko zonetan. Belar-sastrakak kentzeko lanak puntualki besterik ez dira baimenduko, partzela txikietan eragina badute, leheneratutako larreetan abeltzaintza-kargaren bidez mantentze-lanak bermatu ahal izateko moduan.

9.2.– Ez da baimenduko sastrakak kentzea Batasunaren intereseko habitatek hartzen dituzten eremuetan eta, bereziki, txilardi hezeetan eta eremu higroturbosoetan, helburua ingurune horien kontserbazio-egoera ona mantentzea denean izan ezik. Halakoetan, lanak eskuz egingo dira, makineria astunik erabili gabe.

9.3.– Babestu egingo dira flora eta fauna mehatxua duten guneak eta horien babes-esparruak –6.1 artikuluan zehazten dira–; barne direla Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieen –besteak beste, mirotz zuriaren eta etze-txinboaren– ugalketa-guneak. Betebehar horretatik salbuetsiko dira gune horien kontserbazio-egoera egokia xede duten jarduketak. Kudeaketa organoak aldi baterako mugak ezarri ahal izango ditu belar-sastrakak kentzeko lanetan, espezie babestuak kontserbatzeko helburuen arabera.

9.4.– Era berean, babestu egingo dira ur-ibilguei, ibar-hondoei, zuhaitzietan, palaxuei, mugei eta abarri lotuta dauden landaredi naturala, zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia duten guneak. Palaxu bizietako sistemak erabiliko dira mugak egiteko.

9.5.– Larre berrietan, azaleraren % 5 erabiliko da, gutxienik, espezie autoktonoetako zuhaitziak sortzeko edo Batasunaren intereseko habitatak mantentzeko. Eremu horiek erabiliko dira, lehentasunez, zona kalteberak babesteko (istingak, txilardi hezeak eta abar). Halakorik egongo ez balitz, paisaia hobetzeko irizpideak erabiliko dira.

10.– Izki natura-ondarearen gune babestuan, debekatuta dago luberritze-eremu gehiago sortzea, kudeaketa organoaren baimenarekin ez bada. Dena dela, ezin izango da Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitaten edo espezieen gainean eraginik sortu, Natura Baliabideak Antolatze Plan honen II. eranskineko 3. atalean ezarritakoen gainean, zehazki.

11.– Debekatuta dago Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko larre-habitatetako ohikotzat hartzen ez diren belar-espezieekin berrereintzak egitea.

12.– Kultura-ondarea babesteko eremuetan egiten diren jarduketetan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira ondasun horiek narria ez daitezen.

13.– Orokorrean, debekatuta dago basoa berritzeko eta birsortzeko zonetanazienda sartzea kudeaketa organoak baimendu ezean. Hala ere, nahitaezkoa izango da eraginpeko eremuko abeltzaintza-sektorearekin komunikazioa ezartzea aipaturiko baimenen izapidetzean, hala eskatzen denean.

14.– Itxitura instalatuz gero, horiek beharrezko baldintzetan eta materialekin egingo dira, fauna basatia sakabanatzen eta mugitzen dela bermatzeko, eta haren hilkortasuna saihesteko; salbu eta itxitura horiek helburu hauekin instalatzen badira: biodibertsitate-zona sentikorrek eta nekazaritza-laboreak babesteko; azientarako egonaldietarako; gutxiegi erabiltzen diren larratze-eremu jakin batzuetara zuzentzea erabilera, gehiegizko larratzea egiten denen orde; edo helburu zientifikoetarako. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren, basogintzaren edo zientziaren esparruetan kalteak saihestera zuzendutako itxituretarako baimena beharrezko babes-denborara mugatuko da. Itxitura berriak ezartzeko baimena emateko, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da aldezturitik.

15.– Irizpide orokor gisa, eta kudeaketa organoak salbuespenezko baimena eman ezean, Izki natura-ondarearen gune babestuko Onura Publikoko Mendietan (aurrerantzean, OPM) geldialdi begetatiboa ezarri ahal izango da (espazioaren baldintza klimatikoetan oinarrituta). Geldialdi horretan, azientak lur horietatik kanpo egon beharko du, larreei neguko atsedendia emateko, eta abeltzaintzako instalazioetan edo lursail partikularretan egon beharko du. Geldialdi begetatibo hori gauzatzeko, kudeaketa organoak negu-egutegia ezarriko du arrazoi klimatikoengatik edo behar bezala justifikatutako beste batzuegatik, bai espazioko OPM guztietarako, bai azienda motaren arabera. Egutegi hori ezartzeko, nahitaezkoa izango da mendien jabe diren erakundeekin eta ukitutako eremuko abeltzaintza-sektorearekin komunikazioa ezartzea, horien irismena eta baldintzak adosteko.

16.– Kudeaketa organoak Izki natura-ondarearen gune babestuko OPMetan azientarentzako aparteko elikagai-ekarpenak egitea baimendu ahal izango du azienda maneiatzeko tresnatzat, baldin eta dokumentu honetan ezarrita dauden biodibertsitatea kontserbatzeko helburuetarako onuragarria bada edota bestelako inguruabar arrazoituak direla eta. Horietarako, kudeaketa organoak beharrezko irizten dituen baldintzatzaileak ezarriko ditu.

17.– Oro har, debekatuta dago habitat edo/eta akuiferoen harrera-ahalmena gaintzen duten produktu fitosanitarioak eta ongariak (simaurra eta medeagarriak), gorotz-kargak eta mindak erabiltzea, baita araztegiko lohiak ere, Natura-ondarearen gune babestuko Batasunaren intereseko nekazaritza- eta abeltzaintza-habitaten gainean; bereziki, mendi-belardien eta txilardien gainean. Aparteko egoeratan, kudeaketa organoak jardun horiek baimendu ahal izango ditu, elementu naturalekin nagusiki, behar bezala justifikatutako eskaera puntualak badira betiere. Dena den, aurretiaz, lurzoruen analitika egin beharko da, eta, orobat, egiaztatu beharko da ingurune horietako ohiko espezieen, lurzoru-dinamikaren nahiz baliabide hidrologikoen gainean eraginik ez dagoela. Nolanahi ere, zorrozki debekatuta daude jardun horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honen 6.1 artikuluan zehaztutako zonak babesteko esparruetan.

18.– Debekatuta dago sua egitea landaredia edo landare-hondakinak erretzeko eta larreak birsortzeko nahiz inguruan onartuta dauden bestelako erabilera tradizionalerako, kudeaketa organoak baimentzen eta kontrolatzen ez badu. Dena dela, jarduera hori eremu txikietan eta horretarako egokitutako lekuetan egin beharko da. Erabilera hori ez da inola ere baimenduko Erreserba integraleko zonan, ezta Babes berezikoetan ere.

19.– Debekatuta dago hildako azienda Izkiko leizeen, pitzaduren edo ur-ibilguen inguruetan uztea.

20.– Masa zuhaiztunen baso- eta larre-aprobetxamendua horretarako hautatutako masetara zuzenduko da.

16. artikulua.– Ehiza eta arrantza.

1.– Izki natura-ondarearen gune babestua, bere osotasunean, kudeaketa zinegetikoko unitatea da, eta bertan bildutako lursailak erregimen zinegetiko bereziaren mendeko lursail gisa daude kalifikatuta.

2.– Jarduera zinegetikoak bateragarria izan beharko du Izkin kontserbatu beharreko fauna eta florako habitat eta populazioak kontserbatzeko helburuekin. Eta gune osorako antolamendu zinegetikoko plan teknikorik ez dagoen bitartean, jarduera hori NBAPean, EKZPeaen, ehiza-barrutiak kudeatzeko planetan eta ehiza erregulatzeko dagozkion foru-aginduetan ezarritakoaren arabera egingo da.

3.– Izkin, aprobetxamendu zinegetikorako espezieak Natura-ondarearen gune babestuko EKZPak, Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoak eta ehizari buruzko foru-aginduek zehaztutakoak izango dira, eta populazioen egoeraren arabera ezarriko dira. Espezie zinegetikoen zerrendak kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko du onartu aurretik.

4.– Horrenbestez, Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honetan ezarritako kontserbazio-helburuak betetzea erraztuko duen Izkiren kudeaketa zinegetiko integrala lortzeko, Ehiza Antolatzeko Plan Tekniko bakarra idatziko da, Natura-ondarearen gune babestu osoa barne hartuko duena. Plan horrek honakoak zehaztu eta, hala badagokio, mugatuko ditu:

4.1.– Fauna basatiaren babesleku izateagatik lursail ez-zinegetikoak osatzen dituzten Natura-ondarearen gune babestuko zonak. Horietan, Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 24. artikulua aplikatuko da.

4.2.– Fauna zaintzera edo babestera zuzentzen diren ehiza-barrutietako zonak, aipatutako legearen 16.6 artikuluaaren arabera.

4.3.– Aprobetxamendu zinegetikokoak izan daitezkeen espezieak, horien populazioaren kontserbazio-egoera kontuan izanda.

4.4.– Eremu kritikoen inguruko babes-esparruak (habiak egiteko eta hazteko zonak, elikatze osagarriko zonak edo janlekuak, hezurak apurtzeko tokiak eta ohiko pausalekuak), Izkin babestu beharreko fauna-espezie mehatxatuak kudeatu eta berreskuratzeko planetan ezarritako aldietan – dagoeneko onartuak edo Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honen indarraldian onar daitezkeenak–.

4.5.– Natura-ondarearen gune babestuan jarduera zinegetikoa eta erabilera publikoa bateragarri egiteko beharrezkoak diren segurtasun-zonak eta prebentzio-neurriak.

4.6.– Espezie katalogatuak kudeatzeko indarrean dauden planetan, edo etorkizunean onar daitezkeen planetan, ehizari dagokionez agertzen diren neurriak.

5.– Aurreko puntua gorabehera, Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 23. eta 26. artikuluetan jasotakoaren ondorioetarako, lursail ez-zinegetikotzat hartuko dira honako hauek:

5.1.– Espezie basati mehatxatuen eremu kritikoak, Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren indarraldian onartuta dagoen edo onar daitezkeen kudeatzeko eta/edo berreskuratzeko plan bat duten espezieenak.

5.2.– Erreserba integraleko zona, baita zona hezeak eta horiek babesteko esparruak ere.

5.3.– Gaur egun Izkin ehiza-aprobetxamendurik ez duten eremuak.

Zona horietan ez da baimenduko inolako jarduera zinegetikorik, salbu eta arrazoiak badaude – biologikoak, zientifikoak nahiz sanitarioak–, pertsoneri edo horien ondasunei kalteak saihesteko, arazo sanitarioak saihesteko edo fauna- edo flora-espezie mehatxatuak babesteko. Halakoetan, baimenak

kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko du. Hark, hain zuzen, aplikatzekoak diren baldintzak finkatuko ditu.

6.– Ez da inola ere baimenduko espezie mehatxatuen gainean zuzeneko eraginik, arriskurik edo eragozpenik ekar dezakeen jardunik, ezta selektiboa ez den harrapaketa-metodorik ere.

7.– Izkiko Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoa onartzen ez den bitartean, prebentzio-neurri hauek hartuko dira:

7.1.– Hegazti nekrofagoei dagokienez, Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Plan hori Arabako Lurralde Historikoan onartu zen maiatzaren 22ko 29/2015 Foru Aginduaren bidez.

7.2.– Izkin dauden eta Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean jasota ez dauden espezie errupikola mehatxatuei dagokienez, jarduera zinegetikoa mugatuko da 500 m-ko babes-erradioan, habiak egiteko puntuen inguruan, espezie horiek ugaltzeko garaiaren hasieratik urteko txitak hegan hasten diren unera arteko aldian.

7.3.– Bestalde, 28. artikuluko 2. apartatuan deskribatutako Babes bereziko zonan ez dauden gainerako harkaitz-eremuetan, ehiza larriko uxaldiak debekatuta egongo dira 500 m-ko erradioan, urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean, kudeaketa organoak berariazko baimena eman ezean, eta betiere natura-ondareko elementuen kontserbazioa bermatzen bada.

7.4.– Era berean, habien 400 m-ko erradioan, edo lokalizatuta dauden okil beltzek eta okil ertainek okupatutako unadetan, debekatuta dago ehiza otsailaren 1etik abuztuaren 15era arte, kudeaketa organoaren baimenarekin ez bada. Babes-zona horien mugaketa kudeaketa organoak ezarriko du urtero. Horrek aukera izango du bai babes-esparrua, bai debeku-garaia egokitzeko; populazioen egoera, ingurunearen ezaugarriak eta ehiza modalitatea kontuan izanda.

8.– Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoak neurriak, arauak edo jarraibideak ezarri beharko ditu Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieen gainean zuzeneko eragina, arriskuak edo eragozpenak saihesteko eta Natura-ondarearen gune babestuko babes-helburuekiko bateragarritasuna bermatzeko. Horretarako, aprobetxamendua esleitu aurretik, beharrezkoa izango da kudeaketa organoaren aldeko txostena. Halaber, ehizaren aprobetxamendua urtero erregulatu duten dekretuek eta foru-aginduek une bakoitzean beharrezkoak diren aldaketak egin beharko dituzte, adierazitako kontserbazio-egoerara moldatzeko.

9.– Egiatzatuko balitz zinegetikotzat hartutako espezieren baten populazioan gainbehera izan dela, kudeaketa organoak aukera izango du espeziea ehizatzeke debekualdi bat proposatzeko eta populazioak leheneratzeko neurriak hartzeko. Nolanahi ere, Natura-ondarearen gune babestuaren lurralde-esparruan ez da baimenduko harrapariak kontrolatzea espezie zinegetikoen populazioak hobetzeko metodotzat.

10.– Salbuespen gisa, arrazoi biologikoak, zientifikoak eta teknikoak baldin badaude, edota pertsonen edo horien ondasunen gainean kalteak saihesteko edo arazo sanitarioak nahiz fauna- eta flora-espezie mehatxatuak babesteko asmoz –horretarako komeni baldin bada espezie jakin batzuetako aleak harrapatzea edo populazioak murriztea–, dagozkion baimenak eman ahal izango dira, kudeaketa organoaren alde aurreko baimenarekin, eta horrek finkatuko ditu aplikatu beharreko baldintzak kasu bakoitzean.

11.– Kirol-arrantza, orokorrean, debekatuta dago Izkiko ibai eta erreketan. Dena den, kudeaketa organoak, hala badagokio, jarduera hori baimendu ahal izango du ibaien beheko tarteetan, baldin eta horren erregulazioa bateragarria bada Natura-ondarearen gune babestuan dauden fauna- eta flora-espezieak eta Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko helburuekin. Arrantza-jarduera horiek ibaietako ahalmen piszigenikoa errespetatu beharko dute, eta arrain-populazioentzat arriskurik ez dakarten modalitateen bidez egin beharko dira.

12.– Debekatuta dago fauna zinegetikoko edo arrain-faunako espezie eta/edo barietate aloktonoak askatzea edo horiek birpopulatzea.

13.– Izkin fauna exotiko inbaditzaile bat ustekabean edo legez kanpo sartuz gero, ez da baimenduko haren aprobetxamendu zinegetikoa edo piszikola. Gainera, neurri egokiak ezarriko dira espezie horien kontrola egiteko eta horiek ezabatzeko.

14.– Mehatxu-graduren bat duten espezie basatiak sakabanatzeko edo birkolonizatzekeo fenomeno naturalen kasuan, ez da baimenduko aprobetxamendu zinegetikoa edo piszikola, eta espezie horien kontserbazio-egoera egokia ziurtatuko duten neurriak sustatuko dira.

17. artikulua.– Erauzketa-erabilerak.

Azaroaren 25eko Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko 9/2021 Legearen 46. artikuluan ezarritakoa betetzeko, Natura Baliabideak Antolatzekeo Plan honen II. eranskinaren (Memoria) 3.4.5. atalean egindako analisia oinarri hartuta, erauzketa-jarduerak debekatuta daude Izki natura-ondarearen gune babestuaren mugen barruan.

18. artikulua.– Hirigintzako, eraikuntzako, azpiegituretako eta industriako erabilerak.

1.– Azaroaren 25eko Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko 9/2021 Legearen 37. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Natura 2000 Sarearen barruan dauden parke naturalak eta lekuak natura-ondarearen gune babestuak dira. Lurraldea antolatzekeo tresnek eta hirigintza-plangintzek inguruabar hori jasoko dute. Gainera, leku horietan bermatu egingo dute habitat naturalen, espezieen eta aipatutako eremuetan dauden natura-ondarekeo gainerako elementuen kontserbazioa, dokumentu honetan finkatzen diren helburuei jarraituz.

2.– Debekatuta dago lurzoru urbanizaezina hiri-lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat birsailkatzea Natura-ondarearen gune babestu osoan, Korresko landagunerako garapen-beharrak salbuetsita.

3.– Ez dago baimenduta bizitegi-erabilerarako eraikin berrik egitea, Korresko landagunean izan ezik.

4.– Debekatuta dago abeltzaintzako ustiatzegei lotutako eraikuntza berriak egitea, Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioko eta landazabaleko zonan izan ezik. Zona horretan, eraikuntza berriek zerbitzatzen duten ustiatzegeiaren tamainarekiko proportzionalak izan beharko dute. Hala ere, ustiatzegei horrek lotuta egon beharko du lurzoruaren erabilerara.

5.– Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenari, basogintzako ustiapenari edo nekazaritza eta abeltzaintzako edo basogintzako eraldaketako landa-industria txikiei lotutako eraikin bat handitzekeo edo eraberritzekeo baimen-eskaera orok kudeaketa organoaren aldeko txostena izan beharko du.

6.– Salbuespen gisa, baimendu ahal izango dira Natura-ondarearen gune babestuko zerbitzuei lotutako eraikinak, pertsonal arduradunaren etengabeko presentzia eskatzen dutenak edo lotuta daudenak sistema orokorreari nahiz Izkiko lurralde babestuan nahitaez ezarri beharrekeo herri-onurako beste sistema batzuei, bestelako hautabiderik ezean. Hala ere, eraikin horiek ezin izango dute kontserbazio-helburuetan eragin nabaririk izan. Dena dela, Natura-ondarearen gune babestuaren esparruan lurzoru urbanizaezinean eraikuntzetarako hirigintza-lizentziak eman aurretik, kudeaketa organoaren baimena beharko da.

7.– Txabolak handitu, berregituratu edo eraberritzekeo lanetan, kudeaketa organoaren baimena beharko da. Ingurunekeo paisaiarekin bat datozen materialak erabiliko dira. Halaber, obra-hondakinak ingurunetik atera beharko dira.

8.– Kiropteroen –edo intereseko beste espezie batzuen– babeslekuak dituzten eraikin, zubi eta bestelako azpiegituretako lanetan, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da, eta betiere bermatu beharko da haien kolonia eta babeslekuen kontserbazioa.

9.– Eraikinak, azpiegiturek, estalkiak edo kultura-ondarean sartutako elementuak –hala nola baselizak, zubiak, errotak eta abar–, titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak izanik ere, birgaitzeko obren lizentziek eta baimenek, Izkiko esparruan onartzen badira eta kiropteroen edo bestelako interesdun espezieen babeslekuak barne hartzen badituzte, horiek babesteko aplikatu beharreko baldintzak ezarriko dituzte. Erregulazio horretan sartuko da, besteak beste, kiropteroak hazteko hilabeteetan (maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra arte), eta /edo hibernazioko hilabeteetan (abenduarien 1etik otsailaren 28ra arte) birgaitze- eta konpontze-lanak egiteko debekua, salbu eta kudeaketa organoak berariazko baimena ematen badu. Horrek kontuan hartuko ditu espezie horien eskakizunak eta azpiegiturek kontserbatzeko beharrak.

10.– Debekatuta dago produktu organokloratuak edo organofosforatuak erabiltzea zureko intsektuak hiltzeko tratamenduetan, eraikinak zaharberitzeko edo birmoldatzeko lanetan. Permetrinak erabili ahal izango dira, kudeaketa organoak aldezturik baimena ematen badu, maiatzetik abuztura bitartean izan ezik, biak barne.

11.– Sarbide errazeko lekuetan kiropteroen koloniak edo babeslekuak daudela hautemanaz gero, kudeaketa organoak neurri egokiak hartuko ditu, kasuak kasu, horietan bandalismoa saihesteko.

12.– EKZPearen dauden azpiegiturek fauna basatiarentzat egokitzeko eta iragazkortzeko neurriak sartuko dira, horiek beharrezkoak badira. Azpiegitura horien barruan jasoko dira mota orotako garraio-azpiegiturek, komunikaziokoak edo energia sortzekoak, baita horien osagai artifizialak ere (deribazio-kanalak, karga-ganberak, drainatze-sareak, pasabide kanadiarrak eta abar). Horrez gainera, erabiltzen ez diren baso-pistak zaharberitzeko neurriak jasoko dira. Faunarako puntu beltzak daudela ikusiz gero –dela bide-sarean edo sare elektrikoan, dela Izkiko beste azpiegitura batzuetan–, haien ezbehar-arriskua murrizteko ekintzak abiaraziko dira. Horretarako, fauna-pasabideak egokituko dira, linea elektrikoak zuzentzeko jarduketak egingo dira, eta abar.

13.– Ez dago baimenduta aireko azpiegiturek eraikitzea energia eta fluidoak garraiatzeko, ezta telekomunikaziokoak edo antzekoak ere. Salbuespen gisa, dagoeneko dauden azpiegiturei eta eraikinei nahiz Natura-ondarearen gune babestuaren eta Korresko hiriguneari zerbitzua egiteko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, kudeaketa organoak haiek baimendu ahal izango ditu.

14.– Debekatuta daude izaera ez-linealeko instalazioak, salbu eta Korresko hiriguneari zerbitzua egiten dietenak edo Natura-ondarearen gune babestua kontserbatzeko helburuak lortzeko balio dutenak (ikerketa, zerbitzuak, eta abar). Nolanahi ere, haiek ez dira baimenduko, inoiz ere, Erreserba integraleko zonan, Babes berezikoetan eta Ibai-sisteman. Instalazio horietarako, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da. Horrek aipatutako instalazioak debekatu ahal izango ditu paisaia-kalteberatasun handieneko zonetan.

15.– Izki natura-ondarearen gune babestua, bere osotasunean, «Babes-zona» gisa kontsideratuta dago errege-dekretu honetan adierazitakoaren arabera: 1432/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 29koa, goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuzioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituena. Hain zuzen, horixe ezarrita dago Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan (horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira, argitaratzen). Hortaz, Izkin aplikatzekoak izango dira aipatutako araudian ezarritako erregulazioak.

16.– Natura-ondarearen gune babestu osoan debekatuta daude gasa, petrolioa eta/edo horren produktu eratorriak garraiatzeko azpiegiturek. Lurpeko gainerako azpiegitura linealek (kolektoreek, ur-

hodiekin, telekomunikazio sareek, linea elektrikoek, eta abar) euskarri izango dituzte, lehentasunez, dauden azpiegiturak eta zortasunak. Dena den, alde zuzenetik, kudeaketa organoak horiek egoki ebaluatu eta aldeko txostena eman beharko du.

17.– Natura-ondarearen gune babestuan, debekatuta daude zaborteak eta hondakindegia, eta, baita ere, materialak, ibilgailuak edo makinak pilatzea eta horien mantentze-lanak, salbu eta kudeaketa organoak horiek baimentzen baditu aparteko arrazoiengatik eta horretarako berariaz adierazitako lekuetan. Debeku hori bereziki ezarrita dago kontserbatu beharreko habitaten gainean. Dena dela, bete egin beharko da dekretu honetan ezarritakoa: 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

18.– Debekatuta dago pista berriak eraikitzea Erreserba integraleko zonan, Babes berezikoetan, Ibai-sisteman (egin beharreko gurutzatzeak izan ezik), NBAP honen 6.1 artikuluan zehaztutako babes-esparruetan, baita sai zuriaren eta mehatxatutako bestelako espezieen eremu kritikoetatik edo egon ohi diren gunetik igarotzen direnak. Natura-ondarearen gune babestuaren gainerako lurraldean, jarduera hauek baino ez dira baimenduko: basogintza-lanetara zuzendutakoak, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarakoak eta larrialdietako jardueretarakoak (suteak itzaltzea, uholdeak, eta abar).

19.– Kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da pista berriak eraikitzeko. Sustatzaileak horren beharra justifikatu beharko du, diseinu-hautabideak eta trazadura aurkeztu beharko ditu, ebaluzio bat egin beharko du obrak izango duen eraginaren inguruan, eta sor litekeen ingurumen- inpaktua minimizatzen neurriak hartu beharko ditu.

20.– Baimendutako erabilerek behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoak diren pistak eta bestelako azpiegiturak mantentzeko lanek kudeaketa organoaren aldeko txostena izan beharko dute.

21.– Debekatuta daude energia elektrikoa sortzeko eta eraldatzeko instalazio berriak eta horiei lotutako azpiegiturak Natura-ondarearen gune babestuaren esparru osoan.

22.– Oro har, debekatuta daude instalazio industrialak, eta substantzia kimikoak biltzeko andelak eta horiek erabiltzearekin lotutako hondakinak; baita edonolako erabilera industrialak, eraikuntzakoak edo azpiegiturakoak, baldin eta horiek eragin nabaria badute Izkiko intereseko habitaten eta/edo espezieen gainean, edo natura-ondarearen beste elementu batzuetan.

19. artikulua.– Baliabide hidrikoen erabilera.

1.– Uraren Legearen testu batekina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan, 59.7 artikuluan, ezartzen denaren arabera, emari ekologikoak ezin izango dira erabili. Hortaz, ustiapen-sistemei oro har aplikatzen zaien murrizketatzat hartu behar dira emari ekologikoak.

2.– Emari ekologikoen erregimenak egokiak izango dira habitataren edo espezieen kontserbazio-egoera egokiari eusteko edo berori berrezartzeko. Hortaz, horien eskakizun ekologikoak beteko dira eta epe luzean beharrezkoak dituzten funtzio ekologikoei eutsiko zaie. Babestu beharreko espezieei dagokienez, emari ekologikoen erregimenak helburu izango du espezie horiek babestea eta horien funtzionaltasun ekologikoari eustea (ugaltzeko, hazteko, elikatze eta atseden hartzeko eremuak); baita haien habitatari dagokienez ere, adierazitako espezieak babesteko arauetan jasota dauden eskakizun eta jarraibideen arabera.

3.– Izkiren barruan urak aprobetxatzeko emakidetan, esparruari dagozkion plan hidrologikoetan ezarritakoa aplikatuko da, arroaren arabera. Dena dela, dauden hautabideen artean, emari-erregimen egokiena esleituko da, habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera egokiari eusteko edo berori berrezartzeko, haien eskakizun ekologikoak kontuan izanda (ugaltzea, haztea, elikatzea eta atseden hartzea). Gainera, epe luzera, eutsi egingo zaio haiek behar dituzten ur-masen funtzionaltasun ekologikoari.

4.– Ur-aprobetxamenduko emakida berri bakoitzaren espedienteari dagokionez, aztertu beharko da hura beharrezkoa den, teknikoki bideragarriak diren aukerak zein diren eta hartutako irtenbidea ingurumenaren aldetik egokia den. Dena dela, bermatu egingo da ez dela eragin nabarmenik izango espazioko kontserbatu beharreko elementuen gainean eta, batez ere, zona hezeen gainean.

5.– Kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da uren aprobetxamenduko emakida berriak esleitzeko edo indarrean dauden emakiden funtsezko ezaugarriak aldatzeko.

6.– Kudeaketa organoak, eskumena duen arroko erakundearen aurrean, sustatu egingo du emari-deribazioen zaintza eta kontrola, edozein motatako aprobetxamendurako. Orobat, sustatuko du emari ekologikoen erregimena aplikatuko dela ur-aprobetxamenduen emakida berri edo zaharretarako; eta bereziki arreta jarriko du Natura-ondarearen gune babestuko kontserbazio helburuak lortzeko arrisku handiena duen emari-erazketaren kasuetan.

7.– Eskumena duen arroko erakundearen aurrean, sustatu egingo da, era berean, ingurune urtarrari lotutako espezieen mugikortasuna eta ziklo biologikoaren garapena oztopatzen dituzten baliabide hidrikoen aprobetxamendurako instalazioen egiturak egokitu daitezela. Egokitzapen-lan hori oinarrituko da jarduketa hauek gauzatzean: faunaren goranzko eta beheranzko zirkulazioa ahalbidetzea, ibai-konektagarritasuna hobetzea eta finkatutako ibilgu ekologikoen erregimena kontrolatzea.

8.– Edozein obra hidrauliko egin aurretik, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da, arroko erakunde eskudunaren baimena alde batera utzi gabe..

9.– Baimenduta dago erabilera baimenduen funtzionamendu egokirako ezinbestekoak diren azpiegitura hidraulikoak eraikitzea eta mantentzea, baldin eta horrek arriskuan jartzen ez badu kontserbatu beharreko elementuen kontserbazioa, arroko erakunde eskudunaren baimena alde batera utzi gabe.

10.– Debekatuta dago baltsak eta gordailuak eraikitzea edo instalatzea Natura-ondarearen gune babestuan baimenduta dauden erabilerei lotuta ez badaude edo suteak itzaltzeko eta biodibertsitatea hobetzeko ez badira. Ura atxikitzea edo biltzera zuzendutako instalazioak eraikitzeak –horien artean daude, besteak beste, uraskak, baltsak edo gordailuak–, urak aprobetxatzeko nahitaezko emakidaz gain, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko du. Organo horrek haien kokalekua ebaluatuko du, kontuan hartuta babestu beharreko habitat eta espezieen kontserbazioa eta zona hezeen eta ibai-sistemaren erregimen naturalaren mantentzea. Instalazio horietan, beharrezko neurriak ezarri beharko dira anfiboak edo fauna basatiko bestelako espezieak hil ez daitezen.

11.– Askak edo itxiturak eraikitzean eta mantentzean, abelburuak putzu-zonetara sar daitezen saihestea izango da kontuan. Ur-harguneez eremu horiek mantentzeko behar besteko emari librea utziko dute beti.

12.– Ezin izango da produktu fitosanitariorik, ongarririk, araztegi-tako lohirik, konpostik, mindarik edo simaurrik erabili, ezta aplikazio horietarako erabiltzen diren makinak garbitu ere lursail istilduen edo elurra daukaten lursailen gainean nahiz korrante-uren edo ur geldoen gainean.

13.– Debekatuta dago zentral hidroelektriko berriak instalatzea edo daudenak zabaltzea, Korresko nukleoaren aprobetxamendu energetikoari lotutako zerbitzuetarako eta/edo Natura-ondarearen gune babestuko zerbitzuetarako izan ezik, eta organo kudeatzaileak aldeko txostena eman ondoren.

20. artikulua.– Erabilera publikoa.

1.– Erabilera publikoaren kudeaketa lzkiren esparruan dauden habitat naturalak, fauna eta flora basatia eta ondare geologikoa bermatzeko helburuen mende egongo da; bereziki, espazioaren kudeaketan funtsezkotzat hartzen diren kontserbatu beharreko elementuen mende. Ingurune naturaleko elementu berezi eta kalteberenen kontserbazioa beti erabilera publikokoaren aurretik jarriko

da. Hala, kudeaketa organoak beharrezkotzat jotzen dituen premiazko neurriak eta mugaketak ezarri ahal izango ditu babes-helburuak beteko direla ziurtatzeko; bereziki kontserbatu beharreko habitak, espezie eta bestelako elementuentzat arrisku-faktorarik ekar lezaketen jarduerari.

2.– Erabilera publikoari dagokionez, Izki natura-ondarearen gune babestua kudeatzeko jarraibideak EKZPearen eta Izkirako ezarriko den Erabilera Publikoko Planeari (EPP) xehatuko dira. EPPa kudeaketa organoak landuko du. Plan horiek irizpide zehatzak, erregulazioak eta neurriak ezarriko dituzte jarraian adierazten diren alderdiekin lotuta, gutxienez:

- a) Ingurumena ezagutzeko zentroak.
- b) Jolas-eremuak.
- c) Mendi-ibilaldiak, txirrindularitza eta ekitazioa, dagokien ibilbideekin.
- d) Kirol-jarduerak.
- e) Erabilera publikoko jarduerak antolatuak eta komertzialak, barne direla espezie basatien aprobetxamendu publikoan oinarritutako jarduerak (ornitologia).
- f) Baso-produktuen bilketa.
- g) Ibilgailuen sarbideak eta igarobideak –airekoak barne–.
- h) Laneko, laguntzako, gidako eta abarretako txakurrak edukitzea.

EPPak sektoreka sailkatu ahal izango du Natura-ondarearen gune babestua, erabilera publikoarekiko duen kalteberasunaren arabera, kontuan hartuta NBAP honetan ezarritako zonifikazioa, jarduerari eta erabilerei ezarritako mugak eta espezie basati mehatxuentzako aldi kritikoak.3.– Oro har, debekatuta dago txirrindularitza eta ekitazioa Izkiko bidexka-sarean, kudeaketa organoaren baimenarekin ez bada, baita EKZPearen edo EPPearen ezartzen diren esparruetan ere. Horretarako, jarduerak horiek beste erabilera batzuekin duten bateragarritasuna zehaztuko da, eta lehentasuna emango zaio mendi-ibiltarietara edo paseatzaileentzako sarea erabiltzeari.

4.– Debekatuta dago kanpatze-mota oro, salbu eta kudeaketa organoak berariaz baimentzen badu. Gaua igarotzea baimentzen da.

5.– Debekatuta dago kanpinak instalatzea.

6.– Oro har, debekatuta daude espazioko balio natural, sozial edo kulturaletan eragin hautemangarriak dakartzaten edo ekar ditzaketan jarduerak.

7.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren barruan aisia-jarduerak antolatzeko, beharrezko aurrerapenez jakinarazi beharko zaizkio kudeaketa organoari. Horrek zehaztu ahal izango ditu jarduerak horiek gauzatzeko baldintzak, kontserbatu beharreko elementuen gaineko eragin nabariak saihesteko. Dena den, eskatu beharreko baimenak lortu beharko dira, dagokion jardueraren arabera.

8.– Antolatzen diren kirol-ekitaldi masiboak –hala nola mendi-lasterketak, orientazio-lasterketak, mendi-ibilaldiak, mendi-bizikletako martxak, zaldi-martxak eta bestelakoak–, baita erabilera publikokoko merkataritza-jarduerak ere, zati batean edo ororik Natura-ondarearen gune babestuaren esparruan egiten badira, kudeaketa organoak baimendu beharko ditu. Horrek identifikatuko ditu espazioaren eta kontserbazio-helburuen gainean izan litezkeen eraginak, eta, horretan oinarrituta, beharrezko prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko ditu. Gainera, kontserbatu beharreko elementuen gainean jarduerak izan lezakeen inpaktuaren jarraipen-protokolo bat diseinatuko du.

9.– Kudeaketa organoak aukera izango du jarduerak horiek egiten diren aldia eta esparrua

mugatzeko, Natura-ondarearen gune babestua kontserbatzeko helburuak eta haren zonifikazioa kontuan izanda. Errespetatu egingo dira, gutxienik, 6.1 artikuluan zehaztutako babes-esparruak eta Erreserba integraleko eta Babes bereziko zonak. Horietan ez da horrelako erabilerarik baimenduko. Kudeaketa organoak aparteko arrazoiengatik baimendu ahal izango ditu behar bezala justifikatu eta baimenduta. Hala ere, bermatu egingo da natura-ondarearen kontserbazioa Babes bereziko zonetan.

10.– Oro har, jarduera horiek ez dira gaueko ordutegian baimenduko, salbu eta jolas-eremuei lotutako olgeta-erabilerako zonetan eta horretarako dauden ekipamendu eta azpiegituretan.

11.– Izkin, igarobide murriztuko bide eta pistetatik ibilgailu motordunak erabiltzea erregulatuta dago 30/2009 Foru Dekretuan (martxoaren 31ko Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, Izki Parke Naturaleko bide eta mendi bideetatik ibilgailu motordunekin ibiltzeko baimenak erregulatzen dituzten arauak onartzen dituena). Bide horiek honako hauek besterik ezin izango dituzte erabili: Natura-ondarearen gune babestuko zaintza-zerbitzuek, larrialdi-zerbitzuek (sorospena, salbamendua, suteak, eta abar), beste administrazio batzuek, dagozkien eskumenetan jarduteko (Jabari Publiko Hidraulikoa zaindu eta kontrolatzea, eta abar) eta baimendutako erabileretarako (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza). Halaber, ehiza-jarduera egiteko egun baliodunetan soilik, kudeaketa organoak baimena eman ahal izango du ehiztarien ibilgailuak pasatzeko, betiere alde zuzenetik adierazitako aparkalekuetaraino, edo ehiza larriko ehizakiak jasotzeko.

12.– Parke Naturaleko bisitariak debekatuta dute haren barruan ibilgailu motordunak aparkatzea, igarotze libreko bideetan horretarako gaitutako zonetan eta EKZPearen zehaztutako diren leku baimenduetan izan ezik. Atsedeen-eremuaren edukieraren arabera diseinatutako dira aparkalekuak, horiek sorraraz lezaketan paisaia-inpaktua saihestuz, ahal dela.

13.– Debekatuta dago eskalada-bide berriak irekitzea eta jarduera hori egitea horretarako baimendutako leku eta garaietatik kanpo. Horiek ezarrita daude eskalada erregulatzeko planetan –forurakundeak aldizka eguneratzen ditu plan horiek–.

14.– Debekatuta dago aisialdi-xedeekin sua piztea, horretarako gaitutako leku eta garaietan izan ezik.

15.– Debekatuta dago aisialdi-xedeekin egurra moztea Natura-ondarearen gune babestuaren lurralde osoan, kudeaketa organoaren baimenik gabe. Erabilera hori ez da inola ere baimenduko Erreserba integraleko zonan eta Babes berezikoetan.

16.– Atsedeen-eremuetan, bideen eta erabilera publiko intentsiboko bidexken eremuetan, eta azienda dagoen aldietako bazkatze-zonetan, txakurrek lotuta egon beharko dute. Arau horretatik salbuetsita daude laneko txakurrak, aziendarekin batera doazenak eta/edo zaintzeko, kudeatzeko eta larrialdietan (erreskateak eta abar) dihardutenak, baita ehiza-txakurrak ere, horretarako gaitutako aldian.

17.– Debekatuta dago Izkiko GR, PR edo bidexketatik kanpo ibilbideak balizatzea eta markatzea pinturekin edo beste elementu ezabagaitz batzuekin. Natura-ondarearen gune babestutik kanpoko taldeek antolatzen dituzten ibilbideetan –hura seinaleztatzea ezinbestekotzat jotzen badute–, kudeaketa organoaren baimena beharko dute, eta datu hauek zehaztu beharko dituzte: markatu beharreko bidea, pertsona kopurua eta ibilbideak egiteko data zehatza. Ekitaldi berezietan erabiltzen diren edozein motatako seinaleak gai biodegradagarrikoak izan beharko dira eta berehala kendu beharko ditu baimendutako taldeak berak jarduera amaitu ondoren.

18.– Debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuaren kudeaketari edo aprobetxamenduari ez dagokion seinaleztapen oro: errotiluak, plaka edo monumentu oroigarriak edo hiletetakoak, mendiko gutunontziak eta abar, iraunkorrak nahiz aldi baterakoak izan, kudeaketa organoak berariaz baimendu ezean. Kasu horretan, material biodegradagarriak erabiliko dira.

19.– Natura-ondarearen gune babestuaren barruan jartzen diren kartekek edo seinaleek ezin izango diete elementu naturalei eta/edo kultura-ondasunei eragin edo horietan kalterik sorrarazi.

20.– Kudeaketa organoaren baimena beharko du hezkuntza-azpiegiturako edozein instalaziok – panelak, seinaleak eta abar–, Natura-ondarearen gune babestuz kanpoko pertsona edo erakundeen mende badago.

21.– Debekatuta dago espazioan baretasuna eta lasaitasuna asaldatzea, ihes-hodi libreko ibilgailuak, megafonoak, bozinak, musika-instrumentuak, irrati-aparatuak eta antzekoak erabilia edo ondorio negatiborik ekar balezake Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbatu beharreko espezieen gainean.

22.– Kudeaketa organoak, halaber, debekatu egingo ditu kontuan hartu ez den beste edozein asaldura, horren kokapen-ezaugarriak, iraupena edo maila akustikoa direla-eta, sai zuriaren eremu kritikoetan espeziearen hazkuntzan, elikaduran edo atsedenean kalterik eragin balezake, ezarritako aldi kritikoetan.

21. artikulua.– Jarduera zientifikoak, ikerketakoak eta dibulgaziokoak.

1.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren esparruan egiten den zientzia- edo ikerketa-jarduera oro kudeaketa organoak baimendu beharko du hura egin aurretik.

2.– Ikerketa-jarduerak oinarrituko dira, lehentasunez, Natura-ondarearen gune babestua kontserbatzeko jarraibideak ezartzean eta geodibertsitatearen eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera zehaztu eta jarraitzean; eta arreta berezia jarriko da Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitat eta espezieetan, baldin eta horiek mehatxu-maila handia badute edo kontserbazio-egoera txarrean badaude; eta, baita ere, duten funtzionaltasun ekologikoagatik eta ekosistemen egoeraren adierazgarri izateagatik funtsezkoak direnetan. Espezie horien populazioen banaketari, kontserbazio-egoerari eta intereseko lekuei, eta jasaten dituzten presioei eta mehatxuei erreparatuko zaie, batik bat.

3.– Ildo horretatik, Izkin egiten diren jarduera zientifikoetan eta ikerketakoetan, lehentasuna emango zaie natura-ondarearen elementu hauei: horiek kontserbatzeko Izki funtsezko espaziotzat hartzea dakartenei (ikusi Memoria II. eranskineko 4. eta 5. atalak).

4.– Baimenduta dago ale edo material naturalak biltzea, mineralak, espeleotemak, fosilak nahiz flora edo faunako espezie basatien aleak direla ere, baldin eta ikerketa-lanak helburu baditu, kudeaketa organoaren baimenarekin betiere.

5.– Funts publikoekin finantzatuta dauden jarduera zientifikoetan edo ikerketakoetan Izkiko natura-ondarearen ezagutzan aurrerapen bat dakarren edozein aurrerapen kudeaketa organoari jakinarazi beharko zaio. Kudeaketa organoak lan horien datuak eta emaitzak jakinaraziko dizkio Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren informazioa eguneratuta mantentzean. Gainera, informazio hori argitaratu edo dibulgatu dadin erraztu eta lagunduko du, baldin eta horrek arriskurik ez badakar natura-ondarea eta horren elementuak babestean. Funts publikoekin finantzatuta ez dauden azterlanen edo lanen kasuan, bete-betean sustatuko da xedapen hori bete dadin.

6.– Jendaurreko informazio-aldian Natura-ondarearen gune babestuari buruz jarritako dokumentu zein lan zientifiko eta lan tekniko guztiek, NBAP honen helburuekin loturarik badute, eta baliabide publikoekin kontratatutakoak eta finantzatuak badira, dibulgazio-laburpen bat hartu beharko dute barne, herritarrentzako ulerterraza; eta berori ingurumen-organuari igorri beharko zaio Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari sar dezan.

3. KAPITULUA

NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAREN ZONIFIKAZIOAREN ETA DAGOKION BABES ZONA PERIFERIKOAREN ARABERAKO ERREGULAZIOAK

1. SEKZIOA.

NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAREN ZONIFIKAZIOA ETA BABES ZONA PERIFERIKOA

22. artikulua.– Kontserbatu beharreko habitat eta espezieen eta espazioaren erabileraren araberako zonifikazioa.

1.– Izki natura-ondarearen gune babestuaren zonifikazioak erantzuten dio habitat eta espezieen kontserbazio-egoera egokiari eusteko edo berori lortzeko beharrari. Horregatik, espazio hau Natura 2000 Sarean sartu da, baita natura-ondarearen elementuen multzoan –geodibertsitatea barne dela–, jarduera ekonomikoen erabilera publikoarekin eta mantentzearekin bat etorriz, baldin eta horiek bateragarriak badira zaindu nahi diren balioekin.

Beraz, erabilera eta aprobetxamenduen antolamendu espezifikoa ezartzen du, bereizi diren zonetako bakoitzaren barruan –bai haien balio naturalengatik, kontserbazio-egoeragatik eta kalteberatasunagatik, baita bertan dauden erabilerengatik eta aurreikusitako joerengatik–, baina ez die erantzuten lurralde- zein urbanizatzeko-antolamenduko irizpideei.

2.– Natura-ondarearen gune babestuaren zonifikazioa Natura Baliabideak Antolatzeko Plan onartzen duen Dekretuaren I. eranskineko «Zonifikazioa» izeneko kartografian adierazitakoa da, eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituren Atariaren bisorean (GeoEuskadi) edo fitxategi digitalean kontsulta daiteke. Zonifikazioko kartografia horretan honako eremu hauek bereizi dira:

Zona	Azalera (ha)	NOGB osoarekiko azalera (%)
Erreserba integraleko zona	121,55	1,28
Babes bereziko zonak	369,38	3,90
Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio-zonak	8.062,29	85,03
Leheneratze ekologikoko zonak	43,35	0,46
Basogintza-produkzioko zonak	371,31	3,92
Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioko eta landazabaleko zonak	413,18	4,36
Ibai-sistema	95,58	1,01
Hiri-, ekipamendu- eta azpiegitura-zonak	5,29	0,06

23. artikulua.– Babes zona periferikoa.

Azaroaren 25eko Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko 9/2021 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Izki natura-ondarearen gune babestuko Babes zona periferikotzat definitzen da 100 metroko zabalerako babes-zerrenda, zabalera hori espazioaren kanpoko lerrotik neurtuta. Hori horrela da, Markinez eta Okina kontzejuen inguruetan eta Iztartza eta Berroziko finketan salbu. Horietan babes-zerrenda handiagoa da, Natura-ondarearen gune babestuaren osotasunerako duten balio ekologiko handiagatik. Babes zona periferiko horretatik baztertuta daude landaguneak.

2. SEKZIOA

ERRESERBA INTEGRALEKO ZONA

24. artikulua.– Definizioa.

Izki natura-ondarearen gunee babestuaren esparru bereziena barne hartzen du. Esparru horrek balio natural bikainak ditu, bakana izateagatik edo fauna nahiz flora basatia kontserbatzeko garrantzitsua izateagatik. Gainera, duen baso-dibertsitatea eta purutasuna direla-eta, haren bilakaera edo dinamika ezagutzeko ikertzen da. Bertan, gizakiaren esku-hartze minimoa onartzen da, haren egoera egokiari eusteko.

25. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua

Erreserba integraleko zonak 121,55 ha-ko azalerako esparrua hartzen du. Alkanduzko putzuaren inguruetan dago, Onura Publikoko Mendi (aurrerantzean OPM) hauetan: 218 (Sasuralde) eta 562 (Izkiz Alto).

Zona honek aparteko interes naturala du. Ametza (*Quercus pyrenaica*) nagusi den zuhaitz-geruza du, eta tamaina handiko aleak dira gehienak.

Bere baitan hartzen ditu okil ertainaren (*Dendrocopos medius*) dentsitate handienak Izkiren barruan, eta Bechstein saguzarraren (*Myotis bechsteinii*) banaketa-eremuaren zatirik handiena ere.

26. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Erreserba integraleko zonaren helburu nagusia da bertako balioak zorrotz babestea, eta bertako dinamika naturalaren jarraipena eta monitorizazioa egitea, kudeaketa organoaren eta ikerketan diharduten pertsonen esku-hartze bakararekin.

2.– Helburu orokor horrek honako helburu operatibo hauek eskatzen ditu:

2.1.– Balio handiko enklabe hauek babestea eta kontserbatzea, beren dinamika naturala bultzatuta, ahalik eta esku-hartze txikienarekin eta bertan eta inguruetan egiten diren jarduerak kontrolatuz.

2.2.– Kontserbazio-egoera egokian mantentzea ameztia eta zonako gainerako intereseko habitatak.

2.3.– Mantentzea edo hobetzea zonako habitatetan kontserbatzeko interesekotzat jotzen diren flora eta faunako espezieen populazioak eta banaketa.

2.4.– Analizatzea eta aztertzea dauden natura-ondareko elementuen eboluzio naturala.

2.5.– Paisaiaren elementu bereziak babestea eta kontserbatzea.

27. artikulua.– Erabilera-erregimen orokorra.

1.– Zona hau eboluzio naturalera zuzenduko da. Bertan, kontrolatu egingo dira egiten diren jarduerak, bertako elementuen eta berezitasun naturalen kontserbazioa bermatzeko.

2.– Debekatuta egongo dira berariaz baimenduta ez dauden jarduera guztiak, bereziki zona honi lotutako habitat eta espezieen kontserbazio-egoera okerragotzea dakartenak.

3.– Salbuespen gisa, kudeaketa organoak intentsitate baxuko jarduketak egin ahal izango ditu helburu bakar honekin: hobetzea habitatetan eta horiei lotutako azpiespezieen kontserbazio-egoera, edo geldiaraztea haien segurtasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak.

4.– Egiten diren intentsitate txikiko basogintza-jarduerak zuhaitz-masak birsortzera zuzenduko dira (mendibera berritzeak, mozketak sanitario kontrolatuak, eta abar), haien heldutasunaren garapen egokia eta egitura- eta funtzio-komplexutasuna ziurtatzeko.

5.– Baso-jarduerak egin ahal izango dira suteen aurka zaindu eta babesteko.

6.– Kudeaketa organoak tratamendu fitosanitarioak egin ahal izango ditu, habitaten kontserbazio-egoera hobetzeko xede bakarrarekin.

7.– Zonaren dinamika naturala areagotzeko asmoz, itxiturak egokitu eta iragazkortuko dira, fauna basatia bertara sartu ahal izateko.

8.– Zona honetan egiten diren jarduera zientifikoek, hezkuntzakoek eta ingurumen-dibulgaziokoek kudeaketa organoaren baimena eduki beharko dute, eta ez dute zonaren integritate ekologikoan eraginik izango.

9.– Baimendu ahal izango dira, halaber –aparteko arrazoiengatik– behar bezala justifikatutako jarduerak, baldin eta eraginik ez badute zona honetarako ezarritako helburuetan.

10.– Debekatuta dago zona honetako basoetatik egur hila ateratzea, baita baso-aprobetxamenduak, egur sortak eta biomasaren aprobetxamendua ere, tokiko hornidurarako bada ere.

3. SEKZIOA

BABES BEREZIKO ZONAK

28. artikulua.– Definizioa.

Izki natura-ondarearen gune babestuko lurraldeko eremuak dira, habitat naturalen edo espezie berezien edo oso mehatxatuen eta interes handiko beste elementuen lekukotza hoberenak biltzen dituztenak. Balio natural bikainak dituzten enklabeak dira, haien bakantasun edo berezitasunagatik, dituzten nolakotasun adierazgarri edo estetikoengatik eta fauna edo flora basatia kontserbatzeko garrantzitsuak izateagatik.

29. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua.

1.– 369,38 ha-ko azalera hartzen dute; hau da, Natura-ondarearen gune babestuaren azalera osoaren % 3,90. Zona hauetan biltzen dira jarraian adierazten diren Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitat eta espezie moten lekukotza hoberenak, eta geologia interesdun lekuak, Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko elementutzat hautatutakoak. Horiek xehetasunez deskribatzen dira Memoria II. eranskinaren 3.2, 4. eta 5. ataletan.

a) Harkaiztegi eta haitzuloetako habitatak. Interes bereziko lotutako flora eta fauna (hegazti errupikolak eta haitzuloetako eta antzeko inguruneetako kiropteroak).

b) Zona higroturbosoak, interes handiko habitatak eta flora- eta fauna-espezieak dituztenak (txilardi heze atlantikoak, zohikaztegiak, *Drosera intermedia*, *Primula farinosa*, *Rhynchospora fusca*, narrastiak, anfibioak, odonatuak, eta abar).

c) Baso naturalen eta erdinaturalen habitatak dituzten masak (ameztiak, erkameztiak, pagadiak, artadiak eta karraskak, gaztainondo, hagin, haltz eta sahatsen plantazio zaharrak). Lotutako flora eta fauna basatia (intsektu saproxilikoak, erropalozeroak, basoko hegaztiak, kiropteroak eta bestelako ugaztunak).

d) Txilardi, larre eta hareatzen habitatak. Lotutako interes bereziko flora eta fauna (ingurune irekietako abifauna, kiropteroak eta narrastiak).

e) Geologia interesdun lekuak.

2.– Hautatutako eremuak Izkiko enklabe hauetan daude:

a) Arluzekeo gailurrak. Kontserbazio- eta paisaia-interes handiko eremua, 107,25 ha-ko azalerakoa, Izkiko mendebaldeko muturrean dagoena, 273, 275, 276 eta 282 OPMetan. Eremua osatzen dute, batik bat, pagadi xerofiloek, erkameztiek, txilardi hezeek, ezpeldiek, larreek eta kareharrizko harkaiztegiek.

Harrapari errupikolek habiak egiteko eremu nagusietako bat da. Bertan, sarri agertzen dira arrano beltza, sai arrea, sai zuria, belatz handia eta belatxinga mokogorria.

Dagoen floraren baitan, *Potentilla fruticosa* da espezie nabariena. Natura-ondarearen gune babestuan, haren presentzia zona honetara mugatzen da.

b) La Muela eta Soila. Kontserbazio- eta paisaia-interes handiko eremua. Izkiko lekurik enblematikoa da. Gainera, La Muela geologia-interesdun lekua da, duen balio geomorfologikoagatik. Zona honek 51,46 ha-ko azalera hartzen du eta gune babestuaren hego-ekialdeko sektorean dago, OPM hauetan: 228, 230, 231, 254, 257, 388, 389, 390 eta 393.

Nagusiki, kareharrizko harkaiztegiek eta hartxingadiak osatzen dute, tartean direla erkameztiak, pagadi xerofiloak, artadiak eta karraskadiak, txilardiak eta belardiak.

Harrapari errupikolek habiak egiteko beste eremu nagusietako bat da. Bertan, aipatzekoa da honako hauek hazteko puntuen presentzia: sai zuria, belatz handia, belatxinga mokogorria, hontz handia eta sai arrea.

c) Izkiko sakana. Kontserbazio- eta paisaia-interes handiko eremua, 61,69 ha-ko azalerakoa, Izkiko hego-ekialdeko sektorean dagoena, 257, 388, 389, 390 eta 393 OPMetan.

Bere baitan hartzen ditu Batasunaren intereseko habitatak; hala nola erkameztiak, pagadi xerofiloak, ameztiak, ezpeldiak, kareharrizko harkaiztegiak edo hartxingadiak. Gainera, garrantzizko sektore bat da harrapari errupikolek habiak egiteko. Izan ere, sai arrea eta belatxinga mokogorria hazteko koloniak ditu.

d) Los Ríos. Kontserbazio- eta paisaia-interes handiko eremua, 75,13 ha-ko azalerakoa, Natura-ond) darearen gune babestuaren iparraldeko sektorean dagoena, 263, 264, 267, 273, 275, 282 eta 291 OPMetan.

Eremu hau osatzen dute, batez ere, erkameztiek, ameztiek, txilardi hezeek eta larreek. Oso eremu garrantzitsua da habitaten eta espezieen ikuspegitik.

e) Apinaizko haginadia. Kontserbazio-intereseko eremua, 26,55 ha-ko azalera duena. Gunearen iparraldeko sektorean dago, 261, 262, 266, 278, 279 eta 283 OPMetan. Izkiren barruan, haginadien Batasunaren intereseko habitataren ordezkari hoberena biltzen du, eta berritze ugaria du.

f) Durruma Kanpezuko urkidia. Kontserbazio-intereseko eremua, 4,02 ha-ko azalera duena. Izkiko hegoaldeko sektorean dago, 266 OPMan (Izki Behekoa). Gune babestuaren barruan, eskualdearen intereseko urkidi-habitataren ordezkari hoberena biltzen du (G1.91).

g) Apinaizko gaztainadia. Kontserbazio-, eta paisaia- eta kultura-intereseko eremua, 7,20 ha-ko azalerakoa, Natura-ondarearen gune babestuaren ekialdeko muturrean dagoena, 286 OPMan (Dehesa). Bere baitan hartzen ditu antzinako gaztainondo-plantazioak (9260). Horien jabeak Apinaizko herritarrak dira.

h) Garduntxaranako pagondo lepatuak. Kontserbazio- eta paisaia-intereseko eremua, 4,24 ha-ko azalerakoa, Izkiko iparraldeko sektorean dagoena, 263, 264 eta 291 OPMetan. Tamaina handiko pagondo lepatuen unada bat hartzen du bere baitan.

i) Parrako erkamezti lepatuak. Kontserbazio- eta paisaia-intereseko eremua, 9,82 ha-ko azalerakoa, gune babestuaren hego-ekialdeko muturrean dagoena, 232, 254 eta 259 OPMetan. Tamaina handiko erkametz lepatuen unada bat hartzen du bere baitan.

j) Maeztuko asfaltoen ustiatagia. Kontserbazio-intereseko eremua, 22,02 ha-ko azalerakoa, Natura-ondarearen gune babestuaren ekialdeko muturrean dagoena, 298 eta 294 OPMetan. «Asfaltos de Maeztu» geologia-interesdun lekua hartzen du bere baitan.

k) Babes bereziko zonatzat sartuta daude, orobat, eskalagatik edo arretaz ibili beharagatik kartografiatu ezin diren beste enklabe batzuk:

– Dagoeneko izendatutako eta etorkizunean izendatuko diren espezie nekrofagoen eremu kritikoak.

– Kontserbazio-eremu nabarmenduak, flora-espezie mehatxatuetakoak, dagoeneko izendatutakoak eta etorkizunean izendatzen direnak, dagokien babes-esparruarekin batera. Esparru hori 6.1 artikuluan adierazitakoa izango da.

– Kontserbazio-intereseko eremuak, «EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean» sartutako zohikaztegiak bere baitan hartzen dituztenak, gune babestuaren barruan, eta 6.1 artikuluan ezarritako babes-esparrua.

Zohikaztegi horiek bete baitan hartzen dituzten Batasunaren intereseko habitatak, hala nola txilardi hezeak (4020*), istinga azidofiloak-esfagnalak (7140), oso sakonune hezeak –*Drosera intermedia* eta *Rhynchospora fusca* (7150) dituztenak–, *Cladium mariscus* (7210*) espezieko istingak eta istinga basofiloak (7230).

Espezieei dagokienez, zona honetan daude zohikaztegi-inguruneei lotutako flora-espezieen populazioak, eta nabarmentzekoa da *Rhynchospora fusca* espeziearen populazioa. Hain zuzen, espezie horrek du, Izkin, Iberiar penintsulako populaziorik handiena.

Hona zona honetan dauden zohikaztegiak:

- B1A1_01 – B1A1-54: Arrizuloko Zohikaztegiak eta Bernedoko beste Istringa batzuk.
- B1A6_01 – B1A6_46: Arraia-Maeztuko istingak.
- B1A7_01 – B1A7_09: Kanpezuko istingak.
- B1A8_01 – B1A8_09: Kapilduiko Istringak (Los Ríos zona eta bestelakoak).

Zona heze bakoitzerako babes-esparru bat ezartzen ez den bitartean, babes-esparrua 6.1 artikuluan adierazitakoa izango da.

– Antoñanako hagina eta Antoñanako ezkia monumentu naturalak, baita 10 m-ko babes-esparrua horien inguruan.

– Ondare kulturalaren, arkeologikoaren eta paleontologikoaren elementuak, eta horien babes-esparrua (esparru hori osatzen du 50 m-ko erradioko zirkulua babesaren xede den elementuaren inguruan). Horrela eraturitako espazioek izen hau hartzen dute: «Ondare arkeologikoa eta paleontologikoa babesteko zonak».

– Turismoak ustiatu gabeko haitzuloak (8310), beste zona batzuetan sartutakoak eta eskalaren arrazoiagatik kartografiatu ezin direnak.

30. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Babes bereziko zonetarako kontserbazio-helburu orokorra da haien dinamika orokorra sustatzea, gizakiaren ahalik eta esku-hartze txikienarekin, eta haien balioak osorik babestu eta kontserbatzea (lehentasunez, beste erabilera batzuen aurrean), haien inguruan egiten diren jarduerak kontrolatuz eta haien eboluzio naturalaren jarraipena eginez.

2.– Helburu orokor horrek honako helburu operatibo hauek eskatzen ditu:

2.1.– Habitat higroturbosoetako mosaikoen kontserbazio-egoera egokiari eustea edo lortzea.

2.2.– Txilardi heze atlantikoak 4020* habitataren kontserbazio-egoera eta funtzio ekologikoak hobetzea (txilardi heze atlantikoak).

2.3.– Zohikaztegi-giroko flora-espezie guztien populazioen banaketa-eremua mantentzea edo hobetzea, eta horiek ezagutzera ematea.

2.4.– Abelburuek hagin birsortze naturalaren gainean duten presio negatiboa ezabatzea, eta horrekin hagin-basoen adin-egitura hobetzea nahiz hedadura areagotzea.

2.5.– Mantentzea eta, hala badagokio, hobetzea harkaitztegietako eta antzeko inguruneetako habitatei lotutako flora espezieen banaketa ezaguna, baita horiek dituzten populazio-efektiboak ere.

2.6.– Jarraitutasuna ematea harrapari errupikolak eta horien habiak egiteko eta bizitzeko eremuak kontserbatzera bideratuta dagoen egungo kudeaketari.

2.7.– Ezagutzea Izkin kontserbatzeko interes handiena duten kiroptero harpetarren eta antropiloen banaketa eta populazio-eboluzioa, eta zorrotz kontserbatzea haien habitata.

2.8.– Izkin eta bertako Babes zona periferikoan dauden geologia-interesdun lekuen garrantziari buruzko ezagutza hobetzea, eta horiek baliaraztea eta hedatzea.

2.9.– Baliabide didaktiko gisa, sustatzea asfalto-harrobiaren eta meatzearen erabilera, eta harkaitz-azaleratzeak behatze-egoera egokian mantentzea.

2.10.– Babestea eta kontserbatzea paisaiaren elementu bereziak eta ondare arkeologikoa eta paleontologikoa.

31. artikulua.– Erabileren erregimen orokorra.

1.– Zona hauek bertako baliabide eta berezitasun naturalak kontserbatu eta babestera zuzentzen dira, eta, horretarako, kontrol zorrotza egingo da beren baitan eta inguruan egiten diren jardueren gainean. Flora eta fauna basatia edo ondare naturalaren bestelako elementuak babesteko beharrezkotzat jotzen denean, mugarriak edo markaketak egingo dira, eta, beharrezkoa balitz, hesiak jarriko dira haiek banatuta dauden zonetan edo enklabeetan.

2.– Bertan dauden natura-ondareko habitatak, espezieak eta gainerako elementuak –eta horien berezitasunak– kontserbatu eta babesteko asmoz, zona hauetan, erabilera nagusia adierazitako elementuen kontserbazio-egoera hobetzeko jardunak izango dira, eta baita bertako ahalbide didaktikoen aprobetxamendua ere.

3.– Kudeaketa organoak aukera izango du espazioan kontserbatu beharreko elementuak kontserbatu eta leheneratzeko jarduketak planteatzeko. Horren helburu bakarra izango da espazioari lotutako habitaten eta bertako espezieen kontserbazio-egoera hobetzea eta horien segurtasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiaraztea.

4.– EKZPak jaso egin beharko ditu 4020* habitataren («txilardi heze atlantikoak») azalera handiagotzeko jarduketak, baita eremuen arteko konektagarritasuna lortzekoak ere. Hortaz, zentratu egingo da komunitateak okupatutako hedadura eta horren dentsitateak nolabaiteko garrantzizko eremuak erraz leheneratzea ahalbidetuko duten gunetan.

5.– Debekatuta egongo dira zona honi lotutako habitat eta espezieen kontserbazio-egoera okerragotzea dakarten jarduera guztiak.

6.– Kudeaketa organoak salbuespen gisa baimendutako jarduerak egin ahal izango dira, baldin eta horiek zona hauetarako ezarritako helburuen aurkakoak ez badira.

7.– Inguruabar berezietan, hots, jarduera batek zona horretako helburuen gainean eragin kaltegarriak sor ditzakeenean, kudeaketa organoak aisialdiko jarduera hori arautu ahal izango du, bertan dauden intereseko elementuen kontserbazio-beharren arabera.

32. artikulua.– Basogintza-erabilerak.

1.– Gutxienez, baso autoktonoko egungo masei eutsiko zaie eta basogintzako esku-hartzeak masa horien egitura eta funtzioak hobetzera zuzenduko dira.

2.– Zona horietan gaur egun zuhaitzik ez duten lursailek, haien maldagatik edo higagarritasunagatik, zuhaitz-estaldura iraunkorra behar badute, espezie autoktonoak izango dira basoberritzeetan erabiliko diren espezieen % 100. Titulartasun publikoko basoetan, espezie aloktonoko plantazioak dituzten lursailetan basoberritzeak egin behar izanez gero, espezie autoktonoak izango dira erabiliko diren espezieen % 100.

3.– Baso-jarduerak egin ahal izango dira suteen aurkako zaintzarako eta babeserako.

4.– Debekatuta dago zona horretako basoetatik egur hila ateratzea, baita baso-aprobetxamenduak, egur sortak eta biomasaren aprobetxamendua ere, tokiko hornidurarako bada ere.

33. artikulua.– Abeltzaintza-erabilerak.

1.– Abeltzaintza baimenduko da, baldin eta ez badu arriskuan jartzen natura-ondareko elementuen edo prozesu ekologikoen kontserbazio-egoera, eta, betiere, EKZPak eta, hala badagokio, Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralak arautzen dutenaren arabera. Kontserbazio-egoeragatik erabilera hori murriztea komeni zaien harkaiztegiak (8210), hartxingadiak (8130), lapiazak eta zona hezeak salbuetsiko dira erabilera horretatik. Kudeaketa organoak zehaztuko ditu horiek, eta beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartuko ditu.

2.– Abeltzaintza debekatuta dago basoa birsortzeko zonetan edo kudeaketa organoak ezarritako zonetan, betiere EKZPak eta, hala badagokio, Izkiko Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integralak arautzen dutenaren arabera.

3.– Debekatuta dago lurra lantzea edo bazkaleku berriak sortzea.

34. artikulua.– Azpiegituren erabilera.

Egungo pistak mantentzeko lanak baimentzen dira, baina zona horietan kontserbatu beharreko habitaten eta espezie basatien kontserbazio-egoera arriskuan ez jartzeko beharrezkoak diren mugekin.

35. artikulua.– Erabilera publikoa.

1.– Babes bereziko zonak erabilera publiko mugatuko eremu gisa hartuko dira Izkiko Erabilera Publikoko Planak egingo duen Natura-ondarearen gune babestuaren sektoreko sailkapenean.

Zenbait murrizketa barnean hartzen dituen erabilera publikoa joko da erabilera publiko mugatutzat. Kasu honetan, kudeaketa organoa arduratuko da bidezko erabilerak baimentzeaz.

2.– Debekatuta dago Arluzeako errotaren sakanetik doan ibilbidea balizatzea eta publizitatea egitea.

3.– Zona horretan egiten diren jarduera zientifikoek, hezkuntzakoek eta ingurumen-dibulgaziokoek kudeaketa organoaren baimena eduki beharko dute, eta ez dute zonaren integritate ekologikoan eraginik izango.

4. SEKZIOA

BASOGINTZA- ETA ABELTZAINZA-ERABILERA ESTENTSIBOKO KONTSERBAZIO-ZONAK

36. artikulua.– Definizioa.

Zona horietakoak izango dira baso autoktonoak, larreak eta txilardiak, baita gutxi aldatu diren ekosistema naturalak edo ekosistema erdinaturalak, intentsitate txikiko basogintza-aprobetxamenduen mende daudenak edo kontserbazio-egoera egokiarekin bateragarria izan daitekeen abeltzaintza-erabilera kontrolatua dutenak.

Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera, hots, nekazaritzako eta basogintzako azalerek ematen dituzten ondasunak eta zerbitzuak baliatzera zuzentzen den jarduera multzoa, Izkiko tradizioaren eta kulturaren parte da.

37. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua.

1.– Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio-zonetan sartzen dira baso naturaleko eta erdinaturaleko eremu handiak eta larre-zonak, batez ere honako interes komunitarioko habitat hauekin bat datozenak: ameztia (9230), erkameztia (9240), pagadia (9120 eta 9150), artadia eta garriga (9340), hagin-basoa (9580*), txilardi lehor azidofiloa (4030), genistak dituen txilardi kaltzikola (4090), ezpeldia (5110), orkideak dituen eta ez dituen larre mesofiloa (6210 eta 6210*), *Brachypodium retusum* espezieko larre xerofiloak (6020*) eta belardi menditarra (6230*).

Era berean, zona horietan Batasunaren intereseko beste habitat batzuk ere aipatzen dira, hala nola haltzadiak (91E0*) edo kareharrizko harkaiztegiak (8210), baita presentzia minimoa edo testimoniala duten beste batzuk ere (gaztainondo-plantazio zaharrak, 9260; landaredi anfibia duten denboraldiko urmaelak, 3170*; eta abar).

Hauek dira habitat hauekin lotzen diren eta Batasuneko edo eskualdeko interesa duten espezie multzoak:

a) Flora: baso-inguruneekin, larreekin eta txilardiekin lotzen diren espezieak.

b) Fauna: baso-inguruneekin eta ingurune irekiekin lotzen diren espezieak (koleoptero saproxilikoak, basoko eta ingurune irekietako hegazti harrapariak, okilak, baso-kiropteroak, eta abar).

Zona horrek 8.062,29 ha azalera hartzen du, Natura-ondarearen gune babestu osoaren % 85,03 baino zertxobait gehiago.

38. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Zona horien helburu orokorra da habitat naturalak eta erdinaturalak eta habitat horiekin lotzen diren espezieak babestea eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, eta baita, aldi berean, tokiko komunitateen garapen sozioekonomikoarekin lotzen diren produktu naturalen eta zerbitzuen fluxu jasagarria sortzea eta erakargarritasun handiko eta balio estetiko handiko paisaia mantentzea.

Basogintzako eta abeltzaintzako aprobetxamenduek ez dute arriskuan jarri behar lekuaren izendapena eragin duten flora- eta fauna-espezieak mantentzea, ezta horien integritate ekologikoa ere. Horrez gain, baso-kudeaketa jasangarria Izkiren biodibertsitatea hobetzera zuzendu beharko da.

2.– Helburu orokor horrek honako helburu operatibo hauek eskatzen ditu:

2.1.– Izkin, ameztiaren eta larre- eta txilardi-habitaten banaketa-eremuaren kontserbazio-egoera onari eustea eta horien ezagutza hobetzea.

2.2.– Gune babestuko ameztietan eta pagadietan estratifikazioa, dibertsitate espezifikoa, egur hilaren presentzia eta bestelako egitura-balioak eta balio funtzionalak gehitzea.

2.3.– Baso-habitatetan eta larreetan eta sastrakadietan kontserbazio-interesekotzat jotzen diren flora- eta fauna-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea edo mantentzea, eta horien dibertsitatea kontserbatzearen garrantzia ezagutaraztea.

2.4.– Izkiko ondare naturalaren kontserbazioarekin bateragarriak diren edo lagungarriak diren baso-larregintzako eta basogintzako aprobetxamenduen aukerak harmonizatzea eta hobetzea, produktibitate ekonomikoa, eskualdearen nortasuna eta Izkiko eta inguruneko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko bide gisa.

2.5.– Habitatetan eta dagokien espezie mehatxatuen kontserbazio-egoera egokiarekin bateragarriak diren abeltzaintza kudeatzeko jarraibideak ezartzea, larratze estentsiboa antolatuta.

2.6.– *Halimium lasianthum* espeziearen *alyssoides* azpiespeziea garatzen den sastrakadi-azalerari eustea.

2.7.– Artzantzan eta abeltzaintzan diharduten pertsonen bizi-baldintzak hobetzea.

39. artikulua.– Basogintza-erabilerak.

1.– Batasunaren eta eskualdearen interesa duten baso-habitataren eta bertako espezieen kontserbazio-egoera egokia lortzearen mende dago basogintza-erabilera estentsiboa –horietarako funtsezko espazioa da Izki–.

2.– Baso, larre eta txilardi naturalen eta erdinaturalen kontserbazio-egoera hobetzeko basogintza-jardunak baimentzen dira. Horretarako, eta egokia dela uste bada, baso garai irregular bihurtzea bilatuko da, ahalik eta dibertsitate estruktural eta espezifikorik handiena bultzatuz, hazi bidezko birsorkuntza naturala sustatuz, erorita eta zutik dagoen egur hilaren presentzia bultzatuz eta dimentsio handia duten zuhaitz bereziak edo kontserbatu nahi diren fauna-espezieetarako funtsezkoak diren zuhaitz bereziak desager daitezzen saihestuz.

3.– Gutxienez egungo baso autoktonoko masak mantenduko dira, eta baso horiek zona horretan hartzen duten azalera gehitzera joko da, batik bat titulartasun publikoko baso-lursailetan.

4.– Baso-aprobetxamendu planifikatuak baimenduko dira –aprobetxamendu-metodoa baso-soilketa ez bada–, baita egur sortak ere –zuhaitz-masaren heldutasun eta konplexutasun estrukturalaren garapen egokia bermatzen bada–. Baso-aprobetxamenduak eta egur sortak ez dira baimenduko zona hauetan ezarriko diren seneszentzia unadetan edo mikroerreserbetan.

5.– Zona horietan gaur egun zuhaitzik ez duten lursailek, haien maldagatik edo higagarritasunagatik, zuhaitz-estaldura iraunkorra behar badute, soilik espezie autoktonoak erabiliko dira titulartasun publikoko basoetako etorkizuneko basoberritzeetan, eta zuhaitz-espezieen % 100 autoktonoak izango dira.

6.– Lurzoruan erorita dagoen egur hila atera ahal izango da kudeaketa organoaren baimenarekin, baina soilik norberaren kontsumorako egur gisa eta Batasunaren intereseko habitaten kontserbazioa arriskuan jarri gabe eta habitat horiekin lotzen diren flora- eta fauna-espezieen kontserbazioa arriskuan jarri gabe.

7.– Zuhaitz-masa nagusian txertatuta dauden habitat txikiak, hala nola soilguneak, zona hezeak, zohikaztegiak eta zingiradiak egoera egokian mantenduko dira, arrainen, anfibioen eta intsektuen, besteak beste, ugalketa-zikloan betetzen duten funtzioa betetzea ahalbidetzeko.

8.– Baso-baliabideak antolatzekeo planak, basoak antolatzekeo proiektuak edo zuhaitz-masa horien plan dasokratikoak prestatzekeo eta onartzeko eskumena duen organoak honako helburu hauek txertatuko ditu, titulartasun publikoko basoetan biodibertsitatea gehitzekeo eta baso-giroko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzekeo helburuarekin:

a) Ingurune naturalaren kontserbazio- eta jasangarritasun-irizpideetan oinarritutako baso-kudeaketa indartzea.

b) Batasunaren intereseko habitat diren baso-masa naturalen dibertsitatea eta konplexutasun estrukturala areagotzekeo neurriak hartzea.

c) Egur hilaren bolumena gehitzea, dimentsio eta egoera guztietan (zutik eta lurzoruan erorita dagoena).

9.– Baso-baliabideak antolatzekeo planak, basoak antolatzekeo proiektuak edo plan dasokratikoak prestatzekeo eta onartzeko eskumena duen organoak honako aurreikuspen hauek txertatuko ditu, titulartasun publikoko basoetan biodibertsitatea gehitzekeo eta baso-giroko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzekeo:

a) Kudeaketa organoarekin koordinatuta, kontserbatu beharreko espezieetarako edo komunitateetarako sektore kritikoak identifikatzea (urtero espezie batek espeziearen populazioari eusteko garrantzia duen bere ziklo biologikoaren ezinbesteko zati bat garatzen duen mendi-zona joko da sektore kritikotzat).

b) Sektore kritiko horietan egin beharreko basogintza-lanak espezie horien egutegira moldatzea, hegazti-espezie babestuen eta zuhaitz-kiropteroen aldi kritikoetan eraginik ez izatekeo, kudeaketa organoaren baimena denean izan ezik –baimena eman aurretik ziurtatuko du ez dela eraginik izango kontserbatu beharreko elementuetan–.

40. artikulua.– Abeltzaintza-erabilerak.

1.– Erabilera egokia txilardi eta larre naturalen eta erdinaturalen kontserbazio-egoera hobetzekeo jardunekin lotzen da. Erabilera horrek ziurtatu beharko du ingurumen-balioen zaintzarekin bateragarria dela, eta, horretarako, mosaiko irregularreko izaera mantentzen dela, ingurumen-ikuspuntutik enklaberik sentikorrenak zaintzen direla (zona hezeak, txilardi hezeak, flora- eta fauna-espezie mehatxatuarentzako intereseko enklabeak, eta abar) eta paisaiaren dibertsifikaziorako eta biodibertsitaterako lagungarriak diren ingurunekeo elementuak zaintzen direla (palaxuak eta zuhaitzi naturalak, harrizko hormak, eta abar).

2.– Natura-ondarearen gunen babestuaren kudeaketan, *Halimium lasianthum* espeziekeo *alyssoides* azpiespeziea duten sastrakadi-eremuak zainduko dira, hedadura izan daitezkeen aldaketei erreparatuta –basoaren aurrerapenaren ondoriozko aldaketak izan zein hurbilekeo laboreen inbasioaren ondoriozko aldaketak izan–.

3.– Abeltzaintza estentsiboa baimentzen da, dokumentu honetan ezartzen diren baldintzetan edo kudeaketa organoak arautzen dituen bestelakeo baldintzetan, betiere abeltzaintza-presioa ingurune naturalaren karga-ahalmenera egokitzen bada, gehiegizkeo edo gutxiegi diren larratze-egoerak saihestuz.

4.– Larreak hobetzeko jardunak baimentzen dira, dokumentu honetan ezarritako baldintzetan edo kudeaketa organoak zehazten dituen bestelako baldintzetan, betiere kontserbatu beharreko elementuen kontserbazio-egoera arriskuan jarri gabe.

5.– Debekatuta dago laboratzea edo bazkaleku berriak sortzea.

5. SEKZIOA

LEHENERATZE EKOLOGIKOKO ZONAK

41. artikulua.– Definizioa.

Egungo erabileraren ondorioz balio ekologikoak, paisajistikoak edo kulturalak murriztuta dituzten eta ageriko aldaketak edo narriadurak jasan dituzten Izkiko zona degradatuak hartzen ditu barnean. Ingurunearen degradazio-arrisku handiko zonak edo, haien kokaleku edo ezaugarri topografikoaren ondorioz, lurzorua galtzeko arrisku handiko zonak hartzen dira barnean, baita basogintza-erabilera estentsiboek habitat naturalen eta espezie basatien aberastasun potentziala nabarmen murriztu duten eremuak ere.

42. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua.

1.– 43,35 ha-ko azalera duen esparru bat da eta Natura-ondarearen gune babestu osoaren % 0,46 hartzen du.

2.– Zona horren barnean sartzten dira *Quercus rubra* espezieko plantazioak, *Pinus nigra* espezieko plantazioak, koniferoen plantazio mistoak eta koniferoen plantazio gazteak, Batasunaren interesa duten bigarren mailako habitateko erkameztiekin (9230), baita koniferoen eta hostozabalen plantazio gazte mistoak ere. Plantazio horiek 218, 254, 257, 561, 562, 563 eta 564 zenbakiko onura publiko mendietan kokatzen dira.

Barnean hartzen dira, era berean, Olandina aintziraren alboko nekazaritza-finkak. Titulartasun pribatua duten finka horien helburu nagusia da alboko basoa aintzira horretako ur-bazterreko landarediarekin konektatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoaren arabera zein dokumentu honetan barnean hartzen diren erregulazioetan ezartzen denaren arabera.

Azkenik, Dorronda ingurunean abeltzaintza-aprobetxamendu desegoki baten ondoriozko edo gehiegizko larreratzearen ondoriozko eremurik narriatuenak ere barnean hartzen dira, nahiz eta eremu horiek ez diren kartografiatzen, eremu horien mugaketa lausoaren eraginez.

43. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Zona horretako helburu orokorrak dira:

1.1.– Funtzionaltasun ekologikoa eta zerbitzu ekosistemikoak leheneratzea, hala nola lurzoruen birsorkuntza eta kontserbazioa, higaduraren aurkako borroka, baliabide hidrikoen harrera, babesa eta kontserbazioa, basafauna eta basafloa babestea, oreka ekologikoei eustea eta dibertsitate genetikoa zaintzea.

1.2.– Modu naturalean birsortzeko gauza diren espezie autoktonoek okupatutako azalera globalaren gehikuntza erraztea.

2.– Helburu orokor horiek honako helburu operatibo hauek eskatzen dituzte:

2.1.– Baso-masen arteko konektagarritasuna sustatzea.

2.2.– Batasunaren intereseko habitaten garapena sustatzea eta masen arteko zatiketa saihestea.

44. artikulua.– Erabileren erregimen orokorra.

1.– Natura-ondarearen gune babestuaren barruan dauden Olandinako urmaelaren ondoko nekazaritza-lurretan, dagoen hariztia modu naturalean eboluzionatzen utziko da, batetik hura berreskuratzeko eta, bestetik, hezegune hori errepidearen ubidearekin eta inguruko zuhaitziekin komunikatuko duten landare-korridoreak eratzeko.

2.– EKZPak Dorronda aldeko ekologia- eta paisaia-egoerak berrezartzeko leheneratze-neurri egokiak jaso beharko ditu.

3.– Gutxienez, baso autoktonoen egungo masak mantenduko dira, eta baso horiek eremu horietan hartzen duten azalera handitzera joko da. Era berean, bertako egitura eta funtzioak hobetzeko neurriak hartuko dira, tokian dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioa eta bilakaera naturala bultzatuz.

4.– Kudeaketa organoak baso-lurzoruak babesteko eta kontserbatzeko, uhar-bideak zuzentzeko eta lurzoru ezegonkorak finkatzeko beharrezkoak diren defentsa- eta leheneratze-neurriak hartuko ditu. Jarduketa horiek garatzen dituzten proiektuak onartzeko izapidean, administrazio hidrauliko eskuduna eta eragindako mendien eta lurren titularrak hartu beharko dira kontuan.

5.– Gaur egun zuhaitzik gabeko edo koniferoek okupatutako titulartasun publikoko mendietan, erabili beharreko hostozabal autoktonoen portzentajea % 100ekoa izango da, bai estalkipeko baso-berritzeetan, bai aparteko arrazoiengatik zuhaitz-estalkia desagertzen bada eta beste birpopulatzemota bat baimentzen bada. Zuhaitz-espezie autoktonoen azaleratzat hartu ahal izango da birsortze aurreratuak (DK 5 edo hortik gorakoa) eta espezie horien zuhaitzi txikiek okupatutakoa. Eremu honetan, espezie aloktono ez-inbaditzaileen lehen birpopulaketak baimendu ahal izango dira, birsortzearen edo hostozabal autoktonoen landaketa berrien trantsizioa eta finkatzea errazteko helburu bakarrarekin. Horretarako erabiliko diren landaketa-tarteak eta landaketen kudeaketa egokituko dira, eta kudeaketa organoaren aldeko txostena izan beharko dute.

6.– Baso-baliabideak antolatzeke planek eta mendiak antolatzeke proiektuek edo zuhaitz-masa horien plan dasokratikoek 38.9 artikuluan adierazitako irizpideak bete beharko dituzte.

7.– Espezie aloktonoen birpopulatzeeetatik egurra ateratzeko, mozketak selektiboak egingo dira, aprobetxatuko den masaren azpian jaiotako zuhaitzak errespetatuz.

8.– Debekatuta dago abereak sartzea birsortzen eta birpopulatzeko ari diren eremuetan, salbu eta zona hauetan baso-artzaintzarako erabiltzen diren kokaguneetan; birpopulatzeko horietan, zuhaitz-landareen espezieak animaliek kimatze bidez aprobetxatzeko modukoak izango dira.

6. SEKZIOA

BASOGINTZA-PRODUKZIOKO ZONAK

45. artikulua.– Definizioa.

Ekoizpen-balio ertain edo handiko baso-landaketak dituzten eremuak dira.

46. artikulua.– Deskribapena eta kokapena.

Eremu horiek 371,31 ha hartzen dituzte, hau da, Natura-ondarearen gune babestuaren % 3,92.

Honako baso-landaketa mota hauek sartzen dira: makaldiak; fruta-arbolen landaketak; *Pinus sylvestris* eta *Pinus nigra* landaketak; *Chamaecyparis lawsoniana*, *Pseudotsuga* eta *Picea sp* landaketak; konifero mistoen landaketak eta konifero gazteen landaketak.

47. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Zona hauen helburu orokorra baso-lurren ekoizpen-ahalmenari eustea da, antolatutako baso-jarduerek espazioaren naturaltasuna murriztu arren, horren osotasun ekologikoa arriskuan jarri barik.

2.– Helburu orokor horrek helburu operatibo hauek eskatzen ditu.

2.1.– Ingurunearen kalitatea zaintzea.

2.2.– Baso-landaketen aprobetxamendua eta Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitaten kontserbazio-egoera ona bateragarri egitea.

48. artikulua.– Baso-erabilerak.

1.– Baso-aprobetxamenduak baimenduko dira Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honetan ezarritako natura-ondarearen elementuak kontserbatzeko helburu eta irizpideekin bateragarriak diren jardunbideak erabiliz.

2.– Baso-aprobetxamenduetan, landaredi autoktonoa eta horrekin batera doazen zuhaixka- eta zuhaitz-espezieak errespetatuko dira, bereziki hezegune, zingira, ibarbide eta ibaiertz inguruetan. Horretarako, habitat mota horiekin muga egiten duten aprobetxamenduen kasuan, mozteko baimenek bereziki murriztailea izan beharko dute; izan ere, mugak ezarriko dira makineria igarotzeko eta landaketa berrietan zuloak egiteko.

3.– Mozteko baimenak emateko, irizpide teknikoak, ekologikoak, ekonomikoak eta paisaiari lotuak hartuko dira kontuan, eta bereziki babestuko dira baso-landaketa aloktonoen barruan kokatutako hostozabalen unadak eta kontserbatu beharreko fauna- eta flora-espezieak, masa autoktonoetan zein aloktonoetan.

4.– Ezin izango da erabilerak aldatzeko jarduerarik egin, baldin eta % 30etik gorako maldetan dauden lursailak soilteza badakarte.

5.– 13. artikulua 14. apartatua aplikatu behar da, baso-aprobetxamenduetan ibaiertzeko habitatak babesteari buruzkoa.

6.– Debekatuta dago zuhaitz-masaren azalera galtzea; hala, mozketa ondoen, eragindako azalera birpopulatu egingo dira. Titulartasun publikoko mendietan, baso-berritzeetan, zuhaitz-espezie autoktonoak erabiliko dira % 100ean. Mendi pribatuetan, berriz, portzentajea ez da % 25 baino txikiagoa izango. Zuhaitz-espezie autoktonoen azaleratzat hartu ahal izango da birsortze aurreratuak (DK 5 edo hortik gorakoa) eta espezie horien zuhaitzi txiekiek okupatutakoa. Zuhaitzik gabeko lursailetan basoberritutako azalera zuhaitz-espezie autoktonoekin egin beharko da % 100ean. Eremu horretan, espezie aloktono ez-inbaditzaileen lehen birpopulaketak baimendu ahal izango dira, birsortzearen edo hostozabal autoktonoen landaketa berrien trantsizioa eta finkapena errazteko helburu bakarrarekin. Horretarako erabiliko diren landaketa-tarteak eta landaketen kudeaketa egokituak dira, eta kudeaketa organoaren aldeko txostena izan beharko dute.

7.– EKZPak Natura-ondarearen gune babestuaren barruko lurretan egin beharreko baso- eta birpopulatu-lanetarako dirulaguntzen araubidearen berezitasunak erregulatuko ditu, jabeak animatzeko beren mendiak birpopulatzera eta egoera onean kontserbatzera. Erregulazio horrek jarraibide eta irizpide hauek beteko ditu:

7.1.– Landaketa garaikideko lursail handietan, lehentasuna izango dute jabeekin egindako akordioek, horiek beren mendiak kudeatzeko planak egin ditzaten; plan horietan, kontuan hartuko da espezie bakoitzaren banaketa egokiena, eta horiei aplikatuko zaizkie EKZPea eta sektoreko legerian ezarritako laguntzak.

7.2.– Arrazoi fisikoengatik, ekologikoengatik edo paisaiagatik babes berezia behar duten eremuetan, ahal dela, espezie autoktonoen erabilera-ehunekoak derrigorrezko gutxienekoak baino handiagoak izango dira, jabeekin ados jarrita.

7.3.– Baso-ustiattegietan ingurunean eragin txikia duten teknikak erabiltzea bultzatu eta diruz lagunduko da.

49. artikulua.– Abeltzaintzako erabilerak.

Artzaintza estentsiboa baimentzen da dokumentu honetan ezarritako baldintzetan edo kudeaketa organoak zehaztutako beste batzuetan.

7. SEKZIOA

NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-PRODUKZIOKO ETA LANDAZABALEKO ZONAK

50. artikulua.– Definizioa.

Eremu luberrituak dira, lehorreko laboreek edo labore ureztatuak, baratzeak eta lursail hareatsu biluziek, lugorrian daudenek edo utzi berriek okupatzen dituztenak.

51. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua.

Zona horiek 413,18 ha-ko azalera hartzen dute, hau da, Izki natura-ondarearen gunee babestuaren % 4,36.

52. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Zona horietan helburu orokorra da lurzoruen gaitasun agrologikoari eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueri eustea, eta, aldi berean, nekazaritza-paisaia babestea eta kontserbaziorako balioa duten habitatak eta espezieak egon daitezkeen ekosistemak babestea.

2.– Helburu orokor horiek honako helburu operatibo hauek eskatzen dituzte:

2.1.– Erabileren aniztasuna mantentzea, habitaten eta paisaien dibertsitatea babestuz.

2.2.– Ingurunearen kalitatea kontserbatzea.

2.3.– Nekazaritza-aprobetxamendua bateragarri egitea Batasunaren edo eskualdearen intereseko zona horretako habitaten kontserbazio-egoera onarekin.

2.4.– Nekazaritza-erabilera intentsiboa antolatzea, Natura-ondarearen gunee babestuaren integritate ekologikoa arriskuan jarri gabe.

53. artikulua.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak.

1.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerekin lotzen den mendiko zonen barietate paisajistiko bereizgarria kontserbatuko da: palaxu biziak, zuhaitziak, harrizko hormak, belardiak eta abar, kudeaketa organoak horiek kentzea baimentzen duenean izan ezik.

2.– Nekazaritza-aprobetxamenduak baimenduko dira, betiere NBAP honetan ezarritako natura-ondareko elementuen kontserbazio-helburuekin eta -irizpideekin bateragarriak diren jardunbideak erabiliz.

3.– Larratzea baimenduko da, luberritzeetan izan ezik, non aprobetxamendu horrek kudeaketa organoaren baimena eduki beharko duen –kudeaketa organoak zehaztuko ditu larratzearen baldintzak–.

54. artikulua.– Azpiegituren erabilera.

Egungo abeltzaintzako ustiapenekin lotzen diren oin berriko eraikuntzak, zabaltzeak edo erreformak baimenduko dira, betiere hirigintza-araudiaren arabera. Era berean, Abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren I. eranskinean jasotzen diren baldintza eta arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak bete beharko dituzte, baita Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honetan ezarritakoak ere, murriztaileagoak direnean.

8 SEKZIOA

IBAI-SISTEMA

55. artikulua.– Definizioa.

Ibai-sisteman barnean hartzen dira: Natura-ondarearen gune babestua gurutzatzen duen ibai-sare nagusia, salbuetsita interes berezia izateagatik beste babes-kategoria batzuen barnean hartu diren tarteak; bi ertzetako babes-zerrendak, ibilguaren muntaren araberrako zabalera aldakorra dutenak; eta intereseko hezeguneak. Ibai-sistema lehen mailako korridore ekologikoa da espezieen mugimenduetarako, hedapenerako eta migrazioarako, baita populazioen arteko truke genetikorako ere.

56. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua.

1.– EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala aplikatzeko ondorioetarako, Natura-ondarearen gune babestuaren esparruaren osotasuna hartuko da Lehenetsuneko Interes Naturalistiko Zonatzat. Bestalde, Ibai Sistema gisa mugatutako esparrua izango da plan horren D.2. atalean definitutako babes-eremua.

2.– Izki ibaiak eta El Molino errekek, edo Markinez ibaiak, definitzen dute ibai-sare nagusia. Sare nagusi horri gehitu behar zaio ibai-ibilguei dagokien babes-zerrenda. Babes-zerrenda hori 30 metrokoa izango da $10 < C \leq 100$ Km²-ko isuri-arroa duten tarteetan, 15 metrokoa izango da $1 < C \leq 10$ Km²-ko isuri-arroa duten erreketan eta 5 metrokoa izango da < 1 Km²-ko isuri-arroa duten ibai-ibilguetan edo jariatzeetan. Guztira 95,58 ha-ko azalera hartzen du, hau da, babesguneko azaleraren % 1,01.

3.– Ibai-sistema definitzen duten parametroen eta zonifikazio-kartografiaren artean desadostasunak badaude, artikulua honen deskribapena nagusitzen da.

4.– Ibai-sareaz gain, barnean hartzen dira Batasunaren Intereseko Habitaten banaketa-eremuak, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (91E0*) espezieetako ibarbasoak eta *Salix alba* eta *Populus alba* (92A0) espezieetako galeria-basoak; aurreko eremuetatik kanpo geratzen dira horiek.

5.– Azkenik, zona horretan hezegune hauek ere barnean hartzen dira: Apellanizko baltsa (EA1), Korresko presa (EA5), Quintanako ureztapen-baltsak (FA35_01 eta FA35_03 artean), Urturiko ureztapen-baltsak (FA36_01 eta FA36_02), Izkiko putzuak (GA19_01 eta GA19_11 artean) eta Olandinako aintzira (B6A1) –hauek guztiak sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean–, baita denboraldiko urmael mediterraneoan HIC 3170* banaketa-eremuak ere.

57. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Zona horien helburu orokorrak dira, batetik, Izkiko ibai-sistemaren funtzionaltasun osoa mantentzea, kontserbatzea eta leheneratzea, hezeguneena barne –zenbait habitat eta intereseko espezie ugariaren populazioak hartzen dituen esparrua den heinean–, eta, bestetik, ibai-lurraldean

garatzen diren jarduerak kontrolatzea, egoera ekologiko ona eta habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona mantentzeko eta lortzeko moduan. Horrek eskatuko du egungo ur-bazterreko formazioak babestea, formazio horien zatiketa eragingo duten jarduerak saihestea, baso-soildutako ibai-ertzak leheneratzea, isolatutako zatiak lotzea eta kontserbazio-egoera orokorra mantentzea edo hobetzea.

2.– Bestalde, asmoa da, era berean, dinamika hidromorfologikoa mantentzea edo leheneratzea – ibai-sistemaren dibertsitatea eta prozesu ekologikoak mantentzeko eta funtzio bioklimatikoa mantentzeko lagungarria den korridore ekologiko gisa–, eta ibai-paisaia hobetzea eta finkatzea.

3.– Helburu orokor horiek honako helburu operatibo hauek eskatzen dituzte:

3.1.– Dinamika hidromorfologiko egokia mantentzea –lagungarria izango da, batetik, Natura-ondarearen gune babestuko ibaietako eta erreketako uraren egoera ekologiko ona bermatzeko eta, bestetik, erregimen naturaletik ahalik eta hurbilen dagoen emari ekologikoen erregimena bermatzeko, betiere sistema horrekin lotzen diren intereseko espezieen populazioen eta habitaten kontserbazio-egoera onerako nahitaezko baldintza gisa.

3.2.– Ur-emarien ezaugarri biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak hobetzea eta horien ertzak lehenera daitezen sustatzea.

3.3.– 3170* habitatak –Denboraldiko urmael mediterraneoak– hartzen duen azaleraren ezagutza hobetzea eta bertako flora-komunitatearen problematikaren ezagutza hobetzea, banaketa-eremuaren mugan baitago.

3.4.– 7220* habitata –Iturburu petrifikanteak– agertzen den enklabeen azalera eta kalitatea mantentzea; zehazki, ur-jauzia elikatzen duen errekatiko uraren kalitatea ezagutzea eta kontrolatzea eta ur horren balizko eraginak eta haren aldakuntza-faktoreak ezagutzea eta kontrolatzea.

3.5.– Haltzadien eta sahasien azalera eta egitura mantentzea edo gehitzea, haien bakantasunagatik, flora-aberastasunagatik eta zaurgarritasunagatik.

3.6.– Okerren kontserbatuta dauden ibai-tarteetako landarediaren azalera gehitzea eta landaredi horren funtzioak eta konposizio estrukturala hobetzea, batik bat sahasiena eta makaldi mediterraneoena (92A0 habitata).

3.7.– Giro urtarretako flora-espezieen banaketa-eremua eta populazioak mantentzea eta, ahal den heinean, hobetzea.

3.8.– Ibai-karramarroaren egungo banaketa ezagutzea eta banaketa-eremua handitzea, karramarro aloktonoen populazio berriak agertzea saihestuz eta karramarro autoktonoen populazio-guneetarantz heda daitezen saihestuz.

3.9.– Izki natura-ondarearen gune babestuan kontserbazio-interes handieneko odonatuen, anfibioen eta haragijale erdiurtarren populazioak babestea eta ezagutzea, eta horien hedapena sustatzea.

3.10.– Izkin kontserbazio-interes handieneko anfibioen banaketa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta populazioak babestea.

3.11.– Izkin bisoi europarraren eta igarabaren banaketa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta horien habitata kontserbatzea.

58. artikulua.– Erabilerako erregulazio orokorrak.

Uraren arloan administrazio hidraulikoak dituen eskumenak bete beharrekoak direla gogoan izanda, erabilera-erregulazio hauek ezarriko dira Ibai-sisteman:

1.– Ibai-sistema gisa mugatutako esparruan, debekatuta daude kudeaketa organoak zehazki baimentzen ez dituen eta natura-lursaila aldatuko duten edonolako esku-hartzeak (orotariko eraikinak, instalazioak edo eraikuntzak, finkoak zein desmontagarriak, lur-berdinketak eta lur-mugimenduak, eta abar). Salbuetsita daude obra publikoei dagozkienak eta erabilera publikoko azpiegituren instalazioei dagozkienak edo kultura-ondarea babesteko ekintzei dagozkienak, betiere behar bezala justifikatuta.

2.– Oro har, debekatuta daude urak dagozkien ibilgutik normaltasunez zirkulatzea eragotziko duten edo zirkulazio hori aldatuko duten edo ibilguaren aldaketa morfologikoa eragingo duten jarduketak, azpiegiturak eta instalazioak. Salbuetsita daude biodibertsitatea hobetzera eta kontserbatzera zuzentzen direnak eta interes publikoko arrazoen ondorioz salbuespenez baimendu beharko direnak, bai populazioaren hornidurarako eta saneamendurako, bai erregimen hidrológicoa kontrolatzeko, bai pertsonak babesteko. Jarduketa horiek bateragarriak izan beharko dute Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazio-helburuekin, eta, hala badagokie, behar bezala ebaluatu beharko dira. Gainera, kudeaketa organoaren aldeko txostena izan beharko dute aroko organismoaren baimenaren aurretik, hala dagokionean.

3.– Baltsa hauetan debekatuta daude ura hartzeko emakida berriak: Luneta edo Peña Ancha, La Dehesa, Las Rozas eta Las Huertas. Edonola ere, egoeraren eta balizko ordeko aukeren azterketaren ondoren, kudeaketa organoak justifikatuztat eta beharrezkotzat jotzen baditu, baimendu ahal izango dira, betiere urari eta baimen-erregimenari buruzko legerian ezarritakora baldintzatuta.

4.– Ibai-sistemaren berezko zuhaitz eta zuhaixka espezieak eta masak mantenduko dira, eta basogintza-jarduerak mugatuko dira espezie aloktonoen eta espezie autoktonoen plantazioen mozketa kontrolatuetara.

5.– Landaredia soilteza eskatzen duten edo landaredia, eroritako zuhaitzak eta abar kentzea eskatzen duten ibai-ertzetan eta zona hezeetan lanak egin behar badira, eta ibai-ibilgutik egur-hondarrak kendu behar badira, arloko administrazio eskudunaren baimen zehatza beharko da, baita kudeaketa organoaren aldeko txostena ere. Kudeaketa organoak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan kontserbatu beharreko elementuen gaineko eragina baloratzeko:

5.1.– Ibai-ertzeko basoaren egoera ekologikoaren gaineko eragina.

5.2.– Ibilguaren ahalmen hidraulikoa galzorian jartzearen arriskua, betiere egur-hondarren metaketetatik uretan behera ur zirkulazioa eragotz dezaketen zubiak edo bestelako elementuak egoteagatik.

5.3.– Uraldiei aurre egiteko, ibilguen hustuketa-funtzioa.

5.4.– Uholdeen edo ezponda-hondeaketen eraginpean egon daitezkeen jabetzak (eraikinak, etxebizitzak) edo azpiegiturak (errepideak).

5.5.– Espezie mehatxatuen gaineko eragina; jarduketak egiteko garaiak.

6.– Ibilguak gurutzatzea ekarriko duten azpiegitura-proiektuetan, ibilguak gurutzatzeko soluzioek ez dituzte ibilgua eta haren ertzak aldatu behar. Horretarako, lehentasunez erabiliko dira aurrez ibilguak zeharkatzeko dauden azpiegiturak (zubiak, bideak...) eta, horretarako aukerarik ez badago, eskura dagoen tekniarik onena erabili beharko da. Eskura dagoen tekniarik onena izango da kontserbatu beharreko elementuen gaineko inpaktua minimizatuko duen tekniarik eraginkorrena eta aurreratuen, betiere baldintza ekonomiko eta tekniko bideragarrietan, kostuak eta etekinak kontuan izanik eta inguruabarren arabera. Proiektu horiek soilik onartuko dira, baldin eta egiaztatzen bada ez dutela

kalterik eragingo tokiaren integritatean, bidezko ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarri ostean.

7.– Debekatuta daude zuhaitz-espezie aloktonoen plantazio eta laborantza berriak egitea gaur egun halako erabilerarik ez duten lursailetan. Titulartasun publikoko basoetan, gaur egun espezie aloktonoko plantazioek okupatzen dituzten lursailetan, basoberritzeak egin behar izanez gero, erabiliko diren espezieen % 100 espezie autoktonoak izango dira. Jabetza partikularreko lursailetan, ehuneko hori % 100ekoa ere izango da jabari publiko hidraulikoaren babes-zortasuneko zonan. Zortasun-zona horretatik kanpo, ehuneko hori gutxienez % 50ekoa izango da. Zortasun-zonan egiten diren basoberritzeak arroko organismoaren aginduko baimena behar dute, eta horren barruan kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da. Zuhaitz-espezie autoktonoen azaleraren barruan konputatu ahal izango da birsortze aurreratuek (DK 5 edo goragokoak) okupatutako azalera eta espezie horien zuhaitziek okupatutako azalera. Debekatuta daude egur sortak eta biomasaren aprobetxamenduak, tokiko hornikuntzarako badira ere.

8.– Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiari jarraituta, lehentasunezko fluxu-zonan egiten den itxitura edo hesi berri orok iragazkorra izan beharko du, hau da, uren zirkulazio librea ahalbidetu beharko du, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.

9.– Izkiko ibaien eta erreken erabilera publikoaren ondorioz, kontserbazio- edo kutsadura-arazoak hautematen badira, kudeaketa organoak neurriak hartuko ditu esparru edo tarte batzuetan pertsonak bil daitezen murrizteko edo mugatzeko.

59. artikulua.– Basaflora eta basafauna babestea eta kontserbatzea.

1.– Izkiko ibai-sareko ibaietan arrain- eta krustazeo-aberastasuna mantentzen dela ziurtatuko da, bisi europarrarentzat eta igarabarentzat baliabide nagusia den heinean.

2.– EKZPak neurri espezifikoak garatuko ditu ibai-karramarro autoktonoa babesteko eta Izkiko erreketan egon dadin errazteko.

3.– EKZPak espezie aloktono inbaditzaileak kontrolatzeko jarduketak hartuko ditu aintzat, arriskuan jar baititzakete ibai-sistemarekin lotzen diren espezieen eta, batez ere, ibai-karramarro autoktonoa kontserbatu ahal izatea. Hori dela eta, karramarro gorria eta karramarro seinaleduna kontrolatzeko programak ezarriko dira.

4.– 7220* habitataren –Iturburu petrifikanteak– hurbileko inguruneko ingurumen-ezaugarriak mantentzea ziurtatuko da, batez ere dagokion landarediari dagokionez.

5.– EKZPak barnean hartu beharko ditu *Nymphaea alba* Espeziea Leheneratzeko Planaren proposamenean ezarritako xedapenak eta jarduketak.

6.– EKZPak aintzat hartuko ditu NOGBko ibaietan dauden migrazioarako oztupoak iragazkortzeko neurriak. Indarrean dagoen emakida-errealitatea hartuko da kontuan.

60. artikulua.– Abeltzaintza-erabilerak.

1.– Ingurune urtarrekin lotzen diren espezieen edo habitaten jarraipena egitean, egiaztatzen bada espezie eta habitat horiek narriatuta daudela nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileren ondorioz, kudeaketa organoak abelburuak hurbiltzea debekatu ahal izango du eta, hala badagokio, zona hesitu ahal izango du.

2.– Ur-bazterreko landaredia eta basoa garatzen diren esparruetan, debekatuta dago, oro har, larratzea. Kudeaketa organoak zehazki adierazitako lekuetan soilik egon ahal izango dira abelburuak, eta abeltzaintza-erabilera debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazio-helburuarekin lotzen diren natura-ondareko elementuen edo prozesu ekologikoen kontserbazio-egoera arriskuan jar daitekeen zonetan.

61. artikulua.– Erabilera publikoak.

1.– Egoera berezietan, hots, jolas-jarduera batek zona horretako helburuen gainean eragin kaltegarriak sor ditzakeenean, kudeaketa organoak aisialdiko jarduera horiek gauzatzeko baldintzak ezarri ahal izango ditu, bertan dauden intereseko elementuen kontserbazio-beharren arabera.

2.– Debekatuta dago zona horietako baltsetan bainatzea.

9. SEKZIOA

HERRIGUNEAK, EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK

62. artikulua.– Definizioa.

Zona horien barruan sartzen dira populazio-guneak, eraikuntzak, ekipamenduak eta harrera-zonak, baita azpiegitura eta eraikuntza artifizialak egotearen ondoriozko zortasun berezien mende dauden zonak ere.

Zona horietan honako elementuetako batzuk daude:

a) Errepideak, urtegiak eta azpiegitura edo instalazio guztiak, Natura-ondarearen gune babestuaren barruan egonik, legeria sektorialak araututako zortasunen mende daudenak.

b) Jolas-erabilerarekin, interpretazioarekin eta ingurumen hezkuntzarekin lotzen diren jarduerak hartzera edo arautzera zuzentzen diren erabilera publikoko ekipamenduak dituzten espazioak. Espazio horiek Izkiko erabilera publiko intentsiboko eremu gisa barnean hartzen dira Erabilera Publikoko Planean.

c) Udalerri bakoitzeko hiri-plangintzan hiri-lurzoru gisa, lurzoru urbanizagarri gisa, ekipamendu komunitario gisa edo hiri-lurzorua edo lurzoru urbanizagarria babesteko eremu gisa definitutako zonak.

63. artikulua.– Deskribapena eta kokalekua.

Izki natura-ondarearen gune babestuan, zona horien barruan sartzen dira Korres landaguneko hiri-lurzorua edo lurzoru urbanizagarria, eta Natura-ondarearen gune babestuaren jolas-eremua. Guztira 5,29 ha-ko azalera hartzen dute (gune babestuaren azaleraren % 0,06).

Zona horien barruan sartzen dira, halaber, eskalaren ondorioz kartografiatu ezin diren baina lehen adierazitako ezaugarriak partekatzen dituzten beste esparru edo elementu lineal edo puntual batzuk. Hartara, elementu edo esparru horiei ere aplikatuko zaie zona mota honi dagokion erregulazioa. Hauek dira:

a) Foru- eta toki-errepideen sarea, eta sare horri dagokion zortasun-zona.

b) Izkiko ibilbideen edo bideen sarea eta pistak.

c) Eraikin sakabanatuak eta bestelako azpiegitura eta eraikuntza artifizialak.

64. artikulua.– Helburu orokorrak eta operatiboak.

1.– Zona hauetarako helburu orokorra da lurralde horiekin lotzen diren erabilerak gune babestuaren kontserbazioarekin bateragarri egitea.

2.– Helburu orokor horrek honako helburu operatibo hauek eskatzen ditu:

2.1.– Izkiren natura- eta kultura-ondarea babestea eta egungo azpiegituren eta eraikuntzen inpaktu paisajistikoa minimizatzeko beharrezkoak izan daitezkeen leheneratzeko neurriak hartzea.

2.2.– Eraikuntza eta azpiegitura berriak ingurumenean eta paisaian integratzea (eraikuntza eta azpiegitura horiek Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazio-baldintzekin bateragarriak izan beharko dute).

2.3.– Naturaren gozamina eta naturagunearen kontserbazioaren ondoriozko betebeharrak bateragarri egitea.

2.4.– Jolas-erabilera arautua errazteko beharrezkoak diren instalazioak eskueran jartzea eta egokitzea.

2.5.– Populazioa Izkiko ingurune naturalera eta kulturalera hurbiltzea ahalbidetuko duen jolas-erabilera estentsiboa bultzatzea, natura errespetatzearen beharraz kontzientziatzea, ingurune horretako natura-eremuen balio didaktikoa indartzea, ingurune honen eta bertako baliabideen gaineko ezagutza erraztuko duten ingurumen-inpaktu txikiko eta aire zabaleko jarduera didaktikoak eta jolas-jarduerak sustatzea, eta horien kontserbazioaren inguruko sentsibilizazio handiagoa lortzea.

2.6.– Jolas-erabilera intentsiboko alternatibak Natura-ondarearen gune babestuaren periferian gara daitezten lehenestea.

65. artikulua.– Erabileren erregimen orokorra.

1.– Oro har, zona horietan udalerrri bakoitzari dagokion hiri-plangintza aplikatuko da, baita azpiegitura horietako bakoitzari aplikatzekoa zaion arloko legeria ere.

2.– EKZPak Bide Azpiegituren Plan bat garatuko du, non espazioaren bide-sarea osoki planifikatuko den. Plan horretan, lehendik dagoen bide-sarea NBAPak zehaztutako eta kokatutako erabileren beharretara egokitzea jasoko da, baita sutea gertatuz gero larrialdi-plana betetzera ere.

3.– Izkiko bideak, errepideak eta pistak honela sailkatuko dira:

a) Errepideetan eta hiriguneetako kaleetan askatasunez zirkula daiteke. Dena dela, aplikatzekoak diren arauak mugatuko dute zirkulazioa eta aparkatzea.

b) Jolas-eremuetara jotzen duten Natura-ondarearen gune babestuko pistetatik eta bideetatik zirkulatzea baimentzen da. Kudeaketa organoak bidezko mugak ezarri ahal izango ditu.

c) Gainerako pistetatik eta bideetatik iragaitea mugatuta dago.

10. SEKZIOA

BABES ZONA PERIFERIKOA

Natura-ondarearen gune babestuko babes zona periferikoa kartografian izen horrekin ageri dena da, alegia, babes zona periferikoa izena duela NBAPa onartzen duen dekretuaren I. eranskinen; bisorean kontsultagai dago, edo deskargatu ere egin daiteke artxibo digitala Euskadiko Datu Berezien Azpiegituraren Ataritik, GeoEuskaditik.

66. artikulua.– Helburua.

Azaroaren 25eko Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko 9/2021 Legearen 44.1. artikulua ezartzen duenez, zona honen helburua da kanpoko inpaktu ekologikoak eta paisajistikoak saihestea.

67. artikulua.– Erabileren erregimen orokorra.

1.– Babes zona periferikoan Habitaten Zuzentarauaren 6.2. eta 6.3. artikuluen eta Abenduaren 13ko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen 46.3. eta 46.4. artikuluen erregimen prebentiboa izango da aintzat.

2.– Kudeaketa organoak baimendu beharko ditu Izki natura-ondarearen Gune Babestua izan dadin eragin duten helburuak lortzea eragozten edo zailtzen duten zona horretako jarduketa guztiak, baita II. Natura Baliabideak Antolatzeko Planean ezarritako helburuak lortzea eragozten edo zailtzen dutenak ere.

3.– Kudeaketa organoak Babes zona periferikoan mugatu edo bertan behera utzi ahal izango ditu Naturagune Babestuaren errealitate fisikoa edo biologikoa nabarmen alda dezaketen edo errealitate horretan eragin handia izan dezaketen jarduerak, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera.

4.– Babes zona periferikoaren eremuan kokatuta, foru-organo eskudunak onartutako landa-guneetan, Natura Baliabideak Antolatzeko Plan hau indarrean sartzean onartuta dagoen hirigintza-plangintza aplikatuko da.

4. KAPITULUA

POLITIKA SEKTORIALETARAKO ERREFERENTZIA-IRIZPIDE ORIENTATZAILEAK

68. artikulua.– Basogintzako sektorea.

1.– Baso-plangintza eta -kudeaketa.

a) Izkiko basoen baso-kudeaketa jasangarria sustatuko da, basoen biodibertsitatea, produktibitatea, birsortzeko ahalmena eta bizitasuna mantentzeko moduan, eta baita, beste ekosistema batzuetan kalterik eragin gabe, funtzio ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak betetzeko ahalmena ere, orain eta etorkizunean.

b) Izkiko baso-kudeaketa zuzenduko da Natura-ondarearen gune babestuko baso naturalen, erdinaturalen eta ur-bazterreko landarediaren kontserbazio-egoera hobetzera, horiek okupatutako azalera gehitzera eta horien egitura, osaera eta funtzioak hobetzera. Kudeaketa horrek bermatuko du ondoen kontserbatutako guneen egungo egoera mantentzea eta flora eta fauna mehatxatuko espezieen kontserbazioari, populazio-bilakaerari eta bideragarritasunari eustea. Era berean, izkiko zuhaitz-masen egoera begetatibo eta fitosanitario ona zainduko da.

c) Hostozabal autoktonoen basoberak (pagadien, hariztien, erkameztien, ameztien eta artadien masak) baso garai bihurtzeko neurriak hartuko dira. Zuhaitz lepatuen basoen kasuan, baso horien kontserbaziora eta kudeaketara zuzendutako neurri espezifikoak hartuko dira, betiere horien beharretara egokituta.

d) Basoberritzeetako konifero-masak arian-arian baso-espezie autoktonoekin ordeztuko dira. Horretarako, baso-partzelen jabeekin hitzarmen boluntarioak ezarriko dira, baso-espezie autoktonoen landaketa sustatzeko eta egungo hariztien, baso mistoen eta zuhaixka-palaxuen kontserbazioa sustatzeko.

e) Baso publikoak antolatzeko planek eta proiektuek Natura-ondarearen gune babestuaren zona bakoitzerako ezarritako kontserbazio-helburuetara egokituko dituzte egin beharreko lanak eta ebaketa-txandak.

f) Ameztiek gaur egun okupatzen duten azalerari eustea sustatuko da –baso-kiropteroen habitata da– eta egungo masei eutsiko zaie, baina lurzoru, topografia edo mikroklimaren aldaera desberdinengatik albotz albo dauden intereseko beste habitat batzuei kalterik eragin gabe. Salbuetsita daude pagadi azidofiloko formazio gazteak, horien progresioa harizti-formazioen kontura egiten ari baita, hain zuzen ere. Egungo masak babestuko dira, eta arreta berezia eskainiko zaie eremu helduei eta/edo kotarik baxuenetan dauden eremuei. Debekatuta dago oso ale zaharrak moztea –barnean direla egur sortarako mozketak– eta baso horietan zehar pista berriak irekitzea. Era berean, bertan larratuko diren abelburuen kopurua arautuko da.

g) Modu aktiboan sustatuko da gaztainadi zaharren kontserbazioa, epe luzera.

h) Okil beltzek habiak egiteko egokiak diren pagoen baso-eremuen garapena sustatuko da: gutxienez 40-50 cm-ko diametrodunak, enbor lisoak eta adarrikgabeak, eta gutxienez 10 eta 12 metro arteko altuera.

i) Okil ertainek habiak egiteko egokiak diren ametzen, pagoen edo makalen garapena sustatuko da: ale osasuntsuak, 36 cm-ko diametroa edo handiagoa dutenak, oin eroriak edo hilak dituztenak, eta 18 cm-ko zuloak edo handiagoak dituztenak.

j) Basoetan kiropteroen ehiza-eremuak erraztuko dituzten soilguneen presentzia sustatuko da.

k) Neurriak hartuko dira baso-masen zatiketa-prozesuak saihesteko, eta kanpo- eta barne-konektagarritasuna bultzatuko da, beste habitat batzuen presentzian oinarrituta –ibai-ertzetako landaredia, baso-espezie autoktonoen zuhaitziak, finken mugetako eta bide-ertzetako palaxu naturalak, eta abar–.

l) Haltzadien kudeaketan, ikuspuntu funtzionaletik hartuko da aintzat ibai-ekosistema, eta ez modu puntualean. Komunitateen (belardien, sahasien, komunitate urtarren eta abarren) arteko dinamika naturala ziurtatuko da, eta komunitate batzuek besteek baino lehentasun handiagoa izango dute, ibilgu-tartearen arabera (arriskua, zatiketa, ibilguaren zabalera, propietateak, eta abar).

m) Behar besteko produkzio-ahalmena duten eta inpaktu adierazgarririk sortzen ez den zonetan soilik basoberrituko da hazkunde azkarreko eta ertaineko espezieekin. Espezie horiek espezie klimazikoetarako tarteko maila gisa ere erabiliko dira basoberritzeetan. Zona horietan kudeaketa hobetzeko eta produktibitatea areagotzeko neurriak lehenetsiko dira.

n) Baso-lursail partikularretan, jabeek, Foru Aldundiko baso-zerbitzuak eta Natura-ondarearen gune babestuaren kudeaketa organoak honako irizpide hauen arabera adostuko dituzte etorkizuneko antolamenduak:

I.– Basoberritze orotan espezieen nahasketa lehenetsiko da. Koniferoen baso-masetan, masa linealetan edo espezie autoktonoen zuhaitzietan «mikroerreserbak» sartzea bultzatuko da. Horrela, dibertsitate ekologikoa eta paisajistikoa areagotuko da, baita basafaunaren babesaren ere, suteen aurkako hesi natural gisa jardun dezaten.

II.– Lehentasunez, basoko izurriteen eta gaixotasunen aurkako borroka eta kontrol biologikoko edo integratuko metodoak aplikatuko dira.

III.– Baso-soilketak saihestuko dira.

IV.– Ahal den heinean saihestuko da lerro zuzenak ezartzea baso-masen muga gisa, bai espezie desberdinen erabileran, bai mozketak eta suebakiak egitean.

V.– Faunarentzako babeslekuak sortuko dira, aprobetxamendu-lanetan sortzen diren egurren eta adarren zati txiki bat metatuz edo erabiliz.

o) Basoko suteen prebentzioa hobetzeko eta itzaltze-lanen operatibotasuna hobetzeko, bide-sareko ertzak edo egungo bestelako egitura linealen ertzak baliatuko dira, lehentasunez, sutea hedada din eragotziko duten suebakiak ezartzeko.

2.– Basogintzako aprobetxamenduak eta lanak.

a) Unadaren kontserbazio-egoera hobetzen laguntzeko moduan markatuko dira egur sortak, eta kudeaketa organoak ezartzen dituen irizpide teknikoak eta ingurumenekoak aplikatuko dira basogintzan (egur hila erorita eta zutik egotea, zuhaitz lepatuak eta zaharrak egotea, eta abar).

b) Aurrez dauden egur hileko hondarrak errespetatuko dira, eta, ahal den heinean, egur hilaren bolumena areagotzea ziurtatuko da. Erorita eta zutik dagoen egur hilaren kopurua ebaluatuko da, abiapuntua zein den jakiteko, eta Natura-ondarearen gune babestuaren espezie autoktonoen basoetan egur hila ager dadin erraztuko da, kudeaketa organoak, espeziearen arabera eta masa motaren arabera, zehazten dituen balioak, gutxienez, lortzeko.

Natura-ondarearen gune babesturako azterketa zehatzagorik eta espezifikogorik ezean, honako helburu-balio hauek hartuko dira kontuan erreferentzia gisa:

I.– Ameztietan (EB KD 9230), batez beste egur hilaren 20 m³/ha-ko masa helduetan eta egur hilaren 10 m³/ha-ko masa gazteetan –bolumen osoaren % 50 baino gehiago egur lodia izango da (>= 30 cm)–.

II.– Pagadietan (EB KD 9120) gomendatzen da 30 m³/ha-ko egur hil baino gehiago egotea, eta, gutxienez, 12 m³/ha-ko egotea 30 cm-ko diametroa duten zatietan eta gutxienez 4 m³/ha-ko egur hil egotea zutik.

III.– Baso heldu maneiatuetan, egur hilaren % 20, gutxienez, zutik dagoen egur hila izango da.

c) Baliabide edafikoen eta hidrikoen kontserbazioa bermatzeko, eskuz landatzea lehenetsiko da – eta ez landatze mekanizatua –, eta mozketa metodo progresiboak sustatuko dira, hala nola bakanketak, zuhaizti bidezko birsorkuntzak edo segidako mehazketak.

d) Egur lurperatuaren edo erdilurperatuaren mugimenduak edo inguruko lurraren mugimenduak saihestuko dira, *Lucanus cervus* espezieko larbak babesteko. Era berean, epe laburreko enborren metatzea edo egur lehorra kentzea saihestuko da, baldin eta enbor horiek gutxienez urte bat eman badu, intsektu saproxilikoek balizko errunaldiak babesteko.

e) Egurra ateratzeko metodo alternatiboak sustatuko dira. Metodo horiek baso-pistak eraikitzea eta makineria astuna erabiltzea minimizatu beharko dute, lurzorua asalduta ahalik eta gehien saihesteko eta Batasunaren intereseko habitatak edo espezieak dituzten eremuen zatiketa eta zeharkagarritasuna mugatzeko.

f) Neurriak txertatuko dira ibai-sarera solido esekien eta produktu fitosanitarioen ekarpena murrizteko eta solido esekiak dituzten jariatze-urak lurrazaleko uretara iristea saihesteko.

3.– Ikerketa eta basogintza-erabilera jasangarria sustatzea.

a) Baso naturalen eta erdinaturalen habitaten –eta horiekin lotzen diren espezieen– kontserbazio-egoera ona lortzea eta hobetzea ahalbidetuko duten baso-kudeaketako jarraibideak ezartzeko ikerketak sustatuko dira.

b) Modu aktiboan sustatuko da basogintzako ingurumen- eta klima-zerbitzuekin eta basoen kontserbazio-zerbitzuekin lotzen diren laguntzak ezartzea, betiere Euskadiko Landa Garapeneko Programaren esparruan.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Inbentarioa baliagarria izan daiteke baso-habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipen-tresna gisa. Biodibertsitateko datuak biltzeko metodologiaren diseinuan eta laginketa-partzelen banaketan, kontuan hartuko dira Habitaten Zuzentarauaren kontserbazio-egoeraren jarraipenerako eta ebaluaziorako eskakizunak.

d) Baso-ziurtapen jasangarriko zigiluak ezartzea bultzatuko da. Zigilu horien bidez, produkzioak balioa handituko du, eta, Natura-ondarearen gune babestuaren produkzio- eta kontserbazio-helburuak lortzeari begira, dokumentu honetan proposatutako neurriak beteko dira.

69. artikulua.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorea.

1.– Bazkalekuen abeltzaintza-erabilera txilardi eta larre menditarren egungo azalerari eustera eta mosaiko gisako antolamendua kontserbatzera zuzenduko da. Horretarako, habitaten eta dagozkien espezieen kontserbazio-egoera egokiarekin bateragarriak diren abeltzaintza-kudeaketako jarraibideak finkatuko dira.

2.– Erabilera baimendua den zonetan, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako egokiak diren lursailetan erabilera hori sustatuko da, eta lursail horien ahalmen biologikoa eta gaitasun produktiboa mantentzea ziurtatzen duten jardunbideak aplikatuko dira, inguruko ekosistemak errespetatuz.

3.– Modu aktiboan sustatuko da mendiko larreen kontserbazioarekin (Euskadiko Landa Garapeneko Programaren barruan) lotzen diren ingurumen-laguntzen ezarpena, baita etorkizunean ezar daitezkeen ingurumen-nekazaritzako bestelako jardunbide batzuk ere.

4.– Izkiko larre-habitaten eta abeltzaintza-jardueraren kudeaketan, honako helburu eta irizpide hauek hartuko dira kontuan:

4.1.– Abeltzaintza estentsibo antolatua lehenestea, abeltzaintza intentsiboaren edo kontrolik gabeko abeltzaintza estentsiboaren aurretik.

4.2.– Altuerako larreetako jarduerari eustea –Batasunaren intereseko habitatekiko errespetu-baldintzetan–, betiere ingurune horietako larreen, txilardien eta zona hezeen mosaiko irregular gisako egitura kontserbatuz.

4.3.– Abeltzaintza-presioa natura-ingurunearen karga-ahalmenera egokitzea, gehiegizko edo gutxiegi diren larratze-egoerak saihestuz.

4.4.– Ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrenak diren gunek babestea (zona hezeak, flora eta fauna mehatxatuko espezieetarako intereseko gunek...).

4.5.– Landaredi autoktonodun palaxuen eta larreen presentzia sustatzea, Izkin dauden fauna espezieentzako kalitatezko habitatak eta hobiak handitzeko moduan.

4.6.– Abeltzaintza-azpiegitura egokiak jartzea eskura, gune babestuaren natura-ondarearen elementuen gaineko inpaktua saihesteko moduan.

4.7.– Abeltzaintzaren garapena, mantentzea eta bideragarritasun ekonomikoa laguntzea, abeltzaintza lanbide duten pertsonen prestakuntza eta trebakuntza sustatuz.

4.8.– Produktu eratorrien kalitatea bultzatzea eta produktu horiek merkatura daitezen sustatzea.

5.– Larreak sortzeko eta mantentzeko helburuarekin belar-sastrakak kentzen direnean, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

5.1.– Lehentasunez, % 30etik beherako malda duten eremuetan udaberritik udazkenera eta eguraldi lehorrarekin kenduko dira belar-sastrakak.

5.2.– % 30etik gorako malda duten lursailetan, batez ere eskuz kenduko dira belar-sastrakak, nahiz eta kudeaketa organoak makina txikiak eta inpaktu txikikoak erabiltzeko baimena eman ahal izango duen, sastrakak kendu beharreko azaleraren eta habitatetan aurreikus daitezkeen eraginen arabera.

5.3.– Sastrakak larreak hobetzeko asmoz kentzen direnean, horien inpaktu paisajistikoa hartuko da kontuan, eta sestra-kurbekiko elkarzutak diren lerro zuzenak saihestuko dira.

5.4.– Forma geometrikoak saihestuko dira, luraren konfigurazioan oinarrituta lerro zuzenak etenez.

5.5.– Malda handia egoteagatik edo lurzoru urria izateagatik higadura-arriskuak hautematen diren zonetan ez da belar-sastrakarik kenduko. Zona horietan zuhaitz-estaldura leheneratuko da eta ordezte-serialen etaparantz bilakatzea eta zuhaiztiak osatzea sustatuko da.

6.– Erabiltzen ez diren itxiturak kentzea sustatuko da, eta, itxiturek basafaunaren mugimenduen gainean eragin adierazgarria dutela hautematen bada, itxitura horiek egokitzea bultzatuko da. Era berean, partzelen arteko itxitura gisa palaxu bizia landatzea sustatuko da.

7.– Polinizatzaileen azterketa eta kontserbazioa bultzatuko da, baita flora-espezieen polinizazioa bermatuko duen eta espazio honetan dauden Batasunaren intereseko habitaten iraupena bermatuko duen erlezaintza jasangarriaren garapena ere, basoetan, txilardietan eta larreetan arreta berezia jarrita.

8.– EKZPea, gune babestu osorako Erlezaintza Kudeatzeko Plana idazteko beharra hartuko da aintzat.

9.– Zona hezeen inguruan ongari kimikoak eta produktu fitosanitarioak erabili behar ez duten nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak sustatuko dira, hala nola nekazaritza ekologikoarekin eta nekazaritza integratuarekin lotzen direnak.

10.– Natura-ondarearen gune babestuaren esparru jakin batzuetan produktu fitosanitarioak erabiltzeari dagokionez dokumentu honetan ezarritakoa baztertu gabe, Izkin produktu horien erabilera arautu eta mugatuko da, oro har. Izan ere, arian-arian murriztu nahi da produktu horien erabilera, eta Batasunaren eta eskualdearen intereseko espezieen eta habitaten kontserbazioa erraztu.

11.– Larre menditarren, txilardien eta sastrakadien habitaten kontserbazio-egoera ona lortzea eta hobetzea ahalbidetuko duten abeltzaintza-kudeaketako jarraibideak ezartzeko ikerketa-jarduerak sustatuko dira.

70. artikulua.– Azpiegiturak.

Natura Baliabideak Antolatzeke Plan honetan ezarritako debekuak alde batera utzi gabe, honako irizpide orientatzaile hauek ezarriko dira Natura-ondarearen gune babestuaren azpiegiturei dagokienez:

1.– Natura-ondarearen gune babestuan beste pista eta baso-bide batzuk eraikitzea saihestuko da, eta ahalik eta gehien murriztuko dira Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitaten gainean eragina izan dezaketenak. Horretarako, egungo pista-sarea optimizatuko da eta gaur egun erabiltzen ez direnak kentzea sustatuko da.

2.– Babes zona periferikoan saihestuko da azpiegitura berriak (errepideak, trenbideak, produkzio-bideak, energia-garraiatzeko bideak, fluidoak garraiatzeko sareak, telekomunikazio-seinaleak, eta abar) eta ekipamendu handiak eraikitzea, eta, horretarako, babes zona periferikoaren mugaz kanpo dauden ordezeko kokalekuak edo trazadurak aztertuko dira.

3.– Eraikin eta azpiegitura berrien iragazkortasun ekologikoa eta integrazio paisajistikoa bermatuko da.

4.– Egungo edo etorkizuneko pisten ertzetan tarte handi eta irregularren bidez babestuko diren zuhaitz-landareak landatzea sustatuko da. Helburua izango da horien inpaktu paisajistikoa minimizatzea, konektagarritasuna sustatzea eta ingurunea dibertsifikatzea.

5.– Beharrezkotzat jotzen diren komunikazio-bide ingurunean kutsadura akustikoa murrizteko neurriak hartuko dira.

6.– Erreferentzia gisa, Natura-ondarearen gune babestuaren zona bakoitzerako pista-dentsitate maximoa ezarri da:

Erreserba integraleko zona	Debekatuta
Babes bereziko zonak	Debekatuta
Basogintza- eta abeltzaintza-erabilera estentsiboko kontserbazio-zonak	Dentsitate maximoa: 10 m/ha
Leheneratze ekologikoko zonak	Dentsitate maximoa: 20 m/ha
Basogintza-produkzioko zonak	Dentsitate maximoa: 30 m/ha
Nekazaritza eta abeltzaintza produkzioko eta landazabaleko zonak	Dentsitate maximoa: 30 m/ha
Ibai-sistema	Debekatuta, gurutzatzeko izan ezik
Hiri- ekipamendu- eta azpiegitura-zonak	Ez dagokio

7.– Lehentasuna izango du aurrez dauden eta erabiltzen ez diren pistak leheneratzeak, pista berriak egin ordez.

71. artikulua.– Erabilera publikoaren plangintza eta kudeaketa.

1.– Izkiko ingurune naturalean, bertako ingurumen- eta kultura-balioak errespetatuko dituen erabilera eta gozamina bermatuko da, eta ingurune natural horrek natura-ondarearen kontserbaziorako duen garrantzia eta egiten duen ekarpena nabarmenduko da.

2.– Natura-ondarearen gune babestuaren Erabilera Publikoko Plana onartzen ez den bitartean, irizpide orientatzaile hauek hartuko dira kontuan:

2.1.– Erabilera publikoko jarduerak eta ekipamenduak gune babestuaren zonen ahalmenera eta zaurgarritasunera egokituko dira, jardueren intentsitatea kontuan izanik.

2.2.– Harrera- eta jolas-eremuetan seinaleztapenaren, altzarien eta zerbitzuen arloan beharrezkoak diren azpiegiturak jarriko dira.

3.– Jolas-erabilerarako instalazio finkoak, piknik eremuak eta erabilera publikoa kudeatzeko eta baliatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak Natura-ondarearen gune babestuaren zona mugakideetarantz eta eragin sozioekonomikoko eremuko landaguneetarantz bideratuko dira, oro har. Behar besteko harrera-ahalmena duten puntu jakin batzuetan finkatuko dira, eta, horretarako, kudeaketa organoa inguruko udalekin eta administrazio batzarrekin koordinatuko da.

4.– Turismo jasangarriko politikak sustatuko dira, natura-turismoaren sustapena eta garapena Izkiren babes-helburuekin bateragarri egiteko.

5.– Kontserbazio-konpromisoen arabera eta gizartearen iguripenen arabera egingo da Izkiko erabilera publikoaren kudeaketa, eta bat etorriko da zenbait erakundek esparru horretarako proposatutako estandarrekin. Erakunde horien artean daude: IUCN («International Union for Conservation of Nature»), EUROPARC (Europako Parke Naturalen eta Nazionalen Europako Fundazioa), EWS («European Wilderness Society»), EUSKALIT (Bikaintasunerako Euskal Fundazioa) edo AENOR («Asociación Española de Normalización y Certificación»).

6.– Erabilera Publikoko Planean, Natura-ondarearen gune babestura etortzen den jendearen eta egiten den erabilera publikoaren jarraipen-sistema bat ezarriko da. Helburua izango da jakitea zein den gune babestuan egiten den erabilera publikoaren munta eta erabilera publikoaren espazio- eta denborabanaketa kontserbatu beharreko habitaten eta flora- eta fauna-espezieen prebalentziari dagokionez, eta, horretan oinarrituta, jarduera horien kudeaketa etengabe egokitzea.

72. artikulua.– Gobernantza.

1.– Natura-ondarearen gune babestuaren plangintzan eta kudeaketan inplikaturik dauden administrazio publikoek neurriak bultzatuko dituzte balio ekologiko handiko lursailak eskuratzeko, errentamenduan hartzeko, gozatzeko, zortasunerako edo antzeko beste irudi batzuk eratzeko –batez ere lursail horiek Izkin kontserbatu beharreko eta oso mehatxatuta dauden elementuentzako puntu kritikoak dituztenean edo puntu kritiko direnean, edo egokitasun-irizpideek hala gomendatzen dutenean–.

2.– Lurraldeko pertsona eta erakunde erabiltzaileak eta jabeak gunearen balioen eta natura-baliabideen kontserbazioan eta erabilera onean inplikaturik dituzten kudeaketa-formulak sustatuko dira.

3.– Izkin eragina duten agenteen eta sektoreen (nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako, ehizako, turismo-jardueretako eta abarren) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko da, Natura-ondarearen gune babesturako planteatutako kontserbazio-helburuak lortzeko eta kontserbazio-neurrien aplikazio eraginkorra lortzeko.

4.– Espazio babestuaren inguruko populazioa espazio babestu horren kudeaketan inplikaturik da, espazio horrek eskain ditzakeen jardueretan integratzea erraztuz.

5.– Sektore pribatuak eta udal-esparruak Izkin kontserbazio-jardueren finantzaketan edo kudeaketan parte har dezaten erraztuko duten formulak bultzatuko dira.

6.– Boluntariora-programen bidez, herritarren lankidetzak sustatuko da eta lurraldea zaintzeko akordio boluntarioak bultzatuko dira. Akordio horiek jabeen, zaintza-erakundeen eta bestelako agente publikoen eta pribatuen arteko etengabeko lankidetzak eskatuko dute.

7.– Lehentasuna emango zaio erakunde publikoek OPMen barruan dauden eremuetan lursail partikularrak erosteari, babes maximoaren ikuspegitik kudeatu ahal izatearren.

8.– Natura-ondarearen gune babestuan dauden erabileren artean gatazkak sortzen badira, lehentasuna izango dute ingurunerako inpaktu txikiena sortzen duten erabilerek, eta, baldintza berdinetan, izaera orokorra izateagatik erabiltzaile kopuru handienarengan eragina dutenek.

73. artikulua.– Ingurumenaren arloko dibulgazioa eta hezkuntza.

1.– Administrazio publikoek garatuko dituzten ingurumen-hezkuntzako programek barnean hartuko dituzte Izkin ezagutza hobetzeko edukiak, hau da, gune babestuan dauden Batasunaren edo eskualdearen intereseko espezieen eta habitaten balioari buruzkoak –biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kontserbaziorako–. Era berean, nekazaritzako eta basogintzako jarduerak habitaten eta flora- eta fauna-espezie basatien kontserbazio-egoeraren gainean duten eragina ere hartuko da aintzat, horiek babesteko beharri buruz kontzientzia dadin gizartea. Programa horiek, publiko orokorrari ez ezik, Natura-ondarearen gune babestuaren esparruan garatzen diren erabileretan eta jardueretan inplikaturik dauden sektoreetako teknikariei ere zuzenduko zaizkie, eta, batik bat, eragin-eremuko populazioari.

2.– Kontserbatu beharreko espezieen (hegazti errupikolen eta kiropteroen, besteak beste) problematika hedatzera zuzenduko diren informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak bultzatuko dira: espezie horien egungo egoera, pozoia erabiltzearen ondorioak eta espezie horientzako planteatutako kontserbazio-helburuak jakinaraztera zuzenduko diren informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak bultzatuko dira, proposatzen diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatu daitezzen. Gizarteari, oro har, zuzenduko zaizkio, eta, bereziki, tokiko populazioari, espazioaren bisitariei eta erabiltzaileei, ikastetxeei eta, orokorrean, espezie eta habitat horien kontserbazio-egoeran hein handiagoan eragina izan dezaketan jarduerak egiten dituzten pertsonari eta kolektiboari.

3.– Gune babestuaren esparruan eragina duten agenteen eta sektoreen prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko da, espezie exotiko inbaditzaileen presentzia, hedapena eta balizko lehia eragozteko.

74. artikulua.– Garapen sozioekonomikoa.

1.– Administrazio Publikoek, ahal duten heinean, Natura-ondarearen gune babestuaren eragin-zonako ekonomiaren dibertsifikazioan lagunduko dute, eta, horretarako, Izkirako ezarritako kontserbazio-helburuekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerak gara daitezzen erraztuko eta sustatuko dute.

2.– Izki eskualdeko produktueterako eta zerbitzuetarako erreferentzia izatea bultzatuko da. Natura-ondarearen gune babestuaren dibulgazio-baliabideetan sustatuko da Izkiren eragin sozioekonomikoko zonaren ahalmen ekonomikoa, oro har, eta ahalmen turistikoa, zehazki.

3.– Europako Batzordeak definitutako Batasunaren baterako finantzaketako bideak aplikatuko dira, Izkin Natura 2000 Sarearen helburuak lortzeko beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez gauza daitezzen. Ildo horretan, Landa Garapeneko Nekazaritzako Europako Funtsa (LGNEF) –Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Landa Garapeneko Programaren bidez artikulatzen dena– lehen mailako tresna da, besteak beste, Natura 2000 Sarea kudeatzeko.

75. artikulua.– Klima-aldaketara egokitzeko irizpide orokorrak

Natura Baliabideak Antolatzeko Planak «Ekosistemetan oinarritutako egokitzapena» deritzan estrategia hartu du klima-aldaketara egokitzeko. Estrategia hori zuzentzen da ekosistemak kontserbazio-egoera onean mantentzera eta horrekin ahalik eta erresilientziarik handiena lortzera. EKZPearen, klima-aldaketara egokitzea aintzat hartuko duten jarraibideak eta neurriak finkatu beharko dira, eta jarraibide eta neurri horiek honako printzipio hauetan, gutxienez, egituratuko dira:

1.– Ikuspegi globala eta integratzailea hartzea –eremu babestuak eta horiek kokatzen diren lurraldea unitate funtzionaltzat joko ditu ikuspegi horrek–;

2.– Ziurgabetasuna kudeatzea, erabakiak informazio zientifikorik onenean oinarrituz eta hasitako ekintzen emaitzak etengabe ebaluatuz;

3.– Aldaketa beti presente dagoen prozesu gisa txertatzea; ekosistemak ingurumen-baldintza berrietara eta perturbazio naturalen erregimen-aldaketetara egokitzeko ahalmena areagotzea;

4.– Testuinguru berri baterako gobernantza-tresna berriak garatzea, agente kopuru handiagoa txertatuz eta klima-aldaketaren ondorioen gaineko sentsibilitatea eta gizarte-babesa hobetuz.

5. KAPITULUA

EBALUAZIO EGOKIA

76. artikulua.– Ebaluazio egokia.

1.– KBE eta HBBE den heinean, Izki natura-ondarearen gune babestuan aplikatzekoa izango da planen, programen edo proiektuen ebaluazioari dagokionez Abenduaren 13ko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen 46.4. artikuluan ezartzen dena.

2.– Bestalde, dokumentu honetan aditzera eman den bezalaxe, zenbait planek, programak, proiektu edo jarduerak eragin argia izan dezakete Izki natura-ondarearen gune babestuaren baliabide naturalen, habitaten eta espezieen kontserbazio-helburuak lortzeko, eta, horrenbestez, analisi xehatu baten mende egon beharko dute eta ebaluazio egokia egin beharko da. Hauek dira gutxienez:

2.1.– Kokalekuaren arabera eta espazio horretan kontserbatu beharreko elementuetan, habitatetan eta espezie kalteberetan duten eraginaren arabera –horien kontserbaziorako Izki funtsezkoa den kasuetan batik bat–, ondoko eremu hauetan programatzen diren planak, programak eta proiektuak:

– Flora mehatxatuko populazioen ingurunean. flora mehatxatuen Izkiko populazioen inguruneko edozein jarduera, eta, nolahi ere, Natura Baliabideak Antolatzeko Plan honen 6.1. artikuluan definitutako babes-esparruko edozein jarduera.

– Zona hezeen, zohikaztegien eta istingen ingurunean; Natura-ondarearen gune babestuan inbentariatutako zona hezeak edo euren erregimen hidraulikoa aldatzea edo ezabatzea eragin dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduera, baita babes-esparruan kokatzen direnak ere (NBAParen 6.1. artikulua).

– Hegazti nekrofagoentzako eremu kritikoetan; hegazti horien kontserbazioan edo berreskuratzeko aukeretan eragina izan dezaketen jarduketak, Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Planaren 6. artikuluan ezartzen den moduan.

– Ibai-sisteman; ibilguaren eta ibaiertzen edo erregimen hidraulikoaren aldaketa hidromorfologiko adierazgarria eragin dezakeen edozein jarduketa.

– Geologia interesdun lekuetan eta ondare geologikoko beste batzuei dagokienez; horiek aldatzea edo suntsitzea eragin dezakeen edozein jarduketa.

– Oro har, iraupenerako Izki funtsezko Natura-ondarearen gune babestua izanda, Batasunaren edo eskualdearen interesa duten eta espazio horretan kontserbatu behar diren habitaten eta espezieen aldaketa eta suntsipena eragiten dutenean («II. Memoria» eranskinaren 3.2. atala).

2.2.– Planaren, programaren edo proiektuaren xedearen arabera eta eraginpean egon daitezkeen eta kontserbatu beharreko elementuen arabera, planaren, programaren edo proiektuaren tamaina edozein izanik ere.

– Baso-antolamenduko planak, basoak antolatzeko proiektuak edo baso-kudeaketa jasangarriko plan teknikoak edo bestelako plan eta proiektu baliokideak, betiere plangintza horrek baso-habitaten, sastrakadien, larreen eta horiekin lotzen diren fauna- eta flora-espezieen (hegaztien, saguzarren, bestelako baso-ugaztunen eta intsektu saproxilikoan) arloan ezarritako kontserbazio-helburuak lortzeko eragina izan dezakeen heinean.

– Abeltzaintza-ustiapen intentsiboetan animalia-hazkuntzara zuzendutako instalazioak eraikitzea edo handitzea.

– Beste pista eta ibilgailu-bide batzuk, egur mozketarako beste bide batzuk eta beste baso- eta abeltzaintza-azpiegitura batzuk irekitzea, betiere Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitaten azalera handietan eta kontserbatu beharreko espezieen gainean eragina izan dezaketen heinean.

– Baso-biomasaren aprobetxamendurako proiektuak, baso naturalen eta erdinaturalen egitura eta funtzioak alda ditzaketen heinean eta egur hilaren presentzia murriztu dezaketen heinean.

– Honako azpiegitura hauen planak, programak eta proiektuak, kokatzeko eta trazatzeko beste aukerarik ezean, Natura-ondarearen gune babestuan garatu behar direnak eta aplikatzekoa den ingurumen-ebaluzioko araudian ezarritako atalaseak gainditzen ez dituztenak:

- Natura-ondarearen gune babestuaren errepide-sarea handitzeko edo hobetzeko jarduketak.

- Saneamenduko, hornidurako eta baliabide hidrikoen erregulazioko planak, programak eta proiektuak.

- Kanalizazioak, babesak, dragatzeak eta jalkinen birkokapena eskatuko duten proiektuak.

– Lurrazaleko eta lurpeko uren hargune eta aprobetxamendu berriak edo egungoen aldaketak, betiere horiek bakarrik edo beste batzuekin batera eragin adierazgarria izan dezaketenean zona hezeetan eta horien babes-zonetan, habitat urtarretan eta ibai-ertzeko habitatetan, arrain-faunaren migrazioan eta arrabaroan eta ugaztun eta ornogabe urtarren artean.

– Antolatutako kirol-ekitaldi jendetsuak, hala nola mendi-lasterketak, orientazio-lasterketak, mendi-martxak, BTT-martxak, zaldi-martxak eta abar, baita erabilera publikoko merkataritza-jarduerak ere, Natura-ondarearen gune babestuaren esparruan osorik edo zati batean garatzen direnean.

6. KAPITULUA

JARRAIPEN-PLANA

77. artikulua.– Natura baliabideak antolatzeko planaren aplikazioaren aldian behingo ebaluazioa

1.– Natura Baliabideak Antolatzeko Plana sei (6) urtean behin ebaluatuko da.

2.– NBAPean ezarritako politika sektorialen erreferentziazko erregulazio eta irizpide orientatzaileak EKZParen bidez eta Natura-ondarearen gune babestuko erabilerak eta aprobetxamenduak arautzen dituzten gainerako planen bidez garatzen dira. Hartara, horien aplikazioaren ebaluazioa oinarrituko da, zati batean, Natura-ondarearen gune babestuaren Zuzendaritzak lantzen duen jardueren eta emaitzen urteko ebaluazio-memorian. Ebaluazio-memoria hori Natura-ondarearen gune babestuaren Patronatuak onartu beharko du, E Abenduaren 13ko Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen 56. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Modu osagarrian, aplikatzekoak diren honako adierazle hauetan oinarrituko da Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren ebaluazioa, kontuan izanik kontserbatu beharreko elementuen arloko NBAParen aurreikuspenak:

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Adierazlea	Sektorea	Kontserbatu beharreko elementuak	Balio objektiboa (orientagarria) edo gauzatze-maila	Horizontea edo aldizkakotasuna (orientagarria)
Erabilera Publikoko Plana	Erabilera publikoa	NOGBaren esparrua	1	6 urte
Abeltzaintza Kudeatzeko Plan Integrala	Abeltzaintza-erabilera	Sastrakadiak eta larreak Zona hezeak	1	6 urte
Barrunbeak Kudeatzeko Plana	Kontserbazioa	Haitzuloak Kiropteroak	1	6 urte
Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoa	Ehiza	Basafauna	1	6 urte
Erlezaintza Kudeatzeko Plana	Abeltzaintza-erabilera	Basafloa	1	6 urte
Bide Azpiegituren Plana	Azpiegiturak	NOGBaren esparrua	1	6 urte
Basafaunarako eta basafloorako balioa duten elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario ireki geoerreferentziatua	Jarduera zientifikoak eta jarraipenekoak	NOGBaren esparrua. Kontserbatu beharreko elementuak	1	6 urte
Baso Baliabideak Antolatzeko Planen eta Basoak Antolatzeko Proiektuen edo berrikusitako eta NBAPera egokitutako plan dasokratikoen kopurua	Baso erabilera	Baso naturalak eta erdinaturalak Zona hezeak Larreak eta sastrakadiak Basoko flora eta fauna mehatxatua Ibai-sistema	-	6 urte
Salbuespenez emandako baimenen kopurua eta tipologia	Hainbat erabilera eta erregulazio	NOGBaren esparrua	-	6 urte (urteko datua)
NOGBan baimendutako eta gauzatutako azpiegitura-proiektuen kopurua eta ezaugarriak	Azpiegiturak	NOGBaren esparrua	-	6 urte (urteko datua)
NOGBan ebaluazio egokiaren mende dauden planen eta proiektuen kopurua	Hainbat erabilera	NOGBaren esparrua	-	6 urte (urteko datua)
NOGBan Kontserbatu beharreko elementuei buruzko azterketen eta ikerketen kopurua	Ikerketa	NOGBaren esparrua Kontserbatu beharreko NOGBko elementu guztiak	-	6 urte (urteko datua)

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Adierazlea	Sektorea	Kontserbatu beharreko elementuak	Balio objektiboa (orientagarria) edo gauzatemalla	Horizontea edo aldizkakotasuna (orientagarria)
Seneszentzia-unaden/mikroerreserben kopurua eta azalera (ha)	Kontserbazioa	Baso autoktonoak Basafauna eta basafiora	-	6 urte (urteko dataua)
NOGBaren paisaiaren azterketa	Paisaia	NOGBaren esparrua	1	6 urte
Administrazioak eskuratutako lursail partikularreko hektarea kopurua	Gobernantza	NOGBaren esparrua	-	6 urte (urteko dataua)
Lurraldea zaintzeko kontratuen, ingurumen-kontratuen eta bestelako akordioen kopurua eta zenbatekoa	Gobernantza eta basoko, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak	NOGBaren esparrua	-	6 urte (urteko dataua)
Baso natural bihurtutako basoberritzeen azalera	Baso-erabilera	NOGBaren esparrua	-	6 urte (urteko dataua)
Talka-arriskua eta/edo elektroizio-arriskua murrizteko egokitutako linea kopurua	Azpiegiturak	Hegazti-fauna	-	6 urte (urteko dataua)
Zona heze leheneratuak (hesi eta plantazio perimetrala, drainatzeen eta harguneen kontrola)	Hainbat erabilera	Habitat higiturboak eta lotzen zaien fauna eta flora	-	6 urte (urteko dataua)
Espezie exotiko inbaditzaileak ezabatzeke jarduketan kopurua	Kontserbazioa	Haitzuloak eta kiropteroak Flora mehatxatua Habitat mehatxatua Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabilerak	-	6 urte
Itxitura egokituak edo kenduen kopurua	Hainbat erabilera	Azpiegiturak, ibai-sistema eta bi horiekin lotzen den fauna	-	6 urte (urteko dataua)
Kendutako edo iragazkortutako oztopo kopurua	Azpiegiturak		-	6 urte

78. artikulua.– Funtsezko elementuen kontserbazio-egoeraren aldian behingo ebaluazioa.

1.– EKZPak aintzat hartuko du aldian behin eguneratzea espezie mehatxatuen populazioen erroldak eta inbentarioak, baita habitat natural eta erdinaturalen azalerak ere. Nolanahi ere, arreta berezia jarriko zaie Batasunaren edo eskualdearen interesa duten eta mehatxu-estatus handia duten habitat eta espezieei, betiere Natura-ondarearen guneei babestua funtsezkoa bada horien kontserbatzeko (ikus II. Memoria» eranskinen 4. ataleko Funtsezko elementuen zerrenda). Batez ere, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: populazioaren tamaina eta espezieentzako hazkuntza- edo banaketa-eremua; azalera eta habitataren egitura eta funtzioak; baita kontserbazio-egoera eta bi kasuetan jasaten dituzten presioak eta mehatxuak ere.

2.– Jarraipenaren emaitzak helaraziko zaizkio natura-ondarearen kontserbazioaren arloan eskumena duen Euskadiko Administrazio Orokorreko organoari, betiere Natura 2000 Sarearen eta flora eta fauna mehatxatuen espezie zerrendatuen arloko informazio-betebeharrak bete daitezela.

3.– Habitataren Zuzentzararen 17. artikuluan ebaluazio-aldiarekin bat etorruta, eta, ondoren, seiurteko aldizkakotasunarekin, kontserbazio-neurrien betetze-mailari buruzko txostena egingo da, neurri horiek Batasunaren intereseko habitataren eta espezieen kontserbazio-egoeran eta helburuetan dituzten ondorioak ebaluatzeko. Txosten hori egiteko, Euskadiko Administrazio Orokorreko organo eskudunak kudeaketa organoari eska diezazkioke Natura-ondarearen guneei babestuko espezieen eta habitataren banaketaren eta kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko datuak eta informazioa, baita EKZPearen aurreikusten diren kontserbazio-neurrien eta jarduketan gauzatze-mailari eta eraginkortasunari buruzko datuak eta informazioa ere.

4.– Jarraipenaren aldizkakotasuna egokitu ahal izango da, jarraipen-sare globalen diseinuan eta inplementazioan aurrera egiten den heinean.

5.– Hurrengo taulan ematen dira aditzera, Natura-ondarearen guneei babestuan kontserbatu beharreko elementuetarako, dokumentu honetan ezarritako azken helburuen eta helburu operatiboen jarraipena egiteko beharrezkoak diren adierazleak. Kasuan-kasuan, finkatuko da abiapuntuko balioa eta, modu orientagarrian, erreferentziazko balio objektibo bat eta denbora-muga bat.

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
BASOAK	Ameziaren banaketa-eremua eta zonako gainerako intereseko eremuak kontserbazio-egoera onean mantentzea	9230 BIHak (Batasunaren Intereseko Habitatak) modu partzialean okupatutako azalera	3.678,199 ha	Azalera mantentzen edo gehitzen da	2030	6 urtetik behin
	Izkiko amezietan eta pagadietan estratifikazioa, dibertsitate espeziifikoa, egur hila-ren presentzia eta bestelako egitura-balioak eta balio funtzionalak gehitzea	Basoak AECan agertzen diren BIHen egitura-egoera	Egoera desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
	Abelburuek haginaren bitsortze naturalaren gainean duten presio negatiboa ezabatzea eta horrekin hagin-basoen hedadura gehitzea	Izkin haginaren birsorkuntza errespetatzea	Modu partzialean eginda	Gutziz eginda	2030	Behin
	Kontserbazio-intereseko zat jotzen diren flora- eta fauna-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea edo mantentzea, eta horien dibertsitatea kontserbatzearen garrantzia dibulgatzea	<i>Dryopteris carthusiana</i> espeziearen populazioa gehitzen da <i>trianthus</i> espeziearen populazioa gehitzen da <i>trianthus</i> azpiespeziearen azalera eta populazioa gehitzen da	Desegokia	Populazio kopurua gehitzen da	2030	6 urtetik behin
			Desegokia	Azalera gehitzen da	2030	6 urtetik behin

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
		Izkin <i>Sorbus latifolia</i> espeziearen azalera eta populazioa gehitzen da	Desegokia	Azalera gehitzen da	2030	6 urtetik behin
		Basoak AECko baso-ornogabeen espezieen populazio-mailak ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
		Miru gorriaren populazio-maila ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
		Okil beltzaren populazio-mailak ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
		Basoak AECko baso-kiropteroen espezieen populazio-mailak ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
	Izkiko ondare naturalaren kontserbazioarekin bateragarriak diren edo lagungarriak diren baso-larregintzako eta basogintzako aprobexamenduen aukerak harmonizatzea eta hobetzea, produktibitate ekonomikoa, eskualdearen nortasuna eta Izkiko eta inguruneke biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko bide gisa	Funtsezko elementuen kontserbazioarekin bateragarriak diren baso-larregintzako ekimen sozioekonomikoak	Ezezaguna	>5	2030	Behin

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
LARREAK ETA TXILARDIAK	Izkin, ameztiaren eta larre-eta txilardi-habitaten banaketa-eremuaren kontserbazio-egoera onari eustea eta horien ezagutza hobetzea	6230* BIHak okupatutako azalera	77.580 ha	Mantentzen da edo gehitzen da	2030	6 urtetik behin
		6210(*) BIHak benetan okupatutako azalera ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
		4030 BIHak okupatutako azalera	368,917 ha	Mantentzen da edo gehitzen da	2030	Behin
		<i>Ophrys aveyronensis</i> espeziearen populazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
	Kontserbazio-interesekoizat jotzen diren flora- eta fauna-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea edo mantentzea, eta horien dibertsitatea kontserbatzearen garrantzia dibulgatzea	<i>Senecio doronicum</i> espeziearen <i>doronicum</i> azpiespeziearen populazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		<i>Scorzonera aristata</i> espeziearen banaketa-eremua eta populazio-kontingentea ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
	<i>Halimium lasianthum</i> espeziearen <i>alyssoides</i> azpiespeziearen kontserbazio-egoera Izkin.	<i>Halimium lasianthum</i> espeziearen <i>alyssoides</i> azpiespeziearen kontserbazio-egoera Izkin.	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)	
ZOHIKAZTEGIAK	Habitat higraturbosoetako mosaikoen kontserbazio-egoera egokiari eustea	7140, 7150 eta 7230 BIHen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin	
		4020* BIHaren kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin	
	Txilardi heze atlantikoak 4020* BIHaren habitataren kontserbazio-egoera eta funtzio ekologikoak hobetzea	4020* BIHaren azalera	0, 1381 ha	Mantentzen da edo gehitzen da	2030	6 urtetik behin	
		<i>Senecio carpetanus</i> espeziearen banaketa eta populazioa ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin	
	Zohikaztegi-giroko flora-guztien banaketa-populazioen eremua mantentzea eta horien ziurtatzea eta populazioak ezagutzea eta populazioak hobetzea	<i>Senecio carpetanus</i> espeziearen kontserbazio-egoera					
		<i>Spiranthes aestivalis</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin	
		<i>Triglochin palustris</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin	
		<i>Carex davalliana</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin	
		<i>Drosera longifolia</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin	

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
		<i>Epipactis palustris</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		<i>Primula farinosa</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		<i>Rhynchospora fusca</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		<i>Drosera intermedia</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		Galzoriko espezieen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		Espezie kalteberen kontserbazio-egoera	Txarra	Hobekuntza adierazgarria	2030	3 urtetik behin
HAITZULOAK, HARKAIZTEGIAK ETA HORIEKIN LOTZEN DIREN HABITATAK	Flora mehatxatuaren populazioen jarraipena eta Natura-ondarearen gune babestuko jarduketan eraginkortasunaren ebaluazioa. Flora mehatxatuko espezieak leheneratzeko planetan ezarritako neurriak gauzatea, eta kudeaketa-plan espezifikorik ez duten flora mehatxatuko espezieen leheneratze-planak egin daitezen sustatzea	Espezie kalteberen kontserbazio-egoera	Txarra / Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
IBAI-SISTEMA	<p>Espezie errupikolen kontserbazioa, betiere habiak egiteko puntuen babes zorrotzaren bidez, elikadura- eta bizi-eremuaren beharrezko azalera minimoaren kontserbazioaren bidez eta hilkortasun-kausa ez naturalak ezabatzearen bidez. Espezie nekrofagoetarako eskaintza trofiko egokia bermatzea</p> <p>Ur-guneen ezaugarri biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak hobetzea eta horien ertzak lehenera daitezen sustatzea</p> <p>3170* BIHaren duen azaleraren ezaugutza hobetzea, baita bertako flora-komunitatearen problematika ere, banaketa-eremuaren mugan baitago</p> <p>7220* habitata agertzen den enklabeen azalera eta kalitatea mantentzea; zehazki, ur-jauzia elikatzen duen erreka uraren kalitatea ezaugutzea eta kontrolatzea, haren balizko eraginak eta aldakuntza-faktoreak</p>	<p>Espezie nekrofagoen eskakizun trofikoak (kg/urte)</p> <p>Arrano beltzaren kontserbazio-egoera</p> <p>Arrano beltzaren banaketa</p> <p>Haitzuloak, harkaiztegiak eta horiekin lotzen diren habitatak funtsezko elementuko kiropteroen populazioa ezaugutzea</p> <p>3170* BIHaren kontserbazio-egoera</p> <p>3150, 7220* eta 92A0 BIHen kontserbazio-egoera</p> <p>3170* BIHaren azalera</p> <p>3170* BIHaren benetako azalera eta banaketa ezaugutzea</p> <p>7220* BIHaren azalera</p> <p>91D0* BIHaren benetako banaketa ezaugutzea</p>	<p>Txarra (saizuria) / Desegokia (gainerakoak)</p> <p>Desegokia</p> <p>Ezezaguna</p> <p>Ezezaguna</p> <p>Txarra</p> <p>Desegokia</p> <p>0,570 ha</p> <p>Ezezaguna</p> <p>0,0141 ha</p>	<p>Hobekuntza adierazgarria</p> <p>Hobekuntza adierazgarria</p> <p>Ezaguna</p> <p>Ezaguna</p> <p>Hobekuntza adierazgarria</p> <p>Hobekuntza adierazgarria</p> <p>Azalera gehitzen da</p> <p>Ezaguna</p> <p>Azalera gehitzen da</p>	<p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p> <p>2030</p>	<p>Urtero (saizuria)/ 3 urte (gainerakoak)</p> <p>6 urtetik behin</p> <p>6 urtetik behin</p> <p>6 urtetik behin</p> <p>Urtero</p> <p>Behin</p> <p>6 urtetik behin</p> <p>6 urtetik behin</p> <p>6 urtetik behin</p> <p>Behin</p> <p>6 urtetik behin</p>

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
	Haltzadien eta sahastien azalera eta egitura mantentzea edo gehitzea, eta arreta berezia jartzea zohikazietatik haitzadietara, horien bakantasanagatik, flora- aberastasunagatik eta zaurgarritasunagatik	92A0 BIHak okupatutako azalera	Modu partzialean ezaguna	Ezaguna	2030	Behin
	Okarren kontserbatuta dauden ibai-tarteetako landarediaren azalera gehitzea eta landaredi horren funtzioak eta konposizio estrukturala hobetzea, batik bat sahasiena eta makaldi mediterraneoena (92A0 BIH).	<i>Litorea uniflora</i> espeziearen kontserbazio-egoera	5,082 ha	Azalera gehitzen da	2030	6 urtetik behin
		<i>Nymphaea alba</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
	Giro urtarretako flora-espezieen banaketa-eremua eta populazioak mantentzea eta, ahal den heinean, hobetzea.	<i>Utricularia australis</i> espeziearen kontserbazio-egoera	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
		Ibai-karramarro autoktonoa agertzen den enklabeen kopurua	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
	Ibai-karramarroaren egungo banaketa ezagutzea eta banaketa-eremua handitzea, karramarro aloktonoen populazio berriak agertzea sailhestuz eta lehenengoaren populazio-guneetarantz hedatu daitezkeen sailhestuz	Karramarro aloktonoa agertzen den enklabeen kopurua	Ezezaguna	Ezaguna	2030	6 urtetik behin
		<i>Aeshna affinis</i> eta <i>Coenagrion mercuriale</i> espezieen populazio-maila ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	6 urtetik behin

2023ko martxoaren 20a, astelehena

Funtsezko elementua	Helburu operatiboa	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako balio objektiboa	Horizontea	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
		<i>Discoglossus jeanneae</i> eta <i>Rana dalmatina</i> espezieen populazio-maila ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
		Igaraba-populazioa ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
	Izkin kontserbazio-interes handieneko odonatuak, anfibioen eta haragijale erdiurtarren populazioak babestea eta ezagutzea eta horien hedapena sustatzea	<i>Armeria arenaria</i> espeziearen <i>burgalensis</i> azpiespeziearen populazioaren kontserbazio-egoera <i>Coeloglossum viride</i> espeziearen populazioaren kontserbazio-egoera	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Behin
		Atauriko mehatzearen eta harrobiaren kontserbazioa ziurtatzea	Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
			Desegokia	Hobekuntza adierazgarria	2030	6 urtetik behin
GEOLOGIA INTERESDUN LEKUAK	Izki esparruko eta haren Babes zona periferikoko geologia interesdun lekuen kontserbazioa ziurtatzea		Txarra	Sarbidea eta azaleratzeak egokitu dira, bisita eta behaketa ahalbidetzeko	2030	Behin